BIBLIOTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

Universidad del País Vasco

Lekugune Erlatiboen Eremu Lexikala Ingeniaritzako Proiektuen Beharrizanei Erantzuteko

Jaime Kortabarria Onaindia

Tesis de Doctorado

Facultad: Escuela Técnica Superior de Ingenieros de Bilbao
Directores: Dr. Andoni Sagarna Izaguirre
Dr. Jokin Gorozika Bidaurrazaga

1999

Lekugune Erlatiboen Eremu Lexikala Ingeniaritzako Proiektuen Beharrizanei Erantzuteko

Doktorego Tesia

BIBLIOTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

Jaime Kortabarria Onaindia

AURKIBIDEA:

ATARIKOA **9**

1. ATALA **13**

PROIEKTUA ETA KOMUNIKAZIOA 13

1.0 Sarrera *13*

1.1 Ingeniaritzako Proiektua *14*

1.1.1 Proiektuetako parte idatzia 15

1.2 Komunikazioa *15*

1.3 Proiektuetako hizkuntza *19*

1.3.1 Hizkuntza teknikoa 20

1.3.2 Euskara teknikoa 21

1.3.3 Proiektuetako komunikazioan dagoen arazoetarik bat 22

1.4 Hiztegiak arazo honen ebazpidean *25*

1.5 Beharrizanei erantzuteko egingo dena *26*

2. ATALA **29**

ARIBIDEA 29

2.0 Sarrera *29*

2.1 Xedea *31*

2.2 Tesilanaren atalak *31*

2.3 Espazioaren garrantzia hizkuntzan *32*

2.4 Tesilaneko azterkuntzaren esparrua *33*

2.4.1 Lekugune erlatiboak 33

2.4.2 Semantika lexikala 34

2.4.3 Deixia 36

2.4.4 Beste zenbait esparruratze 36

2.5 Terminoak *36*

2.6 Erdaretako lanak lekugune erlatiboez-edo *42*

2.6.1 G. N. Leechen ekarpena 43

2.6.2 Andrée Borilloren *Le lexique de l'espace* 45

2.6.3 Deskripzio funtzionalak, pragmatikoak eta kognitiboak 46

2.6.4 Hizkuntzalaritza-teoriak indartzeko egindako azterkuntzak 48

2.6.5 L. Talmyren irudikapen eskematikoa 48

2.6.6 Ondorioak 52

2.7 Lekugune erlatiboen adieretara heltzeko bidea *53*

2.7.1 Corpusen Beharra 53

2.7.2 Corpusen Ezaugarriak 54
2.7.3 Euskalkien arteko desberdintasunak 56
2.7.4 Lekugune erlatiboen zerrendaren osakera 58
2.7.5 Corpusetatik adieren eduki semantikorako bidea 59
2.8 -ti atzizkidun lekugune erlatiboak (LE hedatuak) 62
2.8.1 Aurreko zenbait datu 63
2.8.2 Izaera Deiktikoa eta Deklinabide Urria 65
2.8.3 Corpusetatik ateratako esanahiak 66
2.8.4a Tidun LEen esanahia 67
2.8.5 Leku geometrikoa 70
2.8.4b Tidun LEen azterketa (jarraipena) 71
2.8.6 Deklinabide urria 76
2.8.7 Ondorioak laburbilduta 76
2.9 Izen-sintagma 77
2.9.0 Aurkezpena 77
2.9.1 Sintagma moetak 78
edutezko genitiboduna 78
hitz elkartea 79
zeren-eredukoa 79
lexikalizazioa 79
ko atzizkiduna 79
bertan-eredukoa 82
2.10 "Alde" hitzaren esanahi espazialak 83
2.10.0 Aurkezpena 83
2.10.1 Alderen polisemia 83
2.10.2 "Alde" deiktikoa 88
2.10.3 LE alde 88
2.10.4 **Alde**k duen bezalako erabilera LE enparauetan 89
2.11 Norakotzeak 90
2.11.1 Bi edo hiru termino 90
2.11.2 Aurkezpena 91
2.11.3 Tesilan honen esparrua 93
2.12 LE + atzizki alderatzaileak 94
2.12.1 LErago 94
2.12.2 LEen 95
2.12.3 LE absolutuak 95
2.13 Ur, lur, hare eta ekai lokabetan 96
2.14 LEen bilakaera lehengo batetik gaurkora 97

3. ATALA 99

LEKUGUNE ERLATIBOEN EREMU LEXIKALA 99

3.0 Sarrera 99

3.1 Teoriako eta tesilaneko nomenklatura 101

3.2 Lekugune Erlatiboen Eremu Lexikaleko Hitzak 102

3.2.1 Lar egon daitezkeenak 104

3.2.2 Berariaz kendutakoak 105

3.3 Lekugune Erlatiboen Analisia 108

3.3.1 Lekugune erlatiboen lehen sailkapena 109

3.4 Lekugune erlatiboen banako azterketa 114

3.4.1(A) taldean, goitik beherakoan: 116

gain 116

gaindi 121

garai 124

garaiti 126

goi 127

goiti 133

erdi 135

barren 135

behe 140

behere 147

beheti 149

-pe(-be) 150

azpi 155

3.4.2(B) taldean, horizontalean atzetik aurrerakoan: 160

atze 160

gibel 165

erdi 170

bitarte 170

aitzin 170

aurre 173

3.4.3 (B) taldean, horizontalean lateralean: 178

albo 178

aldamen 182

alde 186

saihets 191

zehar 194

erdi 195

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

3.4.4 (B) taldean, horizontalean edonorakoan: 196
albo$_5$ 196
aldamen$_4$ 198
alde$_{4-5}$ 200
alderdi$_2$ 203
barano 204
barrunbe 205
barruti 206
bazter 206
bitarte 210
erdi 210
inguru$_2$ 211
ondo 213
oste 215
3.4.5(C) taldean, edonorakoan: 218
alde$_{6-7-8}$ 218
alderdi 223
arte 226
at 229
barne 231
barren 235
barru 238
barrunbe 242
bitarte 244
erdi 247
ertz 253
gain$_3$ 258
gaindi 260
handi 260
haraindi 263
hegal 265
hegi 270
hemendi 275
honaindi 279
hondo 280
horraindi 285
horti 287
inguru$_1$ 290

iraitz 292
kanpo 294
landa 298
lekore 300
mangune 302
sakon 303
urruti 306
3.5 Emaitzak 309
3.5.1 LEen kopuruari eta sailkapenari dagokienez. 309
3.5.2 LEen ulerkera anitzari dagokionez 310
3.5.2.1 zenbait punturen lekutze erlatiboen adierazpenak goitik beherako norabidean 312
3.5.2.2 goitik beherako lekugune erlatiboen hedadura semantikoak 313
3.5.2.3 Zenbait punturen lekutze erlatiboen adierazpenak atzetik aurrerako norabidean 317
3.5.2.4 atzetik aurrerako lekugune erlatiboen hedadura semantikoak 318
3.5.2.5 Zenbait punturen lekutze erlatiboen adierazpenak norabide lateralean 321
3.5.2.6 albotik alborako lekugune erlatiboen hedadura semantikoak 322
3.5.2.7 Horizontalean edonorakoan (B_3 azpitaldeko) lekugune erlatiboen hedadura semantikoa 323
3.5.2.8 Edonorakoan (c taldean) 326
a)Espazioa bitan zatituz gero, espazioaren zati bata direnak: 326
b)Abiakian bertakotasuna adieraztekoak: 327
c)Abiakian azalekotasuna adieraztekoak: 329
d)Abiakitik apartetasuna adieraztekoak: 329
e)Abiakiaren perimetroaldea adieraztekoak: 330
f)Abiakian espaziorik sartuena adieraztekoak (abiaki ahur eta kofadunetan batez ere): 332
g)Abiaki bat baino gehiagorekiko espazioak adieraztekoak: 334
h) Abiakia eta zuin batekiko espazioak adieraztekoak: 336
3.5.3 Emaitzetatiko ondorioak 345
4. ATALA 347
EREMU LEXIKALA INGENIARITZAKO PROIEKTUETAN ERABILTZEKO BALORAZIOAK, IRADOKIZUNAK ETA KONKLUSIOAK. 347
4.0 Sarrera *347*
4.1 Balorazio puntualak LEak banaka hartuta *349*
4.1.1 Norabide guztietan 349
4.1.2 Goitik beherakoan 349
4.1.3 Norabide horizontalean atzetik aurrerakoan 351
4.1.4 Norabide lateralean 351
4.1.5 Horizontalean edonorakoan 352

4.1.6 Edonorakoan (C taldea) 353
A)Espazioa bitan zatituz gero, espazioaren zati bata direnak 353
B)Abiakian bertakotasuna adieraztekoak 354
C)Abiakian azalekotasuna adieraztekoak 355
D)Abiakitik apartetasuna adieraztekoak 355
E)Abiakiaren perimetroaldea adieraztekoak 356
F)Abiakian espaziorik sartuena adieraztekoak (abiaki ahur eta kofadunetan batez ere) 356
G)Abiaki bat baino gehiagorekiko espazioak adieraztekoak 356
H)Abiakia eta zuin batekiko espazioak adieraztekoak 357
4.2 Balorazio puntualak taldeka 357
4.2.1 Norabide bertikalean (Goitik beherakoan) 357
4.2.2 Norabide horizontalean atzetik aurrerakoan 358
4.2.3 Norabide lateralean 359
4.2.4 Horizontalean edonorakoan 359
4.2.5 Edonorakoan (norabide guztietan) 360
A)Espazioa bitan zatituz gero, espazioaren zati bata direnak 360
B)Abiakian bertakotasuna adieraztekoak 360
C)Abiakian azalekotasuna adieraztekoak 360
D)Abiakitik apartetasuna adieraztekoak 361
E)Abiakiaren perimetroaldea adieraztekoak 361
F)Abiakian espaziorik sartuena adieraztekoak (abiaki ahur eta kofadunetan batez ere) 362
G)Abiaki bat baino gehiagorekiko espazioak adieraztekoak 362
H)Abiaki eta zuin batekiko espazioak adieraztekoak 362
4.3 Balorazio puntualak guztikoan 363
4.4 Egindako urrats nagusiak eta konklusio orokorrak 365

BIBLIOGRAFIA.....367

ERANSKINA.....i

BIBLIOTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

Atarikoa

Espaziorik gabe, ezin da ezer edo inor egon, ez eta ezer egin ere. Gizakia horregatik, laster jabetu zen espazioaren garrantziaz, eta antzina ikasi zuen kontzeptu espazialak hitzez adierazten. Gauza bat beste batekiko non dagoen edo non egon behar lukeen adierazten ere bai. Geroago ikasi zituen Geografia, Matematika, koordenatu cartesiar espazialak, eta abar.

"Gauza bat beste batekiko non" adierazteko, euskaraz honelako eta antzerako hitzak erabiltzen dira: aurre, azpi, goi, gain, gaindi. Eta horiek eta antzerakoak dira lekugune (edo posizio)[1] erlatiboak.

Lekugune erlatibo horiek, eta denek daukate berezitasun hau, ezin dira leku konkretuen izen izan; hau da, ezin dakioke leku konkretu bati "goi" edo "gain" deitu, beti erreferentziaren bat behar baita, eta erreferentziaren aipamena eginez "zerbaiten gainean", "nonbaitetik urruti", eta abar izanik beti. Horra beren erlatibotasuna.

Euskara arruntean, artisauen euskaran, eta aurreko euskara moeta guztietan oinarriturik euskara teknikoa eratu nahi den garaietan gaudenean biziki eskertzen dira definizio semantiko zehatzak, besteak beste. Hori egia izanik kutsu teknikoa duten hitzei buruz behintzat, are premiazkoagoa da euskara teknikoaren, zein erdara teknikoen, oinarriko lexikoan dauden hitzei buruz. Eta tesi-lan honetako gaia euskara teknikoaren oinarrikoa da, euskara arruntetik datozen lekugune erlatiboak baitira ingeniaritzako proiektuetan ere gauzak lekutzeko erabiliko direnak, lehen edo oinarriko hurbiltzean behintzat. Eta lehen edo oinarriko hurbiltzean, urrun edo oker lekutzen bada, geroko mikrometro eta zehazbide guztiak alferrikoak izango dira.

Espazioan orientatu beharreko lanak egiteko jarraibideak, hitzez bakarrik, bai ahoz zein hitz idatziz, zein telefonoz, gutxitan eman izan dira euskaraz, eta jarraibide bakunak izan dira eman direnean, bestela alferriko mezua izango zatekeen eta. Sarritan mezu edo jarraibide laburrak ere alferrikoak izaten dira,

[1] Posizio hitzak, esanahi kontrajarri bi ditu erdarez, eta ondorioz euskaraz; eta horregatik baztertu da. Jakina, Lekugune Erlatiboa hemen baino hobeto definituko da geroago. Hemengoa Atarikoa ulertzeko baino ez da.

horiek ere mezu-hartzaileak ez baititu igorleak nahi bezala edo teknikak eskatzen duen zehaztasunaz ulertzen. Euskara teknikoz espazioko mezu luzeagoak eman behar izaten dira, eta batzuetan irudiz izan arren, idatziz ere mezu luzeska asko eman behar izaten dira proiektu teknikoak bezalako lanetan, igorlea ziur egonik eta hartzaileari espazioan galbiderik eman gabe.

Ingeniaritzako ikasle euskaldunei marraztu etxe bat arbelean eta *etxearen alboa* non den edo zer den galdetuz gero, era guztietako erantzunak hartzen dira; eta noski, *alboaren* ordez *aldea* erabiltzen dela ere izaten da erantzuna, eta *saihets* hitza ere inoiz entzun dela, eta *zehar* hitza ez du inork aipatzen ahaztuta baitago. Ikasle beraiei eskatu *oholaren ertza, hegala, hegia eta bazterra* bereizteko eta bereiz daitezkeenik ere ez dakite, nahiz eta oholaren parte desberdinak begi bistan daudelako, edo erdaraz ikasita edo, bereiztea merezi duena badakiten. Eta ikasleei ezin zaie errurik egotzi, beharrezkoa izan arren, oholaren zati desberdinok hitzez bereizten inork ere ez baitaki, baten batek bere sistema partikularraz badakiela uste izan arren. "Lapikoaren azpia" esatean ere, ez dakigu metalezkoa den azpi hori lapikoa metalezkoa delako, ala lapikoa baino beherago dagoen espazioa den; edo “kaxaren azpia”, kartoizkoa ala beheragoko baldosazkoa-edo den.

Ulerkuntza are okerragoa da ohola eta lapikoa bezain gauza ezagunak, eite definitukoak, ez direnean; hau da, jakintza estralinguistikoa falta zaigunean. *Piezaren ertza* edo *pieza azpia* okerrago ulertzen dugu, edo guztiz oker ulertzeko beldurrez ulertzen dugu.

Hortaz, definizio eza eta sinonimia eta polisemia handiegiak direla-eta, gaur egun nahastea eta ulertu ezina dago lekugune erlatiboen eremuan, egoera horren zergatiak leba handirik ez diola, zergatia euskalkiz euskalki dagoen desberdintasuna izan daitekeen arren, edo euskaraz eman diren jarraibideak jende ugarik ulertu behar dituen lanetarako inoiz ere emanak ez izatea izan daitekeen arren, edo beste zergatiren bat izan daitekeen arren.

Badirudi artisauek orain arte nahiko ondo elkar ulertu dutela; baina artisauek erraztasun handi bat behintzat izaten dute, hain zuzen ere bai lana zein solaskidea aldamenean izaten dituztela; eta "hau horren behean ipintzen..." erako azalpenak, eskuen eta behar diren planta eta parizten laguntzaz, baliagarri eta nahikoa izaten zaizkie elkar ulertzeko. Gainera artisauek, eta denok, behar-beharrezko errazkeria ere izaten dugu, euskaraz bidea oztopoz beteta daukagula igartzen dugunean erdarara "deskarrilatzeko" errazkeria, alegia.

Aipatutako sinonimia eta polisemia erakusteko, euskaraz **ertz, hegi, hegal** eta **bazter** ditugu, guztiz sinonimoak lehen hirurak eta laugarrena ia-ia; denek [*marjen* + *arista* + *canto* + *borde exterior*] adierazten dute, eta ondorioz batek ere

ez erdarako kontzeptu horiek banakoan. Eta hemen ez da banakoan adierazi behar dutela esaten, kontzeptu horiek banan-banan adierazteko erak behar direla baizik, kontzeptuok beharrezkoak baitira. Eskala horretan lan egin behar dutenentzat, eta langile askok behar dute eta badago eskala txikiagorik, eskala handiagoan [mendi + ibar + ibai] adierazteko lau sinonimo egon eta hiru kontzeptu horiek banakoan adierazteko hitzik ez balego bezalakoa da. Gainera lau sinonimo horiek alferrekoak izango lirateke marinelen *lehorra* dagoenean. Antza denez, gure ertzak eta hegiak ere mailebuz ordeztu beharko ditugu, atzamar handi eta ukimen txikikoen artean lorrindu zaizkigulako.

Esandako hori laburbiltzeko, euskaraz *erantzukizun txikiko esaldiak baino ez direla egin* esan ahal da, erantzukizun handiagoa egon denean erdaretara eta azalpen bisualetara jo izan baita. Eta ohitura horren ondorioak agerikoak dira azalpen, argibide eta jarraibide zehatzak eman nahi direnean. Proiektuetako zenbait esaldik, adibide bat emateko, dirutza handia balio izaten du, oker edo era askotan ulertzen bada horrenbeste galtzen delako.

Ingeniaritzako proiektuetan, azalpen, argibide eta jarraibide horiek idatziz, beste baliabiderik gabe eman beharko dira. Euskara Teknikoak definituago eta brintzalago izan behar du arlo honetan ere, lekugune erlatiboen sistema edo eremu lexikal honetan ere.

Aipatutako definizio eza eta zehaztasun eza konpontzen lagunduko duen ekarpena egin nahi da tesilan honen bidez.

1. Atala

Proiektua eta Komunikazioa

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

1.0 Sarrera

Arazoren bat txikiagotzeko edo gainditzeko hazten da lan asko, eta tesi-lan honen bidez arazo bat konponbidean sartu nahi da.

Lehen atal honetan, tesilanaren zioa azalduko da: arazoa non dagoen, zein den, eta konpontzeko, zer egin behar izango den. Zer hori, zelan egingo den, ez da oraingoz azalduko.

Atal honen izenburuan, esanahi zabaleko hitz bi daude: proiektua, eta komunikazioa. Eta hitz bi horiek adierazitako kontzeptu zabalak abiapuntu bezala hartuta, tesi honetako lan-esparrua txikiagotzeko eta mugatzeko ahalegina egingo da; eta aldi berean, gaiak eta arazoak tesilan honetako kontestuan jartzeko ahalegina egingo da. Horrela, baita ere, tesiaren izenburuko "Ingeniaritzako Proiektuen Beharrizanak" zeintzuk eta zer nolakoak diren jakingo da, beti ere tesiko esparruan eta kontestuan.

Behin kontesturatze, esparruratze eta zer-nolakotze hori eginda, aurrera bidean, bigarren ataleko atazari heldu ahal izango zaio.

1.1 Ingeniaritzako Proiektua

Proiektuaren kontzeptua definigaitza da, proiektatutakoak gauza zeharo desberdinak izaten direlako, eta proiektu bat burutzeko, adibidez, ehun lan-ordu behar izan arren, beste bat burutzeko hamar milioi lan-ordu behar izango baita. Proiektua motore bateko gailu txiki bat izan, ibilgailu oso bat izan, informazio sistema berri bat izan, ala erakunde baten egitura osoa aldatzea izan, alde nabarmena egongo da bere definizioan, definizio zehatza nahi bada. Horrela ere, proiektu guztien ezaugarri amankomunak biltzen dituen definizioren bat eman daiteke, hala nola Project Management Institute Standards Committee delakoak bere *A guide to the Project Management Body of Knowledge*[2] liburuan eman duena: *proiektua, aldi bateko ahalegina da, munduan bakarra den zerbitzu edo produktu bat sortzeko egina*[3]*.* Gero, liburu horren egileek paragrafo asko darabilte definizio hori zehazten.

Horrez gain, proiektua amaitzen den fasea ere desberdina da teoria eta autoreen arabera. Proiektu tradizionala, produktua ekoiztu denean amaitzen da; hau da, proiektuaren agiriak (planoak eta abar) egin eta ekailana[4] zuzendu denean. Gaur egun autore askorentzat, kontsumoa, mantenimendua, erabilpenetik kentzea eta birziklatzea ere proiektuko faseak dira. Tesilan honetan, eta tesiaren helburuetarako nahikoa denez, proiektu tradizionala baino ez da gogoan izango.

Ikuspuntu lexikologiko batetik begiratuta, proiektu hitza, hitz mailebatua da. Erdaretan, zentzu orokorrenean, zerbait egiteko plana edo egitasmoa esan nahi du, zerbait hori jarduera bat edo objektu bat izanik. Elhuyarren Hiztegi Entziklopedikoan ere *egitasmo* dator lehen adiera bezala.

Arkitektura edo ingeniaritzako proiektu bati proiektu deitzean ez dago kontraesanik, arkitekturakoak eta ingeniaritzakoak ere egitasmo baitira; baina hiztegiek, erdaraz zein euskaraz, eta arrazoi handiz, beste adiera bat dela diote, proiektu hori egiteko eta aurkezteko urratsak, metodoak eta agiriak era berezian zehaztuak eta arautuak daude eta. Horrela, Elhuyarren Hiztegi Entziklopedikoak, proiektu hitzaren 3. adiera, *egin nahi den obra, eraikin, instalazio, makina, eta abarri buruzko plano eta dokumentuen multzo* bezala definitu du; eta lehen aipatutako proiektu tradizionaletik hurbil dago definizio hori, antza denez ekailana

---

[2] Aurrerantzean, bibliografiako liburuak aipatzeko, nomenklatura hau erabiliko da: [Autorea (urtea)]

[3] Jatorrizkoa: A project is a temporary endeavor undertaken to create a unique product or service.

[4] Ingeniaritzako proiektuetako terminoa da. Behin papereko lana (planoak eta) eginda, proiektukoa ekoizteko, obran edota lantegian langileek eta makinek egiten duten lana da.

zuzentzea kendu badio ere. Hain hitz gutxitan esateko, ondo definitu du ingeniaritzako proiektua, eta definizio horrek nahikotasunez balio du tesilan honetarako, zehaztasun handiagoa zehazkeria izango bailitzateke hemen azaldu nahi dena azaltzeko. Eginkortasun txostena ere kendu egingo da, proiektuaren hasieran garrantzi handikoa izan arren, agiri txikiago bat delako. Eta horrela, proiektu tradizionalean, ekailana baino lehen, paperean idatzita eta marraztuta agertzen dena geratzen da; eta tesilan honetan, horri deituko zaio (Ingeniaritzako) Proiektu, hori baino behar ez baita tesiko lanerako.

1.1.1 Proiektuetako parte idatzia

Proiektuak bost agiri izan ohi ditu:

1) Memoria
2) Kalkuluak
3) Planoak
4) Baldintza Plegua
5) Aurrekontua

Eta bost agiriok, agiri publikoa den proiektua osotzen dute.

Memorian, objektuak eta jarduerak deskribatu egiten dira, gehienbat; baina baita gauzak egiten diren eran egiteko arrazoiak azaldu ere, eta gauzen egikerako zenbait jarraibide eman ere bai. Hortaz, idazkia da, deskripzio-idazkia gehienbat, eta prosa da. Kalkuluak deitutako agirian Matematikako, Fisikako eta beste zientzietako ikurrak erabiltzen dira, baina prosa ere bai. Planoetan adierazpide grafikoak erabiltzen dira, baina zenbait azalpen idatziz ematen dira. Baldintza Pleguko hizkuntza, jarraibide-hizkuntza gehi lege- edo arau-hizkuntza izaten da. Aurrekontuan, zenbakiak eta deskripzio-testua agertzen dira.

Proiektua, batez ere prosa idatzia dena agerian dago. Ezin da kalkulatu proiektuaren ehuneko zenbat den prosa, horretarako irizpide onarturik ez dagoelako, eta proiekturik proiektura ere aldea izaten delako, baina zenbaki bat behar izanez gero, proiektu bakoitzean laurehun orrialde idatzi behar direla esateak zentzuzkoa dirudi. Idatzitako testu horretatik deskripzio-testua da gehien, jarraibide-testua hurrengo, azalpen-testua gutxiago, argudio-testua nekez, eta narrazioa nekezago.

1.2 Komunikazioa

Proiektuari buruz, autore biren tratatu bi, klasiko bihurtu dira: Morris Asimow-ren 1962ko *Introduction to Design*, gero 1968an *Introducción al Proyecto*

bezala itzulia, eta Thomas T. Woodson-en 1966ko *Introduction to Engineering Design*[5] . Biek azpimarratu dute proiektuan komunikazioak duen garrantzia. Asimow-k, komunikazioa proiektuaren oinarriko postulatuetarik bat egin zuen, bere hitzetan "proiektua, gauzen deskripzioa eta gauza horiek egiteko jarraibideak ematea baita; eta horregatik, deskripziook eta jarraibideok era egokian komunikatzen ez badira, proiekturik egon ere ez dago." Baina Asimow-k postulatu horren adierazpenaz gainera, ez zuen proiektuko komunikazioa tratatu; Woodson-ek bai ordea, eta hurrengo paragrafoetan azalduko da haren burubidea.

Orain hemen, komunikazio-kontzeptu hori azaltzeko, eta gero komunikazioa proiektuan zer den eta zeinen garrantzizkoa den azaltzeko, leiho bat ireki behar da Informazio Teorian; leiho txikia, proiektuari dagokiona apur bat argitzeko bezainbestekoa baino ez; teoria horretako zenbait kontzeptu eta ulerkera eguneroko eta proiektuko komunikazioan garrantzizkoak direlako baino ez, bestela teoria hori aipatu beharrik ere ez legoke eta.

Komunikazio-sistema baten elementuek osotzen duten bloke-diagrama, Shanon eta Weaver-ek aurkeztu zuten beren *Mathematical Theory of Communication* liburuan, 1949an[6]. Beraiena sistema fisikoa da izatez: mekanikoa, akustikoa, edota elektrikoa. Bertan, nahi den mezua bidaltzeko, igorgailuak kodetu lehen eta seinale eran bidaltzen du gero; hargailuak hartu eta dekodetu ondoren, jasotzailearengana doa mezua; igorgailuaren eta hargailuaren bitartean zarata[7] sortzen da.



Shannon eta Weaver-en komunikazio elementuen bloke diagrama

[5] Aurrerantzean, bibliografiako liburuak aipatzeko era, honelakoa izango da: [Asimow, Morris (1962)] eta [Woodson, Thomas (1966)]

[6] Bibliografian, [Shanon, Claude; Weaver, Warren (1981)]

[7] *Noise* ingelesez. Interferentzia horiei deitzeko, "zarata" darabilte informatika mundukoek euskaraz.

Gero 1954ean, Wilbur Schramm eta Donald Roberts-ek *The Process and Effects of Mass Communication* liburuan[8], diagrama hori, giza komunikaziorako, honela egokitu zuten :



Wilbur Schramm-en bloke diagrama, giza komunikaziorako

Atzera-elikatzea (*feedback* ingelesez) diagraman sartzea ohartzekoa da Schramm-en diagraman. Komunikazioa, gizakien artean behintzat, ez da ulertzen atzera-elikatze eta berrekite hori gabe.

Geroago, Thomas T. Woodson-ek, 1966ko bere *Introduction to Engineering Design* liburuan[9], proiektuko komunikazioan sartu aurretik, Shannon eta Weaver-en komunikazio fisikoaren diagrama honela egokituta utzi zuen:



Woodson-en bloke diagrama, komunikazio guztietako oinarriko elementuak erakusteko

Hor oraindik, zaratak fisikoak dira: ondo ez dabiltzan trantsistoreak, elektrizitate estatikoa, oker induzitutako korronteak, balbula matxuratuak eta

[8] Bibliografian, [Schramm, Wilbur; Roberts, Donald (1971)]

[9] [Rosenstein, Allen B.; Rathbone, Robert R.; Schneerer, William F. (1970) *Las Comunicaciones en la Ingeniaría*] liburuan oso antzerako arrazoibideak eta nomenklatura ageri dira.

abarrek eragindakoak. Telefonozko komunikazioa gogoan eta, —lehen, gaur egun baino sarriago— ondo entzutea galarazten zuten interferentziak dira diagramako zaraten adibide ona.

Behin proiektuko komunikazioan sartuta, Woodson-ek hurrengo bloke-diagrama hau erakutsi du proiektuko komunikaziorako:



Woodson-en bloke-diagrama, proiektuko komunikazio-sistema osoa erakusteko

Diagrama horretan, zarata semantikoa eta zarata psikologikoa dira lehenik azaldu beharrekoak. Woodson-ek berak, ingeniari hasberri bat eta esperientziadun teknikari bat laneko elkarrizketan diharduteneko adibidea jartzen du kontzeptu horiek azaltzeko. Ingeniariak sistema berri batez hitz egiten dio, sistema berri horretan adituak direnei berak entzun edo irakurri dien bezala; hau da, behin kontestuan ondo sartuz gero, anbiguotasunik ez daukaten terminoak erabiliz. Baina esperientziadun teknikariarentzat berbabideko sistema hori berria da, bera ez dago adituen kontestuan sartuta, eta ingeniari hasberriak igortzen dizkion terminoak anbiguoak zaizkio. Zer ulertu ez dakienez, ez du ulertzen.

Kasu horretan, anbiguotasun horrek eragiten du bloke diagramako zarata semantikoa.

Esperientziadun teknikariak ohiko mesfidantza ere badu, ohiko zalantza honek sortuta: hasberri honek, ba ote daki zertaz hitz egiten duen, ba ote daki sistema berri hori?

Eta kasu horretan, mesfidantza eta zalantza horiek dira bloke diagramako zarata psikologikoa.

Zarata semantikoa kaltegarria da bera, baina gainera, zarata psikologikoa areagotu egiten du. Ingeniari hasberriak anbiguotasunik gabe azaldu balio, teknikariak ulertzeaz gain, mesfidantza eta zalantzak txikiagotu egingo ziren.

Ingeniaritza proiektuko komunikazioan, bloke diagramako beste terminoen interpretazioa, Woodson-ek berak eskaini du hurrengo diagraman:



Woodson-en bloke-diagramako elementuen interpretazioa

Eskuin aldeko elementuak, hartzailea zein dekodetzailea zein jasotzailea, pertsona bat baino gehiago izaten direla dio Woodson-ek; hau da, proiektua pertsona bat baino gehiagok irakurriko du. Proiektugileak idaztean, proiektuaren irakurle desberdinek, gogaldi eta egoera desberdinetan, idatzitakoari zeintzuk interpretazio (adiera) zilegi desberdin eman ahal dioten izan behar du gogoan. Interpretazio bat baino gehiago badago, anbiguotasuna dago, eta zarata hortaz. Eta zaratak komunikatzeko ahalmena txikiagotu egiten duena argi egongo da honezkero. Zarata handia, eta komunikazio txikia.

Goiko azken diagramako komunikazioko elementuen osagaien artean, azpimarratuta dauden osagaiek sortzen duten zarata semantikoaz arduratuko da tesilan hau.

1.3 Proiektuetako hizkuntza

Hizkuntza[10] arrunta dago: guztiok erabiltzen duguna eta gizartean gehien erabiltzen dena. Hizkuntza bereziak daude: artisau hizkuntzak, hizkuntza teknikoak[11], gizarte-giro bateko hizkuntzak, giza talde batzuen hizkuntzak, eta

[10] Tesilan honetan ez dira Saussure-ren hizketa, mintzaira eta hizkuntza bereiziko; bestelakorik eta berariaz aipatzen ez bada behintzat.
[11] Pluralean datorrenean, teknika bakoitzeko hizkuntza teknikoa ulertu behar da; singularrean datorrenean, tekniketako hizkuntza teknikoa, orokorrean.

beste. Hizkuntza bereziok “argot” deitzen dira, hizkuntza arrunteko hitzak beste hitz bereziago batzuez ordeztu baino egiten ez denean.

Aipatutako hizkuntza moetak egon daude, baina moeta bakoitzari mugak jartzea eta definitzea gatxagoa da. Definitzeko saioak egin diren arren, definizioak ez datoz bat. Gainera, muga horiek, ingelesean eta euskaran desberdinak izango dira; hau da, arlo gehienetan zabal erabilitako hizkuntza batean eta oraintsu arte ofizial izan ez den hizkuntza batean mugak eta definizioak desberdinak izango dira. Definizioak definizio, zera behintzat esan ahal da: hizkuntza arrunta dagoela, hizkuntza bereziak daudela, eta hizkuntza berezi horietako asko hizkuntza tekniko edo profesionalak direla.

Zera ere esan ahal da: hizkuntza horiek hizkuntza lokabeak ez direla, beraien artean lotura eta konexioak daudela. Horrela, hizkuntza bereziek hizkuntza arruntean dute jatorria; eta hizkuntza arrunta hizkuntza berezietatik ere elikatzen da. Are gehiago: hasieran behintzat, hizkuntza arruntetatik artisauen hizkuntzara egiten zen bidea, eta geroago hizkuntza teknikora. Gaur egun, jakintza arlo askotan, hizkuntza teknikoa garatzen da lehen, artisaurik ez dago, langileak teknikariak dira gehienak, eta teknikariak ez direnek hizkuntza teknikotik hartzen dute behar dutena.

Hizkuntza teknikoa hizkuntza arruntean oinarritzen bada ere, gero, hizkuntza arrunta elikatzen da hizkuntza teknikotik, batez ere lexiko teknikotik. Komunikazioan bezala, atzera-elikatzea dago hizkuntza-moeten artean ere.

1.3.1 Hizkuntza teknikoa

Proiektuak hizkuntza teknikoz idatzi behar direla ezarriko da postulatu gisa. Edo, beste era batez esanda, hizkuntza teknikoari aitortzen zaizkion bereizgarriak dituen hizkuntzaz idatzi behar dira proiektuak.

Nork eta zergatik erabiltzen dituen, eta hizkuntza plangintzak eta horrelakoak alde batera utzita, hizkuntza teknikoen bereizgarri hauek aipatuko dira hemen:

a) Hizkuntza-baliabideen erabilera desberdina maila morfologikoan, sintaktikoan eta lexikologikoan.

b) Normalizazioa. Kontestu honetan, normalizazio hitzak zarata semantikorik eza, anbiguotasunik eza, adierabakartasuna[12] esan nahi du.

c) Jakintza estralinguistikorik[13] gabeko kontestuetan ere ulertaraztea[14].

---

[12] Idatzitakoak ulertzeko era bakar bat duenean da adierabakar.

[13] Irakurri aurretik irakurleak gaiaz dakiena da jakintza estralinguistikoa.

[14] Hau, 1.3.2 azpiatalean azalduko da hobeto.

Hizkuntza teknikoak maila morfologikoan eta sintaktikoan dituen hizkuntza-baliabideez ez da arituko tesilan hau. Maila lexikologikoan dituen hizkuntza baliabideez bai, ordea. Hizkuntza teknikoen arlorik handiena lexiko teknikoa da, eta lexiko horren alderdi bat aztertuko da hemen. Alderdi hori, hizkuntza teknikoan eragin handia izan arren, hizkuntza arruntean hobeto kokatzen denez, lexikologia hitza erabili izan da, eta ez terminologia. Horrela ere, termino hitza erabiliko da tesilanean, hizkuntza teknikoaz ari da eta.

1.3.2 Euskara teknikoa

Hizkuntza teknikoetarik bat euskara teknikoa da. Euskara teknikoa ez da zientzia eta tekniketan luzaro erabili, beste zenbait erdara tekniko bezala, baina lehen urratsak duela hogeita bosten bat urte egin eta garatzen doa.

Lehenago esan bezala, erdara teknikoak ez dira lokabeak, eta euskara teknikoa ere ez. Euskara teknikoak, erdara teknikoek bezala, hizkuntza arrunta du abiapuntu eta oinarri bezala, eta artisau hizkuntza du lehen urrats bezala. Hortaz, eta lehengo azpiatalean esandakoa gogoan, artisauak izan dituzten teknika-arloetan euskarak ere lehen urratsa eginda du, lehen urrats hori gomutan badago behintzat.

Dena den, artisau hizkuntza hizkuntza teknikotik urrun xamar dagoela gogoratu behar da. Artisauek nahiko ondo elkar ulertzen duten arren, artisauek abantaila handi bat behintzat izaten dute, bai lana zein solaskidea aldamenean izaten dituztela hain zuzen ere; eta "hau hemen honela ipintzen..." erako azalpenak, eskuen eta behar diren planta eta parizten laguntzaz, baliozko eta nahikoa izaten zaizkie elkar ulertzeko. Euskara teknikoz, hizkuntza bisual horrek ez du balio. Idatziz zein telefonoz, hitzaren bidez ulertarazi behar izaten da, eta hitzaren bidez ulertu norberak.

Horretarako, landu behar izaten den arloetarik bat, lexiko teknikoaren (edo terminologiaren) arloa izaten da. Zientzia eta tekniketan luzaro erabiliak izan diren erdaretan[15] arloan arloko termino zehatzak definitzen arituko dira honezkero; euskaran, lantzean behin helburu xumeagoa izatea ere komeni izaten da.

[15] Aurrerantzean, "erdara garatuak" deituko zaie erdara hauei.

1.3.3 Proiektuetako komunikazioan dagoen arazoetarik bat

Proiektu profesional gutxi egiten dira euskaraz: urtean bi edo hiru proiektu txiki ingeniaritza industrialekoak, bat ere ez beste ingeniaritzakoak, urtean hamarren bat arkitekturakoak. Asko itzulpenak dira, administrazioak euskaraz eskatzen ditu eta. Itzulpen edo ez-itzulpen, industrialetako bi eta arkitekturako zazpi eskuratu ahal izan dira; eta bertako lekugune erlatiboen erabilera aztertu da.

Ingeniaritza eskoletan Karrera Amaierako Proiektuak egiten dira. Bilboko Industri eta Telekomunikazio Ingeniarien Goi Eskolan urtean zortzi-edo egin izan dira azken urteotan. Horietarik hogeita hamazazpi begiratu dira, eta gainera beste sei, lekutze asko zituztenak, arreta bereziz, proiektugilearekin lekutzeok eztabaidatuz. “Hau idatzi duzunean non esan nahi izan duzu?” eta beste zenbait galdera eginez. Proiektugile gazteotarik gehienak, azken aldiotakoak behintzat, euskaraz eskolatuak izan dira txikitatik; eta askok Euskara Teknikoa deritzon irakasgaia ere hartu dute, irakasgai horretan tesilan honetan aztertuko diren lekutzeei tarterik eskaintzen ez bazaie ere. Eta horrez gain, azken-azken aldiko zenbait proiektugile gaztek Ingeniaritzako lehen urtea euskaraz egin dute. Begiratu eta aztertu diren profesionalen proiektuak. lekugune erlatiboei dagokienez, ez dira ikasleenak baino abaratsagoak edo zehaztugoak.

Aurrera ekin baino lehen, hizkuntzako gauza batzuk azaldu behar dira, hurrengoa ulertu ahal izateko. Paragrafo bakar honetako lana izango da. Tesilan honetan lekutzeak aztertuko direla esan da, baina zehatzago esateko, lekugune erlatiboak[16] aztertuko direla esan behar da. Lekugune erlatiboak, lehen gauza batekiko bigarren gauza bat non dagoen adierazteko erabiltzen diren hitzak (espazio-adierazgailuak) dira. Adibidez, “autoa etxearen alboan dago” esaldian, “etxea” da lehen gauza hori, “autoa” da bigarren gauza hori, eta **albo**[17] da lekugune erlatiboa (espazio-adierazgailua), “autoa etxearekiko non” adierazten baitu. Lekugune erlatibo deitu ordez, “posizio erlatibo” ere deitu zitekeen, posizio hitza esanahi bikoa izango ez balitz. Lehen gauzari (etxeari) deitzeko, “abiaki” hitza erabiliko da tesilan honetan, ingeniariek “erreferentzi objektu (edo puntu)” entzunago izan arren[18].

Ingeniariek denek dakite proiektuetan zeinen garrantzitsuak diren lekugune erlatiboak. Nekez begitanduko da lekugune erlatiboen bidez gauzak lekutu behar

---

[16] Lekugune erlatiboa zer den, beste termino batzuekin batera, 2.5 azpiatalean dago hemen iraizean definituko den baino hobeto definituta.

[17] Hitza bera esan nahi denean, letra lodiz idatziko da, eta mugagabean deklinatu. Albo hitza, barru hitzaren, eta horrelako aposizioetan, beti “hitz” errepikatu beharra ez izateko da hori.

[18] Ikus terminoen definizioak 2.5 azpiatalean.

ez dituen ingeniaritzako proiektua. Objektuak ezin dira deskribatu, lanerako jarraibideak ezin dira eman, ezta azalpen asko ere lekugune erlatiboak erabili gabe. Eta ondo erabiltzen ez badira, zarata semantikoa sortuko da, eta komunikazio txarra, eta ondorioz, proiektu txarra.

Euskaraz idazten diren proiektuetan, lekugune erlatiboak txarto erabiltzen dira, salbuespenik gabe; eta horregatik, lekugune erlatibo askoren premia duen proiektua txarra da. Proiektugileak, salbuespenik gabe, berak hobeto ezagutzen dituen dozena erdi lekugune erlatiboetatik at, ez du ziurtasunik; eta horregatik, dozena erdi hori lar erabiltzen du, lekutzeak ahal eta behar diren bezala zehaztu gabe. Bestela, nor proiektugilea eta bere okerrak egiten ditu, edo oker gutxiago eta txikiagoak egiten ditu, edo bere ebazpideak ditu. Horietariko bat, irudiari edo planoari beti deika ibiltzea da. Horrek emendioa egiten du, baina emendio neketsua gertatzen da, irakurlearentzat batik bat, sarritan, hitz egokia irakurri eta ez bailuke planoetan begiratzera joan beharko.

Hala-holako ebazpideak utzi, eta egiten diren okerrak hobeto ezagutzeko, hiru sailetan sailkatuko dira:

1) Proiektugileak, jakintza estralinguistikorik ez dagoen kontestuetan ere, irakurleak jakintza estralinguistiko[19] hori baduela egiten du, eta irakurleak ulertuko ez duena idazten du. Berak, “etxe aurreko soroa” esan eta ulertzen diotenez, “kaxa aurreko zuloa” ulertuko diotelakoan idazten du. Aldez aurreko jakintzari esker, irakurtzen hasi baino lehen dakigunari esker, denok dakigu soroa etxean bertan ez dagoena, baina irakurleak ez daki zuloa kaxan bertan ala kaxatik kanpo dagoen. Eta kaxa hori abiadura-kaxa bat zen proiektuan.

Euskaraz gauza arruntez hitz egiten da gehienetan, eta gauza arruntez jakintza estralinguistiko handia izaten da: ez da hobeto azaldu beharrik izaten, hitzez behintzat, lehen aipatutako artisauaren kasuan legez. Gainera euskaraz, sarritan, lehen eta hobeto erdaraz ikasitakoa idazten da; hau da, gutxitan idazten da gauza berriak jakitera emateko. Arrazoi bi horiengatik, tranpa bi horiengatik, azaldu beharreko asko jakintzat ematen da eta ez da azaltzen, proiektua *munduan bakarra den zerbitzu edo produktua* deskribatzeko idazten bada ere, 1.1 azpiatalean esan den bezala.

2) Proiektugileak ez ditu lekugune erlatiboak ezagutzen, ez dakizki beraien esanahiak (adierak). Bere euskalkikoak agian, eta hala-hola horiek ere. Eta beste euskalkietako lekugune erlatiboek eskaintzen dituzten ñabardurez baliatzen ez daki. Hiztegiak kontsulta ditzala, izango da erantzuna, baina ez da erantzuna; eta hori, 1.4 azpiatalean iruzkinduko da.

---

[19] Jakintza estralinguistikoa “munduaren ezagutza” ere deitzen da.

Horrela, adibidez, “orubearen ertzean” toki desberdinetan izaten da proiektutik proiektura, eta baita orrialdetik orrialdera proiektu bakar batean ere: orubean bertan, orubez kanpoko espaloian, edo orubearen muga-lerroan bertan baino ez. Eta irakurleak ez daki estolda non kokatu. Proiektugileak ez luke oker hori egingo **ertz**en esanahia argi izango balu.

Klasean *“poner de canto”* zelan esaten den galdetu eta erantzunak asko izaten dira: tente, zutik, ertz gainean... ipini. Erantzunik zuhurrena isilik egotea izan arren, eta gehienek horixe egin arren. Baina behar-beharrezkoa da kontzeptu hori adierazten jakitea, *canto* hori adierazteko hitz berezi bat izanik gaztelaniaz eta frantsesez bezala, zein hitz berezirik gabe ingelesez bezala.

Proiektugileak **haraindi** eta **handi** ez daki zer diren. Lehena irakurri du nonbait, bigarrena nonbait entzun duelakoan dago. Berak “urruneko aldean”, “bestaldean”, eta oker dagoen “hango aldean” erabiltzen ditu.

Hemen hiru adibide horiek eman dira, baina proiektugileek horrelako okerrak lekugune erlatibo guztietan egiten dituzte; agian ez proiektugile batek lekugune erlatibo guztietan, baina bai proiektugile batzuek batzuetan, eta beste batzuek beste batzuetan.

3) Proiektugileak ez daki lekugune erlatiboak izen-sintagma aproposean erabiltzen. Ez daki “etxearen aurrean”, “etxeko aurrean”, “etxean aurrean”, “etxe aurrean” eta “etxaurrean” bereizten, eta bakoitza komeni denean erabiltzen. Berak, adibidez, “makinaren aurreko panela” esaten daki, eta horixe bera idatziko du panela makinan bertan ala makinatik urrun egon arren. Eta zilegi idatzi du, izen-sintagma horrek biak adierazten baititu. Irakurleak ordea, ez daki panela non dagoen. Proiektugileak lehen, jakin, eta gero, gogoan izan behar luke izen sintagma hori anbiguoa dela, eta anbiguotasun hori kendu egin beharko lioke irakurleari.

Lehen saileko okerrek eta hirugarren saileko okerrek antzerakoak dirudite, eman diren adibideetan behintzat. Idazlearen jarrera ordea, ez da antzerakoa. Lehen saileko okerretan idazleari ahaztu egin zaio azalpen zehatzagoa ematea; hirugarren saileko okerretan, idazleak ez daki azalpen hoberik ematen.

Lehen saileko okerrak kentzeko, arreta eta diziplina behar ditu idazleak, eta idazgaia ondo ezagutzea, eta irakurleak gaiaz duen jakintza kontuan izatea. Oker horiek kentzea idazlearengan dago, idazlearen arretan eta diziplinan, eta tesilan hau ez da oker horiez ariko.

Bigarren eta hirugarren saileko okerrak, proiektugileak non ikasi ez duelako egiten dira: lekugune erlatiboak banan-banan, eta lekugune erlatiboen

sistema (eremu lexikala) inork aztertu ez duelako. Tesilan honetan azterkuntza hori egingo da.

1.4 Hiztegiak arazo honen ebazpidean

Goiko azpiatalean iruzkindu diren okerrak gogoan eta, 2. eta 3. sailetako okerrak gainditua dauzkan lekugune erlatiboen erabilera zuzena erakusteko daude hiztegiak. Zientzia eta tekniketan luzaro erabiliak izan diren hizkuntzak gogoan eta, lekugune erlatiboak[20] hizkuntza arruntekoak direnez, euren definizioak hiztegi orokorretan ageri dira. Hiztegi horietan hitzen adieren definizioak datoz, eta erabilera-hiztegia baldin bada, definizioez gain, erabilerako adibideak datoz.

Erdara garatuetan hiztegigintza antzina (300 urte, bai) hasi zuten. Harrezkero, lan askotan erabili dute hizkuntza, eta hiztegi zuzenduak eta gehituak egin dituzte. Eta zuzentzeko eta gehitzeko, gogoeta ugari, ikerkuntza txikiak eta zenbait ikerkuntza formal ere egin dituzte. Gaur egun, hizkuntza garatuetako hiztegi orokorrak, onak direnak behintzat, fidagarriak eta azaltzaile onak dira arlo honetan; hiztegi orokorrak direnez, eta jende askok ulertzeko eginak direnez, zehaztasuna kaltetua izaten den arren. Hizkuntza horietan, kontzeptu espazialak adierazten saiatuak diren profesionalek hiztegi matizatuagoa eta zehaztuagoa daukate; adibidez, hiztegi orokorretan kontzeptuak azaltzeko erabiltzen diren metonimiak metonimia direla argi daukate: adibidez, parte[21] eta espazio bereizi egiten dituzte.

Euskaran ez daukagu tradizio handirik, ez kontzeptu espazialak adierazten, ezta hiztegigintzan ere. Hasteko, zehaztasun maila honetan, hiztegi elebidunak baztertu egin behar dira: hiztegiaren kontsultatzaileak, eta erdaraz ondo baldin badaki, esanahiaren ideia bat izatera baino heldu ezin delako: ez daki erdal ordain bakoitzetik zenbat adiera hartu, ezta adierok osorik hartu behar dituen ere. Bestalde, arlo hau tratatzen duen hiztegi orokor elebakarra —eta bakar bat da, lekugune erlatiboen arlo honetako ia dena beste hiztegiek kopiatu egin baitiote— antza denez presaz egindakoa da, kontzeptuak ez baititu ondo azaltzen. **Alde** lekugune erlatiboa darabil beste lekugune erlatiboen definizioan. **Alde** bera, polisemia handiena duen lekugune erlatiboa da. Lekugune erlatibo bezala, bakar-bakarrik, bederatzi adiera ditu. Hori, gaztelaniaz hitz enparauen definizioetan *lado* erabiltzea bezalakoa da, baina *mirar en todos lados* horretako

[20] Lekune erlatiboak euskarak ditu. Gure aldameneko erdaretan, euren ordez, preposizioak eta sintagma preposizionalak darabiltzate.
[21] 2.5 azpiataleko definizioan, parteak beti du masa eta pisua.

lado, definizio haietarik askotan "zona" esan nahi baitu, antza denez. Gainera, “zona” ez da lekugune erlatibo. **Alde** beraren definizioa, definizio ulertezina da hiztegi horretan, definizio batean ezin baita adierazi hain polisemia zabala duen hitzaren esanahia. Zorionez, eta gabeziaren bat gainditzen da honela, erabilera-adibide asko dakar hiztegi horrek; baina horrela, irakurleak berak moldatu eta igarri behar ditu adieren definizioak. Dena den, eta gogoan lekugune erlatiboen arlo honetakoa baino ez, ikerkuntza sakonagorik gabe egiteko, eta lehen ahaleginekoa izateko, merezi izan duen ahalegin ona da hiztegi hori, esanahien ideia bat ematen duelako.

Lekugune erlatiboen sistema —sistema hori, eremu lexikala deitzen da— ikasi eta bere erabilera menperatzea asko kostatzen da. Horren froga, beste hizkuntza bateko sistema, ingelesekoa adibidez, menperatzen saiatzen garenean aurkituko dugu, gaztelania zubi bezala edukita ere. Eta hiztegi onak inon badira, ingelesekoak dira. Eta espazio-gaietako lexikologian inon ikertu bada, ingelesez eta ingeleserako ikertu da. Ingeniaritzako proiektuak, edo topografia, ingelesez egiten saiatu izan garenean ikusi dugu ideia bat bageneukala, baina sistema menperatu, ez genuela menperatzen; eta hobeto ikastera behartuak izan gara.

Euskarak ez du ingelesekoen kalitateko hiztegirik, eta euskaraz zailagoa da espazioan nabigatzea, galdu gabe. Eta zailagoa da proiektuak-eta euskaraz egitea, ondo egin nahi badira.

1.5 Beharrizanei erantzuteko egingo dena

Orain arteko idazki luze xamarrean proiektua eta komunikazioa zer diren azaldu izan da, iraizean izan bada ere. Proiektua, proiektugileak zer eta zelan egin nahi duen komunikatzeko ahalegina da. Komunikazio horretan oztopo, edo galarazpen, den zarata semantikoa definitu da: anbiguotasuna batez ere, proiektuaren idazleak hizkuntza nahikotasunez menperatzen duenean. Proiektuaren erdia baino gehiago prosa idatzia, eta hizkuntza teknikoz (euskara teknikoz) idatzia dela erakutsi izan da. Hizkuntza teknikoaren ezaugarrien artean adierabakartasuna edo anbiguotasunik eza dela azpimarratu izan da. Proiektuetako hizkuntzan, euskara teknikoan alegia, eta arlo garrantzitsu eta bereizi batean, lekugune erlatiboen arloan alegia, egin ohi diren okerrak sailkatu eta azaldu dira. Oker horiek, sarritan gramatikalki oker izan ez arren, anbiguotasuna dakarte, irakurleak ez baitaki non ulertu, irakurleak nontasun zehatzagoa espero eta behar baitu ulertzeko eta lana egiten hasteko. Oker horiek ez egitea lortzeko, eta aldi berean arlo horretako kontzeptuak hobeto zehaztuz

idazteko, proiektugileak ezin du inora jo. Euskaran arlo hori ikertu gabe dago, eta hiztegiak ez-ikertze horren ispilu dira, 1.4 azpiatalean azaldu den bezala.

Tesilan honetan, arlo hori, lekugune erlatiboen arlo hori ikertzea erabaki da, proiektuen idazkuntzan duen garrantzia dela eta. Lekugune erlatiboak ondo erabiltzen ez badira, ez dago tajuzko proiektuak idazterik. Lehenago atal honetan, lekugune erlatiboak hizkuntza arruntekoak direla idatzi izan da. Horrela da eta horrelakotzat hartzen dira erdara garatuetan, eta horrela da euskaran ere, lexiko teknikoan garrantzi aparta izan arren. Herriak luzaro erabili izan ditu, baita “goian bego” esateko ere. Ez dira, teknikari talde batek helburu zehatz baterako izendatu dituen terminoak. Ez da kontzeptu batzuk eduki eta beraientzako termino batzuk bilatzea. Terminoak (hitzak) hor daude, lekugune erlatiboen zerrenda da hori, baina beraiek adierazten dituzten kontzeptuak, argi azalduta, falta dira. Hizkuntzalariek esango luketenez, ikerkuntza hau ez da onomasiologikoa, semasiologikoa baizik. Behin adierazten dituzten kontzeptuak argi izanda, teknikariok behar ditugun kontzeptuetatik terminoetarako bidea egitea zilegi eta beharrezkoa izan arren.

Horrek guztiak, tesilan hau burutzeko, hizkuntzalaritzan leiho bat ireki behar dela esan nahi du, hizkuntzalaritzaren barruan horretaz dagoena ikusteko; eta horretaz, jakintza eta esperientzia handiena hizkuntzalaritzan dagoenez, bertako bideei eta moduei jarraitzeko. Horrela ere, hizkuntzalaritzako terminologia saihestu egingo da saihestu ahal denean; eta ezin denean, azaltzeko ahalegina egingo da.

Horrez gain, teknikarioi erosoagoa zaigun adierazpidea erabiliko da maiz: adierazpen grafikoa. Izan ere, lekugune erlatiboen gai hau, nahiko gai grafikoa da zorionez, gizakiak begien bidez ulertzen baitu ondoen; baita hizkuntzalariek ere. Konexio zuzenagoa edo hobea ei dago begien eta burmuinaren artean, belarrien eta burmuinaren artean baino.

Hortaz, tesilan honetako egitasmoa, hurrengo atal bakoitzean hobeto zehaztuko dena, hauxe da:

a) Lekugune erlatibo bakoitza zelan erabili izan den aztertuko da. Erabilera horretatik, lekugune erlatibo bakoitzaren esanahia (eduki semantikoa), adieraz adiera eta irudi forman lortuko da. Lan hori eranskinean erakutsiko da.

b) Hizkuntzalaritzan sartu eta tesilanaren 2. eta 3. atalak burutuko dira. Aribidea deituko den 2. atalean, zer zelan eta zergatik egingo den azalduko da; baita gero 3. atalean behin eta berriro agertuko dena ere, behin eta berriro azaldu beharra ez izateko.

c) Hirugarren atalean, lekugune erlatiboei Eremu Lexikalaren Teoriako tratamendua emango zaie. Atal honek Emaitzak deitutako azpiatala izango du.

Bertan, emaitza behinen bezala, eta hitz hauek beti izen-sintagmaren barruan erabiltzen ditugunez, lekugune erlatibo bakoitzez osoturiko izen-sintagma bakoitzak duen esanahia irudiz adieraziko da. Horrela, tesilana bere lehen helburura, eta helburu nagusira, helduta izango da, zerk zer adierazten duen jakingo baita: Emaitzak azpiatal horretako huraxe; ez gehiago, ez gutxiago.

d) Emaitza horietarik baten batzuk agian ez dira teknikariok behar eta nahi bezain egokiak. Muturreko adibide hipotetiko gisa, agian hitzen batek esanahi kontrajarriak ditu: [kanpoan eta barruan] biak hitz batean, eta irakurleak aukera dezala non. Proiektua gogoan eta, tesilanean zehar, Emaitzak azpiatalean batik bat, aurkitutakoaren balorazioa egingo da Eremu Lexikala Ingeniaritzako Proiektuetan Erabiltzeko Balorazioak, Iradokizunak eta Konklusioak deitutako 4. atalean.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

2. Atala

Aribidea

2.0 Sarrera

Beharrezkoa da hizkuntzaren bidez gauzak espazioan non diren adieraztea, eta hizkuntzak badauka horretarako ahalmena. Besteak beste, euskaraz adierazpide hau eta antzekoak erabiltzen dira, sarritan erabili ere:

"Katua autoaren azpian ", katua autoarekiko non den adierazteko; hau da, 1.izakia 2.izakiarekiko non den adierazteko, izaki lekutua izaki lekutzailearekiko non den adierazteko.

Azpi hitza espazio-adierazgailu bat da. Espazio-adierazgailu horiei (baita denbora-adierazgailu direnean ere) "postposizio" edo "gibel-hitz" deitu diete hizkuntzalariek izen-sintagman eskuinaldean azken doazelako-edo. Tesilan honetan eta espazio-adierazgailu direnean, lekugune erlatibo (LE) deituko zaie[22].

Horrela, lekugune erlatiboak hauek dira: azpi, goi, behe, gain, goiti, aitzin, aurre, ondo, eta abar. Zerrenda mugatuko lexikotzat hartuko da, beraien kopurua juntagailuena baino bizkorrago ugaritu arren. Daigun laurogei direla euskaran gaur egun. Lekugune erlatibook, berezitasun erkide gisa, ezin dira leku konkretuen izen izan; hau da, ezin dakioke leku konkretu bati "goi" edo "gain"

[22] Gero, 2.5 Terminoak azpiatalean emango da lekugune erlatiboen definizio zehatzagoa.

deitu, beti erreferentziaren[23] bat behar baita, eta erreferentziaren aipamena eginez "zerbaiten gainean", "nonbaitetik urruti", eta abar da beti. Horra beren erlatibotasuna.

Tesilan honetan lekugune erlatiboak aztertuko dira beraien eduki semantikoa argitzeko, beraien eremu lexikala ezagutzeko, ingeniaritzako proiektuetan garrantzi behinena baitauka lekugune horiek zehazteak, komunikatzeko ahalegina egiten dugunean elkar ulertzeko, zalantzarik gabe edo ahalik eta zalantza txikienez. Halere, tesiko lanaren zioa proiektuen beharrizan hori izan bada ere, hizkuntzaren erabileremu enparauei ere azterkuntza hau ondo etorriko zaiela uste da, zeren erabileremu batean gauzak argi eta zehatz baleude, erabileremu guztietan baileudeke horrela, oinarriko kontzeptuetan eta arlo haundika[24] behintzat. Eta tesi hau ez da "azken txokoa zelan adierazteaz" arduratzen. Tamalez, zailtasunak azken txokoa baino askoz lehenago etorri dira, espazio edo arlo haundietan, erabileremu nasaiagoetan ere haundiak eta bereiztea merezi dutenak direnetan. Eta halabeharrez, tesilanak oinarriko kontzeptuei eta espazio haundiei eman die lehentasuna, azken txoko txikiak beste abagune baterako utzita.

Hizkuntza teknikoan "jakintza estralinguistikoak lekurik ez duela" da araua, sarritan arau hori betetzea oso zaila edo ezinezkoa izan arren. Eta hori egia bada ere, tesilaneko adibideetan "etxea" bezalako gauza ezagun, finko eta haundia erabiliko da ulerkuntza errazteko. Teknikan, ingurua ere ez-ohikoa duten eite eta posizio zehaztugabeko pieza txikiekiko espazioak adierazi behar izaten dira; eta ondo adierazteko eta ulertzeko, kontzeptu-sistemak argia eta ulerkera bakar batekoa izan behar du. Ez da berdin "etxearen gainean teilatua" entzutea eta "piezaren gainean hagatxoa" entzutea, pieza berorren eitea, horizontaltasuna edo bertikaltasuna, eta inguruko piezak eta espazioak ondo ezagutzen ez ditugunean. Tesilanean inoiz horrelako "jakintza estralinguistikoaren eza" gogoratu behar bada, "egokera anitzeko" terminoa[25] erabiliko da, piezak-eta egon era askotan egoten baitira; ez ordea etxeak, beti tente, teilatua goian(gainean) dutela, eta horrelako egokera ezagunean egoten baitira. Izan ere, etxea "teilatuz behera" gertatuko balitz, ez litzateke etxea luzaro izango, berehala harri pila haundia baizik. Sarritan, eta euskaraz sarriagotan, horrelako baldintza edo

---

[23] Erreferentzi puntua, erreferentzi lekua, edo erreferentzi izakia. Gero, "abiaki" eta "zuin" hitzak erabiliko dira "erreferentzia" hitzaren ordez.Ikus 2.5 Terminoak azpiatala.

[24] Gero, HANDI lekugune erlatiboa sarritan erabiliko denez, hemendik aurrera HAUNDI erabiliko da tamaina adierazteko.

[25] Horrelako zenbait termino 2.5 Terminoak azpiatalean definitu dira.

jakintza estralinguistikoen bidez ulertzen dugu; ez hizkuntzak ulertarazten digulako.

2.1 Xedea

Lehenago 1.5 azpiatalean ezarritako egitasmoari jarraiki, 2. eta 3. atal hauetan, lekugune erlatiboen eremu lexikala aztertzea eta ezagutzea da xedea. Lexikologia estrukturaleko azterketari Aribide honetako 2.3 azpiatalean jarriko zaizkio mugak, higidurak adibidez ez baitira aztertuko.

Lekugune erlatiboek eremu lexikal bat osotzen dutela egin da (2.3 azpiatalean eta 3. atalean argi geratuko denez), eta Eremu Lexikalaren Teoria erabili da azterketan. Izan ere, Eremu Lexikalaren Teoria honetarako dago: eremu bateko hitzak elkarren ondoan jarri, beraien arteko elkarkonesioak eta elkarmugatzeak ikusi, eta eremu osoaren funtzionamendua analizatzeko. Azterkuntza hori, 3.4 Emaitzak deitutako azpiatalean bukatuko da. Emaitzok irakurriko dituen teknikariak, eremu lexikala menderatzeko gaia bertan aurki dezala da xedea.

Geroago, 1.5 azpiatalean esan bezala, Emaitzok ikusita, eremu lexikalaren balorazioa egingo da 4. atalean, proiektuetako beharrizanak gogoan eta.

2.2 Tesilanaren atalak

Tesi honetako lana lau atal nagusitan aurkeztu da:

1.- Proiektua eta Komunikazioa. Proiektuetako beharrizanak ikusteko eta tesilana kokatzeko.

2.- Aribidea. Hizkuntzalaritzako azterketan hartuko diren bideak eta erabakiak azaltzeko.

3.- Lekugune Erlatiboen Eremu Lexikala. Lexikologia estrukturaleko azterkuntza burutzeko.

4.- Proiektuetan Erabiltzeko Balorazioak. Behin 3. atalean lekugune erlatiboen eremu lexikala ezagututa, bere ahulguneak eta adierazpen anbiguoak iruzkinduko dira.

5.-Eranskina. Corpusetatik lekugune erlatibo[26] bakoitzaren adieretarainoko bidea egingo da bertan.

---

[26] Hau oraingoz behintzat azterketa semasiologikoa denez, zeinu linguistikoa hartuko da lekugune erlatibo bakartzat; bestalde, zeinu horrek, adieren arabera, espazio desberdin bi edo gehiago adieraziz gero, espazio desberdin horiek teknikan lekugune erlatibo bakarra ezin dira izan; hori, kontraesana izango bailitzateke. Bizkaieraz ardi bakarra

Bertan adierok irudiz baino ez dira adierazi. Hirugarren atalean, eta berori da ikerketa-lanaren mamia, lekugune erlatibo bakoitzaren adierak, eta hortaz lekugune erlatibo bakoitza, hitzez eta irudiz definitu dira. Hirugarren atal horretan baitere, izen-sintagmen osakera, sinonimia eta polisemia, eta ondo eta zehatz ulertzeko zenbait arazo aztertu dira. Horrela ere, 4. atala hasi arte, lan guztia semasiologikoa da: eremu lexikala orain arteko erabilerak definitu duen bezala aztertu eta deskribatu da. Proiektuetan Erabiltzeko Balorazioak deitutako azpiatal horretan, hein txiki batean, onomasiologia ere sartu da.

Aribide honetan, 3. eta 4. ataletako lanaren nondik norakoa, azalpena eta zenbait zertzelada enparau datoz, gero atal biok irakurtzea eta ulertzea ahalik eta errazen eta artezen egin dadin.

2.3 Espazioaren garrantzia hizkuntzan

Lekurik ez dagoenean ezin da ez egon ez ibili, ezta ezer egin ere. Lekua zentzu orokorragoan denotatzeko hitza erabiliz, gauza bera honela esaten da: espaziorik ez dagoenean ezin da ez egon ez ibili, ezta ezer egin ere. Gizakiarentzat, premiazko eta oinarriko lehengaia da espazioa, eta izan da, hasieratik eta gizaki bihurtu baino lehenagotik horrenbat.

Horrelako gogoetaren batzuk hizkuntzalariek ere egin dituzte, adibidez [Jackendoff, Ray (1983)]k "bilakaeraren ikuspuntutik, antolakuntza espazialak hizkuntza baino askoz lehenago izan beharko zuela" dioenean. Egia bada, bedi; eta espazioari hizkuntzan berea emateko balioko du.

Tesilan honetan gaiari askoz sinkronikoago helduko zaio, gaur egun ere espazioak hor lehenago esandako garrantzi haundia baitauka, eta aspaldi luzean gizakiak hizkuntza erabili baitu espazioaz adierazi behar duena adieraz dezan.

[Miller, G.& Johnson-Laird, P. (1976)]k ere leba haundia aitortu dio. Liburuko 6. atalaren azkenean zera dio, hemen ingelesez emana, liburuko lexikoa itzultzen saiatuz gero ulergaitzagoa egiten baita:

> Yet class inclusion and part-whole are concepts, just as person, action, space, time, cause, and intent are concepts. They are simply too important to be confined to any single semantic field. They are organizers. They impose patterns of meaning on other concepts and determine the internal structure of semantic fields, but they do not provide nuclei around which semantic fields can be organized.

Autore horiek espazioari, besteak beste, garrantzi haundiegia eman diote espazioa eremu lexikal batean sartzeko, espazioak beste kontzeptu batzuetan

---

dago, larrekoa-eta-ohekoa, baina zoologian bi ei dira, eta derrigorrean hatan ere. Hemen oraingoz bizkaierako ardia erabiliko da.

esanahi-ereduak inposatu eta beste eremu batzuen barne-egituran eragina baitauka, beraien hitzetan. Hortaz, "espazioa" deitutako eremu lexikalik ezin ei da egon. Intuizioz uste izatekoa dio liburu horrek, eta autoreen eran frogatu ere bai, eta hobeto dago horrela argi eta garbi esanda.

Hortaz, **espazioa** ezin da eremu lexikal batean sartu, ezta **pertsona** ere, ezta **fisika** ere [Miller, G.& Johnson-Laird, P. (1976)]k ez aipatu arren. Baina sartu ahal da **pertsona**ren aspektu edo atal bat den **ahaideria**, edo **fisika**ren barruko gai konkretua den **koloreak**. Era berean, **espazio**aren barruko gai konkretua den **lekugune erlatiboak** ere sartzen dira eremu lexikal batean, hirugarren atalean ikusiko den bezala.

2.4 Tesilaneko azterkuntzaren esparrua

Lehengo 2.3 azpiatalean espazio-kontzeptuaren zabaltasun haundia ikusirik, tesi honetako lanaren esparruko mugak lehenbailehen ezartzea da komeni dena. Azpiatal honetan mugatze-lan behinena egingo da.

2.4.1 Lekugune erlatiboak

Gauza bat beste gauza batekiko kokatu edo lekutu nahi denean, euskaraz espazio-adierazgailu batzuk (denak izen kategoria gramatikalekoak) erabiltzen dira.

Horrela, adibidez perpausa honetan

"Autoa etxearen aurrean dago."

aurre da espazio adierazgailua, eta **aurre**ri deitu zaio lekugune erlatibo. Gero 3. atalean jakin da euskarak horrelako hirurogeita hamarren bat lekugune erlatibo dituena. **Goi, behe, barru, haraindi, ertz,**... lekugune erlatiboak dira.

Lekugune erlatiboa *posizio* hitzaren bidez denotatzeko ohitura ere badago. Zoritxarrez, *posizio* hitza polisemikoa da, gauza batekiko non adierazten badu ere, non horretan zelan ere adierazten baitu (tente, alboz behera, eta abar). Gaztelaniaz (eta beste hizkuntza batzuez) horrela da, eta mailebatzean adiera biak mailebatu dira. Lekugune erlatiboak non baino ez du adierazten, eta ez zelan[27].

Tesi hau lekugune erlatiboez da. Lekugune erlatiboa(LE) adierazi, izen-sintagma baten barruan adierazten da, lehengo perpausan "etxearen aurrean"

[27] Tesilan honetako definizio bereziak 2.5 Terminoak azpiatalean datoz batera.

izen-sintagman, eta horrelako izen-sintagmak ere aztertu beharko dira. Sintagma horiek izen bikote batez daude osoturik. Bigarren izena(aurre) LE dela esan da; lehena(etxe) abiaki[6] deituko da. Izen-sintagma horiez —erdaretan dauden sintagma desberdinez baina baliokideez, hobeto esanda— asko idatzi izan da[28]; eta lehenari(etxeri) *entité localisatrice, site, landmark, ground, reference object* deitu izan zaie frantsesez eta ingelesez behintzat. Hemen **abiaki** deituko zaio autoa lekutzeko bertatik abiatu garelako-edo[29].

Euskararen aldameneko hizkuntzetan ez dago lekugune erlatiboen kategoria lexikalik. Euskaraz lekugune erlatiboek adierazten dutena (lehen aipatutako posizio-moeta), erdarek preposizioen edota preposizio-sintagmen bidez adierazten dute. Baina kontzeptua egon badago erdaretan ere. Ingelesez *relative position* kontzeptua eta izen-sintagma gauza ezagunak dira, fisikan eta matematikan batez ere, baina zenbait hizkuntzalarik noizik noiz erabiliak horrela ere. Baina ingelesez ez dago *relative positions of the English language*rik, tesi hau euskararen lekugune erlatiboez den antzera.

Lekugune erlatiboez baino ez izan arren, sarritan LEa (lekua) eta abiakiaren partea (materialez egindako zatia) adierazteko hitz berbera erabiltzen dela jakingo da tesilana egitean, eta horregatik parteez maiztxo hitz egin beharko da, bereizlana egiteko batik bat. Eta gauza bera LEa denotatzeko hitza gune lokabeak (zonak) adierazteko ere erabiltzen deneko kasuan (alde guztietan begiratu, *mirar en todos lados*).

2.4.2 Semantika lexikala

Gero 2.6 azpiatalean hobeto ikusiko dena, hemen ahalik eta laburren esateko, LEak (edo erdaretan LEen antzekotasun haundiena duten espazio-adierazgailuak) era bitan aztertu izan dira:

1) Era bakuna. Dena egonean dagoela ezaugarri geometrikoak baino ez dira kontuan hartzen. Perpausetako aditzak ere egonekoak dira (*restive*): egon, geratu, etzan, eta abar. **Aurre** adibidez, espaziozko parelelepipedo edo kaxoi egonkorra bailitzan begitantzen da, eta horixe baino ez da era horretan aztertuz gero.

---

[6] Tesilan honetako definizio bereziak 2.5 Terminoak azpiatalean datoz batera.

[28] Ikus 2.6 azpiatala.

[29] Tesilan osoa idatzi zen erreferentzia hitza erabiliz, hitz hori baita ezagunagoa teknikan ere, marrazketan-eta. Horren aztarnaren bat geratuko da tesilanean. Baina aldatzea erabaki zen, batez ere hizkuntzalaritzako erreferentzia beste gauza bat delako.

2) Era bikuna. Lehengo era bakunaz gain, ezaugarri funtzional eta psikologikoak ere kontuan hartzen dituen era. Perpausetako aditzak ibilikoak ere badira; higidurak garrantzia du azterketa honetan mundu errealean bezala. Karramarro bi atzeraka(edo alboka) ibilian badoaz, bestearen aurrean zein doan erabakitzeko balio du; eta horren txireneak ez diren auziak erabakitzeko. Jendeari ez zaizkio aski era bakuneko arauak beharrizan guztiei erantzuteko, eta horregatik dago hemen "era bikuna" deitu izan dena, jendeak era bakuneko arau haiek zergatik eta zelan apurtzen dituen aztertzeko.

Bigarren era hori osotuagoa da lehen era ere barnean baitauka. Baina lehen eta behin ezaugarri geometrikoak ikasi behar dira eta hiztunak konpetente izan behar du ezaugarri horietan, gero aspektu funtzional eta psikologikoei heltzeko. Piezen mekanizazioan antzera, arbastu lana dator lehenago, eta gero akabera doi eta leuna. Bigarren era horretan lan haundia egin duen [Herskovits, Annette(1988)]en hitzek gauza bera (baina era landuagoan) diote:

> Nolabait inpresionista izan arren, baina argigarri (*revealing*) halere, honelako hau izango litzateke hizkuntza ikusteko era hau. Hitzen esanahiak mundu idealean definitzen dira –mundu hori lerroek, puntuek, superfizieek, eta inklusiorako, kontakturako, intertsekziorako eta abarrerako erlazio zehatzek osotzen dutela–. Baina, mundu konplexu eta inperfektuari buruzko gauzak helburuak betez komunikatu eta deskribatu beharrak bultzatzen gaitu kontzeptuak okertzera eta tira-ta-tira egitera beste gune batzuetara ere heda daitezen. Okertze eta tira-ta-tira egite hori, halere, ez da hiztunaren gogora egitekoa; "hizkuntz arauak" txukunen betetzearen ondorioa ez izan arren, elkar ulertzea deitzen den eremuko mugak ezin dira igaro, horrela izakiez eta gauzez egiten ditugun esaldiek euren helburua bete dezaten, gehienetan behintzat. Hizkuntza ikusteko horrelako eraz baino ez diogu zentzua aterako semantikako edozein eremuko irregularitate aparente guztiei, azterketa sakonak horrelako irregularitate asko agertarazi arren. Orduan jo ahal izango dugu aurrera, kontestu situazional eta linguistikoan sartu direnean izaki kontzeptual idealak zelan itxuraldatu diren zehatz-mehatz deskribatzera.

Hortaz, lehen fasean, "hizkuntz arauak" mundu ideal eta geometrikoan definituak ikasi behar dira. Gero, behin hori ikasita, bigarren fasean, erdara garatuetan ikasita daukaten bezala, arrazoi funtzional-psikologiko-kognitibo-pragmatikoengatik lantzean behin "arauok" dotoreen zelan apurtzen diren ikasi behar da.

Tesilan honetan lehen atazari helduko zaio, hau da, euskaraz hizkuntz arauak (hemen hitzen esanahiak batik bat) mundu ideal eta geometrikoan zelan definituak dauden agerian jartzeari helduko zaio. Gainera era bakuneko semantika dator era bikuneko semantika baino lehenago, eta lehenago ikasi behar da gero bestea ulertzeko. Hortaz LEak aztertzeko era bakuna, edo kontuan

egoneko ezaugarri geometrikoak baino hartzen ez dituena, erabiliko da. Ondorioz, era bikuna alde batera utziz, higidurako kasuak ez dira aztertuko.

2.4.3 Deixia

Gero 2.11 azpiatalean luzeago iruzkinduko den gaia da hau. Hiztunak espazioa bere buruarekiko antolatzen (orientatzen, urrun-hurbiltasunak jartzen) duenean gertatzen da deixia, eta egozentristak garenez, sarritan gertatzen da batik bat espazioaz zerikusi zuzena daukaten esaldietan.

[Cuyckens, Hubert (1983)]ri jarraiki, deixi espazialaren adibideak diren kategoria lexikalak hauek dira:

a) Erakusleak, adz. "hau", "hori".

b) Aditzondoak, adz. "hemen", "hor".

c) Higidura aditzak, adz. "etorri", "joan".

d) Preposizioak, LEak euskaraz, adz. "aurre", "atze", "ezker", "eskuin", "behe".

Gero, b)koei *batez ere deiktikoak diren hitza*k deritze, eta d)koei b*atez ere deiktikoak ez diren hitzak, baina ezaugarri deiktikoa hartu ahal dutenak*.

Tesilan honetako azterketan *batez ere deiktikoak diren hitzei* hartuko zaie aintzat deiktikotasuna. Eta batez ere deiktikoak diren horrelako hitzei "leku izenorde deiktiko" deitzen zaie 2.5 Terminoak azpiatalean.

2.4.4 Beste zenbait esparruratze

Azterkuntzaren esparruak beste zenbait alderditan muxarrapen txikiagoren bat izan dezake. Muxarrapen horien berri euren tokian tokiko azalpenetan emango da, adibidez aztertuko den LEen kopuruari dagokiona 2.7.4 azpiatalean, edo "orientazio" deiktikoei eta intrintsekoei ez zaiela jaramon haundirik egingo 2.11.3an.

2.5 Terminoak

Hurrengo hitz hauek jarraian azaltzen diren adierak baino ez dituzte izango tesilan honetan.

Abiakia

Erraz definitzen dugun izakia (hemen, betetzen duen lekugunea da izatez), eite ezaguna eta erabilia duelako, edota bere kokapena aurretiaz dakigulako.

Beharbada, "erreferentzi objektua" dela esanda hobeto ulertuko da, abiaki hau topografiako-edo erreferentzia dela argi izanez gero; hizkuntzalaritzako “erreferentzia” ez da behinik behin.

Abiaki deitutako lekugune hori gelditzat hartzen dugu, unean-unean behintzat, eta beste lekuguneak berarekiko lekutzen ditugu horrela, abiakitik abiaturik.

Erdal semantiketan, abiakik adierazten duen kontzeptuaren antzerakoa erabiltzen dituzte: *landmark* deitua (Space Grammar zaleek eta) edo *site* deitua (Claude Vandeloisek eta), edo *ground* deitua (Leonard Talmyk), edo *reference object* (Jackendoffek). Teknikako *erreferentzi plano* (edo lerro, edo sestra) kontzeptua hurbil dauka. Abiakia izatez kontzeptu geometrikoa (ideala, edo irudimenekoa) da. Diogun "etxearen ezkerraldea" eta tesilan honetan abiakia etxea da, baina benetako abiakia etxearen simetri planoren bat da; diogun "etxetik urrun" eta etxea da abiakia, baina etxea puntutzat hartu dugulako.

Bertan-ereduko

Bertan-ereduko izen-sintagma. Abiakia eta lekugune erlatiboa, biak lekuzko kasu berean deklinatuak daudenean deitu zaio “bertan-ereduko” tesilan honetan izen-sintagmatzat hartu izan denari, aposizioa edo justaposizioa izan arren. Adibidez: etxean barruan, etxetik barrutik. Ikus baitere 2.9.1 Sintagma Moetak azpiatala.

Egokera anitzeko

Esamolde hau erabili izan da tesilanean zehar, posizio-kontuetan jakintza estralinguistikoa ez dagoenean. Etxeek egokera bat eta ezaguna daukate, denok dakiguna. Pieza txikiagoek ostera, egokera anitz daukate, eta ondo azaldu behar izaten da bakoitza.

Eitea

Zerbaiten geometriaren itxura, askotan geometrian definitutako kontzeptuez adierazten dena.

Ekai Egindako Lekugune Erlatiboa(EELE), edo Lekugune Erlatibo Ekaitua.

(Hau hobeto ulertzen da "abereei azpiak egin", "gomazko zapata-azpiak", "lapikoaren azpia zulatu", "haragizko oinpeak", "etxearen alde bat erre" eta horrelakoak gogora ekarriz gero, metonimiaren bidez hor espazioa ekaitu egin baita).

Ukitu eta hartu egiten delako deitzen zaio honela. Masa eta pisua du. Izatez tesilan honetan, beste lekugune guztiak bezala, espazioa baino ez da, ekaitu bada ere. Lekugune erlatibo batean dago, LE hori baino hedadura txikiagokoa da eta LE horren izen berbera dauka. Edo izena berak eman dio LEari. Ekaiz egina da, eta ekai hori amaitzen deneko mugak dira bere mugak.

"Lapikoari azpia konpondu behar zaio, suak erre eta zuloa egin baitio", "lapikoaren azpian sua egin". Lehen esaldiko azpia EELE da, bigarren esaldikoa LE. Sarritan, ez beti, gutxi gora beherako ekuazio hau idatzi ahal da:

EELEa ia berdin abiakiaren LEan dagoen abiakiaren partea.

Eta beti ezin baina ahal deneko metodo hau ere badago LE ala EELE noiz den jakiteko. Abiakiak ez dauka, ez du LErik. Etxeak goia badauka, goi hori EELE da: dorreren bat izango da. Zapatak azpia badauka, gomazkoa da. Behiek azpi ederrak badituzte, azpigarri pila bat erabili izan da azpiok egiten.

Izen-sintagman datorrenean zailagoa da LEak eta EELEak bereiztea. "Urandelaren azpian" non den, ez da erraz asmatzekoa urandela ur-depositoa dela jakin arren. Eta urandelaren azpia ahuldu egin dela "jakitean" ez dakigu harria eta zementua ala altzairuzko xafla behar dugun urandela sendotzeko.

Espazioa

Dimentsio bateko (1D), biko (2D) edo hiruko (3D) hedadura, hutsik zein beterik. Ez du masarik, ezin da higitu.

Gogoan hartzekoa espazio-zatia espazio dela.

Lekua

Espazio haundiagoaren zatia, lekua bera ere espazio dela.

Leku Izenorde Deiktikoa(LID)

Leku edo toki-izenaren ordez esaten den hitza. Tesilan honetan **hemen, hor** eta **han** izango dira leku izenorde deiktikoak. Eta Leku Izenorde Deiktiko Hedatuak (LID Hedatuak), **hemendi, honaindi, horti** eta antzekoak (ikus 2.8 azpiatala).

Lekugunea

Gauza bat dagoen espazio edo lekua da gauza horren lekugunea. Lekua da, baina zehatzago adierazita, eskatu den zehaztasunaz adierazita. Lekugunearen izena esaten denean, lekugunearen eitea ere igartzen da sarritan, izen horretako lekugunearen prototipoa daukagu gogoan eta; hortaz, lekuguneak eitea ere izaten du sarritan. Zentzu bitan ulertzen da lekugune hitza:

1) Zentzu zabala. "Ikusten duzu kaxa dagoen lekua? Ba, huraxe da kaxaren lekugunea." Kaxa bera baino leku haundiagoa izan daiteke kaxaren lekugunea. "Kaxa gelan dago"; gela da lekugunea, kaxak gela osoa betetzen ez duela jakin arren.

2) Zentzu hertsia. "Ikusten duzu gelak betetzen duen lekua? Ba, huraxe da gelaren lekugunea." Gelak betetzen duen espazioa da gelaren lekugunea. "Ikusten duzu kaxak betetzen duen espazioa? Ba, huraxe da kaxaren lekugunea." Kaxak betetzen duen espazioa da kaxaren lekugunea. Hortaz, gela deritzon lekugunean, kaxa deritzon lekugune txikiagoa dago.

Ez da kontraesana, zehaztasun maila baizik. Lehen kasuan zehatzpirriak "kaxa gela osoan dago, ala?" edo "gelan, non?" itanduko luke.

Hizkera arruntagoz, leku hitzak ordezten du sarritan lekugune hitza. "Kaxa dagoen lekua" esaten da.

Tesilan hau ez da lekuguneez ari, lekugune erlatiboez baizik, eta lekugune-kontzeptuak ez du garrantzi haundiagorik, baina bigarren zentzu hertsi hori gogoratzea ondo dator, tesilan honetan ez baita espazio ez den ezertaz hitz egingo. Horrela, tesilan honetan "mendi" esango denean, mendi-eitea izan eta mendi deritzogun gauza horrek betetzen duen espazioa baino ez da esango, eta ez mendi hitzak gogora dakarkigun beste gauzarik. Arau horren salbuespen bakarra **parte** hitza izango da, ez-espazioa adierazteko ere zeozer behar da eta.

Lekuguneek azpilekuguneak (edo beste lekugune batzuk) izaten dituzte: mendiak tontorra eta malda, etxeak gela eta teilatua.

"Zerbait teilatuaren posizioan(lekugunean)[30] dago" edo "zerbait teilatu lekugunean dago" edo, hizkuntza arruntagoz, "zerbait teilatuan dago" esaten da.

Lekugune bateko beste (azpi)lekuguneak kokatzeko, lekugune nagusia abiaki bihurtzen da, eta hemen beherago definituko diren lekugune erlatiboez, hau da, abiaki edo lekugune nagusiarekiko erlatibo diren lekuguneez baliatu behar gara. Adibidez, “etxeko goiko gela”.

Lekugune Erlatiboa(LE)

Abiaki batekiko espazio edo lekugunea da. Abiakiak ez bezala, ez du ez eite ezagunik ez kokapenik abiakiarik gabe. Espazioak ez hartu ez higitu ezin direnez, lekugune erlatiboa abiakia higitu bada izango da beste espazio bat.

Adibidez, **barru** lekugune erlatibo da, abiakiarekiko espazio bat da, abiakian bertan egon eta abiakiaren kanpo-mugek mugatzen duten espazioa hain

[30] Mailegatuko hitza polisemikoa da. *Posizio* = lekugune, baina baitere ipinkera edo ipintzeko era, *alboz behera* ala *tente* esaterako. Tesilan honetan horregatik hobetsi da *lekugune.*

zuzen ere. Zelakoa abiakia eta halakoa barrua, **barru**k ez baitu eite ezagunik. Non abiakia eta bertan barrua, **barru**k ez baitu kokapenik abiakirik gabe. Izen sintagman ere beti da *abiakia-REN*[31] *barrua,* eta inoiz bakarrik badoa, entzuleak / irakurleak argi izan behar du *zeren barrua* den, bestela ez baitio antzik emango, ezta non dagoen ere jakingo.

Zalantzak kentzeko, beste mugatzaile bat ere ezarri behar zaio lekugune erlatiboen definizioari: berezko espazioa izan behar duela, eta ez xederen batengatik marraztu dena, ezta legez-edo ezarri dena. Horrela, **simetri ardatz, erdikari, muga, zede, eliz barruti** eta horrelakoak ez dira lekugune erlatibo. Izan ere horietako zenbaiti *leku geometriko* deitzen zaie aproposago[32].

Hemen espazio-zati bezala definitu da LEa, baina espazioa eta hizkuntza gauza bi dira, eta espazioak zati gehiago ditu hizkuntzak hitzak baino. Horrela hitz baten bidez bi-hiru LE edo gehiago ere adierazi nahi izaten da. Hori zenbat adiera dituen hitz horrek. Tesilan honetan gehienetan hitzari deituko zaio lekugune erlatibo, papera hitzen ordezko marrazki txikiz ez betetzeko, baina izatez sarritan hitz horren eduki semantikoan LE bat baino gehiago dagoela gogoan izanik.

LEek izen-kategoria daukate denek.

Lekugune Erlatibo Osokoa(LEO)

Lekugune erlatiboaren espazioa bere osoan ulertzen zaion LEa da Lekugune Erlatibo Osokoa. Esaterako, **inguru** entzuten denean, perimetro osoa ulertzen da, bestela ez baita inguru.

LE gehienak LEO direnez, ez da beraien LEO izatea sarritan aipamenez adieraziko.

Lekugune Erlatibo Zatikoa(LEZ)

Lekugune erlatiboaren espazioa zatika ulertzen zaion LEa da Lekugune Erlatibo Zatikoa. Esaterako, **ondo** inguru osoko espazioa da, inguru osoko edozein puntu ala gune baita **ondo**, baina **ondo** entzutean inguru oso horretako zati bat baino ez da ulertzen. "Txomin etxondoan dago", edozein aldetan dago baina ez dago alde guztietan. Baitere, Muxika Gernikondo(a)n dago, baina Muxikak ez dio inguru osoa hartzen Gernikari.

"Inguru osoan?" itandu ahal da, baina "ondo osoan?" ezin da.

---

[31] Izen-sintagmaren loturez luzeago hitz egingo da 2.9 azpiatalean.

[32] Lekugune erlatiboak bereizteaz eta zerrendatzeaz 2.7.4 azpiatalean idatziko da luzeago.

LE gutxi baino LEZ ez direnez, beraien LEZ izatea aipatu egingo da tesilanean zehar.

Norakotzea

Izakiei, koordinatu sistema cartesiarretan antzera, goia eta behea, atzea eta aurrea, ezkerra eta eskuina, ezarri behar izaten zaie, hau da, norakotu egin behar izaten dira. Frantseseko *orientation* eta ingeleseko *reference frame*ren antzerako kontzeptua da norakotzea. Ikus baitere 2.11.1 azpiatala.

Partea

Ekaiz egindako izaki baten atala. Masa eta pisua dauka. Tesilan honetan **alde** espazio hutsa izan daiteke, baina **parte** ez.

Zeren-ereduko

Zeren-ereduko izen-sintagma. Abiakia edutezko genitiboan, edo izen konposizioan, daukan IS da. Ikus baitere 2.9.1 Sintagma Moetak azpiatala.

Zuina

Bigarren abiakia. Marrazketan-eta erreferentzi planoa, lerroa edo puntua deituz erabiltzen dena.

Sarritan lehen abiakiari uko egin gabe, bigarren abiaki batekiko egiten dugu hitz. Adibidez, lehen abiakia geu bagara, gutaz kanpoko zuin bat erabiltzen dugu eta espazioa zuin horrekiko adierazten dugu. "Mendiaz bestaldean" adibidean, lehen abiakia geu edo beste espazio ezagun bat da, eta bigarren abiakia edo zuina mendia da. "Arbolaren haraindian" adibidean, zuina arbola da, eta zehatz hitz egin behar badugu, hiztunarengandik urrunen dagoen arbolaren plano ukitzailea da zuina.

Irudimeneko plano edo lerroren bat izaten da zuina gehienetan. Adibidez, "etxearen hormako ezkerraldeko leiho biribila" esaldian, lehen abiakia geu etxearen hormari aurrez aurre begira eta hortaz geure ezkerra, eta hormaren erdiko lerro bertikala da bigarren abiakia edo zuina. Eta "etxearen hormako ezkerraldeko leiho biribilaren goialdeko armarriaren behealdeko irudia" esaldian abiaki bat eta hiru zuin erabili dira.

Zuin objektiboa

Denon zuina, zuin kanonikoa edo zuin objektiboa ere izaten da, batez ere goitik beherako norabidean, gizakia arestian baino ez baita lurretik urrun aldendu. Horrela, denontzat dago Aizkorri goian eta Oinati behean, eta goia eta behea

bereizten dituen zuina bien artean jartzen da, gaur egun ere salbuespen diren hegazkinekoentzat Aizkorri ere behean dago baina. Baserri etxeetan zuin hau lurretik hiru-lau metrotara jartzen da. Baserri etxeetan ezkerra eta eskuina bereizten dituen zuin objektiboa teilatuko gailurra hartzen duen plano bertikala izaten da.

2.6 Erdaretako lanak lekugune erlatiboez-edo

Frantsesean eta ingelesean egin izan dira eskuratu ahal izan diren zenbait azterkuntza espazioari buruz, baten bat alemanean ere bai, eta artikuluren bat beste hizkuntzaren bateko espazio-alderdiren batez. Azterkuntza haundien arteko salbuespena, europar hizkuntza batean ez baita, [Casad, Eugene H.(1982). *Cora Locationals and Structured Imagery*] doktorego tesia, *kora* deitutako Mexikoko indioen enda baten hizkuntzaz baita, ingelesez idatzia izan arren. Ez da beste azterkuntza haundien berri izan, eta izan balitz, japonieran edo txetxenieran esaterako, horrek japoniera edo txetxeniera ikastea eskatuko zukeen hemen aintzat har zedin.

Casaden tesia oraingoz albo batean utziz gero, elkarren artean antzekoak diren hiru hizkuntzatako lanak geratzen dira kontsultatzeko. Hizkuntza horietan adierazten diren erreferente espazialak eta euskarakoak, eta hizkuntza horietan erreferente espazialak adierazteko erak eta euskarakoak, desberdinak dira sarritan. Hemen "lekugune erlatiboa" euskararako definitu da; ingeleserako adibidez, definizio desberdina beharko da, *relative position* kontzeptua egon arren preposizioen bidez gauzatzen baita. Hasteko, ingelesean eta frantsesean preposizio topologikoak daude (at, in, on / à, dans, sur) erdara horietako kontzeptuak adierazten laguntzeko, eta euskaran ez daude.

Dena den, gainbegirada bat emango zaie hemen hurrengo, G. N. Leech eta Andrée Borilloren lanei, merezi du eta; tesi honi zuzen-zuzen lagundu ez badiote ere, zeharka laguntza haundikoak izan baitira. Gero, fase aurreratuago bateko lanak, jakintza estralinguistikoa eta fisika naifa eta abar kontuan hartzen dituztenak, iruzkinduko dira iraizean, tesi honetarako ez baitute garrantzi haundirik, aurrerako bidea erakusteko ez bada (2.4.2 azpiatalean esan den bezala). Azkenik, L. Talmyren lana iruzkinduko da sakonago, psikologia kognitiboaren barruan kokatzen den arren, tesilan honetan irudi eskematikoak erabiliko direnez, berak eskemei buruz dioena kontuan hartzea komeni baita.

2.6.1 G. N. Leechen ekarpena

1969ko bere *Towards a semantic description of English* liburuko espazioari dedikaturiko 8. atalaren hasieran Leechek, hemen 2.4.2 azpiatalean esan denaren haritik, "ingeleseko lekuaren semantikari heltzeko, erlazio estatikoaren arazo sinpleagoan hastea egokiagoa dela" dio, "higidura daukaten erlazio dinamikoak aztertu baino lehen".

Jarraian bere oinarriko kontzeptua, *system of "place"*[33], aurkezten du:

SYSTEM 1 "place"

(x) →PLA (y) "(x) at/on/in place(y)"

(x) ←PLA (y) "(y) at/on/in place(x)"

Eta horrek, euskarak eta ingelesak dituen ezberdintasunetariko bat, hasi baino ez, eta agerian jarri du, euskarak ez baititu [Aurnague(1991)]ek-eta "preposizio topologiko" deitutako horiek.

[SYSTEM 2] preposizio horiei osagai dimentsionalak ezartzeko da.

[SYSTEM 3] *by* preposizioari hurbiltasun osagaia ezartzeko.

Gero erlazio bertikalei eta horizontalei heldu die, berak *prepositions and preposition-like locutions* deitutako *over, under, in front of, behind, to the left of, to the right of* iraizean aztertzeko. Oraindik ez dago gero hizkuntzalariek *intrinsic reference frame* edo frantsesez *orientation intrinsèque* deituko dutena asmatuta, eta nekez dabil sail honetan. Hori bai, hiru ardatz elkartzuten sistema darabil lehen aldiz: ardatz bertikala *(over/under)*, lehen ardatz horizontala *(in front of/behind)* eta bigarren ardatz horizontala *(to the left of/to the right of)*. Geroago berak ere, [Leech, Geoffrey(1981) *Semantics: the study of meaning*] liburuan, preposizio-sail berbera berrartuko du eta 1969an konpondu ezin izan zuena 1981ean bere erara konpondu du NORABIDE-osagaia ezarriz preposizio horiei. Honela

(a) over	(b) under	(C) in front of	(d) behind
[←→SPATIAL]	[←→SPATIAL]	[←→SPATIAL]	[←→SPATIAL]
→DIRECTION	←DIRECTION	→DIRECTION	←DIRECTION
-HORIZONTAL	-HORIZONTAL	[+HORIZONTAL]	[+HORIZONTAL]
		-LATERAL	-LATERAL

(e) on the left	(f) on the right	(g) beside, by
[←→SPATIAL]	[←→SPATIAL]	[←→SPATIAL]
→DIRECTION	←DIRECTION	+PROXIMATE

[33] "Systemic analysis" eta "componential analysis", gero hemen osagaikako analisia deitu dena, sinonimoak dira berarentzat.

[+HORIZONTAL]	[+HORIZONTAL]	[+HORIZONTAL]
+LATERAL	+LATERAL	+LATERAL

Liburu horretan (1981ekoan) xedea ez da espazioaz luze tratatzea eta preposizio horien osagaikako analisia (*compositional analysis*) baino ez du eman. Bere 1969ko liburura itzulita, *side* LE dena edo *preposition-like* delakoa azaltzeari heldu dio, eta berak *general connector of locations* deitutako osagaia asmatu arren, makeztuta eta aurrera egin ezinik geratu da; behintzat azaldu beharrekoaren erdia ere ez du azaldu. Eta hori, Leech abiakiaren kanpoaldeko *side* baino ez dela azaltzen saiatu. Izan ere, *side* oso LE korapilotsua da *outside*an ere *side*ak baitaude. Horrela, *side* utzi eta lehengo (over, under,...) preposizioei ekin die, horretarako beste lau osagai-sistema ezarriz:

SYSTEM 5 "vertical"/"horizontal"
+VER "vertical"
-VER "horizontal"
SYSTEM 6 "horizontal axes"
+PRI "primary horizontal axis"
-PRI "secondary horizontal axis"
SYSTEM 7 "distance"
+FAR " far from"
-FAR "near to"
SYSTEM 8 "plus"/"minus"
(x) →PLUS (y) "(x) is over/in front of/to the left of (y)"
(x) ←PLUS (y) "(x) is under/behind/to the right of (y)"

Eta preposizio horien osagai semantikoak honela utzi ditu:

over:	+VER →PLUS
under:	+VER ←PLUS
in front of:	-VER +PRI →PLUS
behind:	-VER +PRI ←PLUS
to the left of:	-VER -PRI →PLUS
to the right of:	-VER -PRI ←PLUS

Horrela, adierazpide espazialen semantika formalari eman dio hasiera liburu honetan. Eta aurrera darrai bertako 8. atalean *"Extremities and parts of locations"* deitutako azpiatalean abiakiko bertako espazioak eta parteak azaltzen, eta lehengo antzera osagai semantikoak ezartzen. Ez du argi uzten bere *extremities* eta *parts*-en arteko desberdintasuna, baina beste lau osagai-sistema

darabiltza *side, top, bottom, side, front, back* eta beste laugarren *side* bat azaltzeko.

Jarraian erraz eta arin gainditu du *Compass points* (otaneko norantzak? norantza geografikoak?) deitu dion azpiatala beste osagai sistema biz. Orientazioari eta deixiari beste azpiatal bat eskaini dio dena osagaika ebatzi nahian. Eta azken azpiatala higidurari ez, baina higidura osteko helmugari eskaini dio.

2.6.2 Andrée Borilloren *Le lexique de l'espace*

Semantika espazial frantsesean *noms de localisation interne(NLI)* eta *adjectifs de localisation interne(ALI)* terminoak erabiltzen dira, NLIak abiakiaren barneko LEen antzekoak direla. Andrée Borilloren "Le lexique de l'espace: les noms et les adjectifs de localisation interne" 1988an argitaratu zen.

Artikulu horretan *localisation externe* delakoa aipatu zuen aurkezpenean, eta behar dituen *prépositions directionnelles ou projectives,* baina argi utzi zuen artikulua *localisation interne* delakoaz dena eta bestea ez zuen gehiagotan aipatu ere egin.

Borillok dioenez barne-lekutzea frantsesez batez ere eraikuntza sintaktiko hauen bidez gauzatzen da:

N_0 V prep NLI de N_1	*Le livre est sur le bord de la table* (liburua mahaiaren hegal gainean dago)
Il y a N_0 prep NLI de N_1	*Il y a un object suspect á l'arrière de la voiture* (objektu susmagarria dago kotxearen atzean)

non: lekutu nahi den izakia N_0 den, egoneko aditza*(verbe statif: être, être placé, stationner, se trouver,...)* V den, preposizio topologikoa (euskarak ez daukana, itzulpenean "*sur* = gainean" egin bada ere) prep den, eta abiakia N_1 den.

(Tesilan honetan [prep NLI de] horren baliokidea da aztergaia; N_1 horri abiaki deitu zaio; gainerakoa ez da hemengo ardura)

Borilloren beste ekarri garrantzizko bat *Relation de localisation interne eta relation d'appartenance* aztertu duenekoa da. Hau da, NLI horiek noiz diren espazioak(beste esanahirik gabe) ala noiz diren N_1en atal solidoak (parteak). Arazoa ez badu guztiz erabaki ere, arazoa aipatu egin du behintzat. Eta posesiboa erabili du (frantsesez) bereizmen-ahalegin horretan.

Parlant d'une table, on peut dire (mahaiaz hitz egintean, zera esan ahal da):

Il y a de taches sur son pourtour (lohiuneak daude bere hegaletan)

Il y a des papiers dans son tiroir (paperak daude bere tiretan)

Mais, s'agissant de l'avant d'une voiture, on peut comparer (baina autoaren aurrea bada, zerak aldera daitezke):

**? Il y a des housses à son avant* (estalkiak daude bere aurrean)

Il y a des housses à l'avant (estalkiak daude aurrean)

Pour le fond de la pièce (gelaren barru-barrua bada):

** Il y a des sièges à son fond* (jezarlekuak daude beraren barru-barruan)

Il y a des sièges au fond (jezarlekuak daude barru-barruan)

Gero Borillok, NLI diren lexemen inbentarioa egin du (frantsesean), eta euren propietate sintaktikoak eta semantikoak direla-eta, talde lexikal homogeneoa osotzen dutela erakutsi du. Frantsesez NLIen alderdi sintaktikoak arazorik ez du sortzen berak dioenez, alderdi semantikoak bai baina. Frantsesean 110 inguru NLI daude, baina gogoan izan behar da NLIak direna, eta asko LE ez direna; eta gainera, lanbide espezifikoetakoak dira zenbait. Baina bertan irakurriz gero, euskaraz ere **ababor** LEa dagoela dator gogora.

Tesilan honetako LEak, Borilloren NLIen azpitalde bat izanik, talde are homogeneogoa osotzen dute. Hori NLIei dagokienez, baina tesilan honetan NLEak *(noms de localisation externe)* ere aztertzen dira.

2.6.3 Deskripzio funtzionalak, pragmatikoak eta kognitiboak

Harrezkero espazioaz arduratu diren hizkuntzalari gehienek Leechen eredu logiko-geometrikoa (logikoa edo geometrikoa) nahikoa ez dela diote hiztunak adierazgailu espazialez egiten dituen erabilkera guztiak azaltzeko. Eta arrazoia daukate, deskripzio logiko-geometrikoak behinenak ez direnik ez diote eta. Hizkuntzalari hauek munduaren ezagutza (edo jakintza estralinguistikoa), eta fisika naifa (edo etxean ikasitako fisika erraza) jartzen dituzte jokoan. Parametro bi horietarik lehenak garrantzi haundia du esaldi (ez-tekniko)ak eratzerakoan eta ulertzerakoan. Bigarrenak ere bai, zeren "zuzen doana zuzen doa" Lur planetari bira erdia egin dion arren. Hortaz, hiztunak espazio-adierazgailuei eredu logiko-geometrikoak azaltzen ez dituen erabilkerak (eta esanahiak) ematen dizkie, bere (eta entzulearen) munduaren ezagutza eta fisika naifa berdinak direla-eta horrela ere elkar ulertzen dutelako.

Hauetariko lan tipikoa [Valdeloise, Claude (1986). *L'espace en français.*] liburua da. Vandeloisek lehen atala honela deitu du: *Au-delá des descriptions géometrique et logique de l'espace: une description fonctionelle.* Vandeloise deskripzio logiko-geometrikoetatik haratago doa, baina deskripzio horiek dituela oinarri, abiapuntu eta mintzagai. Gero, deskripzio horiek, hertsiegi edo aldaezin

hartuta, sortzen dituzten kontraesan edo paradoxak dakartza agerira Valdeloisek. Adz. *dans* frantsesez **barruan** da deskripzio logiko-geometrikoz, eta garagardoaren bitsa *dans la verre* (edalontziaren barruan) dagoela esaten ei da, bitsa gainez eginda egon arren. Eta *l'arbre est dans la terre* esaten ei da, lurretan edo lur barruan sustraiak baino ez egon arren. "Aulkia mahaipean" eta "papera mahaipean (hankapean)" ere alderatu ditu, eta azalpen bi eman ditu kontraesan hori ebazteko: bata, -pean horrek (*en dessous* frantsesez) esanahi bi dituela; bestea, mahai hitzak esanahi bi dituela, taula bakarrik ala taula hanka eta guzti dela[34]. Bigarren aukera hori iruditu zaio logikoena. Higidura sartuz, lehenago aipatutako karramarroen aurrekotasuna dakar. Deskripzio funtzionalak (ere) sortuko dituen azterketa funtzionalaren beharrizana aldarrikatu du Vandeloisek. Arrazoia du, baina hizkuntzaren, edo mintzairaren, azterketako fase horretako arrazoia.

[Herskovits (1982)] doktorego tesiaren ardatzak kontzeptu bi hauek dira: *"core meaning"* (esanahi zentrala) eta *"use type"* (erabilkera aparta). Esanahi zentrala idealizazio geometrikoak erabiliz lortzen da. Annette Herskovitsek bere tesian, ingeleseko preposizioaren aspektu semantiko guztiak ukitu eta neurri haundi batean landu ditu; baita aspeku pragmatikoak ere, *Pragmatic principles and near-principles* atalean, hatsarrez hatsarre. Bera da baitere, hiztegiez zeozer dioen bakarra, azken laburpenean zera dioenean: *The lexical entry for a preposition should include a geometric "core meaning", and a collection of "use types"*. Tamalez, bere tesia ikerketa-lan honetatik zenbait urrats dago urrunegi, eta hemen *core meaning* horien filosofia baino ez da erabiliko, 2.4.2 azpiatalean aurreratu den bezala; baina esanahiak aurkitzeko metodoa bestelakoa izango da, euskara ingelesa bezain "egina" ez dagoelako, eta LEak preposizioak ez direlako.

Semantika Kognitiboan sartuta, zeinu lexikal bakoitzaren eduki semantikoa askoz haundiagoa egiten da. Semantika honetan ere adiera zentrala(k) espaziala eta geometrikoa izaten da, eta gero, metaforaren, motibazioaren eta abarren bidez sortzen dira beste adierak. Egin dira zenbait azterketa adierazgailu espazialei buruz, batez ere ingelesez, bertan *up, out* eta *over* aztertu direla. [Lakoff, George (1987)]k, bere [*Women, Fire, and Dangerous Things. What Categories Reveal about the Mind.]* liburuan eman du azterketa horien berri, eta *over*rena hartu eta berak iruzkindu eta sakondu du. Claudia Brugmanen azterketaren arabera, eta berak dioenez, *over*rek ingelesez ia ehun erabilkera ditu bai partikula, preposizio, atzizki edo aurrizki bezala. Halere, adiera zentrala

[34] Frantsesez egongo dira mahaiaren esanahi bi horiek, baina [Talmy, Leonard (1983)]k dioenez, Kaliforniako atsugewi hizkuntzaz mahaiak hankak ere barruan eduki behar dituen bolumena du eta aulkia ez litzateke mahaipean egongo, mahai barruan baizik.

above-across esan nahi duena dela, eta beste adierak adiera zentral horretatik motibatuak edo metafora eginak izan direla dio, horixe frogatzen ahalegindu ondoren.

2.6.4 Hizkuntzalaritza-teoriak indartzeko egindako azterkuntzak

Lexiko espaziala erabili izan da teoria gramatikal batek espazioaren gauzak beste teoriek baino hobeto azaltzen dituela erakusteko ahalegina egiteko. Horietako bat [Bennett, David C (1975). *Spatial and Temporal Uses of English Prepositions. An Essay in Stratificational Semantics.*] da. *Stratificational grammar* ere badago. Bennettek osagaikako analisia darabil, baina bere osagaiak *source*(abiapuntua), *path*(bidea), *goal*(helburua), *location*(lekua), parametro amankomuna eta gehiago dira. *Semotactics* eta *lexotactics* bezalako kontzeptuak erabiliz, diagrama eta azalpen oso konplexuetara iritsi da. Konplexuegiak ezer argitzeko. [Cienki, Alan J. (1989)]k dioenez, "preposizio bakoitzaren semantika azaldu ordez, ingelesaren egitura espazialaren semantika osoa ezaugarritzen saiatu da; ondorioz, preposizioen osagaikako irudikapenak oso "apainduak" dira". Liburuaren azkenean Bennettek berak ere zuritu du bere burua, behintzat arazoari beste ikuspuntu batetik begiratu zaiola dioenean.

Hauetariko beste lan bat [Casad, Eugene H. (1982). *Cora Locationals and Structured Imagery* (Doktorego tesia)] da. Lan hau Roland Langackerren *Space Grammar*(edo *cognitive grammar*)en abantailak erakusteko egin da. Ahalegina merezi izango zuen, baina horretaz ziur egoteko uto-aztekar familiako *kora* hizkuntza hori jakin behar da; bestela egileari sinetsi baino ezin baita egin, datuez (lexikoaz, edo aurrizkiez, artizkiez eta atzizkiez hobe esateko) egileak baino ez baikaitu hornitu. Eta gero *space grammar* begiratzea dator, espazioaz zerikusi txikia (besteek bezainbestekoa) daukala ikusteko.

2.6.5 L. Talmyren irudikapen eskematikoa

Deskripzio kognitiboen eremuan kokatu behar den lanean, hizkuntzaren bidez gauza espazialak adierazteko, gizakiak espazioa kontzeptutan zelan jartzen duen azaldu du Leonard Talmyk. Bere [Talmy, Leonard. (1983) "How language structures space"] artikulu luzean, gizakiaren kontzeptualizazio hori, hizkuntzaren sail batean (*subdivision of language*), berak *fine-structural level* deitu duen sailean, era eskematikoan egina dela dio. Egitura fineko maila (*fine-structural leve*l) hori klase itxiko hitzek (preposizioek, atzizkiek, eta abarrek)(ez lexiko irekikoek:izenek, aditzek, adjektiboek) osotzen dute. Bere azterketa

ingelesez eta ingeleserako eginda dago, eta espaziora, batez ere preposizioetara, mugatu da.

Banako eskema horien oinarriko propietateak zeintzuk diren azaldu du gero. Zoritxarrez, banako eskema bakoitza ez du definitu, horrek artikuluaren neurria gaindituko ei lukeela eta. Berak, hemen kopiatu den *across*-en eskema erabili du adibide gisa (artikuluan marraztu duen eskema bakarra).



a. across the river



b. across the tenis court



c. *across the pier



d. ?across the swimming pool



e. across the lake

Adibide hori (across), tesi honen esparrutik at dago, higidura eskatzen baitu beti, *that is across the street* esaten denean ere "hori kalean zehar joanda dago" esan nahi baita.

Dena den, Talmyk eskemen oinarriko propietateak ezarri ditu. Propietateok hauek dira:

a) Idealizazioa. Bere benetako zertzelada guztiak irudikatzeko, lerro asko eta asko beharko lituzkeen gauza bat lerro gutxitan irudikatzen da. Arkatz bat zuzenki bat egiten da, laku bat lerro itxi planar bat, eta batzuetan planeta oso bat puntu bat bailitzan hartzen da.

b) Abstrakzioa. Idealizazioan gauza bat irudikatzeko lerroak behin aukeratuz gero, beste zertzelada guztiak ahaztea da abstrakzioa. Adz. berdin dio ibaiak alboko mugarik ez izan, edo tenis-zelaiak izan.

c) Topologia. Abstrakzio haundiagoari topologia deitu dio Talmyk, eta bi dira bere ezaugarri nagusiak:

1) Eitea aintzat ez hartzea. Adz. berdin dio eite irregulerreko lakuko ur-azala izan ala tenis-zelai laukizuzeneko zoru sendoa izan, *across* joateko. Edo, artez joan ala sigi-saga joan. Edo uretan, airetan edo arbola artean joan.

2) Tamaina aintzat ez hartzea. Eskemoi dagokienez, berdin-berdin hitz egiten da gauza txikiez zein haundiez, distantzia txikiez zein haundiez. Adz. *the ant crawled across my palm, the man walked across the field, the bus drove across the country* (inurria nire esku-ahurrean zehar joan zen, gizona larrean zehar joan zen, busa lurraldean zehar joan zen).

Artikuluko 8. atala, eskema desberdinen arteko erlazioak azaltzeko erabili du Talmyk, eta eskematizazioan aukeragai hauek bereizi ditu:

a) Konfigurazio espazial desberdinetan parte hartzen duen gauzak eskema desberdinak izan ditzake. Adz. kaxa batek pilota bat barruan izatean, kikara bat gainean izatean eta zortzi metrotara panpina bat izatean.

b) Konfigurazio espazial berberean eskema bi erabil daitezke. Adz. *across the wheatfield* (gari-soroan zehar) eta *through the wheatfield* (garitzan, gari artean, zehar). Eszena berbera da, baina eszena ikusteko era bi, eta eskema bi ondorioz.

c) Elementu kulturalak eskema aukeragaien artean hautatzeko. Kasu batzuetan hizkuntza desberdinetan dauden desberdintasunak aipatu ditu hemen. Adz. ingelesez ibilgailu haundietan (gainean) *on the bus, on the boat* joaten da, eta txikietan (barruan) *in the car*. Eta hizkuntza aldenduagoetako desberdintasun haundiagoak.

d) Eskemen arteko jauziak. Hizkuntzek ez daukate "eskema-kontinuum" bat. Eskemarik eskema hutsuneak daude. Hiztunak erabilgai dauzkan eskemak lar zehaztuak ala zabar zehaztuak izan daitezke eszena jakin bat deskribatzeko. Adz. larrean edonondik edonorako ibilbide bat adierazteko, ingelesez *across, along, through eta around*-en eskemak hertsiegiak edo lar zehaztuak direla dio, eta txantxetan *"aflat"* preposizioa asmatu du ibilbide hori egokiago adierazteko. Alderantziz, beste preposizio bat beharko litzateke *across+through* (gari artean eta soroan aldez alde) lehengo eszenan adierazteko.

e) Eskemei zehaztasunak kentzea. Hiztunak sarritan jakinaren gainean erabiltzen ditu eskemak oker, beste aukerarik ez duelako edo; eta entzuleari informazio gehigarria edo kontestua ematen dio. Adz. *he ran across the bouleverd for 5 seconds, and then stopped in the middle* (5 segundoko arrapalada egin zuen bulebarrean zehar, bulebar erdian gelditzeko). Ingelesez *across* aldez alde da, eta erdian gelditu bazen, ez da *across.* Halere, esaldia ondo egina dago.

f) Klase irekiko elementuen erabilera. Klase itxikoek nahikotasunez adierazten ez dutenean, klase irekikoak erabiltzen dira, hala nola sigi-saga, espiralean, zentrokide, lapran, erdiratu, hiruzulotu, eta abar.

g) Beste hiru azpiatal darabiltza Talmyk labur-labur entzulearen irudi-eraikitzea, hiztunaren deskripzio lantzea eta zientzia kognitiboak aurrean duen ataza azaltzeko.

Azkenik, preposizioek eta deiktikoek ukitzen dituzten parametroak baino ez konbinatuz zer nolako konfigurazio-kopuru erraldoia lortzen den erakutsi du Talmyk. Eta konfigurazio bakoitzerako hitz bat beharko balitz, milioika hitz beharko litzatekeela dio, eremu semantiko horrexetarako bakarrik.

Baina Talmyk, lehenago esan den bezala, ez digu banako eskema bakoitza eman; *across*-ena bakar-bakarrik eman du. Ingelesa euskara ez dela gogoan izanda ere, eskema horiek izango ziren lagungarrien tesilan honetarako. Eskemok egiteko ekarpen bezala, bere artikuluan zeharka esan duen apurra baino ez zaigu geratzen:

1) Ingeleseko *in front of, in back of, beside* eta horrelakoak abiakiaren ondo-ondoko espazio-bolumenak eta lursail-zatiak adierazteko direla. Ondo-ondokoak eta espazio-bolumenak eta lursail-zatiak baino ez. Ez dutela urrunagoko espazioak adierazteko balio.

2) Abiakitik urrunagoko espazioak adierazteko, ingelesak tajuzko adierazgailu askorik ez duela dio (*poorly represented in English*). Berak *to the right, rearwards* eta horrelakoak aipatu ditu, non adierazi beharrean norantz adierazten dutenak. Euskaraz ere berdin dago arazoa: gauza bat udaletxearen eskuinaldean baina urrun baldin badago, udaletxetik eskuinera (eskuinerantz) joan eta han dago. Ez dago eskuinean, eskuinerantz joanda dago.

Eta besterik ez eskemak marrazteko. Ez da gutxi, eta horrez gain, Talmyk beharrezkoa den ikuspegi orokorra eman dio Espazio eta Hizkuntza gaiari berak definitutako Egitura Fineko Maila horretan.

2.6.6 Ondorioak

Iraizean izan bada ere, Espazioa eta Hizkuntza gaiari buruzko zenbait azterbide eta azterlan iruzkindu izan dira, beti ere 2.4 azpiatalean jarritako tesilan honen mugak gogoan hartuta, bestela eta gai osoa jorratzeko askoz luzeago idatzi beharko baitzen.

Meritu haundiko lana da Leech-ena. Berak dio erlazio espazialak espazioko izakiak egonean daudela aztertu behar direna lehen eta errazago, eta gero erantsi behar zaizkiela higidura-eta. Horrez gain, adierazpen espazialen semantika formala proposatu du. Berak ingeleserako darabilen formalismoa edo metodoa, hizkuntza askotarako erabil daiteke, euskararako ere bai.

A. Borillok barneko lekutzea baino aztertu ez arren, espazio-lexikoaren ugaritasuna erakutsi du. Lexiko horretako lexemek propietate sintaktiko eta semantiko bereziak dituztenez, kategoria lexikal oso bat osotzen dutela ere erakutsi du.

Vandeloisen, Herskovichen eta Lakoffen azterkuntza funtzional eta kognitiboek deskripzio logiko-geometrikoak lexiko espazialaren erabilkerak azaltzeko nahikoa ez direla erakutsi dute. Halere, hitz horiek adiera zentral logiko geometrikoa dutela adierazi dute Lakoffek eta Herkovichek. Azkenik, Talmyren azterlanak eta bere eskematizazioak preposizioen (edo LEen) esanahiak irudiez adierazteko bidea erakutsi dute. Eskemen oinarriko propietateak ere azaldu ditu, eskemok hobeto asmatu eta marrazteko, berak bere artikuluan eskema bat baino ez marraztu arren.

Hemen goian aipatutako azterlan horietan, azterlariek enparauen azterlanak iruzkindu eta lantzean behin ezadostasuna adierazi ere egin dute. Adz. Leechen lanean funtzionalismoa edo pragmatika kontuan hartzen ez dela diotenean. Hiztegiak ostera, ez ditu batek ere iruzkintzen eta are gutxiago kritikatzen, Herskovichen iruzkin txikia salbu. Adz. batek ere ez du esan *on* preposizioaren 7. adiera ez dagoela hiztegi(et)an behar bezala definitua(deskribatua). Hizkuntza garatuetan ari dira lanean. Hizkuntza horietan hiztegigintza irauko hiru-lau mendeko ekintza da, eta lexikografoek lehen ahaleginean hutsen batzuk eginda ere, bigarren ahaleginerako ere izan dute astia bertatik hutsen bat kentzeko, eta hirugarren ahaleginerako astia. Eta hiztegiko lexikoa zuzentzeko astia hiztunak izan badu ere, urteen joanean hiztegiak ere badauka eragina hiztunarengan. Azkenean huts txikiren bat gelditu bada hiztegian, huts horrek izan du eragina, baita semantikariengan ere. Hiztunak egiten du hiztegia, baina hein txikiagoan bada ere, hiztegiak egiten du hiztuna.

2.7 Lekugune erlatiboen adieretara heltzeko bidea

Arestian esan den bezala, erdara garatuetako hizkuntzalariek hiztegi onetan datozen definizioak onartu eta jakintzat hartzen dituzte. Horrez gain hizkuntza horietan, espazio-adierazgailuak milioika lanetan saiatuak izan dira, eta preposizio horiek-eta erabiliz gai teknikoak, orain arte behintzat, beraiek ondoen adieraztea eta azaltzea lortu dute. Euskaran, hiztegigintzaren lehen ahaleginetan gaudenean, egoera bestelakoa da, eta honelako lan semantikoaren abiapuntuak ere bestelakoa izan behar du derrigorrean. Erdaretan jakintzat hartzen denaren parekoa jakin behar da lehenbizi arlo edo eremu lexikal honetan.

Horrez gain eta bestalde inoiz, hiztegigintzan (eta lan semantikoetan) tradizio luzeko hizkuntzetako hizkuntzalariek, hiztegigintzan tradizio laburreko edo gabeko hizkuntzak ikertu dituzte teoriaren bat indartzeko edo frogatzeko, hala nola [Casad (1982)]k edo [Svorou (1993)]k darabilten datuteria; baina deitu lekugune erlatibo ala *preposition-like*, deitu lekuzko hizki ala *space gram*, eduki semantikoa ez da inoiz eztabaidatu datuteria horietan: azterkuntza zalantzazkoa izan arren, aztertzaileak esan duena da beti, bertako *Oxford Dictionary*-n irakurri balu bezala. Azkar iritsi dira egia jakitera. Hemen astiroago joan beharra daukagu.

Erdal hiztegietan hitzen (lemen) adiera espazialen definizioak logiko-geometrikoak izan ohi dira. Eta definizio horiek dira behinenak eta beste definizioen abiapuntu hemen lehenago 2.4 eta 2.6 azpiataletan azaldu denarengatik. Definizio horiek, adieraz adiera, tesilan honetan zelan lortu diren azaltzea izango da 2.7 azpiatal honetako helburua.

2.7.1 Corpusen Beharra

Lexikologia estrukturaleko azterlanetan lemen definizio zehatzak behar dira eremu lexikaleko elementuak alderatzeko eta beraien arteko mugak eta erlazioak ezartzeko. Egin diren azterlanetan hiztegiak erabili izan ohi dira, hizkuntza garatuetako hiztegietako definizioak finkatuak, zehatzak, eta elkarren arteko alde haundi gabekoak baitira. Adz. [Espejo Muriel, Mª del Mar (1990). L*os Nombres de los Colores en Español. Estudio de Lexicología Estructural*] doktorego tesian hiru hiztegi darabiltza autoreak koloreen ezaugarriak ziurtatzeko, batez ere hiru hiztegietako definizioak antzerakoak direlako, bestela ezinezkoa egingo baitzitzaion ezer ziurtatzea, eta koloreak erkatzea. Lekugune Erlatiboen Eremu Lexikala aztertzeko ere erabilerak finkatutako adierak eta definizio zehatzak behar dira. Falta badira, lortu egin behar dira.

Hiztegi elebidunek ez dute adieren definiziorik ematen, baliokidetzaren bat duten erdarako hitzen batzuk baizik. Baliokidetza hori kontuz erabaki, edo asmatu egin behar izaten da. Euskaraz LEak kategoria gramatikalez izenak dira, leku berezien izenak hain zuzen ere (bereziak, beraien ezaugarriak abiakiaren menpe daudelako); hiztegietako erdaretan aldiz, *preposizio eta adberbio*en bidez adierazten da LEetako espazioa. Euskara eta erdaren bestelakotasuna dela eta, nekez eta txarto asmatuko da LEen eduki semantikoa hiztegi elebidunetatik. (1.4 azpiataelan ere idatzi da gai honetaz).

Hiztegi elebakarretan, **alde** eta oinarriko beste LE batzuk (gero LE enparauen definizioetan erabiliko direnak) azterkuntza sakonik gabe hizkuntza ez-saiatuan ondoen defini daitezkeen eran definituak daude: **alde**ren kasuan adibidez, definizio abstraktoegia (anbiguoegia) **alde** asko bertan sartzeko, eta adibideak, esaldi tipoak, irakurleak berak uler ditzan gainerako adierak, eta "ikus beste zenbait LE" irakurlearen lanari esker hankasartzeen kopurua haundiegia izan ez dadin. G. Leechi ere (ikus 2.6.1 azpiatala) ingeleseko *side* ugari irten zitzaizkion alde guztietatik. Bigarren mailako LEak oinarriko LEak erabiliz definitzen dira hiztegietan. *Ertz: Gauza lau bat amaitzen den aldea.* Eta hirugarren mailako LEak sinonimoen bidez definitzen dira. *Hegi: Ertza, bazterra.* Horrelako be(zoru) labankorretan inoiz ere ez seguru eta laprastadak asko, eta eskertzekoa aurrerantz egindakoak lau urrats baino ez badira ere. Eta esan den bezala, hiztegigileak ahal den lanik onena egin du. Baina horrelakoak baino definizio finkoagoak eta zehatzagoak behar dira, bai azterkuntza estrukturala hasteko eta baitere hiztun ia-konpetenteak hiztegian laguntza aurkitzeko.

LEen eduki semantikoak adieraz adiera, erabilera konkretuetara jo eta erabakitzeko, esaldi-corpusen beharra dago.

2.7.2 Corpusen Ezaugarriak

Corpus bi erabili dira adieren eduki semantikoak bertatik erabakitzeko. Beharrezkotzat jotzen da corpuson ezaugarriak ere jakitea tesi honetako lanaz iritzi mamitua izateko.

LAN HONETAN OROTARIKOAREN CORPUSA DEITUTAKOA

Euskaltzaindiak bere Orotariko Euskal Hiztegia gauzatzeko erabili duen (darabilen) oinarriko datutegia da corpus hau. Bertan, laurehunen bat idazlanen hustuketa agertzen da, 1545eko Dechepareren *Linguae Vasconum Primitiae*tik 1977ko Berrondoren *Kijote* itzulpeneraino. Hitz edo lema bakoitza idazlan guzti

horietan agertu deneko kasu guztiak datoz cospusean, eta kontestuaz jabetzeko, hitzaren aurrekoa eta atzekoa ematen da. Adibide legez ALBO hitza daukan esaldi bat ekarriko da hona, corpusean datorren bezala:

81681 219 Añ zuzen Artobero idoro neban ALBOAN da berari itandu neutsan:

Lehen bost zenbakiak idazlea eta idazlana jakinarazteko dira[35], [Agirre, D.; Kr] kasu honetan, eta azken hiru zenbakiak liburuko orrialdea adierazteko. **Albo** hitzak horrelako 600en bat esaldi ditu corpus honetan.

Baina hemen goian aipatutako esaldi hori ez da balio haundikoa tesilan honen xederako, bertako ALBOk ez baitu nontasun ondo kokaturik. Lateraltasuna ez, **abiaki edo erreferentzia baten ondo (inguruko gune bat)** adierazi nahi duela dirudi, %90 ziur horretaz, baina ez guztiz ziur, eta ez da **albo** definitzeko erabili, batik bat esaldi hoberik bazegoelako. Gehien-gehienetan bai, baina beti ez da esaldi hoberik aurkitu LE gutxitan erabilitakoetan.

LAN HONETAN UZEIREN CORPUSA DEITUTAKOA

Corpus honen benetako izena Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS) da izan. UZEIri esleitu zitzaion Euskaltzaindiaren epe luzeko hiztegigintza-planeko lan bat da. Bertakoa, XX. mendeko euskara idatzizko ekoizpenaren lagin ona izatea nahi da.[36] Adibide legez **albo** hitza daukan esaldi bat ekarriko da hona, corpusean datorren bezala:

320630053075100001 Albo auetako langille jendeak , Orio-tik Ondarrabi ta Endaia-ra bitarteko ondartzetara atera oi dira astero .

Lehen zenbakiak idatzi deneko epea adierazten du (3 edo 1969-1990 epea), bigarren zenbakiak euskalkia (2 edo gipuzkera), hirugarren eta laugarren zenbakiek testu-moeta adierazten dute (06 edo saiakera). Zenbaki enparauak idazlea eta idazkia [Egia Rezola, Luis; Euskalerria I] eta orrialdea jakinarazteko kodeak dira. **Albo** hitzak horrelako 300en bat esaldi ditu corpus horretan.

Goiko adibidean idazleak albo=alde=bazter=eskualde edo paraje egin duena argi dago. Eta hortaz **albo** hori ez da LE ere.

CORPUS BIETAKO ESPAZIO-ADIERAZPENAK

Espazio-kontuei buruz idaztean, (literatur, etika-, erlijio-,...) idazleek jakintza estralinguistikoaz ere jakinak diren egoerak deskribatzen dituzte ia beti.

---

[35] Eranskinean dator idazleen eta idazlanen aurkibidea.

[36] Datu gehiago eta azalpen luzeagoa [Jakin 54, 216-226]n irakurri ahal da. Eta tesilan honetako eranskinean, idazleen eta idazlanen aurkibidea eta beste zenbait datu.

Esate baterako "etxeko goiko logela" idatzi badu idazleak, eta hemendiko etxeetan (eta handikoetan ere bai) logela batzuk edo gehienak non dauden ondo dakigunez, **goi**ren definizioan laguntzeko balio du idatzitako horrek, betiere idazleak horrenbeste badakiela onartuz gero, eta badakiela onartu behar zaio **goi** horren kasuan behinik behin. Horrek badu abantailarik lehen fasean (ikus 2.4.2) LE bakoitzaren banan-banako esanahia definitzean, hau da tesilan honetan heldu behar zaion lehen fasean.

Gero beharrizan gatxagoetan horrela banan-banan definitutakoak egoki diren ala ez, bigarren fase bateko kontua izango litzateke. Bigarren fase horretarako, adibidez ″gurtaresa zelan eraikitzen den″ zehatz-mehatz azaltzen duen idazki ulerterraza (irudiek azaltzen dutelako edo) izango litzateke idazki ideala. Orduan ikusiko litzateke banan-banako **goiak** eta **gainak** eta LE enparauek egoera guztiak (eta higidura guztiak) eta gauza biren elkarrekiko (elkarrenganako) erlazio guztiak adierazteko balio dutenentz. Zoritxarrez horrelako idazkirik ez dago corpusetan, antzinako artisauek ez baitzuten idazten, gaurkoek ere ez baina. UZEIren corpusean dena den, idazki teknikoak edo zientifikoak sartu dira, eta horrelakoetan baten batzuek burmuina hobeto estutu dute gauza gatxagoak adiera bakardun esan daitezen, kontua lortu duten izan arren, lehen fasekoa egin gabe dago eta.

Goikoa laburbilduta esateko, zera: corpus horiek nahikoa dira, lar ezertxo ere ez dutela, tesi honetako lanerako, lehen fasea deitutako honetarako, baina bigarren faserako ez dira aski. Bigarren faserako, esapide landuagoak eta garatuagoak behar dira. Daigun, egia delako, "alboz (behera) lo egin" esaldi arrunta dela eta "alboz" gauza asko egiten direla edo daudela. Daigun, egia delako, gaur eguneko artisau saiatuak honelako esapideak dituela besteak beste: "alboz (behera, edo gora, edo hormaren kontra) edo albotara, edo alboka ipini ohola" eta "alboz behera luze gelaren luzetara ipini ohola". Ba, corpus bakoitzean behin baino ez dator "alboz"; eta "albotara" eta "alboka" behin ere ez.

Amaitzeko esan, UZEIren corpusean esaldi luzeagoak datozela, eta horrela kontestuaz hobeto jabetu daiteke. Dena den, esaldi luzeagoa ere ez da atarramendu haundikoa sarritan, zeren orotariko corpusetik jatorrizko liburura argitasun bila jo den hiru-lau aldiz ez baita argitasun hori aurkitu.

2.7.3 Euskalkien arteko desberdintasunak

Zenbait LEk esanahi desberdina edo zertxobait desberdina du euskalkiz euskalki. Zenbait LE euskalki batean edo batzuetan baino ez da erabiltzen.

Euskal hiztegigintza tradizio laburrekoa izanik, euskara bera ere batu edo estandar izateko bidea egiten eta bidearen amaiera oraindik bertan ikusten ez denean, lekugune erlatiboen erabilera bera da anitza edo lekuan lekukoa. Herrialde bateko LEen sistema (edo eremu lexikala) ezin hobea ez izan arren, egina, osoa, adierazgarritasun haundikoa, ia unibokoa, zehatza eta lanbide modernoetan saiatua izango balitz, hau da, ia ideala izango balitz, herrialde horretako LE sistema (hobe azpisistema deitzea) hartzea izango litzateke zuzenena. Zoritxarrez ez dago horrelako herrialderik, ezta horrelako LEen azpisistemarik ere, eta euskara ez dago lanbide moderno askotan saiatua. Gainera sistema estuaren oinarriak jarriz gero, topografoek edo hegazkin-pilotuek zabaldu beharko lukete, oinarrietan hasita beharbada.

Horregatik eta hasikera ona izateko, daukagun guztiaren inbentarioa egin behar da. Azpisistema edo euskalki guztietako LEak aztertzeari ekingo zaio hemen. Izan ere gaur egun, batez ere Euskal Herria honen txikia dela-eta, horrela agertzen zaigu LEen sistema, azpisistemak nahastuak eta irabiatuak dituela. Auzo txikiko bileran ere kontuz hartu behar dira LEen esanahiak, eta hitz enparauen esanahiak, bilera auzokoen bertakoen artekoa ez bada, eta baitere bertakoren bat auzotik urrun ibiltzen bada edo urruneko literatura irakurtzen badu. Eta bilera kosmopolitagoetan, hala nola unibertsitateko ikastaroetan, ezin da isoglosarik jarri: lehen ordu-erdia ezkerraldekoek ondo uler dezaten, eta bigarrena eskuinaldekoek ondo uler dezaten. Esan gabe doa, proiektuetan eta, dirua dela tartean, sarritan gehien komeni zaiguna ulertuko dugula, horretarako adiera aproposa herri bakar batean erabiltzen dena bada ere. Ekialdeko **gain** komeni bazaigu ekialdeko **gain** ulertuko dugu, eta Bizkaiko **gain** komeni bazaigu Bizkaikoa ulertuko dugu. Eta hori asmo gaiztoagorik gabe, horrela datorrena hartu egin behar baita.

Arrazoi bi horiengatik —oinarri estuak eta lan publikoetako isoglosarik eza— euskalki guztietako LEak aztertuko dira, LE guztiak aztertuko ez badira ere 2.7.4 azpiatalean esango denagatik. Gainera, euskalki bitan LE bera erabiltzen denean, euskalki bateko adierei beste euskalkiko adierak gehituko zaizkie, Euskal Herri txiki honetan dialektologoa ez denari gauzak horrela datozkiolako, eta tesilan honen xedea, LEak erabiltzen diren bezala erabiliz eta ulertzen diren bezala ulertuz gertatzen dena aztertzea delako.

Hizkuntzalari estrukturalistek hizkuntzaren arkitektura eta hizkuntzaren egitura bereizten dituztenean tratatzen dute arazo hau, [Geckeler, Horst (1976)]k eta [Coserieu, Eugenio (1981)]k kasu. Beraiek, ez diferentzia diatopikorik, ezta diastratikorik, ezta diafasikorik ez duen hizkuntza funtzionalaren nozioa darabilte. Diferentzia dialektalak diatopikoak dira, gizarte-mailek eragindako hizkuntz

diferentziak diastratikoak dira, eta hizkuntz estiloak diferentzia diafasikoak dira. Hizkuntzalari estrukturalistek diotenez, hizkuntzaren egitura somatu, hizkuntza funtzional horretan baino ezin da somatu, eta hizkuntza funtzional hori baino ezin da hartu egitura-analisia egiteko.

2.7.4 Lekugune erlatiboen zerrendaren osakera

Lekugune erlatibo zer den definitu denez (2.5 azpiatalean) LEok zeintzuk diren aurkitu eta zerrenda batean jartzeko lanari heldu zaio. Ez da zailtasunik gabeko lana. Umetan gaztelaniako preposizioak kantuz ikasten ziren buruz, zerrenda eginda zegoelako eta preposizio haiek gutxiago zirelako. Laguntza bakarra, [Villasante, Luis.(1978)] liburua izan da. Bertako *Las posposiciones vascas* deitutako III. atalean, Villasantek posposizioen zerrenda egin du, lekugune erlatiboak eta beste zenbait posposizio dakartzana, *...por orden alfabético pero advirtiendo que este elenco no es exhaustivo.* Eta **a** letraz hasten direnetarik **albo, aldamen** eta **alderdi** behintzat ez datoz. Dena den, zerrenda osotzeko balio haundiakoa izan ez den arren, atal hori irakurtzea merezi izan du, besteak beste, Villasanteren **handi**ri eta **urruti**ri buruzko iritzia jakiteko.

Horregatik, hemen norberaren esperientziaz norberaren burutik atera zen lehen zerrenda, eta zalantzazkoak ere zerrendan utzi ziren beraien LE-izaera ziurtatu arte. Esate baterako, **barruti** LE denentz zalantzan egotean, zalantza hori ez da kendu **barruti**ren adiera guztiak corpusetan begiratu arte. Corpusetan aurkitutako **barruti**ren adiera batek ere LEen definizioa betetzen ez duela ikusi ondoren atera da zerrendatik. **Barruti** zalantzan izan da lehen zerrendan, corpusak begiratu izan dira, adierak eta LEen definizioa erkatu izan da, eta **barruti** lehen zerrenda horretatik atera da. Bigarren zerrenda lehen zerrenda osotua da, lehen zerrendari, hilabeteen joanean gogoratutakoa, entzundakoa eta irakurritakoa apuntatuz eta hiztegiei begiratuz beste LEgai batzuk gehitu baitzaizkio. Hirugarren eta azken zerrenda bigarren zerrenda ziurtatua da.

Frantzieraz ere zailtasunak dituzte **[leku, lekugune]** eta **lekugune erlatibo** bereizten. [Aurnague, Michel (1989)]k frantzierako barne-lekutzeko izenez (*Noms de Localisation Interne*) hitz egitean, hurrengo polo biko eskema hau erakutsi du.



Aurnaguek berak dioenez sarritan ez da erraza *nom de localization interne* delako bat zein polotakoa den jakitea, hau da, nontasuna adierazteko ala eitea adierazteko, batez ere esanahia polo bietatik datorkionean. Berak frantzieraz zera dio: *Il semble toutefois que les NLI purement localisateurs ne suportent pas la pluralisation (contrairement aux NLI mixtes et morphologiques)*. Trikimaina horrek euskararako ere balio du, "etxearen aurreetan" ezin delako esan nontasuna adierazteko, eta bai "etxearen angeluetan" nontasuna agian eta eitea adierazteko. Edo alderantziz, baserritarrak "behiaren atze ederrak" dioenean nontasuna baino eitea adierazi nahi du, normalean "atze" (singularrean) nontasuna adierazteko erabiliko badu ere. Pluralaren eta singularraren trikimaina hau 2.10 azpiatalean **alde** aztertzean ere erabiliko da.

Tesilan honetan Aurnagueren eskemako "*bord* = ertz" hartu eta aztertuko da, baina ez eiterantzago dagoenik, lekugune erlatiboaren definiziotik ez irteteko. Dena den, eta LE %100 ez direnez, **ertz**ek (eta hegik, eta hegalek, eta bestek) ez-LEen zenbait jite erakutsiko dute, hala nola plurala hartzeko joera hobea izatea, eta "lau ertzetan" eta horrelakoak sarritan esaten dira. Hirugarren atalean, **ertz**i-eta ia-LEO deituko zaie, aldi berean azpiatal honetarako deia eginda.

Horrez gain, eremu lexikal baten mugak ez dira inoiz ere argiak izaten, eta gaitzerdi hirugarren zerrenda horretan mugako LEren bat falta bada. Gainera, nahita ere utzi izan dira zerrendatik kanpo hogeiren bat LE, erabilpen oso urria daukatelako, edo erabilera arazo gabea daukatelako, hala nola **ezker** eta **eskuin**, **urrun** eta **hur**, eta tesilan honetan "paraje" irakurtzean erdaratiko mailebua ulertu behar da, eta ez Mungialdeko paraje=hur. Tamalez azken orduan gogoratutako bat ere kanpoan geratu da, **kontra** hain zuzen ere, "horma kontretan" eta "zu beti neure kontran" eta horrelako esamoldeetan erabiltzen dena. Tesilan honetan hirurogeita hamabosten bat LE aipatu dira eta berrogeita zortzi aztertu.

Antzina hartutako mailebuak, eta gaur egun erdaretatik bereizitako esanahia dutenak, sartu egin dira zerrendan, hala nola **kanpo** eta **landa**, eta hemen goian aipatutako **kontra** ere sartuko zen.

Hirugarren atalean osotu da zerrenda eta iruzkin gehiago egingo dira bertan.

2.7.5 Corpusetatik adieren eduki semantikorako bidea

L. Talmyren lana (ikus 2.6.5 azpiatala) ezagutu baino lehenago ere, tesilan honetan LEak irudien bidez adierazteko asmoa zegoen, zeren marrazketa (lineala behintzat) egin duen teknikariak baliabide hori erabiltzen du berak gogoan dituen

atze, **aurre** eta espazio enparauak inori adierazteko. Ohiko gauza da teknikaria plano-hegalean marraztutako krokistxo baten bidez LEak paralelepipedoak eta beste zenbait irudi geometriko marraztuz adierazten ikustea. Edo pieza baten distantzia baterainoko aurrea eskalaz eta ondo marraztea, bertan zenbat gauza eta zelan ipini ahal diren ikusteko.

Eskemak marra behinenak baino ez dituzten irudiak dira; hau da, irudi bakunak dira, zehaztasun haundiagorik gabeko krokisa bezalakoak. Talmyk, preposizioen-eta (LEen-eta) erreferente espazialak gizakiak eskemez kontzeptualizatzen dituela dio. Lehenago horretaz zalantza txikia bazegoen, zalantza are txikiagoa dago Talmyren ekarriaren ondoren.

Talmyk, 2.6.5 azpiatalean esan den bezala, ez ditu LEen eskemak definitzen, ezta ingeleseko preposizioenak ere *across*ena izan ezik, definitzeko ezaugarriren bat zeharka iradoki badu ere aipatutako azpiatalean idatzi den bezala. Talmyren lanari teknikarien esperientzia eta praktika gehituz, eskema horiek marraztu eta LEen kontzeptuak krokisak bailiran erakutsiko dira tesilan honen 3. eta 5. ataletan. Hatan ere, LE bakoitzaren adiera bakoitzeko eskema edo krokis bakun bat marraztuko da. Krokis edo irudiaren abantailak, begirada batez ikusi eta ulertzen dela, adieren azalpenetan beste LE edo ondo definitu gabeko hitzik behar ez dela, erdaldunak ere ulertzen duela eta abar dira. Gainera irudi bi begirada biz alderatzen dira sinonimia eta horrelako kasuetarako.

Behin gauzak eskemez azaltzeko erabakia hartuta, zuri-beltzekoak izan behar dutelako erabakia baliabide teknikoek harrarazi dute. Sarrien, abiakia (edo erreferentzi objektua) sei aurpegi zuriko eta aristak marra lodi beltzez marraztutako paralelepipedoa da. Paralelepipedo horri, adierari dagokion espazioa marraztu zaio dagokion lekuan, gris edo ilundua marraztu ere: aurpegi griseko hiru dimentsioko (3Dko) irudia, superfizie grisa ala lerro grisa, adiera hurrenez hurren hiru ala bi dimentsioz ala dimentsio batez irudikatzekoa den. Abiakia paralelepipedo nekez izan ahal denean, antzera jokatu da: abiakia zuri; adiera gris. Adierak abiakia guztiz ezkutatuko lukeen kasuetan, simetri plano batean zeharreko ebakidura marraztu da, adiera bera gris kolore beti bezala eta abiakiaren ebakidura zuri baina marra beltzezko marraduraz ilundua, gehi bira-ardatzen bat. Eta horiez gaineko salbuespen-kasuak ondo ulertuko direlakoan marraztu dira, erraz ulertzekoak dira eta.

Aribide hori gogoan eta miatu dira corpusak. Idazleak, abiakiarekiko zein espazio adierazi duen jakitea izan da ardura, gero irudia marraztu ahal izateko. Horretarako lehenbizi, esaldi metaforiko-mistikoak albo batera utzi dira, eta esaldi fisiko-konkretuak baino ez dira aintzat hartu; gero, adiera definitu eta gero, esaldi metaforikoren bat ere hartu den arren. Poesiako eta bertsolaritzako esaldiak ez

dira inoiz ere hartu hitzaren esanahiaz jabetzeko, esaldiotan esanahia ez baita garrantzizkoena izaten.

Adierazitako espazioa non den jakiteko, jakintza estralinguistikoa sarritan eta kontestua ere erabili izan da batzuetan, baina kontestu faltagatik ez dira esaldi asko aintzat hartu. Lehenago aipatu den bezala, aitortu beharra dago hirulau aldiz baino ez dela esaldiaren jatorrizko liburua begiratu kontestu bila, atarramendu onik gabe, baina corpusetako esaldi kopurua haundia izanik adieren ezagutzak eta definizioek ez dute txartzerik izan horregatik.

Corpusetan ezin da huts-hutsetik hasi esanahiak eta adierak aurkitzeko; LEen esanahiez tajuzko jakintza izan behar du aztertzaileak aldez aurretik. Bestela, eta adibide bakunena hartuta, daigun atze-kontzeptua zer den ere ez dakien aztertzailea; corpusa igaro eta non edo zein diren **atze** eta **aurre** igarri gabe izan dezake aztertzaile horrek, corpusetan ez baitatoz LEen kokapenak adierazita. Aztertzaileak **oste** eta **atze**ren arteko desberdintasuna igarri gabe bai behintzat amai dezake corpusa **oste**ren ezkututasun-osagai semantikoa aldez aurretik baldin ez badaki. Hortaz, aztertzaileak hobe du bere esperientzia ere erabiltzea, eta hiztegietan ere begiratzea, bertako adierak ere kontuan hartzeko, baina bere esperientzia eta hiztegietakoa guztiz sinetsi gabe, behinke.

Horrela, LEaren adierak zelakoak diren erabakitzeko lana hasi baino lehen, adiera horien ahalezko eskemak prest izan behar dira, eta gero erabaki behar da corpuseko esaldiko LEaren adiera zein eskemari dagokion. Adibidez, **azpi**k izatea espero diren eskemak izango dira prest, eta ez aldez aurretik ezinezkoa denik, hala nola [abiakia baino beheragoko espazioa + fatxada aurreko espazioa] (angeluar edo L haundi baten eitea) adierazten duen eskema. Corpuseko esaldietako LEaren adieraren batek eskema modifikatzea eskatu badu, eskema modifikatu egin da. Adibidez, aldez aurretik prest ez izan arren, abiakiaren beraren behealdeko geruzari ere zenbaitek azpi deitzen diotela jakin da corpusetatik, eta eskema berri bat egin da. Horrela esleitu zaizkie corpusetako esaldiak eskemei, eta esaldirik egokitu ez zaien eskemak ahaztu egin dira.

Horrez gain norberaren jakintza estralinguistikoa erabili behar izan da adierazitako espazioa zein den jakiteko. Esaterako *Gure autoak , ordea , alborantz hartu zuen eta ezpaloi gainean , beste auto baten kontra geratu zen* [Amuriza, Xabier] esaldian, espaloia autoaren ibilbide arautuarekiko "lateral" egoten dela eta bertarantz hartuz gero istripua erraz gerta daitekeela jakin behar da, guztiori esaldiak adierazi ez arren. Edo, *"Lera, arrastaketa errazteko albotako bi oholak azpiti burdinez osatutako gurpil gabeko gurdi bat da."* [Gonzalo Rodriguez, J.J.; Beasain] esaldiko albotasunaz jabetzeko, lera edo narraren eitea ezagutu behar da aldez aurretik. Eta berdin kasu errazagoetan eta zailagoetan.

Esanahian nahiko desberdintasun haundia dagoela-eta, abiakiaren barruko, gainazaleko eta kanpoko espazioek adiera bana behar dutela onartu eta irudi bana marraztu zaie. Albo hitzaren kasua adibidez, barruan, mugako plano bertikalean eta kanpoan izaten baita **albo**, eta hiru adiera (hiru irudi) horiek marraztu zaizkio, besteak beste. Beste kasu batzuetan norberaren iritziak perdoia onartzen du; esaterako erdi hitzari dimentsio bateko hiru adiera, dimentsio biko lau adiera eta hiru dimentsioko lau adiera marraztu zaizkio: hamaika guztira. Beharbada hamar ala hamabi izan zitezkeen, bereizmenaren eta zehazmenaren arabera.

Irudiak marrazterainoko lan hori eranskinean aurkeztu da, LEka eta LE bakoitzaren barruan adiera bakoizka, fitxa antzeko datu-txosten edo datutegi banatan aurkeztu ere. Adiera bakoitzari azpizenbaki bat erantsi zaio, gero 3. atalean adierok (adibidez albo$_1$, albo$_2$, albo$_3$) horrela bereizteko eta erabiltzeko.

2.8 -ti atzizkidun lekugune erlatiboak (LE hedatuak)

Aztertzeko LEen zerrenda behin eginda (ikus 3.2 azpiataleko 1. taula), askok *-ti* edo *-di* amaiera dutela ikusi da. LE horiek hauek dira:

alderdi, behe(i)ti, erdi, gaindi, goiti, handi, haraindi, hemendi, honaindi, horraindi, horti, urruti

Kopuruaren laurdenen bat dira, eta horiez gain badira beraien erabilpen urria dela-eta tesilan honetan aztertu ez diren zenbait LE, hala nola **atadi(atari)** eta **zabaldi,** eta tesilan honetan LE ez dela ikusi den **barruti,** eta bere erabilpen urriagatik sakonago aztertu ez den **garaiti.**

Txiripaz izango ez delakoan, horretaz ikerkuntza egitea beharrezkotzat jo da, ikerkuntzak zeozer frogatzera eroan ala ez, ezezkoan ere zeozer argituko delakoan eta hurrengo ikertzaile bati lan apur bat aurreratuta utziko zaiolakoan.

Tesi hau lan semantikoa denez, atzizki horren eragin semantikoa da ardura hemen: erro-morfemei atzizki horrek zer nolako sema edo esanahi erkide gehitzen dien, adibidez **goi** eta **goiti** esanahiz desberdinak zertan diren. Hemen ez da aintzat hartuko **goiti**-eta ablatiboak edo adlatiboak direneko kasua, hau da, **goiti** adibidez **goitik**en edo **gora**ren ordezkoa deneko kasua. Hemen **goiti** nominatiboan izena izan eta LE deneko, edo goiko ganbara[37] bada lekugune behintzat badeneko kasua hartuko da aintzat. Hemen ikertuko diren horiek dira hain zuzen toponimian eta abizenetan agertzen diren **goitia**-eta.

[37] Azkueren Hiztegiko adiera bat. Ikus eranskinean **Goiti.- Azkue**

2.8.1 Aurreko zenbait datu

Euskarari buruz azterlan semantiko gutxi egin izan da eta gai honetaz ez da ezer egin, baina beste izaera batzuetako azterlanetan egin dira aipamen bi eta aipamen bi horiek aurkeztuko dira hemen, ez azterketa morfologikorik eta etimologikorik egiteko asmotan, gero egingo den azterketa semantikoaren arrazoi bultzatzaile izan daitezen baizik.

Bata Koldo Mitxelenak bere *Fonética Histórica Vasca* liburuan (236 orr.) egiten duena da:

> Por su origen, *-ti(k)* nada tiene que ver con *-(r)ik.* aunque en tiempos recientes haya suplantado casi completamente a éste en la significación de "de, desde"; tampoco procede de *-ti* + *-ik,* porque, como han hecho notar Gavel y Lafon, es átono en suletino. Este *-ti* puede identificarse sin gran temor con el suf. que añadido a nombres de determinaciones espaciales forma derivados con función nominal y adverbial: *beheiti,* guip. vizc. *barruti, gaindi* (sul. *gáinti), goiti, urruti* "lejos" (cf. *urrun* id.), de *be(h)e* "parte inferior", *barru* "interior", *gain* "superficie", *goi* "parte superior". La oclusiva final no es más que un elemento sufijado a *-ti,* o lo que queda de él, sin que esta adición fuera común (25).

(25) Véase Lafon, EJ 2 (1948), 141 ss., con bibliografía, quien identifica este *-ti* con el suf. de igual forma en adjetivos como *lotsati* "vergonzoso, tímido", de *lotsa* "verguenza": puede tratarse, efectivamente, de un mismo morfema en todos los casos.

Bestea Mitxelenak aipatutako Lafonen lana da, *Sur les suffixes casuels -ti et -tik* deitua. Bertan zenbait datutan oinarriturik ausnarketa egin eta uste landuetara heldu da Lafon. Mitxelenak aipatutakoa ekarriko da hona:

> Comme, d'autre part, le basque possède un suffixe d'adjetif *-ti*, que serve à former, par exemple, *gezurti* <menteur>, *beldurti* <craintif>, *adurti* <baveux>, de *gezur* <craine>, *adur* <bave>, je suis porté à penser que le suffixe *-ti* de *goiti* est le même que celui de *gezurti,* et que *goiti* <en haut> ne fait qu'un avec l'adjetif *goiti* <qui est en sus, par-dessus> (1).

Lafonek antzinako garaiez ere hitz egiten du:

> Le basque, à cette époque, ne possédait pas un article défini postposé, ni peut-être un suffixe *-eta* de pluriel (cf. Gavel, op. cit., ξ 62, p. 44).

Eta Lafonek eman zituen datuetarik hau da hemengo gaiaz zerikusi haundiena duena:

> Schuchardt est d'avis (Primitiae Linguae Vasconum, ξ 26, p. 11) que *-tik* se compose de deux parties <dont la première, *-ti*, signifie < lieu, place>, comme dans *mahasti* < vignoble>, et seraît une réduction de *tegi*, si souvent employé comme deuxième thème de composés>. <Cependant, ajoute-t-il, on ne doit pas passer sous silence que *-ti*, dans *goiti* <vers le haut>, *beheti* < vers le bas>, désigne le but>.

Schuchardten iritziak ez du onena izan beharrik. Bakoitzak jakingo du zer deritzon zuhaiztiari edo pagodiari: lekua ala zuhaitz multzoa. Baina Schuchardtek ere bazerabilen gai hau buruan.

Dena dela, atzizki bakar bat izan ala antzerako forma duten atzizki bi izan, euskarak badu *-ti /-di* atzizki bat edo bi ugaritasun edo maiztasun sema, berdin dio, eransten diona erro-morfemaren esanahiari, hala nola *zuhaizti* eta *lotsati* hitz eratorrietan, zuhaizti "zuhaitz asko" baita eta lotsati "lotsa asko edo askotan" baita. Eta hori edozein hiztegi eta atzizki liburutatik hartuta, hala nola Azkueren hiztegia [Azkue (1969)] eta Villasanteren liburua [Villasante (1981)]. Gainera Schuchardten aburuz leku-izenak eratzeko ere balio ei du.

Morfologi bitxitasunak amaitzeko, zera, bere *La Categoría de los Casos* liburuan(63. or.) Louis Hielmslevek [Hjelmslev (1978)] dioena:

> Pero hay un punto en el que el estudio de Wüllner ofrece un interés particular: la forma de explicar el ablativo latino, el locativo y el instrumental. Estos tres casos son matices o variedades (*Schattierungen)* del dativo. Si el dativo ideal es la designación abstracta del punto de reposo entre los dos movimientos, el acercamiento y el alejamiento, admitiendo a la vez el matiz neutro (reposo absoluto entre los dos términos) y el matiz complejo (el centro

> constituido por los dos movimientos recíprocos de acercamiento y de alejamiento los cuales se mantienen en equilibrio), ese dativo ideal puede descomponerse en un dativo exclusivamente complejo,...

Euskaraz, gaur egun eta denboran atzerago jo gabe:

Urruntze higidura **-ti(k)** atzizkiaren bidez adierazten da, "etxeti(k)" esatean bezala, eta inoiz **-(r)ik** atzizkiaren bidez.

Hurbiltze higidura **-(r)a** atzizkiaren bidez adierazten da, eta inoiz **-ti** atzizkiaren bidez.

Datiboa **-(r)i** atzizkiaren bidez adierazten da.

Horrez gain, **-ti(k)** atzizkia inesiboaren parekoa eratzeko ere erabiltzen da, "etxeti(k) dabil, herriti(k) ez dugu ikusten" eta antzerakoetan.

[Villasante, Luis.(1978)]n, posposizioei buruzko atalean, **goiti** eta **beheiti** hasieran ablatiboak izan arren, orain nominatiboak ere badirela dio. Eta Urazandi toponimoa itzulita dator: *al otro lado del agua (río)*. Eta "Uraz urrutia": *alejado del río*.

Jarraiko azterketan, beste morfema flexibo gabe eta **ti** amaiera duten inesibo antzerakoak asko ikusiko dira.

2.8.2 Izaera Deiktikoa eta Deklinabide Urria

Goiko tidun LEen zerrenda hartu eta erro-morfemak esanahi ezaguna duenean deitikoa dela ikusten da askotan: han, harain edo hain, hemen, honain, horrain, hor eta urrun. Beste batzuk ere, norberarekiko hartuz gero, eta sarritan hartzen dira, deiktiko dira: barru, behe, gain, garai, goi. **Erdi**ren erro-morfemaren esanahia ez dago argi eta ezin da hemen espekulatzen hasi. Beste horrenbeste **alderdi**ri buruz, **erdi** bera hitz elkartean sartuta egon ala ez.

Izaera deiktiko hori LE guztiei aitortu behar zaiena da. LEak, definizioz, abiakiaren pentzuan dauden lekuak dira, eta gizakiok hitz egitean ia beti geure burua eta geure bertikala erabiltzen ditugu abiaki gisa.

Ez dira deklinatzen **hemendi, horti** eta **handi**. Eta deklinatu gabe, aditzondo bailiran, edo inesiboan baleude bezala, "non" adierazten dute. Bestalde **-ko** atzizkia hartzen dute izenlagun bilakatzeko.

Honaindi, horraindi eta **haraindi**ri buruz ere goiko hirurei buruz esandakoa doakie, baina batzuetan deklinatu ere egiten direla gehitu behar da, hiru kasutan baino ez bada ere (inesiboa, ablatiboa eta adlatiboa). Deklinabidea

ez da galtzen; hartu egiten da; eta oraintsuago hartuko zuten. Baten batek, oraindik ere, pleonasmoa dela esango luke.

Bukaera hau daukaten beste LEak izen arrunt bezala deklinatzen dira.

2.8.3 Corpusetatik ateratako esanahiak

Corpus batean batzuk (hemendi, horti, handi) ez dira agertzen, corpus egileak lema bezala hartu ez dituelako. Neurri batez idazleen errua ere izango da, euskal gramatikarik ez izan eta ahalegin galantak egin baitituzte "gramatikalak" izaten. Horrela baitere, dialektologi irakasle hark esan zuena: Ez dago dialektologiarako material haundirik, idazleek ia beti, herriaren hizkuntzaz (mintzairaz) idatzi beharrean, beraien hizkuntza "hobetuaz" idatzi dutelako. Eta idazleengan sarri askotan **hemendi** adibidez, **hemendik** zen gramatika zuzenez, herritarren nagikeria ondo ulertuz gero, herritarrek azken **k** hori ahoskatu gabe uzten baitute. Horrela ere corpus batean behinik behin agertzen da antzinako idazle bi edo hirugan. **Hemendiko** beste kontu bat da, hor ezin baita nagikeriarik ikusi, eta gainera idaztean disimulatuago geratzen da, gizon ikasiaren euskara ematen du, “hemendik datorrena” izan ez arren, Eguzkitiko energia Eguzkitik datorrena den bezala. Eta **hemendiko** sarriago agertzen da. **Horti** bat ere ez dator, erdaraz ordain lexikalik ere ez dauka eta. **Hortiko** bi datoz. Hiru **handi** datoz, eta **handiko**(azentua **a**k hartzen du) asko datoz. (Ikus eranskina, han esaldi aukeratuak baino etorri ez arren).

Horrez gain, kontzeptuaren zabalera eta erabilkortasuna daude. **Erdi**k euskaraz, erdaretako kontzeptu bi hartzen ditu, biak oso erabiliak. **Horti**k ez du ordezkorik erdaretan, perifrasiaren bidez ez bada. Eta horregatik ere bada hortiren agerpen urria.

Hori dela-eta, eta esanahien berezitasuna ñabardura (sema) txiki batean datzala-eta, ezin izan da berezitasun hori corpusetatik atera. Ezin izan da **han** eta **handi**ren esanahien bereizkuntza egin, ezta **goi** eta **goiti**rena ere, ezta beste erro-morfema eta hitz eratorrien esanahien bereizkuntza ere. Datozen esaldi gutxietan gutxi gora behera zelan erabiltzen diren ikusi da, esanahia ikusi zaiela gutxi gora behera, uste izateko eran baina ez ziur esateko eran.

Horregatik, ondoen ezagutzen diren kasuen semantika aztertu behar da ziurrago egoteko, eta ataza horri ekingo zaio.

2.8.4a Tidun LEen esanahia

Orain arte 2.8 azpiatal honetan esan dena, -ti atzizki honi buruz (edo berarekin zerikusia duen gaiei buruz) hizkuntzalariek aipatutakoaren laburbildura izan da, arazo horrek piztu duen ardura erakusteko eta eman diren zenbait iritzi aipatzeko. Horri guztiorri, corpusetako arazoaren aipamena gehitu zaio.

Baina tesi hau lan semantikoa da, eta atzizki horren eragin semantikoan baino ez dago interesa hemen. Arazoaren aspektu etimologikoetan eta morfologikoetan dago interesik hemen. Esanahidun erro-morfema bati atzizki hau gehitzen zaionean, zein sema gehitzen dion jakin nahi da hemen. Eta gainera, esanahidun erro-morfema horrek LEa izan behar du hemengo intereserako, sema hori aurkitzeko eta argitzeko LE ez diren erro-morfemak ere erabiliko diren arren.

Ea lexema ezagunenak aztertu eta hur emango zaion sema horri.

HEMEN ETA HEMENDI

Euskaldun guztiek daukate argi **hemen**en esanahia, eta ez dago azaldu beharrik. **Hemendi**ren esanahia[38] ez dago horren argi, edo jakin arren ere ez da bere esanahia inoiz argi ipini. Aurrera jo baino lehen esan, bata bestea baino nahiago baldin bada, **hemendi** eta **hemendik**[39] gauza bera direla azterketa honetarako; baitere esan, azterketa honetan ez dela ablatiboa eztabaidatuko; hau da, ez da **hemendi**k (edo **hemendik**ek) abiapuntua edo jatorria adierazten duen kasua eztabaidatuko; azterketa honetan LE den **hemendi** aztertuko da, eta **hemendi** honek "non" galdetzaileari erantzuten dio, ez "nondik" galdetzaileari.

Semantikari helduz, demagun Idoia neska bizkorra dela eta hiztuna bulego batean dagoela telefonoz hitz egiten.

"Idoia hemendi da" esaldian, Idoia hemen (berton) ez da. Bestela hemendi = hemen, eta hiztegian tinta aurreztuko litzateke. Gainera, hori esan duenak badaki "hemen da(go)" esaten, baita "hemen nonbait (nonon, non edo non, inguruan)" ere esaten.

"Idoia hemendi dabil" esaldian, Idoia hemen (berton) ez dabil. Eta lehengo iruzkina doakio honi ere[40].

??"Idoia hemendi dago". Esaldi gaizki eratua da eta esaten ez dena, hiztunak ez baitu **hemendi** (osoa behintzat) agerian edo ikusteko eran eta ezin

---

[38] Azpiatal honetan iruzkinduko diren tidun LEen eduki semantikoa 3. eta 5. ataletan dator irudi eta guzti azalduta.

[39] **Hemendik** esanahi bera duen oraintsuagoko aldakitzat hartuta dago euskal hizkuntzalaritzan, **non** galderari erantzuten dioenean behintzat.

[40] Ibiliko adibideak ere erabiliko dira hemen.

baitu esan Idoia egonean ala ibilian dagoen/dabilen. Aditza oker aukeratuta dagoelako dago oker esaldia, ez hiztunak **hemendi** osokoa somatu behar duelako.

"Bai, zuei eskatutako grapagailua hemendi egongo da, nik dakidanez ez dizuegu itzuli eta". Hiztunak ez du grapagailua agerian hautemateko eran, baina grapagailua egonean egoten da.

"Idoia hemen nirekin ez da(go), baina hemendi da(bil), ezin izan baita urrun joan, oraintxe izan da nirekin eta."

Hortaz **hemendi**, entzulearengandiko urruntasuna eta kontestu osoa kontuan hartuta, [hiztunak "gune hau ere **hemen** da" (eta ez **hor** edo **han**) deritzen gune guztien batura ken berak somatzen duen **hemen**] da. Hiztunak ez du **hemendi** hori guztiz agerian somatzeko. Somatzen duena bere hurbileko **hemen** da, eta **hemen** hori ez du **hemendi**n sartzen[41]. Hori, **hemendi**ren 1. adiera edo **hemendi$_1$** da.

Hiztuna eta entzulea elkarrengandik oso urrun daudenean, bata Europan eta bestea Ameriketan adibidez, **hemen** bera ere oso haundia izan eta hiztunak guztiz somatu ezin duenean,

"Idoia hortik hona etorri ei denez, orain hemendi ibiliko da." Hiztunak somatu ahal duen **hemen** txikiak ez du garrantzi haundirik. Ulertzen da Idoia hiztunaren ondotxoan ez dagoena edo dabilena. Eta **hemen** txikia **hemendi** askoz haundiagoren barnean dago.

Azken hori, **hemendi**ren 2. adiera da.

Adiera beroriek adierazteko, hiztun euskaldunak baliabide bi ikasi ditu: hemendi$_1$ = hemen inguruan, hemendi$_2$ = hemen Europan (edo leku edo lurralde haundian).

HOR ETA HORTI, HAN ETA HANDI

Hemendi eta **horti** guztiz simetrikoak dira. Jokaera berdina dute.
Horti$_1$ek ez du **hor** hartzen. "Hor ez badabil ere, badakit horti dabilena."
Horti$_2$k hartzen du **hor**. "Hemendi joan zen eta, horti, Ameriketati ibiliko da orain."

Hemendi eta **handi**[42] ere guztiz simetrikoak dira.
Handi$_1$ek ez du **han** hartzen. "Han bertan ez badabil ere, handi ibiliko da."

[41]Ikus 2. ataleko eta eranskineko **hemendi**ri dagozkion azpiatalak eta irudiak.
[42]Azentua **a**k darama.

Handi$_2$k hartzen du **han**. "New Yorkera joan izan zen eta handi ibiliko da, New Yorken edo inguruan."

FRONTOIAN ETA FRONTOITI, BILBON ETA BILBOTI

Leku-izenorde deiktikoak utzi eta beste kasu batzuetan -ti atzizkiak duen eragina somatuko da orain. Frontoia leku txiki xamarra da eta Bilbo hiri haundi xamarra.

Frontoiti$_1$ek ez du **frontoian** hartzen. "Frontoian ez badabil ere, badakit frontoiti dabilena." Lehen adiera hau, definizio zehatzak maite eta frontoiaren mugak argi dituenaren adiera, traketsa badirudi ere, frontoiak irekiak zirenean batik bat horrela esaten zen. Espazioan ez dagoenez ingururik ez duen ezer, zeozer-ti egin daiteke beti.

Frontoiti$_2$k hartzen du **frontoian**. "Frontoirantz joan da eta frontoiti ibiliko da orain."

Bilboti$_1$ek ez du **Bilbon** hartzen. "Bilbon bertan ez badabil ere, Bilboti ibiliko da."

Bilboti$_2$k hartzen du **Bilbo**n. "Bilbora joan zen eta Bilboti ibiliko da, bertan edo inguruan."

Zenbaitek, zaio eta engara izango du "frontoiti(k)" eta "Bilboti(k)" bezalako adierazpenak erabiltzeko orduan, "frontoi aldean" eta "Bilbo aldean" ere esan ahal baita —eta agian aukera hobea izango litzateke[43], **alde** lar polisemikoa izango ez balitz. Dena den, "frontoi" eta "Bilbo" lekugune dira eta lekugune erlatibo ez dira, hemen **-ti** atzizkiaren esanahia argitzeko erabili badira ere.

Lekugune erlatiboei **alde** gibel-hitza eransten zaienean (ikus 2.10 azpiatala) **alde**ren polisemia areagotu egiten da [LE eta zona] izatetik [LE, zona eta parte] izatera heltzen da eta. Kasu horretan **-ti** atzizkia gehiagotan eta **alde** gibel-hitza gutxiagotan erabiltzen da. Esaerak ere honela dio:

Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik ibili (joan).

Eta ez, "sasi guztien gain aldean (zehar) eta hodei guztien azpi aldean (zehar) ibili (joan)".

(Beste tidun LEen azterketa hemen beheragoko 2.8.4b sailean dator)

[43] Alde$_4$ eta alde$_5$ adierek, -ti atzizki honen esanahi bera ez, baina berdintsua daukate. Ikus eranskina edo 3. atala.

2.8.5 Leku geometrikoa

Goian ikusitakoaren arabera, -ti atzizki horrek era uniforme batez (agian era biz baina antzekoak direnak) eragiten die bai leku-izenorde deiktikoei, bai leku-izen arruntei zein leku-izen propioei. Orain aztertu beharreko LE enparauak gatxagoak direnez, erabilera urriagoa edota eratze lorrinagoa edota esanahi nahastuagoa dutela-eta, teoria ez bada ere goian ikusitakoa hipotesi batean biltzea komeni dela uste da, hobeto ulertuko delakoan gainera.

Horretarako lehenbizi, *Leku Geometriko* deritzon kontzeptu erraza aurkeztu behar da. Leku geometrikoa, propietate geometriko amankomun bateko puntu guztiek osotzen duten lekua da. Adibidez, erreferentzi puntu batetik R distantzia konstante batera daudelako propietatea duten puntuek leku geometrikoa eratzen dute, esfera deitzen den leku geometrikoa hain zuzen. Hemengo LEek ez dute horren propietate geometriko eta zehatzik, mundu errealean horren esfera geometriko eta zehatzik ez dagoen bezala, eta LE horiek ere muga subjektiboagoak eta aldakorragoak izango dituzte. Gainera hizkuntza arruntez, euskaraz eta beste hizkuntzez ere, muga kontuak ez dira argi egoten. Adibidez eta geroago ikusiko denez, abiakiaren ertza bai abiakian bertan zein abiakitik hurbil egoten da, berdin-berdin. Baina Leku Geometriko deritzon kontzeptuari jarraiki, hona LGaren hipotesia:

> "Erro-morfema + ti atzizkia den LEaren erreferente espaziala, egoera eta kontestu batean hiztunak erro-morfema hori deitzen dien gune guztien leku geometrikoa da."

Horrela esanda ulerterraz geratu ez denez, ea azalpenak emanda argiago geratzen den: "LGaren hipotesia betetzeko, adibidez, **han** eta **handi** esanahi berdintsukoak izateaz gain, **han**en erreferentea gune bat den artean, **handi**ren erreferentea gune berori eta bere inguruko beste **han** asko dauden espazio haundiagoa da."

Horrela, egoera eta kontestu batean hiztunak **hemen**, beharbada **hor** inola ere ez delako, deitzen dien gune guztiek osotzen duten leku (geometriko)a da **hemendi**. Era berean hiztunak **hor, han, frontoi, Bilbo** deitzen dien guneen batura dira **horti, handi, frontoiti, Bilboti.**

Hipotesi horren arabera, aztertutako LEen bigarren adierak dira benetakoak, **hemendi$_2$** kasu. Baina bizitzan hiztunak askotan bera dagoen **hemen**, berak somatzen duen **hemen** hori **hemendi**tik at utzi behar izaten du, eta lehen adierak, **hemendi$_1$** kasu, adiera berezi legez hartzea komeni da.

2.8.4b Tidun LEen azterketa (jarraipena)

GOITI ETA BEHE(I)TI

Corpusetan ez da **zerbaiten goiti**rik ez **behe(i)ti**rik, ezta **zerbaiteko goiti**rik ez **behe(i)ti**rik agertu. Hitz lokabe moduan, erlatibotasun gabeko, agertzen dira biak. Horrela nekez izango dira LE. Corpusetan, egia esan, hiztegietan datorren goiti = goiko ganbara ere ez dator, ezta beheti = *pavimento inferior* ere. Dena den horiek izatekotan EELE edo Ekai Egindako Lekugune Erlatibo izango dira. Hiztegietako goiti = goi (Azkuek eta Lhandek goiti = *en alto, en haut* ere bai) badator, baina corpusetatik nekez atera daiteke **goi** eta **goiti**ren arteko desberdintasun kontzeptuala; dena den, LGaren hipotesia beteta zein bete gabe, goiti = goi izango da **goi**k berak ere ezin zabalagoa izaten daki eta. Zoritxarrez ez zaio inori entzun "goian bertan ez, baina goitian bai" eta horrelakorik esaten (“hemen berton ez, baina hemendi bai” esaten den bezala). Goiti = goi bada eta **beheiti goiti**ren antonimoa bada, biak dira LE ordea.

Informazio hori hobetu nahian, toponimiara jo da. Kortezubin badago Beiti izeneko baserria muino baten behealdean, ezin beherago dagoena metro gutxi beherago Urdaibaiko itsasadarra dago eta. Muino beraren goialdean Goiti baserria dago, eta apur bat beherago Beko Goiti baserria. Goiti baserritik Beiti baserrirako lerroaren alde batera, Aldeko Goiko eta Aldeko Beko baserriak daude. Hiztuna edo hiztunaren zuina muinoaren erdialdean badago, eta hori da normalena eta are normalagoa baserri horietarako guztietarako bidea ere erdialdean baitago, LGaren hipotesia betetzen dute baserriok, eta LE dira erreferente espazial bezala, baserri bezala Ekai Egindako Lekugune Erlatibo izan arren. Hortaz, eta hipotesiaren arabera, beheko gune haiei guztiei "beiti" iritzi zien norbaitek aspaldiko garai hartan, eta goiko gune guztiei "goiti".

Toponimian badago beste erabilkera bat: Harangoiti eta Basabeiti eta horrelakoena. Horrelakoetan, **bideko**(edo bidearen) **mota**tik[44] **bide-mota**ra **eta mendiko**(mendiaren) **gain**etik **mendigain**era dagoen bilakaera izan dela uste da: **haran**eko(-aren) **goiti**tik eta **baso**ko(-aren) **beheiti**tik izen-konposizioa deitutako hitz elkartera. Bestalde, **goiti** izenondo ere izaten da; ez ordea, **beheiti**. Baina berdin dio izenondo zein LE izan, batean zein bestean kontzeptu bera badago, eta ez dago arrazoirik egon ez dadin.

Horrelako kasuetarako adibide adierazgarrien bila ibili, eta bat baino ez da aurkitu besteak baino adierazgarriagoa, abiakia eta goiti eta beiti, hirurak

[44] **Mota,** bideaz ateko behegain laprana da. Murko, ezponda.

agertzen baitira bertan. Zornotzatik Durangorakoan, Berna, Bernabeitia eta Bernagoitia auzoak daude. Beraien topografia bertoko irudikoa da.



Lurraldearen ebakidura bertikala

LGaren hipotesia zera da: Bernakoek han beheko guneek osotzen duten auzoari **beitia** deitu ziotela, eta **goitia** han goiko guneek osotzen dutenari.

Irudiko topografiak zera ere adierazten du: hiru auzoak egon zirela Berna deitutako auzo edo herri batean, zeren Bernabeitia Bernan egon izan ez balitz Bernagoitia Bernatik aldenduta eta urrun xamar (ez ukitzen) egongo zatekeen, eta ezingo zuen Berna izena hartu. Dena dela ez dago **behetiak** eta **goitiak** abiakian egon behar dutenentz jakiterik, basabeitia eta basagoitia basoan bertan dauden ala basotik kanpoko ez-baso-guneak diren. Lehenago aipatutako ertzaren arazoa du horrek ere. Gainera ezin da zein edo zeintzuk adieretatik eratorriak izan diren jakin, **goi**k eta **behe**k zenbait adiera baitituzte, abiakikoa zein abiakiaz kanpokoa adierazteko.

Esandakoa laburbilduz eta ondorio gisa zera esan behar da **goiti** eta **behe(i)ti**ri buruz:

1) Garai batean LE izan zirela, **hemendi** eta besteak bezala eratuak.

2) Beren erabilera, egoera berrietarako, galtzen joan dela.

3) Gaur egun, antzina LE izan arren EELE bihurtutakoak baino ez dira erabiltzen, bai leku konkretuen izen (Beitia) bezala, bai lekuguneen (goiko ganbara) izen bezala.

4) LE izan zirenean LGaren hipotesia betetzen zuten.

5) Abiakian daudenentz esaterik ez dago, ertz eta beste zenbait LEen kasuetan bezala.

HARAINDI, HORRAINDI ETA HONAINDI

Hau Iparraldeko eredua da. **Haraindi** da erabiliena eta aztertzeko errazena horregatik. **Haindi** da **haraindi**ren ordez lehenago erabiltzen zena: Sarasolaren hiztegian 1858ko data jarri zaio **haindi**ri, 1899ko data **haraintiri**, 1921ko data **haraindi**ri, eta **handi** ekarri ere ez dakar zaharregia delako-edo.

Corpusetako esaldiren batean ikusi dira **haindi** eta **haraindi** mendebaldeko **handi** sarritan bezala, hau da, abiaki edo erreferentziarik gabe, erabiltzen direla: *...Iñigo Arista haindi zela...*[Hiribarren, (Esk)], *...munduko haraindi hartan aurkituko dituela...*[Xarrintton Piarres; Fil. Hiz.] Antzerako formakoak izateaz gain, esanahiz ere oso antzerakoak, gaur egungo antzerakotasun haundia baino haundiagoa izan dutela ageri da. Bestalde Iparraldekoak **ai** diptongoaren zaleak dira, hegoaldekoek ere[45] badakite **harenbat hainbat** bilakatzen eta horrelakoak egiten baina. Hortaz zalantza haundirik gabe esan daiteke **handi** eta **haraindi** jatorri berekoak direnez oinarri kontzeptual bera daukatela, eta -ti atzizkiaren eragina bietan dela bat eta bera.

Bere bilakaeran, **haraindi**k adlatibo-kutsua hartu du (Iparraldean *Zubiaren harateko aldea* esaten ere badakite),eta horrek markatzen du gaur egungo bere esanahi desberdina, hein txikiko desberdintasuna den arren. Mendebaldean ere **-tik harakoa** (bertarakoa) espazio bihurtzeko tentazioa izaten da, izatez norabidea izan arren; baina norabide izan, ausaz horrela aukeratu delako da, ez arrazoi haundiagorik dagoelako; baitere honantzakoa edo honanzkoa, horrantzakoa edo horranzkoa, eta beste **(-tik) -rantzako** asko, "etxetik ibairantzakoa sasiz beteta dago" kasu, izatez norantza izan arren.

GAINDI

Gainti ere erabili izan da, batez ere antzina.

Corpusetan "mahaiaren gaina" eta gauza txiki askoren gaina agertzen da. Ez dago ostera "mahaian gaindi" edo "gauza txiki batean gaindi"rik, *hortxe gaindi* bat izan ezik. **Gaindi** eremu zabal xamarra da, bertan ibili eta joatekoa esaldi askotan agertzen den bezala: **gaindi joan, gaindi ibili** sarri askotan agertzen dira, ondoz ondo dauden gainik gain egitea adierazi nahiaz-edo. Beste adiera batean, gaindi egin = gainezka egin, errepikatzea edo -ti atzizkiak adierazten duen ugaritasunarekin bat dator. Horrez gain, **handi**k, **behet**ik, **goit**ik eta **gaind**ik antzekotasun kontzeptual haundia agertzen dute, eta antzera eratuak izan zirela

[45]Ikus **aren** Azkueren hiztegian. **Harendi** ere badator. Lhandek ere badakar **harendi;** Var. **haraindi** dela dio.

esatea da zuhurra. Eta antzera eratuak badaude **gaindi**k LGaren hipotesia betetzen du. Horrela **gaindi**, egoera eta kontestu batean hiztunak **gain** deitzen dien gune guztien leku geometrikoa da.

Mendebaldean **gaineti(k)** erabiltzen da[46]; eta berdintsu erabiltzen da, izen sintagma **-en gaineti** izan arren. Mendebaldean **e** sartu dute epentesi bezala. "Sasi guztien gainean ibili" eta "sasi guztien gainetik ibili" gauza bi dira: bigarrenean urradurarik gabe ere libra gaitezke.

URRUTI

Corpusetatiko esaldietan argi ikusten da **urruti**k adiera bi dituena: bata urruti=urrun, urruneko gune txikia dena, eta bestea urruti=urruneko leku zabalagoa dena. Urrunera begira, gune bat urrun badago, aldameneko guneak ere bai, eta denen artean **urruti** osotu dute. -ti atzizkiaren eragina uste dena bada, **urruti**k bigarren adiera du berezko; eta lehen adiera, berriz **urrun**en adiera berekoa izatera itzuli da esanahien arteko desberdintasuna txikia baita. "Ameriketako urrutietan" eta antzerakoak agertzen dira corpusetan, baina "Ameriketako urrunetan" eta antzerakorik ez da inoiz entzun. **Urrun**ek, gune txikia edo puntuala izanik, ez du lurralde-kategoriarik. **Urruti**k, **urrun** askoren batura izanik, badu lurralde-kategoria. **Urruti**k LGaren hipotesia indartu egiten du.

BARRUTI

Barruti aztertu denean, gaur egun behintzat LE den adierarik ez daukala ikusi da, mugak behar dituelako eta mugak ez dituenean paraje edo eskualde bihurtzen delako, udal edo gauza administratibo bailitzan. Hori istripu administratibo dela esan beharko da, ez baita **urruti** eta besteak bezala eratuta dagoela esateko eragozpen. Edozein barruko gunetan da **barruan**, baina gune guzti horien baturan da **barrutian. Barrutia** barru guztia oso-osorik hartuta da.

GARAITI

Garaitiren kasuan (ikus eranskina) ez dago frogarik inoiz leku-izen bezala erabili denik esateko ere. Saioren bat beharbada. Ez dago daturik ezer esateko. Bere itxura agian.

[46] Gazteluk eta Enbeitak **gaindik** ere bai.

ATARI ETA ZABALDI

Baliteke **atari** latineko **atrium** artez-artez mailebatua izatea. Horrela bada, hemen esango dena lar dago.

Baliteke **atari** edo **atadi** latineko **atrium** izatea, baina mailebatzerakoan euskal itxura eta atzizki honek ematen dion sema gehitu nahi izan ziotela. Kasu horretan, hemen esango dena harira dator.

Baliteke **atari** edo **atadi**n euskal **ate** edota **at** erro-morfemak izatea. Kasu horretan ere hemen esango dena harira dator.

Atari edo **atadi**, eraikinaren barruan edo eraikinetik kanpo izan, eraikinaren atetik hurbileko espazioa da, baita arkupedun atari haundiagoa denean ere. Horrela dela adierazten dute hiztegiek ere, bai adiera zaharra eta bai adiera berriagoa ere, eta baita ustezko sinonimoak ematean ere: *atea, ate-ingurua, atarte, atalondo, ateondo, ataurre*. Gauza bera agertu da corpusetan (ikus eranskinean) adibide bakar batean izan ezik: ...*uri atarian iturri bat zegoan leku bakarti baten alkar jo zuten*...[Azkue, Jose Maria; Assis'tar Prantzizko]. Hor baliteke leku bakarti hori uritik urrun xamar eta atearen erreferentziarik gabe egotea, hau da, horkoa **at** LEa izatea, eta ez ixteko **ate**a.

Bigarren kasuan (ixteko atea), lekugune bati erantsi zaio -ti atzizkia, **frontoiti**n bezala.

Lehen kasuan, LE bati erantsi zaio -ti atzizkia beste LE bat eratzeko. Jatorriko LEa **at** edo **ate** da. LGaren hipotesia betetzeko **atari**k eta **at**ek esanahi berdintsua izan eta **at**ek esanahi puntualagoa izan behar luke. Lehen baldintza betetzen da, eta bigarrena ere bai **at** espazioa atea dagoen tokira mugatzen badugu. [Svorou, Soteria (1993)]k adierazten duenez, badira munduan *door* (ate) hitzaren zabalkuntza semantikoa *outside* (kanpo) esateko erabiltzen duten hizkuntzak. Euskaraz ere konexioa argi ikusten da, eta Azkuek-eta adierazi egin dute, Lekeitioko Atea auzoa aipatuz hatan ere. Hortaz, **at** espazioa atea dagoen tokira mugatu ahal da, eta **atari**k LGaren hipotesia betetzen du.

Zabaldiren kasuan lehenbizi zera gogoratzea: **zabal** izen ere izaten dela, gutxitan baina, eta izen bezala LE izaten dela, gutxitan agertu eta tesilan honetan ere aztertzeko ahaztua izan arren. Frontoian pilota zabalera joaten da, untziak (itsas)zabalera joaten dira. Horrez gain, gauza baten (adz. mahaiaren) zabala eta luzea ere badira, dimentsioak-edo direnak, astia dagoenean aztertzeko.

Corpusetan **zabaldi**k hedadura haundiko espazioak (superfizie eitekoak) adierazten ditu gehienetan, eta izugarri eta azkengabe eta horrelako izenondoek definituta dator. Hemen ere LG hipotesia betetzeko **zabaldi**k eta **zabal**ek esanahi berdintsua izan eta **zabal**ek esanahi puntualagoa izan behar luke. Argi dago baldintza biak betetzen direna.

2.8.6 Deklinabide urria

Tidun deiktiko hauen (hobe "LE hedatu" deitu) deklinabide urria nabarmen ikusten da. Hemen ez da morfologian sartu nahi, baina gogoeta hau egitea ezinbestekoa gertatu da. Azkuek "urrutian" ikusten duenean pleonasmo deitzen dio, "haindian" eta beste batzuk ikusten dituenean ez baina. **Handirik** eta **hortirik** ere pleonasmoak dira bere iritziz. Bestalde badaude euskarak gaur baino deklinabide urriagoa zuen garaietako aztarnak, eta Lafonek ere **-a** mugatzailea bera ere ez zegoen garaiez hitz egiten du.

Hori horrela izan bada ere, LE hedatuen deklinabide urria deiktiko direlako izan daiteke, deiktikotasunak eskatzen duen gauza bailitzan. Horren zantzua deiktiko ehuneko ehunean direnetan ikusten da argien: **Han** → **hango** baino bilakatzen ez denez(hara eta hona esateko erroa aldatu behar da), **handi** eta **handiko** baino ez daude. Maiztasun txikiko salbuespen gisa, eta goitia eta beitia ere badaudenez, **handia** ere bai. Idatzita inon aurkitu ez den arren, "mendiaz handira joan" bezalako adlatiboa esan esaten da.

Deklinabide urriko jokabide hori beste deiktikoetan (LEetan) ikustea ez da harritzekoa. Hemen **albo**ren corpus batean agertu direnetarik bi baino ez dira aipatuko: *semea amaren albo zegoen* [Etxaniz, N. (LBB)] eta *ta biargeirik gogorrenetan, gizonen albo ibili arren* [Mogel; Pab]. Izan ere, inesiboa sarritan deklinabide atzizkirik gabe uzten da, hala nola "gorago dago" esan behar da, eta ez "goragoan dago". Baina "goragotik hartu, goragora bota eskua" esan egiten dira, "gorago bota eskua" sarritan nahikoa izan arren.

2.8.7 Ondorioak laburbilduta

Hemendi, horti eta **handi**ren eduki semantiko eta erabilkera ezagunaz baliatuz eta corpusetako datuen laguntzaz, berorien eta **hemen**, **hor** eta **han**en arteko sema edo berezitasun semantikoa atera da. Leku-izen arrunt batean eta leku-izen propio batean ere lan bera egin da, leku-izenorde deiktikoetako eta leku-izenetako sema, bat eta bera dela aurkituz. Sema horri, leku geometrikoaren kontzeptua erabiliz behin behineko definizioa eman zaio eta LGaren hipotesia deitu zaio LE enparauek zelan betetzen duten ikusi eta guztiz baieztu arte. LE enparauen kasuetan hipotesiaren aldeko erantzunak izan dira guztiak. Baina kontu hauek antzinakoak direnez, betiko zalantza ere izan da: ez ote zatekeen, LE bakarren batean behintzat, aurkako erantzunen bat agertuko datu gehiago jasotzerik izan balitz.

Betiko zalantza hori gogoan eta aurrera egin beharrean, hauek dira ondorioak:

1) Lekugune erlatibo bati -ti atzizkia gehitu eta beste LE bat eratzen da. Bigarren LE horrek lehen LE hark ez zuen sema hau du: lehengo LE hark eta inguruko eta izen bereko beste LE batzuek osotutako leku geometrikoa izatea. "LE haien batura izatea" ere esan ahal da, baina ondoz ondo eta etenik gabe egon behar dutela gogoan eta. Horren ondorioz, bigarren LEaren erreferentea lehen LEaren erreferentea baino haundiagoa da; -ti atzizkiak lehen LEaren erreferentea hedatu egiten du.

Sema edo berezitasun semantiko horren bidez bereizten dira urrun eta urruti adibidez. Bereizi nahi dituenak bereiziko ditu, noski, bereizi nahi ez dituenak **urruti**ren beste adiera, urruti=urrun egiten duen adiera erabiliko du eta. Urrutikoetxea deitura ulertu duenak Handikoetxea deitura ere ulertuko du, eta Urrutia ulertu duenak Handia ere bai ((H)Antia deitura ere badago). Ulertuko du baitere "itsas handia" kostatik han edo urrun xamar dagoen itsasoa zergatik den.

2) -ti atzizki horren eragina hori dela eta, -ti atzizkia bera da lekugune erlatibo. Atzizki horrek nolabait azaltzeko, eta inguruan gehitzen dio lehen LEaren esanahiari, edo leku-izenaren esanahiari.

3) Hemen egin den azterketa semantikoa (1)ean eta (2)an esandakoa somatzeko izan da, eta horrenbeste somatu izan da. Gai honek azterketa sakonagoa, gauzen zergatiak adieraziz-eta (baita azterketa etimologikoa edota morfologikoa ere) merezi duelakoan, azterkuntza horren zain egon beharra dago.

Atzizkia bera lekugune erlatibo den arren, tesilan honetan -ti atzizkiari ez zaio LEaren tratamendua emango; aldiz, atzizki hori daukaten LEak banan-banan aztertuko dira, corpusak horrela ordenaturik datozelako, eta horrela akats sistematikoren bat egiteko arrisku txikiagoa dagoelako.

2.9 Izen-sintagma

2.9.0 Aurkezpena

Aurreko hitzak eta LEak (abiaki + LE) izen-sintagman daukaten bikote-osokera iruzkinduko da hemen, ez teoria sakon eta sarritan burutugabeetara jota, praktikan eta era enpirikoan jaso dena aintzat hartuta baizik. Gogoan izan behar da horietako hitz bikote[47] bakoitzeko osagaien (batena bai behintzat) eduki semantikoa definitzeko ahalegina dela hau, eta hitzon esanahia jakingo ez den bitartean ezin dela azterketa sakonagorik egin. Hemen esango dena, ikusi den erabileratik aterata izango da. Hurbiltze hau beharrezkoa da; gero besteren

[47] **Hitz bikote, izen-sintagma** esan beharrean esaten da geroago ere.

batek, behin hiztegia osotuta eta geurea eginda, primerako teoriez baliatuz erakutsiko du gauza guztien arrazoi sakona.

Alde beste LE batekin bikotetua dagoeneko izen-sintagmak, **barrualde** eta **barruko alde** eta horrelakoak, 2.10 sailean iruzkinduko dira.

"Etxeaz handi", "etxeaz honaindi" eta horrelakoak ez dira iruzkinduko, dituzten esanahiak esanahi argiak eta bakarrak direlakoan, sintagma bakoitzaren esanahia sintagmaren lotukeraren (aurreko hitzaren deklinabide atzizkiaren) menpe ez dagoelakoan. Ezta "etxetik urruti" eta antzerakoak, arrazoi bera dela-eta. Dena den, 3. atalean LE bakoitza aztertuko denean, zein lokailu hartzen duten adieraziko da.

"Alboz behera", "ahoz gora" eta horrelakoak ere ez dira iruzkinduko, horiek ere esanahi argia dutelakoan. Ez da uste "ahoz gora", "ahotik gora" eta "ahoan gora" nahastuko dituen euskaldunen bat denik.

Hortaz, "etxeko barru", "etxearen barru", "etxe barru", "etxebarru", "etxean barruan" eta horrelakoak iruzkinduko dira jarraian.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

2.9.1 Sintagma moetak

Bakoitzari zelan edo halan deitu beharrean eta, honela sailkatuta iruzkinduko dira sintagmok:

edutezko genitiboduna

Moeta honetakoak, hauek dira kasu: (etxe)-aren edo -en barru, azpi, pe, albo, alde eta abar.

Moeta honetakoetan, LEa aurreko izen hitzari edutezko genitiboaren bidez lotzen zaio. Eta hori hiztegi modernoetako artikuluetan ere badator.

Batzuetan sintagma honetakoa ez da LE izaten, EELE edo Ekai Egindako Lekugune Erlatibo baizik. Esate baterako "zapataren azpia" edo "zapaten azpiak" (gomazkoak direnean), "lapikoaren azpia" (metalezkoa denean). Gauza bera "kotxearen beheak" (metalezkoak-edo direnean), kasu honetan sintagma osoa erdaratiko kalkoa izan arren, euskaraz orain arte kotxe batek behe bakar bat baino ez baitu izan.

Moeta honetakoetan, aurreko hitzekoa bizigabea bada, edutezko genitiboa eta mugatzailea kenduta ere lotzen da. Eta hori hiztegi modernoetako artikuluetan ere badator.

hitz elkartea

Moeta honetakoak hauek dira kasu: etxe-barru, azpi, pe, albo, alde eta abar. Izen-konposizioa ere deitu izan zaio izen-sintagma honi. Tesilan honen esparru mugatuan, hemen "txerri-buru, txerri-hanka, txerri-belarri" eta horrelakoak agertuko ez direnez, hitz elkarte hau goiko sintagma moetaren aldakitzat hartuko da, han azken paragrafoan azaldutako aldakia, bizigabeena alegia.

Batzuetan sintagma honetakoa ez da LE, EELE edo Ekai Egindako Lekugune Erlatibo baizik. Esate baterako "zapata azpia" edo "zapata azpiak" (gomazkoak direnean), "lapiko azpia" (metalezkoa denean).

zeren-eredukoa

Goiko bi sintagma moetak, biak, LE gehienek eratzen dituztenez, eratze biak batu eta ZEREN-EREDUKOA deituko zaio moeta bien batura den izen sintagmen moeta horri. Eta horrela deituta agertuko da 3. atalean.

lexikalizazioa

Goiko hitz elkarteak batzuetan lexikalizatu egiten dira, edo hitz bakar bat bailiran hartu eta erabili. Horrela "etxebarru" edo "etxabarru", "etxagoien", "etxabe" (etxebehe), etxalde eta abar. Jakina denez, lexikalizazio hauek azentu-unitate bat daukate, hau da, hitz bat bailiran ahoskatzen dira.

Lexikalizazio hauetakoak ez dira LE, EELE baizik. Hemen beheko KO ATZIZKIDUN SINTAGMEN azterketan argi geratuko da [abiakiko LE]rik ez dagoena eta bai [abiakiko EELE]ak. Adibidez lexikalizatua den etxebarruko **barru** ez da definizio orokorreko barrua, LE dena; barru horrek definizio partikularragoa du, besteak beste "aterpe epel eta eroso" ere esan nahi du. Metonimia edo metonimiaren antzekoa gertatu da.

ko atzizkiduna

Hemen aztergai den sintagma, hauxe da: [abiakiko LE] , **lorategiko aldamen** bezalakoa. Hasiera batean behintzat, harritzekoa da izen sintagma hori, eta aztertzea merezi duelakoan heldu zaio aztertzeari. Harritzekoa, "lekugunean dagoen LEa" esan nahi badu, lekuguneek izan izaten baitituzte LEak: "etxearen barrua eta alboa" baina ez "etxeko barrua eta alboa".

Hizkuntzalariek, -ko atzizkiak lekuzko genitiboa eratzen duela uste izan dute, baina gaur egun gauzak ez daude horren ziur, bibliografiako [Trasken R. L. (1985)] artikulua horren lekuko. Artikulu horretako ondorioak hauek dira:

(1) Euskaran, -ko forma duten bi atzizki daude.

(2) Lehena, atzizki sintaktikoa da; ez du esanahirik; adizlagunei eransten zaie, eta izenlagunak eratortzen ditu.

(3) Bigarrena, atzizki deribazionala da; badu esanahia, ahul eta aldakorra izan arren; izen multzoei eransten zaie, eta izenlagunak eratortzen ditu.

(4) Euskaran, horregatik, -ko forma duen kasu atzizkirik ez dago!

Horri, zera gehi dakioke: -ko atzizkiaz eratutako izenlagunek izenari propietatea edo ezaugarria jartzen diotela. "Gure etxeko txakurra" gure etxekoa da gure etxetik urrun badabil ere; txikitan gure etxekotu zen eta orain ez da basokotuko. Egia da, gure etxekoa bada gure etxean egon behar lukeela ia beti, baina baldintza hori ez da derrigorrekoa. "Mahaiko labanak" ere, batez ere dotoreak baziren, gonbidatuak zetozenean ateratzen ziren, eta orduantxe baino ez zuten mahaia ukitzen. "Mahaiaren azpia", azpi hori LE bada, mahaitik aldenezina da, mahaiak beti dauka azpi hori, baita mahaia kontrabandoan Australiara eraman badute ere. "Mahaiko azpia[48]" mahaiko labana bezalakoa da; egon behar luke bai, mahaipean, baina hori ez da derrigorreko baldintza; beharbada plastikozkoa da, mahaiari ipintzeko behealdea lar gastatu ez dakion, eta han dago dendan apalean norbaitek erosi eta mahaiari ipiniko dion arte. Azpi horri, mahikoa izatea erantsi zaio, ezaugarri hori erantsi zaio. LEek ez dute ezaugarririk onartzen, espazio hutsak direlako; zerbaitek barru xamurra badu, EELE xamurra du. Ondorioz, [abiakiko LE]rik ez dago; [abiakiaren LE]ak daude.

Hemen aztergai den [abiakiko LE] bezalako sintagma ugari ez da corpusetan aurkitu. Aurkitu direnak eranskinean datu-txosten bakoitzean datoz. Adibidez, corpusetan ez dago [abiakiko arte] bat ere, lau [abiakiko albo] daude, eta corpus askoz laburragoak izan arren, hamahiru [abiakiko atari] daude.

Hona aurkitu diren kopuruen adierazpen bat:

[48] Ikasle baten idazki batean, "mahaiko azpiak" hankape bakoitzean, oinetako gisa eta marruskadura txikiagotzeko, ipintzen diren piezak izan ziren.

ZERO	GUTXI	GEHIAGO
arte	albo (4)	atari (13)
atze	azpi (2)	aldamen (6)
aitzin	aurre (7)	alde (100+)
-pe	barrunbe (3)	alderdi (13)
barano	barne (8)	bazter (17)
at	barren (5)	barruti (9) (ez da LE)
goiti	barru (3)	erdi (6)
handi	behe (2)	ertz (15)
hemendi	bitarte (2)	gain (11)
honaindi	gibel (2)	hegal (9)
horraindi	goi (2)	hegi (7)
horti	haraindi(1)	inguru (15)
iraitz	saihets(1)	ondo (9)
kanpo	sakon (5)	
landa	urruti(1)	Oharra: zenbakiak agerpenen kopuruak dira.
lekore		Corpus batzuk beste batzuk baino
oste		luzeagoak direla kontuan hartu behar da.

Taula hori ez da fidagarria ehuneko ehun, idazleei ere noizik noiz lumak laban egiten baitie, eta batzuengan (gehienak gramatika ahaleginen aurrekoak dira) lekuzko genitiboaren teoriak eragina izango zuen gainera, baina taula horrek zera erakusten du:

1) Lehen zutabea. LEtasuna argi izan eta hitz beraren LE ez den beste adiera bat oker hartzea gatx dagoenekoa.

2) Bigarren zutabea. Nekez baina LEak ez-LE (paraje, zona, lekugune, parte) bihur daitezkeenekoa.

3) Hirugarren zutabea. LEak erraz ez-LE bihurtzen direnekoa.

Euskaldunak ondo daki lehen zutabekoak LE direna eta LE bakar-bakarrik direna. **Kanpo** ez da inoiz bertara tortila jana egitera joateko larremendieta, abiaki baten barrua ez den espazioa baizik, eta beti da LE. **Barano** ez da inoiz zona, baina **inguru** bai; "hango inguruetan" esan egiten da, baina ez "hango baranoetan". Goiti izan daiteke ez-LE, baina corpusetan ez da agertzen adiera horiek dituela. **Oste** beti da LE, zalantzarik gabe. Eta lehen zutabean beti horrela edo antzera.

Bigarren zutabekoak ere LE hutsak izan behar lukete, **albo** adibidez gutxi batzuetan **parte** den arren, eta oker esanda **zona** da beste gutxiago batzuetan, baina bestelako salbuespenak ere ulerterrazak dira. **Atze**k ez du sintagma hau

inoiz eratzen, eta **aurre**k 7 aldiz. **Aurre**k zertasuna izaten du, leku konkretu hura izaten da, hortaz EELE ere izaten da, etxe-aurrea bizileku ere izaten den leku apaindua izaten da, eta **atze** ez; baserrietan "sastai" eta berariazko izenez deitzen zaio etxe-aurreari, atzeari ez. **Aurre,** errazago bihurtuko da lekuguneen antzerako lehen eta EELE gero. **Barren, barne** eta **barru**k ere leku konkretu bihurtzeko joera dute, "etxeko barne" "etxeko gela" bezala. [Abiakiko sakon] agertzen deneko esaldiak begiratu eta sakon=sakana edo sakosta dela ematen du denetan, eta sakana eta sakosta ez dira LE.

Hirugarren zutabekoak argi dira polisemikoak LE eta ez-LE izatean ere. Eta laprastada txiki bat eta **ko** atzizkia erabili izan da LE denean edo izan behar lukeenean ere. Hasieran, zutabe horretan **ondo** ikustea harritzekoa gertatu da, baina ez **ondo**k "paraje" ere esan nahi duela eta pluralean ere erabiltzen dela gogora ekarri ondoren. **Ertz**ek**, hegal**ek eta **hegi**k uste baino gehiagotan eratu dute sintagma hori, baina aztertu eta sintagma gehienak LE ez diren adierek eratu dituztela jakin da, esate baterako hegal=mazela egiten duen adierak (ikus eranskina), eta mazela ez da LE.

Ondorioz, [abiakiko **LE**]rik ez dago, [abiakiko **ez-LE**]ak baizik. Horrela, adibidez *Aiuntamenduko beea* [Anabitarte; Poli] irakurtzen denean, **behe** hori EELEa da, hau da, idazleak gela, lonja, bastarde edo beste lekugune bat esan beharrean esan du **behe**, edo erdaratiko kalkoa da. Aiuntamenduko behea, aiuntamenduaren beheko partea bilakatu da. Berdin *bideko beea* [idazle eta obra bera] irakurtzean, behe hori "beheko mota edo ezponda" edo horrelakoren baten ordez idatzi baita. Bideko behea, bidearen beheko partea bilakatu da.

Argi dago edozein LE behartu daitekeena horrela EELE bihurtzeraino, horrelako metonimia izan eta. Tesi hau LEez denez, [abiakiko ez-LE] sintagma moeta hau ez da aipatuko 3. atalean.

bertan-eredukoa

"Mahaira gainera (igo)", "eskapolotetik[49] goitik (hartu)" eta horrelakoak esaten dira. Horrelakoak izen-sintagma direla esatea lar esatea delakoan egon arren, izen-sintagma deituko zaie beste azpiatal bat ez hasteko. Egotez, horrelakoetan juxtaposizioren bat dago: "mahaira igo, gainera igo". Edo aposizioa, [Borillo, Andrée (1990)]k frantseserako dioen bezala

Il y a des sièges dans la pièce, (tout) au fond

baina euskaraz komarik edo etenaldirik gabe esaten da sarritan, eta ziztu bizian sarrien.

[49] Eskapolot = arropak gordetzeko altzari haundia.

Bikoteko lehen hitza abiakia izaten da, eta bigarren hitza LEa nahiz EELEa edo LEan dagoen abiakiaren partea.

Horrelako ?izen-sintagmei "bertan-ereduko" deituko zaie 3. atalean.

2.10 "Alde" hitzaren esanahi espazialak

2.10.0 Aurkezpena

Alde zeinu lexikalak aparteko arazo gatxak dituenez, gero 3. atalean egin denari hobeto jarraitzeko, arazook azaltzeko eta korapiloak askatzeko ahalegina da azpiatal hau.

Alde hitza polisemia haundikoa da. Izen-sintagman [abiaki + alde] LE bezala agertzen den **alde**, Lekugune Erlatiboen Eremu Lexikala deritzon 3. atalean aztertuko da. Hirugarren atal horretan LEak bakar-bakarrik hartuta, **goi** bai, **alde** ere bai, baina **goialde** ez, aztertu dira, berez horrela izan behar duelako eta bestela, **alde**ren polisemia dela-eta, nahastea kontrolaezina izango zatekeelako. Jarraiko 2.10.1 sailean, abiaki arrunt baten atzean doan **alde**z gainera, beste LE baten atzean doan **alde** iruzkinduko da, **goiko alde**n eta **goialde**n eta beste LEen atzean doana hain zuzen. Gero 2.10.2 azpiatalean, deixiko **alde** (alde deiktikoa) iruzkinduko da.

2.10.1 Alderen polisemia

Espazio kontuetan baino ez, eta gauzak argitzen hasteko, **alde**k adiera nagusi hauek ditu[50]:

1.- "Zona edo paraje" esan nahi duena, lekugunea dena, LE ez dena, eta horregatik ikerkuntza-lan honen arlotik at geratu behar izan zukeena, baina **zona** edo **inguru** edo **ondo** sarritan noiz zein den argi ez dagoenez, etxalde, Gernikalde, industrialde eta horrelako izen-konposiziotako **alde** aztertu egin da 3. atalean. Ez ordea ez da "industri aldeetan" aztertu, hor argi baitago alde = zona,paraje dena.

Adiera honek abiakiaren espazioa hedatu egiten du. Hau da, leihoalde= leihoaren espazioa bera (askotan baina ez beti) + leihoaren inguruko beste espazio haundiago bat, eta hortaz, LEalde = LE hori (askotan) + inguruko beste espazio bat izatea ere espero da; adibidez, deitu **gain** espazio bati eta **gainalde**

[50] Baiezpen hau, eranskineko datuek eta hiztegiek diotenaren arabera egin da.

espazio hori baino hedatuagoa izatea espero da, **gain** bera ere **gainalde**n egon ala ez.

Lehengo azpiatalean, 2.9.1ean, esan den bezala eta aurrerantzean abiaki=etxe beti eginda, "etxeko aldeak" etxeko zonak dira eta ez dira LE. Ezta EELE ere, lehengo “mahaiko azpiak” ez bezala, “etxeko aldeak” zer diren nekez ulertzen baita. "Etxeko goiko aldeak edo goialdeak" etxeko aldeak dira batez ere, ausaz goian daudenak, eta ez dira ez LE ez EELE. "Etxeko aldea edo etxeko goiko aldea" ez da esaten, LE ez izan eta EELE edo etxeko zona konkreturen bat ez bada, lehenago aipatutakoa edo. Corpusetan aurkitutako adibideak ere argi dira zona edo paraje, (ikus 2.9.1 ere), hala nola *...urdaileko alde pilorikotik...*[Unanua, Migel Anjel; Euskal Herriko Arrainak]*, Udalerriko alderik baxu eta lauenek...*[Aldabe Iosebe, Euskal Herriko Atlasa], eta beti dira honelako edo halako zonak (izenondoz-edo bereiziak). Hortaz [abiaki + ko + (...)+ alde + (...)] sintagmako alde zona edo paraje da, eta ez da LE ezta EELE ere. Horrela "Donostiako alde zaharra" zona da. Beste kontu bat da zenbaitek parte=zona egiten dutela, “Donosti partetik” ere jendea etortzen da eta.

2.- Unibertso osoa zatibituz lortzen den zatia. **Eskuinalde**k adibidez, zuina den plano batetik izarretarainoko espazioa adierazten du. Eta **alde** hori LE da.

3.- EELE edo partea dena. "Etxearen goiko aldea" sintagmako **alde** etxeaz batera amai daiteke haizorratzeko oilarraren gangarraren puntan, etxearen goiko alde hori pintatzekoa bada. "Etxearen alde bata adreiluz eraiki eta bestea harriz" esaldiko **alde** etxeaz batera amaitzen da. **Alde** hori EELE da. Zenbait euskaldunek **alde** hori **parte** hitzaz[51] ordeztu dute: "etxean goiko partean", "etxearen goiko partea", "etxearen eskuineko partea".

Horiexek dira **alde**ren adiera nagusiak (zona, LE eta EELE bezala), baina badira beste batzuk ere (LE eta EELE bezala). Aipatutako 2. **alde**k, besterik esaten ez bada, lateraltasuna adierazten du. Aipatutako 2. **alde**ri kendu 3. **alde** eta "etxearen aldean zuhaitz haundiak hazi dira" esaldiko **alde** lortzen da, eta azken **alde** horri 1. **alde**ren esanahia (sema) gehitzen badiogu zuhaitz haundiok etxetik hurbil daude gainera. Ikus eranskineko **alde**ren datutegia, bertan 8 adiera bereizi baitira eta 9-12 azpizenbakidun irudiek **alde**ren zenbait erabilkera erakusten baitute.

Baina lehengo hiru adiera nagusietara itzuli eta beraiek baino gogoan ez izanik, hurrengo taula hau gertatu da gauzak argiago izateko. Taula honetan (sing.) dioenean, **alde** hori bakar bat dela du gogoan hiztunak: **alde** bata ala

---

[51] **Parte** beti da ekaizko zerbait tesilan honetan [2.5 Terminoak] azpiatalean definitu den bezala.

bestea, eskuinaldea ala ezkerraldea, goiko **alde**a ala beheko **alde**a. Eta aipatutako 2. adierakoa da **alde** hori. Taula honetan (plu.) dioenean, horrelako **alde**ak asko ere izan daitezkeela du gogoan hiztunak, singularrean hitz egin arren, askotarik bat baino adierazi nahi ez duelako. Frantzieraz *NLI purement localisateurs* haiek bezala (2.7.4 azpiatala), LEek ez dute plurala onartzen, eta **alde**k LE denean ez du onartuko; bai ostera, parte edo zona denean. Horrela ere, gertatzen da, salbuespen gisa, 1. eta 2. adierakoak ere (zonak eta parteak) bata ala bestea izatea, hau da, singularrean izatea; eta horregatik, hurrengo taulan, kasu hori (X) ikurraz adieraziko da. Parentesi arteko ixa horrek, “normalean ez baina salbuespenean bai” adieraziko du.

Horrez gain, gogoan izan behar da 2.9.1 azpiatalean esan berri dagoena: [abiakiko LE]rik ez dagoela.

ALDE GIBEL-HITZA

IZEN SINTAGMA	LE	EELE, Parte	Zona Gune
(1) Abiakiko alde(plu.) (2) " " (sing.)			X (X)
(3) Abiakiaren alde(plu.) (4) " " (sing.)	X	X (X)	X (X)
(5) Abiaki alde(plu.) (6) " " (sing.)	X	X (X)	X (X)
(7) Abiakiko LEko alde(plu.) (8) " " " (sing.)			X (X)
(9) Abiakiko LEaren alde(plu.) (10) " " " (sing.)		bitxia bitxia	bitxia
(11) Abiakiaren LEko alde(plu.) (12) " " " (sing.)	X	X (X)	X (X)
(13) Abiakiaren LEaren alde(plu.) (14) " " " (sing.)	bitxia	bitxia	bitxia
(15) Abiakiko LE alde(plu.) (16) " LE " (sing.)		bitxia bitxia	X (X)
(17) Abiakiaren LE alde(plu.) (18) " LE " (sing.)	X	X (X)	X (X)
(19) LEko alde(plu.) (20) " " (sing.)	X	X (X)	X (X)
(21) LEaren alde(plu.) (22) " " (sing.)	bitxia	bitxia bitxia	bitxia
(23) LE alde(plu.) (24) LE alde(sing.)	X, bitxia	X, bitxia (X),bitxia	X, bitxia (X)

Taulan lehenbizi, LEa izateko, hiztunak **alde**ren esanahia edo lexema singulartzat hartu behar duela ageri da.

Taula horretako abiaki = etxe eginez, honelako adibide hauek eman ahal dira:

(1) izen-sintagmak ez du LE eta EELEak adierazteko balio. "Etxeko aldeak" beti dira "etxeko zonak edo guneak". Ezin da "etxeko parteak" esan, zentzu horretan atalak bailiran, eta bai "etxearen parteak".

(2) izen-sintagma txarto dago (1) izen-sintagman kokatzen ez bada. Hau da, hiztunak aldeen pluraltasuna du gogoan, eta gero alde bakar batez singularrean hitz egiten du. "Etxeko alde bata eta bestea" eta "etxeko alde hura" sintagmek (1) sintagmetako zonetarik bat edo beste adierazten dute. Eta izatez (1)eko zonak dira. Horrela corpus bateko salbuespenetatik hartutako esaldi honetan: *Jenteak...kaleko alde biak betetan ebezan.* "kalearen alde biak" normalagoa da, eta "etxearen alde bata" eta "etxearen alde hura" ere normalagoak.

(3) izen-sintagmak EELEak eta zonak adierazteko balio du. "Etxearen zenbait alde adreiluzkoak dira"; "etxearen zenbait alde zikin daude."

(4) izen-sintagmak LEak adierazteko balio du. "Etxearen alde bata eta bestea" (bai barruan eta bai kanpoan). Eta EELE eta zona adierazten ditu etxean bertako alde (parte, zona) bata eta bestea baino ez badira hiztunaren gogoan. Normalean parteak eta zonak gehiago izaten dira eta singularreko hau salbuespen gisa hartu behar da: eta horregatik, X parentesi artean egotea.

(5) izen-sintagmak EELEak eta zonak adierazteko balio du, (1) eta (3)koak hain zuzen. **Etxalde** eta **etxebarru**-eta lexikalizatuta daudenez, txabola erabiliko da abiaki gisa. "Txabola alde bat lastoz eraiki behar izan da"; "txabola alde guztiak zeuden ardiz beteta."

(6) izen-sintagmak (4)koak adierazteko balio du, genitiboaren elipsia baino ez dagoenean. "Txabola alde batean pinua, eta haritza bestean" (LE). "Txabola alde bata harriz eta bestea egurrez eraiki" (EELE). "Txabola alde batean ardiak eta bestean artzainaren ohatzea" (zona). Baina kontuz, Gernikaldek bezala txabolaren ingurua edo txabola+ingurua adierazi ahal du.

(7) izen-sintagmak zonak adierazten ditu (1) izen-sintagmak bezala. Izan ere, [abiakiko LEko alde] izatez [abiakiko alde] baino ez da. "Etxeko goiko alde gehienak garbitu gabe utzi ditu."

(8) izen sintagma, (2) izen-sintagma (1)ena den bezala, (7)aren kasu berezia baino ezin da izan.

(9) izen-sintagma oker dago, norbaitek **etxeko goi** eta **goiti**-eta **etxeko goiko parte-**eta edo **zona** bezala erabiltzen ez badu, hau da, etxeko goi =

ganbara-edo egiten ez badu, eta orduan, etxeko goiaren alde = ganbararen alde. Eta "etxeko goiaren aldeak" (pluralean) EELEak edo zonak izango lirateke.

(10) izen-sintagma bitxia da, eta ondo egoteko (9)koa gertatzeaz gain, LEak alde bata edo bestea baino ezin du izan EELEa adierazteko.

(11) izen-sintagmak EELEak eta zonak adierazten ditu. "Etxearen goiko aldeak zurezkoak dira." "Etxearen goiko alde guztiak utzi ditu garbitu gabe."

(12) izen-sintagmak LEak, EELEak eta zonak (salbuespen gisa) adierazteko balio du. **Etxearen goiko alde**ak izatez **etxearen alde**ak dira batik bat, eta (4)an esandakoak balio du hemen ere.

(13) "Etxearen goiaren aldeak" txarto dago, teilatua baino goragokoa zonakatu ez bada, eta "hegazkinaren behearen aldeak" ere txarto behe hori zonakatu ez bada bonbak hobeto botatzeko edo.

(14) izen-sintagma bitxia da, eta (10)an adierazitakoak gertatu beharko luke ondo egoteko eta EELEa adierazteko. "Hegazkinaren behearen alde bata eta bestea" esaldian hegazkinetik lurrerainoko **behea,** LE diren **alde** bitan zatibitu da.

(15) izen-sintagmak, (7)ak eta (9)ak bezala, EELEak eta zonak adierazten ditu, (9)koak adierazpide bitxiak dira.

(16) izen-sintagmak, (8)ak eta (10)ak bezala, EELEak eta zonak adierazten ditu, (10)ekoak adierazpide bitxiak dira.

(17) izen-sintagmak, (11)ak eta (13)ak bezala, EELEak eta zonak adierazten ditu, (13)koak adierazpide bitxiak dira.

(18) izen-sintagmak , (12)ak eta (14)ak bezala, LEak, EELEak eta zonak adierazten ditu, (14)koak bitxiak edo ez-ohikoak dira.

(19)-(24) izen-sintagmak ez dira sintagma osoak abiakirik gabe ez baitago LErik, baina laburbildura gisa aurkeztu dira, eta baitere sarritan abiakia aipatu gabe doalako, batez ere abiakia edo zuina denona edo kanonikoa denean. Bertan [LE + ... + alde] sintagmak, **goialde**k (23)+(24)ean esate baterako, zenbat zentzu dituen ageri da, abiaki(-ko) ala (-aren) izatearen arabera, hiztunak LEa, EELEa ala zona adierazi nahiaren arabera. Honetaz 2.10.3 azpiatalean dator gehiago, bertan xehepen bat, irudi eta guzti, egin baita.

Behin LE bat EELE bihurtu dena argi izanez gero, EELE hori abiaki arrunta bailitzan erabili ahal da. (Zapata-)azpia sartu "Alde gibel-hitza" taulan abiaki gisa eta berarekiko LEak eta bere zonak adieraziko dira **alde** gibel-hitzaren bidez. "(Zapata-)azpiaren aurreko aldea lekedatu".

2.10.2 "Alde" deiktikoa

Hiztunaren kokapenaren arabera hitz batek zenbait espazio (eta abar) desberdin adierazteko balio badu, hitz horri "hitz deiktiko" deitzen zaio. LEen definizioak (2.5 sailean) abiaki batekiko espazioa dela dioenez, abiakia hiztuna denean (eta sarritan izaten da) LEak deiktikoak dira (Lur gainekoentzat goian dauden gauza asko, hegazkinekoentzat behean). Dena den, zenbait LEren abiakia ezin da hiztuna izan, eta LE horiek ez dira deiktiko.

Ekialdeari mendebalde deitu behar ekialderago joanez gero. Ezkerraldeari eskuinalde deitu behar norberak bira erdi eginez gero. **Alde** horiek, eta azpiatal honetako guztiak 2. adiera nagusikoak dira (ikus 2.10.1). Hiztuna non eta "hemendiko, hortiko eta handiko aldeak" espazio desberdinak izango dira, eta baitere "Oiz mendiaz handiko edo haraindiko aldeak" hiztuna hemen ala bestaldean egotearen arabera.

Bigarren adiera nagusikoak edo unibertsoaren erdibana diren **alde**ak dira baitere **pinua dagoen alde** eta **pagoa dagoen alde**[52]**.** Norbera zuhaitz horietatik hur eta bien arteko lerroan dagoenean "pinua dagoen aldera begiratu eta gaztelua ikusi nuen, pagoa dagoen aldera begiratu eta eliza" adierazpena egin dezake norberak. Pinu horren eta pago horren arteko lerrotik irtenez gero, **pinua dagoen alde** eta **pagoa dagoen alde** bestelako alde bilakatuko zitzaizkiokeen hiztunari, eta bere kokapena halakoa eta "pinua dagoen aldera begiratu eta eliza ikusi nuen" esan beharrean ere gertatuko zatekeen.

2.10.3 LE alde

"Goialde" adibidez. "Alde gibel-hitza" deritzon taulan (23-24) sintagmetan ikusten denez, **LEalde**k esanahi asko ditu, batzuk bitxiak, **LEaren alde** izateagatik hartzen dituenak, eta beste batzuk arruntak, **LEko alde** izateagatik hartzen dituenak. Hortaz, **LEalde** izatez **LEko alde** da batez ere.

Hemengo irudiaren goiko partean erakutsi da non den **goiko alde** edo **goialde** objektiboa, hau da, abiakirik behar ez duena. **Abiaki<u>ko</u> goialde** irudian erdian erakutsi da, eta **abiakia<u>ren</u> goialde** irudian barrenean.

[52] Euskaraz, **pinualde** zuhaitz horren inguruko espazioa da eta.

LEko alde = LE



LEko alde = LE



-ko LEko alde(7) = zona

etxeko goiko alde bi



-en LEko alde(12) = LE

etxearen goiko aldea



-en LEko alde(12) bai EELE zein zona bezala

etxearen goiko aldea



BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

2.10.4 **Alde**k duen bezalako erabilera LE enparauetan

Esan eta ulertzen dira **ezkerreko albo, goiko aurre** eta horrelakoak, polisemia honetan **alde** bakarrik ez dagoela erakusteko. Dena den eta hemen [LE+(∅ edo -ko edo -en)+LE] sintagma iruzkintzen dela gogoratuz, **albo** eta **aurre**ren polisemia ez da **alde**rena bezain haundia. Zona bezala edo EELE bezala **alde** baino gutxiagotan erabiltzen dira LE enparauak. Hemen denak banan-banan iruzkintzea da ezin dena egin, luzeegi hartuko luke eta.

2.11 Norakotzeak

2.11.1 Bi edo hiru termino[53]

Hiztunak esandakoa zelan interpretatu behar den erakusteko artikulu kopurutxo bat argitaratu izan da frantsesez eta ingelesez behinik behin; artikuluotako terminologia ez da bateratua. Ingelesez *frame* eta *framework* kontzeptuak erabiltzen dira (gaztelaniaz *encuadre*-edo delakoa), eta frantsesez *orientation* kontzeptua. Aurnagueren *orientation* (*orientation générale* eta *orientation latérale* dioenean) eta Borilloren *orientation* (*orientation intrinsèque* dioenean) *orientation* desberdin bi dira. Ingelesez *intrinsic reference frame* zein *inherent reference frame*, biak erabiltzen dira sinonimo gisa. Eta abar.

Hori dela eta, hemen "norakotze" terminoa erabiliko da goiko *(reference) frame* eta *orientation* horien ordez. Termino horren kontzeptua ere zertxobait desberdina izango da.

Hirugarren atalean norabide orokorrak[54] adierazteko "goitik beherakoan", "atzetik aurrerakoan", "edonorakoan" eta horrelako adierazpenak erabiliko dira. Hau da, "nondik norakoa" erabiliko da. Behin "nondik" den jakinez gero, "norako" den dago jakiteke. Gero hemen beherago azalduko den koordinatu sistema cartesiarraren jatorri puntua non den jakinez gero, sistema hori norakotu egin behar da norakotze egoki baten bidez. "Nondik" den ere ez jakinez gero, sistema nondik-norakotu egin behar da nondik-norakotze egoki baten bidez.

Lur planetan gaudela[55], goitik beherakoa (z-koordenatu ardatza) ia beti dakigu. Beste ardatz biak (atzetik aurrerakoa eta albo batetik besterakoa) ez badakizkigu, koordinatu sistema loka daukagu eta emendioa egingo badigu ere emendio txikiagoa egingo digu. Koordinatu sistema atxiki nahi diogun izakiak (jatorri puntua erdigunean duela atxiki ere) **aurre** eta **albo** dei dakizkien alde edo parteak baldin baditu, norakotu (eta hortaz egonkortu) egingo dugu koordinatu sistema hori, eta y eta x ardatzetan ere emendio haundia egingo digu. Kasu horretan "(bertako) norakotzea" gauzatu ahal dela esaten da tesilan honetan.

Aldiz, ez **albo** ez **aurre** ez duen gauza batean zeozer non den adierazi nahian, edo gauza bi elkarrekiko kokatu nahian, hiztunak beraren kokapena eta

---

[53] Azpiatal honetan, termino hauek azaltzeko bezainbeste baino ez da jorratuko gaia.

[54] Norabide bat lerro zuzen bat izan arren, eta norabide orokor bat norabide paralelo askok osotu arren, berdin dionean "orokor" hitza ez da idatziko tesi honetan.

[55] Sarritxo esan (itzuli) behar izaten dira espazio sideraleko LEak filmeetan eta.

norakotzea ("nondik begiratuta" esaten dena) erabiltzen badu izaki horretaz edo izaki horren parteez hitz egiteko, "nondik-norakotzea" edo "norakotze deiktikoa" erabiltzen dela esaten da tesilan honetan.

2.11.2 Aurkezpena

Lekugune erlatiboetako espazioak hiru dimentsio ditu. Hiru dimentsiook "jatorriko puntu" deritzon puntuan elkartzen diren hiru lerro zuzen (edo ardatz) elkartzuten bidez irudikatzen eta adierazten dira. Horrela erabakitako guztiorri "koordenatu sistema" deitzen zaio, eta deskribatutako horri "koordinatu sistema cartesiarra" hatan ere. Badago beste koordinatu sistemaren bat, baina hizkuntzan eta LEak bereizteko eta adierazteko sistema cartesiarra[56] erabiltzen da; eta beharrezkoa bada erabili ere, zenbait LEk ez baitu koordenatu sistemaren beharrik, hala nola gero hirugarren atalean EDONORAKOAN sailkatuko diren guztiak.

Baina beharrezkoa bada, hiztunak hiru ardatz horiek begitandu egiten ditu eta egoera normalen eta ohikoenean hauek izaten dira: goitik beherakoa edo bertikala, atzetik aurrerakoa eta eskuinetik ezkerrerakoa (edo albotik alborakoa); azken bi horiek horizontal izan behar dute, lehena bertikal denez eta sistemak cartesiarra izan behar duelako. Behin erabakita ardatz bat bertikala dena eta beste biak horizontalak, betiere egoera ohikoenean, hiztunak koordinatuen jatorriko puntua non ipini erabaki behar du. Zenbait aukera izaten ditu eta erabakiak ere zenbait izaten dira: hiztunaren beraren gorputzaren erdigunean, entzulearen gerrian, beste edozein erreferentziaren (abiakiren) erdigunean. Horrela berarekiko, entzulearekiko eta beste edozein erreferentziarekiko erlatibo diren lekuguneak adieraziko ditu. Norekiko edo zerekiko diren argi uzten ez badu, entzuleak ulertzeko zailtasunak izaten ditu sarritan.

---

[56] Koordinatu sistema erabiltzen dena [Miller and Johnson-Laird(1976])k-eta aipatzen dute, horrela delako. "kartesiarra" hemen gehitu zaio, horrela delako.



Hemen erakusten den irudiari begiratuta, arazoak korapilotsu dirudi, gauza bi eta gizaki bi baitaude bertan, eta zenbait koordinatu sistema eta LE gehiago baitaude, eta denak konbinatuz gero aukera kopuru zenbatezina sor daitekeela ematen baitu. Baina goitik beherakoa konstantea da, grabitateak emana; eta etxeak eta urandel zilindrikoak (edo gaztak) ez dute hitz egiten, ezta entzuleak ere: hiztunak baino ez du hitz egiten, edo idazten. Horrela, kasu hauek baino ez dira izaten:

1) Baserri etxeak eta entzuleak duten bezala, bertako norakotze osoa dagoenean, hiztunak bertako norakotze osoa duen izakiarekiko LEak erabiltzen dituela bigarren izaki bat kokatzeko, eta ez duela bere gorputzaren norakotzea erabiltzen. "Zeure ezker alboan daukazu; etxearen aurrean dago" eta horrelakoak esaten ditu hiztunak, entzuleari hiztuna non dagoen axola ez zaiola. "Bertako norakotzea" deitu zaio kasu honi.

2) Urandel zilindrikoak (edo errotarriak) bezala bertako norakotzea goitik beherakoa baino ez denean, bera ez den izaki bi erlazionatzeko, hiztunak bere gorputzaren norakotzea erabiltzen duela.[57] "Urandelaren ezkerraldeko horma; errotarriak eskuinaldean duen arrakala; argazkian ezkerraldean dagoen neska" eta horrelakoak esaten ditu hiztunak, hiztunaren beraren ezkerraldea urandeleraino hedatu bailitzan. Eta orduan entzuleari bai axola zaiola hiztuna non eta norantz begira dagoen jakitea, argazkiaren kasuan ondo ezarritako era ohiko

[57] "Ispilu-irudia" bezalako kontzeptuez hitz egitea ez du merezi, ez baitu lebarik tesi honen xederako.

edo kanonikoa (eta tajuzko bakarra) dagoenez[58] besterik gabe ulertuko duen arren. Nondik-norakotzea edo norakotze deiktikoa deitu zaio kasu honi.

[Garnham, Alan (1989)] artikulu ondo eginean, berak *basic* deitu dion beste kasu bat aipatu du. Izatez, hemengo lehen kasua da, norakotze osoa duen izakia hiztuna denean eta (grabitazioak) ezarritako bertikalik ez dagoenean. Ortze zabaleko kontuak azaltzeko dela dio Garnhamek.

Gai honetan adituak diren hizkuntzalariek edo psiko-hizkuntzalariek aipatzen ez duten beste kasu edo adierazpide bat ere badago: teknikariek "behin betiko erreferentzia (abiakia)" edo "erreferentzia finkoa" deitzen dutena. Kasu horren filosofia zera da: zilindro tenteak (eta beste gauza askok) norakotze horizontalik ez duenez, hiztuna edonon egon daitekeenez (telefonoaren bestaldean ere bai), bilatu eta aurki dezagun abiaki ("erreferentzia" teknikan) finko bat. Horrela ingelesez *on the river side of the tree* eta horrelakoak esaten dira, ibaia ez baita higituko ezta marrazkia argiaren bestaldetik (*al trasluz*) begiratuta ere. Norakotze osoa dagoenean ere erabiltzen da adierazpide hori: *build the shack on the river side of the house* (eta etxetik hurbil ulertzen da). Euskaraz zailtasunak daude adierazpide hori erabiltzeko, eta ohiturarik bat ere ez, ahaleginen bat egin bada ere: "#arbolatik ibairantz eraiki txabola". Baina abagunea baldin badago, tesilanaren azkenean hitz egingo da horretaz.

2.11.3 Tesilan honen esparrua

Azken kasu hori kendu eta bertako norakotzea eta nondik-norakotzea baino ez daude. Tesilan honetako helburuei dagokienez, berdin dio norakotze bata edo bestea hartu, LEen eduki semantikoak ez baitira norakotze batetik bestera aldatzen. [Garnham, Alan (1989)]k ere gauza bera dio, berak bere *basic* norakotzea eta beste biak alderatzen baditu ere. Izan ere horrela da, adibidez hiztunaren alboa eta etxearen alboa kontzeptuz behintzat gauza bera baitira, hiztuna eta etxea bertako norakotzea daukaten beste edozein bezalako izaki bi direlako. Etxearen alboa kontzeptuz nondik norainokoa den jakinez gero, hiztunaren alboa kontzeptuz nondik norainokoa den ere badakigu. Edo LEen eskemak gogoratuz, L. Talmyk, 2.6.5 azpiatalean esan den bezala, dioena: eitea eta tamaina aintzat hartu behar ez direla eskemok marrazterakoan (LEen kontzeptuak definitzerakoan). Laburrago esateko, LEen kontzeptuak ez dira

[58] Halere, "argazkiaren ezkerraldean" esan izan balu, zalantzak sortuko lirateke, argazkiak bertako morakotzea duenez (atzea, aurrea) argazkiaren beraren ezkerraldea uler daiteke eta.

norakotzetik norakotzera aldatzen, eta tesi hau kontzeptuok definitzen saiatuko da.

Arrazoi bera dela eta, tesilan honetatik at utziko dira ispilu-irudiaren eragina, *canonical encounters* delakoak eta psikohizkuntzalariek hain maite dituzten paradoxak-edo direnak, beharrezkoak ez direlako eta gainera erdaraz berdinak direlako. Ez da adibidez hiru lerro hauek baino gehiago erabiliko elizaren aurrealdea kanpotik begiratuta (kanpandorre aldea) eta barrutik begiratuta (aldare nagusiaren aldea) kasu gehienetan aurkako alde bi izaten direla aipatzeko. Ezta lehentasuna duen norabidea goitik beherakoa dela azpimarratzen ere. Denok dakigu ahoz behera erori eta belarra behean edo azpian daukaguna, eta ez aurrean.

Hortaz, norakotze bietarik aukeran errazena hartuko da LEak aztertzeko, bertako norakotzea alegia, gogoan izanik norakotze gabeko LE asko daudela, eta norakotze gabeko eta berez deiktiko diren LEak ere badaudela.

2.12 LE + atzizki alderatzaileak

Jakina goitasunean **goiago** izango dela punturen bat, eta behetasunean **beheago**. Erabilera txikikoak dira **goiago** eta **beheago** horiek. Gehiagotan erabili beharko liratekeela uste da. Egon **goiago**, eta joan gorago. Gaur eguneko erabileran, egon ere **gorago** egoten da sarrien, eta tesilan hau gaur eguneko erabileran oinarritu da.

Alderakuntza absolutua egiteko atzizkia (-en) ere erabiltzen da, batez ere **goren** (goien, guren) igortzeko.

2.12.1 LErago

Hemen esango dena ibiliko ibilerei bakarrik doakiela dirudien arren, egoneko egoerei ere badagokie. **Gorago** joan egiten da, baina gero **gorago** egon ere egoten da. Ebazkizun dagoena zera da: **goi** espazioa zein den erabakita badaukagu, zein edo non den **gorago** deitzen dugun espazioa; eta berdin **beherago, atzerago** eta abar deitzen ditugun espazioak. Hemen ez dator harira **gorago** adjektibo ala adberbio den eztabaidatzea. Hemen ezta ez dator harira **gorago**k **goiago** izan behar lukeenentz eztabaidatzea, berdin dio eta. Gorago gauzak ere egoten direnez, **gorago** gauzen kokapena ere badenez, **gorago** lekua da.

Atzizkia hartu duen leku-hitzak deklinabidea garatzea, nekez egiten den gauza da antza denez (2.8.6 tidun LEen azpiatala gogoratu baino ez). Zilegi (eta

pleonasmo?) dela jakin arren, nekez esaten dira **goragoan, goragora**, inoiz "han goragoan" eta antzekoak entzuten dira baina, eta erraz ordea **goragoko, goragotik.**

Baina ez dago abiakiaren **gorago**rik, **goragoalde**rik, **aurreragoo**rik edo **aurreragoalde**rik, edo beste **LEragoo**rik. Hortaz, **gorago** ez da lekugune erlatibo, eta **LErago** ez da lekugune erlatibo. Hemen 2.12.3 azpiatalean iruzkinduko den bezala, **LErago** LEaren barruan dago, eta LEaren atala edo zatia da.

2.12.2 LEen

Ingelesez *upmost* edo *uppermost, leftmost, foremost* eta abar erabiltzen dira. Euskaraz **goren**ek ez du beraren leku-zentzua eta LE-zentzua guztiz galdu, kasu honetan **goien** ez esateak galtze horretan lagunduko badu ere. Esaten denean, adz. "mendiaren gorenean", nekez antzeman daiteke hiztunak LEa ala EELEa duen gogoan (espazioa ala tontorra), eta "aire geruzan gorenean" bezalako esaldirik ez dator corpusetan. **Beheen** behin baino ez da agertu corpusetan (*Odei auek dira beenekoak: 2.000 metro baino ez dira igotzen*). **Behe-behe** sarriago erabiltzen da. **Aurreen, atzeen** eta enparauak ez dira erabiltzen[59]. Beraien ordez, "denen aurrean dagoena, denak baino aurrerago dagoena" eta horrelakoak igortzen dira, hau da, alderakuntza absolutuaren ordez alderakuntza erlatiboa erabiltzen da. **Aurren** ez da espazioa adierazteko erabiltzen; **atzen (azken)** erabiltzen da espazioa ere adierazteko. "Argazkian eskuinen dagoena" ez du inork esaten, baina "argazkian *eskuineragoen dagoena" eta antzerako saioak egiten saiatzen da bat baino gehiago. Saltsa-maltsa galanta.

Horrela bada ere, **LEen** horiek LE direla esateko nahiko arrazoi dago, arrazoion eragozpena gutxitan erabili izana izan arren. Dena den, tesilan honetan, **LEen**ei ez zaie jaramon haundiagorik egingo, LEen hurbileko aldakiak dira eta. Bien artean sema bakar eta konstante bat baino ez dago.

2.12.3 LE absolutuak

Jakina da gauzak Lurraren zentrotik urrunago eta gorago daudena, are urrunago eta are gorago. Hori, bertarago baldin bada, eta badela dirudi, **goirik goiena** Lurraren zentrotik urrunen dagoena da. Gorantzako norantzan **goi** da azken adierazpena, hurbilagoa ezin da hain **goi** izan. Horrela hemen **goi absolutua** deitutakoa Lurraren zentrotik urrunen dagoena da. Gorago joan eta **goi** (absolutu) horretatik hurbilago. Eta antzera **behe absolutua** Lurraren

[59] Aurren eta atzen. Beste esanahi bat dute.

zentrotik hurbilen, **atze absolutua** abiakiaren atzerantzako norantzan urrunen, eta abar.

Ertzerago ere bertarago baldin bada, eta badela dirudi, **ertzik ertzena** abiakia amaitu aurreko azken milimetroa da, eta **ertz absolutua** abiakiaren azken milimetro hori da.

Esandakoa arautzat hartu ahal da, arau askok bezala salbuespen bat baino gehiago izan arren, batez ere higidura eta egona nahastetik datozenak. Salbuespen horietan luzatzea merezi ez duenez, salbuespen bi baino ez dira aipatuko.

Abiakian (sagarrean adibidez) barrurago egon (haziak adibidez) abiakiaren erdigunean egotea da. Abiakian (etxean adibidez) barrurago egon (gela bat adibidez) abiakiaren sarreratik urrunago egotea ere bada, bertara iristeko gehiago ibili behar delako-edo.

Bigarren salbuespena ikusteko adierazpen hauek erabiliko dira:
"Alborago etorri" (abiakitik hurbilago).
"Alborago joan" (abiakitik urrunago).
"Alborago egon" (abiakitik hurbilago zein urrunago).

Eta hor **albo**ren zein adiera hartzen den ere izan daiteke kontua joateko eta etortzeko higiduraz gain. "Neure alborago egon" adierazpenean genitiboak abiakitik alborik hurbilena dela adierazten du, beharbada abiakian bertako alboa, eta "neure alborago"k hurbilago esan nahi du. "Neure atzerago"k ere hurbilago esan nahi du, eta "neure azpirago"k, eta enparauek. Horrela ere "etxearen edo beste zerbaiten atzerago" ez da inoiz entzun, izenorde eduztekoaren (markatua hobe) laguntzaz baino ez da entzuten. Ondorioz eta **albo**ren kasuan, ez dakigu **alboratu** aditzak "urrundu bidea libre uzteko" ala "hurbildu" esan nahi duen.

Higidurak aztertuko ez direla esan da 2.3 azpiatalean. **Gorago** bezalakoak ez dira lekugune erlatibo, lekuak izan arren, eta ez dago aztertu beharrik tesilan honetan. LE absolutuak zeintzuk diren ikusi da, eta, horrek garrantzi haundirik ez badu ere, ondo dago jakitea. [Edutezko genitiboa + LEago] batzuek adierazten dutena erakutsi da, eta gero 3. atalean corpusetako datuen laguntzaz, [edutezko genitiboa + LE]ek adierazten dutena aztertuko da.

2.13 Ur, lur, hare eta ekai lokabetan

Euskarak likido, gas eta ekai lokabeen **barruan** adierazteko era berezi hau daukala gogoratu behar da. Deklinabideko morfema hori nekez hartuko da lekugune erlatibotzat, baina bere funtzioa antzerakoa da leku-kasuetan. "Uretan bizi eta uretatik irten", “Ur artean bizi eta ur artetik irten” dela ematen du, eta arte

LE da. "Eskuak oretatik atera eta brotxa pinturatan sartu". "Kokoharrak lokatzetan egunez, lokatz gainean gauez".

2.14 LEen bilakaera lehengo batetik gaurkora

Azterkuntza diakronikorik egitea ez dago tesilan honen helburuen artean, baina tesia ondo ulertzeko ohar bat edo bi egiteko premia dago norabide bertikaleko LEei buruz eta batik bat **goi** eta **behe** LEei buruz.

[Hjelmslev, Louis (1978)]k (177. or.) norabide horretan gauzen arteko erlazioa objektiboki pentsatzen dela dio, eta subjektiboki norabide horizontaletan. Subjektibotasun hori, egoera eta noren edo zeren LEa den adierazi beharrean datza, adibidez "gizona bidera begira zegoen eta bere atzean..." eta horrelakoak adierazi beharrean hain zuzen ere, norabide horizontaletan higikortasun haundia baitugu gizakiok eta enparauek. Ezin dugu "zaldia atzean zebilen ihutika" esan, "atze" horretaz informazio hobea eman ez badugu. Ahal dugu "txoria goian zebilen biraka" esan, eta ulertzen da. Beste era batez esanda: goi bat dagoen artean atze asko daude, eta zein den adierazi behar da.

Lehen abiakia norbera den kasuetara baino ez lotuz, bigarren abiakia edo zuina edozein izaten da norabide horizontaletan. Norabide bertikalean berriz, denon zuinak, zuin kanonikoak edo objektiboak daude (ikus Terminoak azpiatala).

Antzinako mundua "bea beti bean ta goia be urrean" moetako mundua izan bazen, eta izan zen, gaur egun asmakari eta teknika berriak direla-eta, "segun eta non zauden" edo "hori, non zauden" moetako mundua bihurtu da norabide bertikalean ere. Egunero laugarren solairura igo beharrak eta bosgarrenean ere bizi direla jakiteak, pentsakera ez bakarrik, hizkera eta mintzaira ere aldatu du. Eta lehenago ere aipatu da ortze zabaleko kontuez ere hitz egiten dela euskaraz gaur egun. Eta lehengo munduaren eta oraingo munduaren arteko tirabirak somatu dira norabide bertikalean. Hiztegi modernoek ere asmatu die izen-sintagmaren osokera (hemen "zeren-eredukoa" deitutakoa) norabide horizontaletako eta norabide guztietako LEei baina ez **goi** eta **behe**ri, agian tirabira horiek direla-eta.

Beste bereizkuntza (eta nahasgarri) bat ere badago: gauza haundiez hitz egiten deneko hizkuntza eta gauza txikiez (egokera anitzekoez) hitz egiten deneko hizkuntza. Eskala haundian, gurekiko, etxearekiko eta mendiarekiko goiak haundiak dira eta zehazkerietan sartzen ez garenean goi bat eta bera da. Eskala txikian sartuz eta goiaren definizio berbera erabiliz, inurriarekiko eta zapata-kaxarekiko goiak ez dira gurekiko goia (gurekiko behea ere izan daiteke). Zerulurrez hitz egiten duenarengandik, laugarren solairuan bizi denarengandik igaro

eta, pieza txikiez eraikitzen lan egiten duenarengana alde kontzeptual haundi xamarra dago norabide bertikalean. Antzina goia geure goi objektiboa izaten zen beti edo ia beti, eskala haundian hatan ere, eta eskala txikikoak **gain** erabiliz adierazten ziren euskara idatzian horren beharra zegoen kasu gutxietan, euskara idatzia zeru-lurrez hitz egiteko erabiltzen baitzen gehienetan.

Corpusetan, antzinako euskaraz, zeru-lurrez hitz egiten da sarritan, gauza txikien LEak gutxitan agertzen dira, eta ortze zabaleko kontuak inoiz ere ez. Horrela izanik ere, corpusetan jasotakoa baino ez da erabili tesilanean. Baina corpusetan, agerpen-kopuru txikiagatik garrantzi txikia duenari, lantzean behin garrantzi haundiagoa eman zaio hemen esandakoagatik.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

3. Atala

Lekugune Erlatiboen Eremu Lexikala

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

3.0 Sarrera

Estrukturak aurkaritza bereizgarria esan nahi du. Tesi hau, elkarren artean zerikusia daukaten hitzen arteko bereizkuntzak argitan ipintzen saiatuko denez, hemengo lana semantika estrukturalaren arlokoa da. Semantika estruktural lexematikoan teoriarik nagusiena Eremu Lexikalaren Teoria da.[60]

G. Ipsen-i 1924an edo J. Trier-i 1931ean ezagutu ohi zaie teoria horren hasiera, lehenago ere beste zenbaitzuk eremu lexikalez hitz egiten zutela aitortu arren. Harrezkero eta besteak beste, L. Weisgerber eta E. Coseriu izan dira lan haundia egin dutenak teoria hori garatzen.

P. Guiraud hizkuntzalariarentzat "eremu lexikalaren nozioa, Trier-ek definitua, semantika modernoan egin den iraultza haundi-haundia da."[61] Beste hizkuntzalari askorentzat ere garrantzi haundikoa da Eremu Lexikalaren Teoria.

---

[60] Autorez autore eta hizkuntzaz hizkuntza terminologia bateraturik ez dagoenez, Eremu Lexikalari *champ sémantique, semantic field* ere deitzen zaio.

[61] Aipamen hau [Geckeler, Horst (1976)] 97. orrialdetik hartua da.

Lekugune erlatiboak teoria horren barruan aztertzea erabaki, teoria horrek eremua bere osotasunean (LE guztiak gogoan eta) aztertzea ahalezkoa egiten duelako erabaki da. Zoritxarrez, eta [Geckeler, Horst (1976)]k ere behin baino gehiagotan dioenez, orain arte ez du inork eremu lexikalen metodo linguistiko orokorrik garatu, eta tesilan honetan garatu beharko da LEei hobeto doakien metodoa. [Wotjak, Gerd (1979)]k "Zenbait arazo metodologiko orokor" deitutako azpiatala darabil gairik gaiko metodo aniztasuna azaltzeko, eta metodook ugari eta desberdin xamarrak direla erakusteko.

Tesilan honetako metodoari dagokionez, kontzeptuak (objektu mentalak) irudiz azaltzeak izango du eragina azalpenetan eta eremu lexikal osoaren azalpenean.

Horrez gain, tesilan honetan ez dator harira Eremu Lexikalaren Teoria azaltzea, teoria hori aski ezaguna baita, eta bibliografiako [Greimas, A.J.(1966)],[Geckeler, Horst(1976)] eta [Coserieu, Eugenio(1981)]ean eta beste zenbait liburutan luze eta zabal azalduta baitago. Halere, teoriako zenbait hatsarre behintzat aipatu egingo dira hemen bertorago edukitzeko:

> Hitz autoktonoak ez daude inoiz ere bakarrik hizkuntzan, talde semantikoetan elkartuak baizik. Hitz horiek "*eremu semantiko*" [62]estrukturatuak eratzen dituzte.(G. Ipsen) [Geckeler, Horst (1976)]

> Hitz bakoitzaren esanahia, kontzeptuz bere auzoko diren hitzen esanahien menpe dago. Hitzak balioa, bere auzoko hitz aurkariek mugatzen baldin badute dauka benetako balioa. (J. Trier) [Geckeler, Horst (1976)]

> Hitzek ez daukate zentzurik entzuleari kontzeptu-eremu bereko antonimoak falta bazaizkio, eta zehaztasun txikikoak eta anbiguoak dira beraiekin batera kontzeptuz beren auzokoak direnak baldin agertzen ez badira hitz bakoitza kontzeptu-eremuan beharrezko egin dezaten, eta hitz bakoitzari hurbilduz, bere mugak argi utz ditzaten. (J. Trier)[Geckeler, Horst (1976)]

Hori horrela dela egiten da. Eta orain hemengo beharrizanetarako, eremu lexikala zer den azaltzea baino ez da falta.

E. Coseriu-k eta, hitz haundiak erabiltzen dituzte eremu lexikala azaltzeko:

> "*Eremu lexikala,* lexikoaren estruktura paradigmatiko lehendarra da..." [Coseriu, E. (1981)]

---

[62] "Eremu semantiko" eta "eremu lexikal" sinonimoak dira.

Beste hitz batzuez esan dezagun ordea, eremu lexikala, gai batekoak propio diren hitzek osotzen dutela, beraien osokuntza dela, eta horrela esanda ere nahiko ondo definituta geratzen da. Halako eremu lexikaleko hitzek halako gaiko arlo guztiak azaldu behar dituzte, arloz arlo eta arloen arteko mugak ondo bereizita. Hau da, gaia "lekuguneak" bada adibidez, puntu, unibertso, gune, behe, gela, azal, prisma eta hala edo hola gauza baten lekua adierazten duten hitz guztiak dira **lekuguneen eremu lexikalekoak**, eta denen artean osotzen dute eremu lexikal hori. Gainera, **puntu**k eta **unibertso**k semantikaz ondo bereizita egon behar dute, baita bien arteko guztiek ere, bakoitzak bere leku semantiko ondo bereizia izanik lekuguneen eremu lexikal zabalean.

Eremu lexikalek azpieremuak izan ohi dituzte, eta azpi-azpieremuak, eta mikroeremuak, eta abar.

Gaia, esan den bezala, **lekuguneak** izan daiteke, lekuguneen eremu lexikala milaka hitzez(lexemez) osotuta egonik. Lekuguneen eremu lexikalaren azpieremu bat lekugune erlatiboen azpieremu lexikala izan daiteke, beharbada ehun hitz baino gutxiagoz osotuta dagoena. Tesilan honetan eremu zabalagoak ahaztu egingo dira eta gaia lekugune erlatiboen gaia denez, Lekugune Erlatiboen Eremua izango da eremu lexikala, bere azpieremuak eta guzti.

3.1 Teoriako eta tesilaneko nomenklatura

Teoriek beren kontzeptuak dakartzate, eta beren hitz (berri)ak kontzeptuoi lotuta. Eremu Lexikalaren Teorian ere horrelako nomenklatura agertzen da, hitz berriez eta hitz zahar birdefinituez osotuta. Gainera eta tamalez, nomenklatura hori ez dago bateratua, zein autorea eta halakoa baita, hitz berak teorilari batarengan eta bestearengan esangura desberdinak ditu eta. Horren adierazle [Gutierrez Ordoñez, S. (1989);89 or]k dakarrena; bertan, Teoria honetan izen haundiko Pottierek, Coseriuk eta Greimasek egin duten korapiloa azaldu baitu. Gutierrezek ez du aipatzen eta "sema" terminoari buruz etorriko dira hirurak bat horregatik. [Wotjak, Gerd (1979)]k ere azaltzen du bere kexa "gauza batek eta berak lar izen izate" horretaz, eta "semema" izaki semantikoa adierazteko "zentzu", "hitzaren eduki", "esanahi" eta "designatum" erabiltzen direla aipatu du.

Eremu Lexikalaren teoriari jarraiki egin diren zenbait azterkuntza (hau baino txikiagoak direnean ere) "sema-zopa" bihurtu dira, batez ere emaitzak ematerakoan, matematikako matrizak eta determinanteak txiki utzi dituztela. Ez ordea, horren estu jarraitu ez dioten beste zenbait azterkuntza.

Horregatik, eta hemengoa Teoria horretan adituak ez direnek ere ulertu beharko luketelakoan, eta batik bat hemen irudiaren laguntza haundia dagoenez, tesilan honetan termino edo izendapen arruntagoak erabiltzea erabaki izan da.

Horrela, *artxilexema* hementxe baino ez da aipatuko, azterkuntza honetako artxilexema **lekugune erlatibo** da eta.

Morfema edo *zeinu lexikal* (edo *semantema* garaien eta autoreen arabera) esan beharrean **hitz** esango da sarritan, espazioan, eta espazioan lekugune erlatiboen arloan sartuta eta inoiz ere irten gabe gaudela gogoan izanik.

Esanahi unitatea **adiera** izango da. Adiera bakoitzak bere semema izango du, baina irudiari esker kontzeptu hori(ek) beharrezko ez direnez, ez dira aipatuko. *Klasema* hitza ez da erabiliko, bereizgarritasun edo *sema* generikoak argi uzten baititu gaiak lehen eta irudiak gero. *Birtuema* hitza (eta kontzeptua) ez da erabiliko, hemengo gaia espazioa zentzu hertsian eta konnotaziorik gabe dena argi baitago. Lexema hitza erabiliko da lantzean behin, esanahi propioa duen hitza denotatzeko.

Sema hitza erabiliko da, irudiari esker gutxitan izango bada ere, “adierarik adiera dagoen bereizgarritasun espezifikoa” adierazteko, azken hori idatzi beharra luze egiten delako.

Horrela ingeniariok ere ulertuko dugulakoan.

3.2 Lekugune Erlatiboen Eremu Lexikaleko Hitzak

Orain, eta lekugune erlatiboen eremu lexikaleko hitzak zerrendatzeko, lekugune erlatiboaren definizioa (Aribideko 2.5 azpiatalekoa) berriz gogora ekartzea komeni da.

Lekugune erlatiboen definizioa gogoan eta, euskararen lekugune erlatiboen zerrenda idazteari helduko zaio, hemen beherago eta taula-eitea duela aurkeztu ahal izateko. Zerrenda hau osotu, ordu erdian osotu izan da bi heren; hirugarren herena denboraren joanean liburuetan-eta begiratuz osotu da, 2.7.4 azpiatalean azaldu den bezala. Hitz larregi gutxiegi baino nahiago izan da artean.

1. taula

aitzin	albertsio	albo	aldamen
alde	alderdi	arte	at
atari	atze	aur	aurre
azpi	barano	barne	barren
barru	barrunbe	barruti	bazter
be	behe	behere	beheti
bitarte	eki(alde)	erdi	erpin
ertz	eskuin	ezker	gain
gaindi	garai	garaiti	gibel
goi	goiti	handi	haraindi
hegal	hegi	hego	hemendi
honaindi	hondo	horraindi	horti
hur(hurbil)	inguru	ipar	iraitz
kanpo	landa	lekore	lur
mangune	mendebal	ondo	oste
-pe(-be)	saihets	sakon	urrun
urruti	zabaldi	zehar	zoko
zoru			

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

Zerrenda hori ez da dogma; horkoa bezain irizpide onez, batzuek lar hitzekoa iritziko diote, eta beste batzuek hitz urriegikoa. Eta antza denez horrela da askotan, zeren eremu lexikalen mugei eta hitz kopuruei buruz, Trier-ek berak lehen eta H. Schwarz-ek geroago adierazi zutena, H. Gipper-en hitz hauek laburbildu baitute:

> "Frogatu da bai, eremu baten muga non dagoen zehatz jakitea eta eremuko hitz guztiak zerrendatu direnentz jakitea ezinezkoak direna." [Geckeler, Horst (1976)]

Dena den, zerrenda horrek azalpen luzeagoa merezi duelakoan, horri ekingo zaio hurrengo.

3.2.1 Lar egon daitezkeenak

Hasteko, hemen bihotza = erdia, oina = behea eta horrelakorik ezin da egin. Adiera metaforikoak baztertu beharrekoak dira, eta baztertu egin dira. Beste nahasbide bat, lekugunea eta lekugune erlatiboa ondo ez bereiztetik etor daiteke. Azter dezagun **gune** hitza, adibide adierazgarria izango delakoan. Adiera batez, **gune** gutxi gora behera muin(hun) g.g.b.[63] nukleo = gauza batzuen erdi-erdiko edo barru-barruko substantzia da. Adiera horretan **gunea** ez da lekua, erdian egotea gertatu zaion zerbaitez egindako zera baizik, eta inoiz lekua(espazioa) adierazteko erabili bada, bihotzaren adiera metaforikoz erabili da, hori guztiz zilegi izanda ere. Beste adiera batean **gunea** lekua da; **gune** g.g.b. une g.g.b. uneda = dimentsio biko abiakian eta abiakiaz inguraturik dagoen lekua; irla, oasi, orezta eta izpilaren antzera. Halere, azken adiera horretan ere, **gune** hitzak halako lekugune(posizio)[64] inguratu bat adierazi arren, lekugunearen nolakotasuna adierazi arren, ez du abiakiarekiko nontasunik(posiziorik)[65] adierazten. Praketako lohigunea eta praketako tarratada, berdin xamarrak biak nontasunaren adierazle gisa: ikusiz gero... bertan; baina ikusi arte... bila aritu behar, praketan edonon. Hortaz **gunea,** azken adiera horretan, leku(espazio) da, lekugune(posizio) ere bai, baina ez da lekugune erlatibo(posizio)[66], gune hitzak nontasunari buruz ez baitu argibiderik bat ere ematen. Gainera bere eitea

---

[63] Gutxi gora behera. **Harenbat** eta **horrenbat** ere **gutxi gora behera** dira tesi honetan agertzen direnean.
[64] Posizio hitzaren 2. adiera. Zelan dagoen kokatuta.
[65] Posizio hitzaren 1. adiera. Non dagoen.
[66] Posizio hitzaren 1. adiera. Non dagoen.

iradokitzen du, eta lekugune erlatiboek ez dute berezko eiterik, eitegabeak baitira edo abiakiaren pentsuko eitea baitaukate: beste arrazoi bat **gune** LE ez izateko.

Gauza bera **tontor** hitzaren kasuan ere, tontorra bere eiteagatik baita tontor, mendi tontorrei ia beti mendiko goiko aldean egotea suertatzen zaien arren, baina hori mendi tontorrei eta goikoei baino ez. Eta horrelako asko dago, hala nola tuturru, gailur, mendi bera, erpin, eta abar, euren ganbiltasuna dela-eta lekugune direnak, baina lekugune erlatibo ez direnak. Eta ez gaitezen, *elebazio* edo *altitude* hitza falta eta, elebazio haundiko lurralde guztiei mendi deitzen hasi, orduan bai, mendi ere lekugune erlatibo izango bailitzateke. Eta ahurtasuna dela-eta, haran, sakosta, zulo eta beste asko dira lekugune, baina ez LE.

Hortaz, **erpin** kendu egin behar da 1. taulatik, erpina bere eiteagatik baita erpin. Eta **zoko** edo **txoko** ere kendu, arrazoi beragatik.

Atarik edukitzez badauka edo bazeukan LE den adiera, "atariko intxaurrondoa" eta horrelakoak esatea baimentzen zuena, eta P.Mugikak "exterior próximo de" (atearen beharrik gabe) itzuli zuena, baina **atari** ez da zerrendan sartuko gaur egungo erabilkera kontuan hartuta. Gaur egun aterik ez badago ataririk ere ez dagoela uste da tesilan honetan.

Zabaldi ere ez da sartuko gaur egungo erabilpen urria kontuan hartuta. Gainera gaur egun "ordo zabal-zabal" edo adierazten du, eta hori ez da LE.

Lur eta bizkaierako **be** ere kendu beharko dira. (Hemen **be** horrela idatzi da, **behe** ez dela adierazteko, eta horrelaxe ahoskatzen delako). Bizkaieraz **be** edozein gorputz edo substantzia solido da, airearekiko eta urarekiko bestelakoa, eta normalean gizakiaren oinpean egoten dena. Ia gauza bera **lur**en kasuan. Beste adiera bat ere badute, sabai edo tetxuaren antonimoa adierazten duena hain zuzen ere, baina horrela ere, lekugune badira, baina lekugune erlatibo ez dira, ez **lur** ezta **be** ere. **Zoru**, **lur** edo **be** modernoa da.

Antza denez ez da besterik kendu behar LE ez dela-eta, batzuk zalantzakoak izan arren, hala nola **garai, tontor**en kasua baitirudi, eta batez ere **garaiti**, baina biak aztertuko dira tesilan hau horrelako kasuak ere aztertzeko baita, eta oraingoz ez dira zerrendatik kenduko. Zerrendako beste zenbait lekugune erlatibo ere zalantzako eta bitxi direla aitortu beharra dago, LE guztiz diren arren, euskaldun batzuentzat beste batzuentzat baino ezagunago badira ere, baina ez dira oraingoz behintzat zerrendatik kenduko.

3.2.2 Berariaz kendutakoak

Zerrendan lekugune erlatiboak baino ez dira sartu, ez beraien superlatiboak (ikus 2.12 azpiatala ere) **Goen** edo **goien**, goi gehi superlatibo-

morfema da. Euskal herrialde batzuetan zeinu lexikal bihurtu da, lexikalizatu egin da, edo ia-ia, tontor edo goien dagoen partea (ingeleseko *top*) esan nahi baitu harenbat; baina osotzen duten morfema biek[67] ematen dioten esanahia du, horrenbat; horregatik ez zaio zeinu lexikalaren kategoriarik eman, eta ez da zerrendan sartu, **goi** ulertuz gero **goien** ondo ulertzen da eta.

Antzerako kasua dela eta, **gainen** ere ez da sartu, Erronkarin *gainen gainenka* "mendi tontorrik tontor" esateko erabiltzen ei zen arren, eta hiztegi batean **gaineneneko** (sic) ere agertu arren. **Gainen** ere morfema biz osotutako hitza da, hobea ausaz entzun eta esaten diren honelakoetarako : "gaineneko manta baino ez da busti; azpienekoa ez behintzat."

Gailen ere ez da sartu, baina ez gailen = gainen delako susmoa dagoela eta, **gailen** lekugune erlatibo gisa, erabilitako corpus bietan, agertu ere ia agertzen ez delako baizik; guztiz zalantzako kasuren batean agian, eranskinean erakusten den eran.

Gorago, alborago eta horrelako atzizki alderatzailedunak ez dira aintzat ere hartu, erro-morfemen esanahia jakinez gero, berorien esanahia argi geratzen delako. Aribideko 2.12 azpiatalean esan da gehiago horretaz.

-alde postposizioa daukaten lekugune erlatiboak, **goialde** eta, ez dira sartu, morfema edo zeinu lexikal biz osotuta daudelako, Aribidean 2.10 azpiatalean aztertuta geratu direlako, eta bertan esan diren zioak direla-eta.

-buru, -oin eta horrelako hitzak atzizki dituztenak ere ez dira sartu. Horrelako hitzak beraiek ere ez dira sartu kasu horietan esanahi metaforikodun baitira, eta gainera argi izan behar luke **haranburu, uriburu, eskaileraburu** eta horrelakoen esanahia burua beti goian dagoela dakienak.

Badaude zerrenda horretan definizio osoz lekugune erlatibo diren bikote bi, **urrun** eta **hur(hurbil), ezker** eta **eskuin,** eta horrela ere zerrendatik kenduko direnak, zeren adierazten dituzten bitasunen esanahiak ondo argi geratzen baitira hiztegietan, eta alferriko lana izango bailitzateke ondo argi dagoena ondo argi dagoela frogatzea. Antzerako arrazoia dela eta, **ipar, hego, mendebal** kendu egin dira, eta **-alde** dutenak behinke. Eta ezker eta eskuin aipatzean **ababor** eta **istribor** datoz gogora, baina ez dira zerrendan sartu eta ez dira sartuko, arrazoi berdintsuengatik, eta lanbide espezifiko batekoak direlako.

Albertsio hitza neuk ere erabili dut inoiz, umetan behintzat; hiztegi bitan agertzen da, Eusebio Erkiagak ere idatzi du. Horrela ere erabilpen urriegia duenez, ez da sartuko. Eta komenigarria izango litzateke **erdi**ren eduki semantiko haundiegia zeinu lexikal bitan banatzea. Hobe hitz honek bide luzeagoa eginda baleuka.

---

[67] Edo lexema + morfema, beste terminologia baten arabera.

Zabal ere erabiltzen da "frontoian pilota zabalera joan" eta beste esaldi gutxi batzuetan, baina honek ere erabilpen urriegia du eta ez da sartuko.

Antzerako kasua da beste hau ere, ni neu honelakoak entzuten ohituta bainago: "hemendiko mandan; Lekeitio mandan; manda honetatik ez." Hor manda = alderdi egiten da horrenbat. Baina **manda**k hedadura zabalik ez du, "banda" mailebatua izan daiteke, hiztegietan ez da agertzen, eta zerrendan ez sartzea erabaki da. Aipatu egin da behinik behin.

Leku-izenorde deitikoak ere kendu dira. **Hemen, hor eta han**ek esanahi argiak dituzte, nahiz eta beren eratorriek, **honako, horrako, harako** eta antzerakoek esanahi horren argia ez izan. Dena den, **hemendi, horti eta handi** aztertzean (Aribideko 2.8 azpiatalean) hitz egin da beraietaz eta atal honetan ere hitz egingo da.

Aur, nire iritziz, aurrealdeko gune hurbila izan zen inoiz, eta esanahi hori duela agertzen da "aurrez aur" eta "aurkari" esapideetan eta Felipe Arreseren *ebagiz odolduak, aur ta atzeraka, beso luzaka, ezpatadaka* esaldian, eta beharbada "aurki" hitzean ere. Begira eranskinean corpusetan bestelako adibiderik ez datorrela ikusteko. Gaur egun erabiltzen dugunok, egia esateko gehiagotan erabiltzen dugu "aurreko gune" adierazteko, aurreko gauzak ikusi eta beraiez hitz egin, gehiagotan egiten dugulako, baina "aur atzean, alboan, eta abar" esaten ere badakigu. **Aur** gaur egun ia **hor** deiktikoa bihurtu dugu, eta kentzea erabaki da horregatik.

Superfizie bezalako oraindik oraingo mailebuak ez dira sartu. Horien esanahiak erdaraz (edo erdarez, nazioartekoak baitira) bezalakoak direla egiten da, eta alferrikoa egiten da horiek hemen sartu eta aztertzen hastea. Baina gauzak argiago esateko balio badu, "superfizie" esan daiteke euskaraz, eta "azpiko superfizie" ere bai, "azpi" eta "super" kontraesanean badaude ere. **Gainazal** ere oso hitz polita da, ahal den guztietan erabiltzea merezi duena, baina geometriako kontzeptu teorikoetan behaztopo egiten duena. Hemen **gain** aztertuko da.

Horrela ba, kendu beharrekoa kenduko da, baina hurrengo taulan nabarituko da kendura.

Hurrengo lanean taula honetako hitzak aztertuko dira LE direlakoan. Baten bat LE ez bada, atal honen amaierako taulatik (4. taulatik) kanpo geratuko da.

2. taula			
aitzin	albo	aldamen	alde
alderdi	arte	at	atze
aurre	azpi	barano	barne
barren	barru	barrunbe	barruti
bazter	behe	behere	beheti
bitarte	erdi	ertz	gain
gaindi	garai	garaiti	gibel
goi	goiti	handi	haraindi
hegal	hegi	hemendi	honaindi
hondo	horraindi	horti	inguru
iraitz	kanpo	landa	lekore
mangune	ondo	oste	-pe(-be)
saihets	sakon	urruti	zehar

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

3.3 Lekugune Erlatiboen Analisia

Aztertuko diren lekugune erlatiboak zeintzuk diren behin ezarrita, lekugune erlatibook banan-banan aztertzea dirudi egokiena, bakoitzaren eduki eta muga semantikoak jakiteko. Esanda dago ordea, eremu lexikaleko hitz bakoitza eremu horretako hitz enparauen menpe dagoela bere muga semantikoak ezagut daitezen, eta zehatzago esateko, "hitz enparau batzuen eta ez beste batzuen

menpe dagoela" esan beharko litzateke. Horrela ba, banan-banan ezin badira aztertu, eta ezin dira, ahalik eta banan-bananen aztertuko dira.

Lehen zeregina, banan-banan aztertzeko ahalmen hori neurtzea izango da, hots, elkarrekiko menpekotasuna edo eragina egon dagoenean, dagoen eragin hori ezagutzea izango da. Eta horrek, eraginen araberako sailkapena eskatzen du.

3.3.1 Lekugune erlatiboen lehen sailkapena

Aurreko zerrendako berrogeita hamabi hitzek gauza amankomun bat daukate: lekugune erlatibo direla. Baina horrela multzoan idatzita gatx dago sakonago aztertzea, zeren lehen begiradaz ere, beraien arteko berezitasunak eduki badauzkatelako ziurtasuna hartu arren, berezitasunok zehaztea ez baita erraza horretarako metodoren bat erabili gabe.

Geoffrey Leech-ek bere *Semantics* liburuan azaltzen duen metodoa, berak *componential analysis* deitu eta hemen **osagaikako analisia** deituko dena, nahikoa da lekugune erlatibook ordenatu eta bereizten hasteko. Hortaz metodo hori erabiliko da azterketari heltzeko behintzat.

Leechek osagaikako analisia *field of spatial relations* (erlazio espazialen eremua) analizatzeko erabiltzen duenean, erlazio horien lehen ezaugarria edo osagai semantikoa *spatial* izatea dela dio. Horrek hemen esan gabe joan behar luke, definizioz baitira espazialak. Bigarren osagai, norabidea egiten du, eta hemen ere norabidearen arabera egingo da lekugune erlatiboen lehen sailkatzea.

Gizakiak, gizaki denez gero, beti bereizi ditu norabide nagusi bi, gaur egun (zehaztasun matematikoz batzutan) bertikal eta horizontal deitzen ditugunak. Denok bereizten ditugunez, ez dago azaldu beharrik. Zera esan baino ez, bertikal eta horizontal teknika kutsuko berbak edo terminoak direla, herriak "goitik beherakoa", "albotik alborakoa", "eskuinetik ezkerrerakoa" eta horrelako adierazpenak erabiltzen edo erabili izan ohi dituela terminoon ordez; lekugune erlatiboak erabiltzen dituela alegia, norabide nagusiak adierazteko. Hortaz, lekugune erlatiboek, batzuek behinik behin, norabidea daukate osagai semantiko nabarmen.

Osagaikako analisiari ekiteko, aztergai diren lekuguneei ikur batzuk erantsiko zaizkie, hemen beheko ikurtegikoak eta beheragoko 3. taulan agertuko direnak. Zera gehitu azalpen gisa: "edozein norabide" = "norabide eza" egin daitekeela, hortaz (C) EDOZEIN NORABIDE ikurdun lekuguneek norabide-

osagairik ez daukatela, eta geroago egingo zaiela beste osagai batzuen araberako sailkapena.

Sailkapen hau egiteko eranskineko lan haundienak bukatuta izan behar dira. Eranskineko irudiei begiratuz gero, argi ikusten da zein osagai duen LE bakoitzak. Eta eranskineko lana eginda, ikusi da baitere **barruti** LE ez dena, baina oraingoz taulan utziko da.

Ikurrak:

(A) NORABIDE BERTIKALEAN

(B) NORABIDE HORIZONTALETAN

(b_1)ATZETIK AURRERAKO NORABIDEAN

(b_2) NORABIDE LATERALEAN

(b_3) EDOZEIN NORABIDETAN

(C) EDOZEIN NORABIDETAN

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

3. taula

aitzin(B)(b_1)	albo(B)(b_2)(b_3)	aldamen(B)(b_2)(b_3)	alde(B)(b_2)(b_3)(C)
alderdi(B)(b_3)(C)	arte(C)	at(C)	atze(B)(b_1)
aurre(B)(b_1)	azpi(A)	barano(B)(b_3)	barne(C)
barren(A)(C)	barru(C)	barrunbe(B)(b_3)(C)	barruti(B)(b_3)
bazter(B)(b_3)	behe(A)	behere(A)	beheti(A)
bitarte(A)(B)(C)	erdi(A)(B)(C)	ertz(C)	gain(A)(C)
gaindi(A)(C)	garai(A)	garaiti(A)	gibel(B)(b_1)

goi(A)	goiti(A)	handi(C)	haraindi(C)
hegal(C)	hegi(C)	hemendi(C)	honaindi(C)
hondo(C)	horraindi(C)	horti(C)	inguru(B)(b_3)(C)
iraitz(C)	kanpo(C)	landa(C)	lekore(C)
mangune(C)	ondo(B)(b_3)	oste(B)(b_3)	-pe(-be)(A)
saihets(B)(b_2)	sakon (C)	urruti(C)	zehar(B)(b_2)

Horrela ba, norabidearen arabera lekugune erlatiboen talde eta azpitalde hauek ditugu:

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

(OHARRA: zenbait LE adieraniztun, talde eta azpitalde bitan daude)

(A) taldean, goitik beherakoan:

gain
gaindi
garai
garaiti
goi
goiti
erdi
bitarte
barren
behe
behere
beheti
-pe(-be)
azpi

(B) taldean, horizontalean, azpitalde hauek:

(b_1) azpitaldea, atzetik aurrerakoan:

atze, gibel, erdi, bitarte, aitzin, aurre.

(b_2) azpitaldean, norabide lateralean:

albo, aldamen, alde, saihets, zehar, erdi, bitarte

(b_3) azpitaldean, horizontalean edonorakoan:

albo, aldamen, alde, alderdi, barano, barrunbe, barruti, bazter, erdi, bitarte, inguru, ondo, oste.

(C) taldean, edonorakoan (norabidearen eraginik ez daukatenak):

alde, alderdi, arte, at, barne, barren, barru, barrunbe, bitarte, erdi, ertz, gain, gaindi, handi, haraindi, hegal, hegi, hemendi, honaindi, hondo, horraindi, horti, inguru, iraitz, kanpo, landa, lekore, mangune, sakon, urruti.

Sail haunditan egindako sailkapen hori oraingoz nahikotzat joko da lekugune erlatibook banan-banan, baina mugakide zein duten gogoan izanda aztertzeko. Horrela ere, beste sailkapen bat aipatzeari egoki iritzi zaio, bide batez lekugune erlatiboak zer diren hobeto azaltzen lagunduko du eta. LEak mugatuak dira batzuk, abiakiak alde guztietatik mugatzen dituelako, hala nola **barru,** eta mugagabeak beste batzuk, alderen batean zederik ez dutelako, esate baterako **alde** bera.

Mugatuak azaldu beharrik ez dago, eta goiko zerrendetarik zeintzuk diren esan beharrik ere ez dago, hori edonork baitaki. Baina beharbada mugagabetasun-kontzeptu horri ezin zaio lehen ahaleginean ondo heldu, eta hemengo irudiaren laguntzaz **alde** lekugune erlatiboaren adiera orokorra azalduko da horrela mugagabetasun kontzeptu hori ere azalduta gera dadin.



Irudian P-planoa agertzen da, etxearen luzetarako simetri planoa ere izan ahal dena. Plano-kontzeptua bera bezalaxe, P-planoa irudimenekoa da, irudimeneko abiakia da, eta irudimeneko abiakiei **zuin** deitzen zaie lan honetan. Zuin hori hortxe jarri da, espazio osoa zati haundi bitan zatibitzeko, **alde** bitan zatibitzeko, zuinak horrexetarako baitira: espazioa irudimenez zatibitzeko. Hortaz, **alde bata** planoan(zuinean) hasi eta honanzko norantzan urruneraino dauden gune guztien batura da, hots, espazio osoaren erdia da , eta **beste aldea** beste horrenbeste da planotik harantzako norantzan. Horrela ba, lekugune erlatibo gisa eta adiera orokorrean behintzat, **alde** kilometro kubikotan neurtu behar da gutxienez. Eta **alde** bezala **goi, behe, atze, aurre** eta beste batzuk, horiek ere **aldeak** baitira.

Hori eta hori bakarrik da **alde,** baina askotan alde txikiagoak hartzen ditugu aintzat, **alde**ren beste adierak direnak hain zuzen. "Etxearen ezker aldea" metro kubikotan neurtzea aski izango da, baina gogoan izan ezker alde erraldoitik etxeko espazioa baino ez dela hartu. "Etxearen ezker hormaren kanpoko aldeak" ez du metro kubiko bat ere, eta metro karratutan neurtu beharko da. **Alde** izatez, haundi-haundia da teoriaz, eta praktikaz ere bai "mendiaz haraindiko aldean Frantzia dago" bezalako esaldietan, baina praktikaz baitere "dominaren alde bata..." eta horrelakoak esaten ditugu, horrela ere ulertzen delako, **alde**ren beste adiera hori ere finkatuta dagoelako.

Zuin kopurua nahibestekoa da, irudimenaren arabera baitago, baina beharrizanak halakoak eta zuinen ezarrera ohiturak finkatu ditu gehienetan, gauzakiak ezagunak badira. "Etxearen alde bata eta bestea" entzunez gero, ia denok jarriko dugu zuina bertikal, eta etxearen erdia hartzen; halaber, etxeak luzetarako simetri planoa baldin badauka, zuina plano hori izango da, eta horizontaleko ezkerraldea eta eskuinaldea ulertuko ditugu; eta gutxik jarriko dute zuina horizontal goialdea eta behealdea ulertzeko. Horrela ba, eta horregatik, ohiturak finkatutako adierak azaltzeko ahalegina egingo da jarraiko lanean, adierok ere zuinen araberakoak baitira.

3.4 Lekugune erlatiboen banako azterketa

Atal honetan sarritan egingo da eranskineko lekugune bakoitzaren datu-txostenen aipamena, bertan bildu den informazioaren garapena eta iruzkina baitira atal honen xedeak. Bertakoaz baliatuz, berton bakoitzaren ezaugarri eta arazo hauek iruzkinduko dira:

a)Lekugunea lekugune erlatibo den ala ez, hori zalantzan badago behinik behin.

b) Lekugune erlatiboaren erabilpenaren ziurtasuna.

c) Lekugune erlatiboaren eduki semantikoa edo adierak, eranskineko irudiak bertatik bertoratuz.(Adierok 2.7.5 azpiatalean azaldutako eran lortu dira).

d) Adiera aniztasuna, beharbada lar adierako izatea. Hitz bakoitzaren adiera anitzen arteko polisemia, edo hitz bat esatean uler daitezkeen espazio desberdinak.

e) Beste lekugune erlatibo batzuekiko sinonimia: eduki semantikoz edukikide izatea. Lekugune erlatiboak osorik hartuta gutxitan izango dira esanahi berekoak, baina LE zenbaitzuen adierak esanahi berdinekoak dira. Hortaz, sinonimia baino adierakidetasun berba da nahiago. [Ci, Jiwei (1987)]k dioen bezala, hitzak nekezago dira sinonimoak eta adierak errazago.

f) Mugakidetzako arazoak. Lekugune erlatibo bakoitza eta eduki semantikoz ukitzen edo lotuta dituen lekugune erlatiboen arteko erlazio arazogabea ala arazoduna.

g) Antonimia. Tesi honen xederako, antonimia erakustea ez da beharrezko. Gainera hemen irudia daukagunez, irudiak hobeto azaltzen digu LE bakoitzaren adiera bakoitza dena eta ez dena, eta adiera bakoitzetik urrunen dagoena. Horrela ere, gogorregia dirudi eremu lexikal bat antonimia azaldu gabe uzteak, eta hitzez azaltzea erabaki da zeozertarako balioko duelakoan. Antonimoa, esanahi-diferentzia haundiena duen hitza da, baina diferentzia hori urruntasunak ala abiakiarekiko bestaldekotasunak ematen duen dago jakiteko. Eta erabaki subjektiboak daude. Hemen hartuko diren erabakiak ere subjektiboak dira. Gainera eta adibidez, **ezker** eta **eskuin** ez lirateke antonimok izango [Lyons, J. (1980)]ko terminologian, osagarriak baizik, bata ez bada besteak izan beharko duelako, **erdi** sartzeko erabaki subjektiboaz formula hori ez badugu hondatzen. Dena den osagarritasun hori adierazi egingo da **[O.]** ikurra erabiliz. Eta **> <** ikurrak antonimoa dela esan nahi du. Gainera, antonimia deituko da sail hau, Lyonsen "aurkaritza ortogonal eta antipodaletan" sartu gabe.

h)Izen sintagma. Aribidean 2.9 azpiatalean azaldu den eran.

Lan hau egitean, irudiak lagundu du, ondo lagundu ere. Horma haundi batean eskema guztiak eskegita izatea, euskararen LEen sistema osoa begirada batez erraz aztertzeko eran izatea da. Adibidez, eskema berdin bi edo gehiago ikustea, sinonimia ikustea da.

Hormako trikimaina hori, gero 3.5 azpiatalean emaitzak gertatzean ere oso lagungarria izango da.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

3.4.1(A) taldean, goitik beherakoan:

gain, gaindi, garai, garaiti, goi, goiti, erdi, barren,behe, behere, beheti, -pe(-be), azpi.

gain

BIBLIOTECA VIRTUAL

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **gain**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatiboa da, Aribideko 2.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Eranskineko lanaren arabera eta azalpena irudien bidez lagundurik, **gain**en adierak hauek dira:

$gain_1$:

Hemen beheko bat zenbakidun irudiko **gain**-en adierari $gain_1$ deitu zaio. Bertan, tesilan honetan sarritan, abiakia paralelepipedo bat da, aurpegi ilundu

gabea. Eta paralelepipedo horrekiko gain$_1$ adiera, irudian bertan aurpegi ilunduez marraztutako espazioa da. Gain$_1$ ilundutako 3Dko espazioaren edozein puntutan, edozein zatitan, edo osokoan da. Ikusten denez, gain$_1$-ek ez dio paralelepipedoari (abiakiari) ukitzen, ia ukitzeraino heldu ahal da baina, eta abiakia baino zabalago da dimentsio horizontal bietan. Honela ere esan ahal da definizio akademikoagoa ager dadin: gauza bat(abiakia) goranzkoan amaitzen den puntuetan hasi eta goragoko espazioa da **gain$_1$,** horizontalean abiakia baino hedatuagoa dela.

Eranskineko **gain** datu-txostenean begiratuz gero, [(Lurraren zentrotik abiakia baino urrunagoko espazioa) eta (Ez ukitzen)] izenburuen behealdeko esaldiei doakie gain$_1$ adiera.



1

Gain$_1$ ere zatika zitekeen, eranskinean bezala abiakiaren "Bertikalean" ala "Ez bertikalean" gogoan hartuz, baina ez da beharrezkotzat hartu, xehepen hori edonork egin baitezake buruz, eta gainera irudi gehiago, lar izan daiteke ondo ulertzearen kalterako.

Aurrera jarraituz, eranskinean gain$_1$-i doazkion esaldietarik bat ekarriko da hona, *Laño zuriak genituen gure ganean* [Latxaga], ausaz. Esaldi horretan agertzen den **gain** hori gain$_1$ da ondorioz, irudikoa alegia. Zenbait **gain** daude, hementxe geroxeago ikusiko dugunez, zenbait *buru gainean* daude, baina *buru gain$_1$-ean* irudian bezala da, buruari ukitu gabe eta beharbada horizontalean burua baino espazio zabalagoan, "gelaren tetxua" bezala, "euliak burua baino gorago hegaz" bezala. Azkenik, eranskineko [(Ez bertikalean)] kasuko adibide bat aipatu baino ez, *Bidaska, gainean daukagu esker aldetik* [Latxaga], gain$_1$-en irudiko hegaleko puntuen adibidea ere eman dezan.

gain$_2$:

Abiakiak Lurraren zentrotik urrunen duen aurpegia da **gain$_2$**. Eranskineko datu-txosteneko [(Lurraren zentrotik abiakia baino urrunagoko espazioa) (Ukitzen)] eta[(Gain > < azpi)][68] izenburuen beheko esaldiei doakie ondo gain$_2$ adiera.

[68] Sinbolo hau (> <) antonimia adierazteko erabili da.



2

Adibidez:
...janari hondarrak geratzen dira mahai gainean [Mendiguren Elizegi, Xabier]*; ...aihenbelar loratuen artean eseri zen, harri baten gainean* [Mendiguren, Iñaki]; *gorputzaren azpi ta gañetik oian jartzen diran oialak* [Urkia, Fernando], eta horrelako esaldietakoa da $gain_2$.

$gain_3$:

Abiakia amaitzen deneko puntuen leku (geometriko)a da **$gain_3$**, abiakia alde guztietatik batzen duen superfiziea hain zuzen ere. Eranskineko **gain** datu-txosteneko [(Inguru edo mangune, albo)(Ukitzen)] eta [(Gain > < barru)] izenburuen beheko esaldiei doakie ondo $gain_3$ adiera.



3

Abiakia biribil xamarra denean agertzen da sarriago $gain_3$-ren erabilera. *...arraultzak ifintzen dituztenak frutaren gañean. Aietatik irteten diran arrak sartzen dira barrena eta...*[Iturriaga; Dial] edo *Zeinbat izan piperra gane-gorriago, barruak ilten gaituz erreta lenago* [Azkue, E.Mª; PB]. Baina erabiltzen da baita superfiziea bertikala denean ere. *...bide-baztar batean, eskuak sabel-gañean zituala, ortzak estutu ta ostiko txikiz lurra joaz* [Mujika,G.;PAM]. *Gañeko jantzia kentzen lagun egiten dio* [Labayen,A.M.; SuEm]. *Burua Yesusen bular-gañean ta esan zion* [Iraizoz, P.;YKBiz]. *Garrek haren itzal lerdena dantza erazten zuten ormaren gainean* [Mirande, Jon; HaurB]. Kaxak batabestearen ondoan eta ukitzen ipintzen direnean

ere "jo bestearen gainera" edo "bota albokoaren gainera" esaten da. Hortik bilatu behar da baitere bizkaitarrek esaten duten "alkarrengana" bizigabeez berba egiten dutenean ere. Eta badago irakaslerik "gorputzarengain edo sokarengain indarra egin" esan behar dela irakasten duenik[69].

"Azpiko gona eta gaineko gona", "tipularen gaineko azala", "kotxearen gain-pintura" eta "eskapolotaren gain guztia bernizatu, baina barrua ez" esaldietako gain ere $gain_3$ da. Baita "gainazal" hitzekoa ere.

Salbuespen gisa, $gain_3$ berriz aurkeztuko da **(C) taldean, norabide guztietan**, izatez norabide guztietakoa baita. Baina hemen lehen LE denez, **gain** osoa osorik erakutsi nahi izan da.

$gain_4$:

Abiakiak Lurraren zentrotik urrunen duen aurpegitik beheragoxe arteko espazioa da **$gain_4$.** Eranskineko [(Abiakiaren goi-goialdea)] [(Ur, itsaso eta antzerakoak)][(Gain >< -pe)] eta [(Gain >< behe)] izenburuen beheko esaldiei doakie $gain_4$ adiera. Marmolezko mahai-gainak, eta teilatuak betetzen duen espazioa da $gain_4$, nahiz eta marmolezko lauza bera eta teilatua bera lekugune erlatibo ez izan.



Adibidez:
..pieza baten gainean artekak mekanizatzea da [Elhuyar]; elizari gaineko-aldea kraskatu;...ur-gaiñeko izkira txikiak jango ditut [Ariztia, Mayi]*;... igeriyan edo nola nai, eutsi nai nuke nere soña uraren gainean* [Intzagarai, R.], eta horrelako esaldiak azaltzen ditu $gain_4$-k.

4 ADIERA ANIZTASUNA

Demagun **gain**ek, lekugune erlatibo legez, lau adiera horiek dituela. Eta gogora dezagun hizkuntza teknikoak ez lukeela jakintza estralinguistikoaren premiarik behar uler dezagun. **Gain** ez da unibokoa edo adiera bakarrekoa, ez behintzat hizkuntza teknikoak eskatzen duen zehaztasun mailan.

---

[69] Orain ingeniaritzan dabiltzan ikastola desberdinetako ikasleek baieztu didate hori.

"Ipini lanpara piezaren gainean." $Gain_1$ ala $gain_2$?

"Piezaren gaineko pintura." $Gain_2$ ala $gain_3$? Hemen $gain_3$ azken eman zaion pintura-geruza ere izan daiteke.

"Bernizatu mahaiaren gaina." $Gain_2$ ala $gain_3$? $Gain_3$ izateko joera.

"Bernizatu mahai-gaina." $Gain_2$ ala $gain_3$? $Gain_2$ izateko joera.

Horrela ere, azken bi horietan ere, joera baino ez, eta bereizmen gatxekoak esaldi biak. Arazoaz jabetuta, zenbaitentzat zera:

$Gain_2$ = "bernizatu gaina."

$Gain_3$ = "bernizatu gain guztia, edo gain guzti-guztia." Ahal bada eskuez guztitasun hori adieraziz.

Kanpo lekugune erlatiboak ere lagun dezake, baina badago arazorik.

Batzuentzat **teilatu = gain**, hau da, LEa EELE (ekaitu) egin dute. Baina, teilatua etxearen gainean badago, eta teilatua etxearen parte bada, orduan teilatua **$gain_4$**ean dago.

Aurrerantzeko LEetan ez da honenbeste azalpen emango ulerkuntza arazoak daudela adierazteko.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

$gain_1$, $gaindi_1$

Gain eta gaindi ez dira sarritan bereizten, han eta handi bereizten ez diren bezala.

$gain_3$, $alde_7$, $kanpo_2$, $iraitz_1$

Gizona kanpo eder, sagarra gain gorri, alde guztiak gorri. Eta gainera iraitz, superfizie, kanpoaldea bada.

$gain_4$, goi_3

Batzuentzat sabaia gelan gainean dago, beste batzuentzat gelan goian. Eskerrak "buru gainean min" buruan bertan baino ezin dela izan.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

$gain_1$, goi_1

Tetxutik eskegitako bonbila, gainean ala goian daukagu? Gure gain(alde)ean ala goi(alde)an?

$gain_1$, goi_5

Laino zuriak genituen gure gainean, gure goian.

$gain_2$, $alde_7$

$Gain_2$ alde bat dela da hemengo arazo txikia.

Esanda dago hitzaren beraren adierek sortzen dituztela sarritan mugakidetzako arazorik larrienak, eta **gain$_2$** eta **gain$_3$**ren arteko adiera bitasuna, erraz izan daiteke nahasbide, **gain** esatean. Inurria sagar gainean dabil, baina hankaz gora. Harri gaina (ez barrua) bustita dago, azpitik ere.

ANTONIMIA

gain$_1$ > < azpi$_2$, -pe$_3$, behe$_2$
gain$_3$ > < azpi$_3$, -pe$_4$, barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$
gain$_4$ > < azpi$_4$

gain$_2$k ez du antonimorik, antonimorik ezean batzuetan azpi$_1$ eta -pe$_1$ erabili izaten diren arren.

IZEN SINTAGMA (IKUS 2.9 AZPIATALA)

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa. "Mahaian gainean dago liburua." "Pilotik gainetik hartu dut." "Kokoa lastoan gainean zebilen gora eta behera."

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

gaindi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean) Eta han esandakoa onartuta, **gaindi** hitza **gain zabalagoa** adierazteko hitza da, eta **gaindi** lekugune erlatibo da.

Hiztegiek diotenez, **gaindi** adizlaguna da, leku-adizlaguna. Leku-adizlagunak ordea, leku-izen birziklatuak edo eraldatuak eta gero horretarako ezpezializatuak izaten dira sarritan, "en-cima" adibidez, eta euskaraz gaur egun ere adizlagun gutxi egon eta adizlagun bezala erabiltzen direnak izen deklinatuak izaten dira, inesiboan edo.

Gaindi = zehar = barrena egin daiteke zenbait kasutan, baina zehar eta barren izenak ere badira, eta izen horien esanahien bidez ere uler daitezke adizlagun direneko esanahiak. **Albo**k ere inoiz izan du tratamendu bera, adizlagun bilakatzea, hala nola corpusetatik ateratako adibide hauek:

-*sukalde ortan amaren albo, aur ederrak jolasean:*[Etxaniz, N.; (LBB)]

-*Aitz-artea leizearen albo, Arrasate eta Oñatiko jendeak...*[Etxaniz, N.;Antz]

-*aitatu ditugun erdiko bost saiets oien albo bakoitz beste lau saiets jartzen dira* [Garmendia Larrañaga, Juan;Esku-langintza]

- *ta biargeirik gogorrenetan, gizonen albo ibilli arren, eztarue...*[Mogel; Pab]

Gaur egun albo adizlaguna ahaztuta daukagu. Zehar izena ia ahaztuta daukagu. Eta **gaindi** LEa ia ahaztuta daukagu.

Dena den, oraindik ere badago alderik esaldi bi hauen artean:

"Txoria etxean zehar joan da."

"Txoria etxeaz gaindi joan da." (“etxearen gaineti(k)”, mendebaldean)

Lehen esaldian, leiho irekitik leiho irekirakoan, beharbada. Bigarrenean, teilatua baino gorago hegaz eginda. Dena den, horiek higidurak dira, eta tesilan honetan higidurak aztertuko ez direla esan da.

Gaindi ez da LE "nola" adierazten duenean, orduan **zuzen, zehar** edo **lapran**en pareko baita. Baina LE da "non" adierazten duenean, eta LE hori aztertuko da jarraian.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Gaindi sarritan erabiltzen da egonekoa adierazteko, batez ere **han gaindi** bezalako esapideetan.

EDUKI SEMANTIKOA

LE bezala, hau da **gaindi**ren adiera bakarra:

gaindi$_1$:

Abiakia goranzkoan amaitzen den puntuetan hasi eta goragoko espazioa da **gaindi$_1$.** Horizontalean, abiakia baino zabalago heda daiteke. Argi agertzen da **gain$_1$ = gaindi$_1$** dela espazio bezala, kontzeptu desberdina izan arren (Ikus Aribidean LE hedatuak 2.8 azpiatalean), eta bestelako erabilera berezia izan

arren. Eranskineko [(Bertakoa baino goragoxeko espazioa) eta (Zoruari paralelo zaion espazioa)] izenburupeko adibideetakoa da .



1

Adibidez:

Non hanbat koloreko banderen gaindia? [Hiribarren; Esk]

Laborariak gira gu hemen gaindi, eta ez notariak![Lafitte; Murtuts]

Hemen gaindi dauden hegaztin handienetarik da saia.[Dassance, Louis]

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

gaindi$_1$, gain$_1$

Gain eta gaindi ez dira sarritan bereizten, han eta handi bereizten ez diren bezala. Zehatzago esateko, gain deklinatua eta gaindi ez dira bereizten. "Ilunpe beltza herriaren gaindi, gainean, hedatu zen." "Esne irakinak gaindi, gainez, egin du."

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

gaindi$_1$, goi(ti)$_1$

Gain$_4$ eta **goi$_3$** sinonimoak direnez, **gaindi** eta **goiti** ere, batzuetan behintzat sinonimoak edo ia sinonimoak dira (ikus gain eta goi). Ibaiak gaindi egin, eta umeak jandakoa goiti egin.

ANTONIMIA

gaindi$_1$ > < azpi$_2$, -pe$_3$

IZEN SINTAGMA

Bertan-eredukoa. (Eta honek kontraesana dirudi, "abiakian gaindi" abiakian bertan egon behar bailuke, baina gehien-gehienetan abiakiak ere bereziak dira LE baitira: han, hemen, etxe-gibelean gaindi. Salbuespen gisa, "mendian gaindi" ere agertu da, eta ondo badago $gain_2$, $gain_3$ edo $gain_4$ri dagokion $gaindi_2$, $gaindi_3$ edo $gaindi_4$ da sintagma horretakoa).

Baitere:

-en, -z gaindi.

garai

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Zaila da lekugune erlatibo denentz erabakitzea, **garai** hitzaren agerpenak ez baitira ugari, eta agerpen urrietan idazleek ez baitute argitzen "garai = tontor" ala "garai = han goiko leku" adierazi nahi duten. Halere, "han goiko leku" eta hortaz lekugune erlatibo delakoan egon behar da jarraiko adibide bakanetariko honetan:

Edurretako eperra Alpe eta Pirene mendietan 1800 eta 3000 metroen goran bizi oi da edurtza andien azpi aldetik eta mortua eta atxa asten dan garaietan.[EZEZAGUNA; Gaztetxoenea 15, 78.01]

Eta lekugune erlatibo da 1800 m. baino goragoko edozein leku, tontor zein malda, gailur zein sakosta adierazten badu **garai**k adibide horretan.

Azkuek lekugune erlatiboaren adiera ematen dio, nahiz eta gutxitan erabiltzen dela esan. Hiztegi modernoek ere izen gisako adiera ematen diote, "garai = goi, goialde" eginez. Hortaz hemen ere lekugune erlatiboaren kategoria izango du.

Azkuek [8º (B-ts), encima] adiera gehitzen dio. Hortaz "garai = $gain_1$ edota $gain_2$" ere izan behar luke, baina ez dago hori ziurtatzeko adibiderik.

Garaialde bestelako gauza da, hemen eztabaidatzen ez dena (-alde duelako), baina "garaialde = goialde" argi ageri da eta lekugune erlatibo da, **-alde** duelako, antza denez.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Toponimian izan ezik, erabilpen zabalik ez duela dio Azkuek. Horrez gain, toponimian erabiltzen denean lekugune erlatibo ez dela gehituko da hemen. Horren froga, corpusetan ageri diren adibide gutxi.

EDUKI SEMANTIKOA

Eranskineko lanaren arabera, lekugune erlatibo gisa **garai**k duen adiera bakarra $garai_1$ deituko den hau da:

$garai_1$:

Hiztunak ibarreko sestra edo berarentzat ohiko edo normalago den beste sestra bat hartu abiaki gisa eta gorantzakoan urrun dagoen espazioa da $garai_1$. Eranskineko adibideetan espazio hori 3Dkoa da, eta begitandu ere nekez begitan daiteke dimentsio gutxiagoko espazioa garairen kasuan. Eranskineko [(Lurraren zentrotik ohi baino urrunagoko espazioa)] izenburupeko adibideetakoa da **$garai_1$.**

Adibidez:
Ez irudirik batre zeruan garaian diren gauzenik. [Leizarragaren garaikoa]
Artzaia arnaska ardi-bila mendi-garaiean noizean bein gelditzen da txintxarri-zurrean. [Orixe; Eus]

ADIERA ANIZTASUNA

Lekugune erlatibo gisa **garai**k adiera bat baino ez dauka.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

garai$_1$, goi$_2$

Garai-larre eta goi-larre. Zeruan garaian eta zeruan goian.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Garai = goi$_2$ egitean, goiren arazoak hartzen ditu harenbat.

ANTONIMIA

garaik ez du antonimorik.

IZEN SINTAGMA

Bertan-eredukoa.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

garaiti

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Garaiti garai hedatua da (ikus Aribidean LE hedatuak 2.8 azpiatalean). Hortaz **garaiti lekugune erlatibo da, garai** den bezalaxe.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi askok ez dakarte lekugune legez behintzat. Corpusetan nekez aurkitzen da adibide bakarren batean.

Izan ere, **garai**$_1$ oso espazio zabal eta etenik gabea izanik, gatx begitantzen da **garaiti** hitz eratorria, garai hedatua adierazten duena.

Lan honetan ez da aintzat hartuko horregatik, balizko esanahia duen arren ia erabiligabea da eta, oraindik behintzat.

goi

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **goi**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da, Aribideko 2.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka, adiera batzuek erabilpen urriagoa baina.

EDUKI SEMANTIKOA

(Ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala)

Eranskineko lanaren arabera eta azalpenari irudien bidez lagundurik, **goi**ren adierak hauek dira:

goi$_1$(orokorra):

Irudimeneko plano edo zuin horizontal batean hasi eta Lurraren zentrotik urrunago dagoen espazioa da **goi$_1$. Erdi**rik badago, dagoen erdi horren Lurraren zentrotik urruneneko mugan jartzen da zuina. Espazio horretan (ilundua irudian) edonon da goi$_1$, baina puntu batzuk beste batzuk baino gorago dira, gorago daude (Ikus baitere Aribideko 2.12.1 azpiatala).



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) barne dira

1

goi$_2$:

Hiztunak ibarreko sestra(zuin) edo berarentzat ohiko edo normalago den beste sestra bat hartu abiaki gisa eta goranzkoan urruneraino dagoen espazioa da goi$_2$. Eranskineko datu-txosteneko [(Lurraren zentrotik, norbera baino urrunagoko espazio hirudimentsionala)] izenburupeko esaldietakoa da goi$_2$.



2

Ibarra edo ohiko abiakia

Adibidez: *...gora begiratuaz, goia bajuxko zegola ikusi zuten beren eginbeharrerako eta istegira ateratzea erabaki zuten, an bai zeruraiñoko goia bait-zan.*[Berrondo; Kijote]

Or dator gure gaztedi berria burua zut, eta ikurriñak goi.[Onaindia, Santi; Gernika]

...goiko zeru urdiña eta mendi orlegiak ikusi ondoren...[Arrinda, Anes; Saski-naski]

Lehen adibidean "han tajuzko goirik ez zegoela" interpretatu da.

Eranskineko adibideetan espazio hori 3Dkoa da eta begitandu ere nekez begitan daiteke dimentsio gutxiagoko espazioa goi_2-en kasuan.

Haize zabalekoari buruz behintzat, gehienontzat ibarra da erreferentzi planoa edo zuina, batez ere ibarrean bizi bagara, eta goi_2 mendien malda erdian hasten zaigu horrenbat. Dena den, bat izatekotan, goi_2 hau da goi objektiboa, eta goi_3 , goi_4 eta goi_5 dira subjektiboak.

goi_3:

Abiaki baten erdialdeko irudimeneko plano horizontal batek erdibitutako espazioa da goi_3, erdi bietarik Lurraren zentrotik urrunen dagoena hain zuzen ere. Beste hitz batzuez esateko, bilatu gauzen erdia eta behea ez dena goia, erdialderik ez badago. Eranskineko datu-txosteneko [(Lurraren zentrotik, irudimeneko erdialdeko abiakia edo zuina baino urrunagoko espazioa)] izenburupeko esaldietakoa da goi_3.



3

Adibidez: *...ama edo beste norbait gora zetorrela nabaitzean, lasterka oiera sartzen giñan.*[ATAÑO; Eltzaorra]

...diru-billa joan zan Karmele goiko gelara.[Iturbe, Martin; BizGaziGezak]

...mantala gora tolestuta, babarrunak biltzen ari da Karmele.

[Elustondo, A.; Gaztedi Berria]

Ango etxe aundietako baten goiari begiratokia esaten zioten eta,...
[Anabitarte; Aprika]

"Etxean goiko gelan " eta " alkandorak eskapolotean goian" esaldietako goia ere, goi_3 da .

Goi_3 hau EELE da sarritan, adibidez pintatu eta erre egiten denean, ez hiztunak espaziotzat daukanean. Eta zaila da aipatutako *"...ama edo beste norbait gora zetorrela"* adibidean hemen zera bereiztea: hiztunak gogoan elebazio edo goiera baino ez zuela ala etxearen goiko parte hori (etxearen goiko alde hori) zuela gogoan. Lehen kasuan LE da, bigarrenean EELE.

goi_4:

(**Goi** honek higidura eskatzen du, eta tesilan honetan higidurarik sartuko ez dela esan da, baina salbuespen gisa **goi**ak hobeto ulertzeko gehitu da)

Abiaki ibiltarien goi_2 da izatez, abiakiarekiko lekugune erlatiboari eusteko bera ere higitzen dela aldiunero. Hiztunak argi izaten du abiaki ibiltari hori dena, goi-beheak ibiltari berorrekiko direna. Eranskineko datu-txosteneko [(Abiaki higikorra Lurraren zentrotik urruntzen doaneko espazio berria)] izenburupeko esaldietakoa da goi_4.



Adibidez:
Zugaitz artean gora zijoazela, guk begiz jarraitzen genien. [Muxika, Plazido; Mendiko Argia]
...gu gorago, eta chutago gerenda... [Etchepare, Jean]

Eta honelako esaldietakoa ere goi_4 da: "Meatzariak gora datoz." Meatzariak goi horretara hel daitezenean, goi hori ez da inoren goi, ez hiztunaren goi (lehenago ere ez), ezta meatzarien goi ere.
"Uretan beherago eta arrain gehiago zeukan goian." Beste goi batzuk dira aldian aldian, beste leku batzuk.
"Gora eta gora(go) doa." Goi berria aldian aldian.

goi_5:

Hau ez da espazio moeta berria, goi_2 hurbilagoa baizik, goi_3 edo abiakian bertako goiaren luzapen bezala ere uler daitekeen arren. Beronen berezitasuna, abiakiaren edutezko genitiboa erabiltzen dela zeren goia den ondo finkatuta adierazteko. Goi_5 goi esleitua edo hurbildua dela esan daiteke, genitiboaren

bidez esleitzen eta hurbiltzen baitzaio abiakiari. Eranskineko datu-txosteneko [(Abiakia finkatzeko genitiboa erabiliz, Lurraren zentrotik abiakia baino urrunagoko espazioa)] izenburupeko esaldietakoa da goi_5.



5

Adibidez: *Gure goiko bizitzan bizi zan atsoa...* [Iturriaga;Fab]

...gure goiko Manuel'ek esan eban arek,... [Erkiaga; Arran]

...ez dezake iritxi arbolaren goia... [Barbier, Jean]

"Goiko pisuan." Eta lau pisu daude goian. Esapide horretako goia goi_1(edo goi_2 gorantz urrun xamar badago) da, ez goi_3 ez goi_4, ezta goi_5 ere.

"Gure goiko pisuan." Edo "Gure (geure)(goi-)goikoan." Esapide horretako goia goi_5 da. Eta baita "gure goikoak ez ditut ezagutzen" esaldikoa ere.

"Neska hori, gure goikoen goian bizi da" esaldian **goi** biak dira goi_5, biek genitiboa dutela.

Esan esaten da baina nekezago onar daiteke hurrengo esaldia: "alkandorak eskapolotaren goian daude". Hor, goi_3ri erantsi zaio hurbiltzen duen genitiboa, goi_3 abiakian bertako espazioak, espazio ezin hurbilagoak alegia, adierazteko erabiltzen denean, eta hor genitiboak lar dagoela dirudi. "Eskapolotean goiko... (barruko) nonbait" eta "eskapolotean goian" hobeto esanda daudela dirudi. Beste kontu bat da "eskapolotaren goian (baina kanpoan) dabil eulia", hori goi_2 esleitua baita, eta goi_5 hortaz.

Dena den, beste norbaitek esan beharko du horrelako esapideren bat ondo ala txarto dagoen, hemen ez da esango eta.

ADIERA ANIZTASUNA

Bost adierak gehitxoegi dirudi, baina ez da larriagorik bostak ondo bereizten dira eta.

Goi_1 orokorra da, behe edo besterik ez dela adierazteko da.

Goi_2 guztien (edo askoren)(objektiboa) goia da. "Hegazkina goian doa".

Goi_3 norberak jartzen duen zuinaren araberako goia da. "Ni goian eta zu behean, biok itsaspean bagaude ere."

Goi$_4$ ibili dabilen abiakiaren goia da, eta hemen erakusteko baino ez da gehitu, baina aurrerantzean ez da erabiliko. "Gora doa, oraindik infernua baino beherago badabil ere."

Goi$_5$ genitiboaren bidez esleitutako edo hurbildutako goia da. "Gure goikoek goizaldean ere zapatotsa. Behekoak isil-isilak dira."Neskatila hori, geure goian bizi da, ez hauen goian."

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

goi$_2$, garai$_1$

Ikus **garai.**

goi$_3$, gain$_4$

Ikus **gain.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

goi$_1$. Ikus **alde$_6$**

goi$_1$, gain$_1$

Ikus **gain.**

goi$_5$, gain$_1$

Ikus **gain.**

Kanpo, at, inguru eta kanpoalde guztiak adierazten dituzten hitzak inoiz erabil daitezke **goi** zehatzagoaren ordez.

ANTONIMIA

goi$_1$ > < [O.] behe$_5$

goi$_3$ > < behe$_3$

goi$_5$ > < behe$_2$, -pe$_1$, azpi$_1$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa, goi$_5$ denean.

Bertan-eredukoa.

OHARRA.-Izen Elkartea.- Kasu bereziren batean baino ez. "Goi-goian bai, mendi goi-goian argi da oraindik, beherago ez baina." Bestela idazlea, hizkuntza idatziaren ahalmen txikiagoa dela eta, ez da ausartzen **goi** izen-elkartean

erabiltzen; hiztuna ordea, sarriago ausartzen da "mirua etxe-goian dabil" eta horrelakoak esaten, adibide horretan azentua **etxe**ren lehen **e**ak duela. Beste kontu bat da "etxegoia" lexikalizatzen denean eta hori etxearen tontorra da horrenbat.

goiti

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus baitere Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean) **Goiti**, beste zeinu lexikal enparauak bezala, izen kategoria duenean baino ezin da lekugune erlatibo izan. Batzuetan bada izen, eta izen denean **goiti**k ez du ez nontasunik ez eiterik adierazten, abiakirik gabe. **Goiti** edo **goitian** esan soil-soilik eta ez dakigu non dagoen, ezta zelako eitea duen, zeren edo nongo goitia den, hau da, bere abiakia zein den ez badugu esaten. Hortaz **goiti** lekugune erlatibo da, esandako baldintzak betetzen dituen izena den kasuetan.

Goi "tontor" denean lekugune erlatibo ez den bezalaxe, **goiti** ere ez da lekugune erlatibo "ganbara" eta horrelakoren bat denean, hau da, definizioz halako lekuan egoten den eta halako eitea izaten duen zera denean.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Irizpide hertsiaz, hiztegietako eta esaldietako **goiti = goi = lekugune erlatibo** baldintza betetzen duen goitiren erabilpen maiztasuna zenbatuz, corpusetan gutxitan agertzen dela esan behar da, eta agertzen denean antzinako idazleengan. Agerpen bat aipatzeko, *...lehenbiziko kolpea eta desarra izan zen goitian, zeruko aingeruetan,...* [Axular] aipatuko da.

EDUKI SEMANTIKOA

Goiti = goi bada, goitik goiren adiera berberak izango ditu. Eta **goi = goiti** bada, zergatik **goiti** inoiz erabili, hitz luzeagoa da eta? Eskerrak kontzeptu

ezberdinak diren. Ikus baitere Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean, bertan azaltzen baita **goiti** goi hipotetiko bat baino espazio zabalagoa zelan den.

Hortaz, **goiti**ren adierak **goiti$_1$ = goi$_1$, goiti$_2$ = goi$_2$, goiti$_3$ = goi$_3$, goiti$_4$ = goi$_4$** dira.

Goiti$_4$ = **goi$_4$** (higidurakoa) hementxe ahaztuko da.

Ez dago **goiti$_5$ = goi$_5$**rik, alferrikoa baita **goi** hedatzea gero hurbilekoa baino ez hartzeko.

ADIERA ANIZTASUNA

Hiru adiera.
Ikus **goi$_1$**tik **goi$_3$**raino.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

Ikus **goi$_2$** eta **goi$_3$**ren kasuak.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Ikus **goi$_1$**en kasua.

ANTONIMIA

goiti$_1$ > < [O.] behe$_5$ edo beheti agian.
goiti$_3$ > < behe$_3$

IZEN SINTAGMA

Bertan-eredukoa.
-z goiti.

erdi

Ikus **(C) taldean, edonorakoan,** norabide bateko **erdi**k eta **bitarte**k balio bera baitaukate beste norabideetan ere.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

barren

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Esan da alderatzaileak eta superlatiboak aztertuko ez direna. Corpusetan [goien > < barren] antonimia agertzen da. **Goien** goren mailako desberdintasuna denez, superlatiboa da eta tesilan honetan ez da ukitzen, **goi** zer den jakinez gero, argi baitago goien zer den lekugune erlatiboaren superlatibo gisa ere, nahiz eta batzuek hitz hori erabili leku konkretuari deitzeko, eta horregatik kasu horretan **goien** ez da lekugune erlatibo. Ohe-goien esaten da, eta ohe-hanka. Ez **goien** esapide horretan, ezta hanka ere ez dira lekugune erlatibo.

Antza denez bestelakoa da **barren**en kasua, gogoeta egin behar baita **barneen**en edo **barruen**en antzik aurkitzeko; gogoeta egin eta espekulatu. Gernikan Goien Kale dago goian, Erdiko Kale beherago, eta Barren Kale ibairantzago. Argi ulertzen da Goien, eta bertako muinoa azalpenik onena; Erdiko... zelan ez ba; eta Barren ere ondo ulertzen da mendi-barrenak eta soro-barrenak eta praka eta gona-barrenak ugari dira eta. Argi dago **barren** lexema

independentea dela gaur egun, superlatiboa izan bazen ere, eta horren frogarik onena bere adiera batzuk, superlatibo horren esanahitik urrun aldenduak.

Esandakoa gogoan hartuta, tesilan honetan **barren** lexema da, espazioa edo lekua adierazten duena, nontasunik ez duena eta definitugabea berez. Abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere definitzen baitio alderen batean behintzat. Eta lekugune erlatibo da horregatik.

Horrela ere, **(A) taldea, goitik beherakoa** aztertzeko azpiatala da hau, eta **barren**en bost edo sei adieretarik (ikus eranskineko irudiak) **barren$_2$, barren$_3$** eta **barren$_4$** baino ez daude goitik beherako norabidean. Beharbada **barren$_6$** ere bai, baina adiera hori kentzea erabaki da, corpusetan adibide bakar bat baino ez baita agertzen barren$_6$ adieradun, eta ez fidagarria bera, nahiz eta "etxe barreneko arbolak" eta horrelako esapideak lantzean behin entzuten diren. Abiaki kofadunei dagokienean, badirudi **barren$_3$**k **(C) norabide guztietan** izan beharko lukeela, **hondo** eta biak konpetentzian, eta horrela erabaki zen hasieran, baina corpusetako adibide guztiak beheranzkoan direnez, **barren$_3$** ere **(A) taldean** aztertzea erabaki da.

Horrela ba, hiru **barren** horiek baino ez dira eztabaidatuko hurrengo lerroetan.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Barren hau hiztegi guztietan dator, nahiz eta hiru adiera hauek ondo markatuak hiztegi batean ere etorri ez. Corpusetan **barren$_2$**ren adibide asko dago, eta gutxiago **barren$_{3\ eta\ 4}$**renak.

EDUKI SEMANTIKOA

Eranskineko irudi ordenari jarraituz **barren$_2$** deitu zaion adieraren edukia hau da:

barren$_2$:

Abiakian bertan beheen dagoen espazioa. Edo alderantziz esanda, abiakiaren beheengo parteak betetzen duen espazioa da **barren$_2$.** Espazio hori bai dimentsio biko, bai hiru dimentsioko, izaten da. Horma-barrena pintatu nahiz zulatu egiten da. Eranskineko [(Lurraren zentrotik hurbilago) (Bertikalean) (Ez bereiztua)] izenburupeko adibideetakoa da **barren$_2$** (ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).



Adibidez:

Aruntza-aldetik orma-barrena, labakia azpi-aldean. [Orixe;Eus]

Eta gero amantal barrenagaz legortu legortu. [Erkiaga; Arran]

Eta Eladiri busti jakazan bere gona-barrenak. [Etxeita;Jos]

2

barren$_3$:

Abiakien ahurdura edo kofaduretan beheen dagoen espazio hirudimentsionala da **barren$_3$**. Eranskineko [(Lurraren zentrotik hurbilago) (Hondoa) eta (Ontzi-hondoa)] izenburupeko adibideetakoa da **barren$_3$.**



Adibidez:

Igelak, egur aren otsaz bildurtuta, potzu barrenean gorde ebezan euren buruak. [Onaindia, Sant;Olerti]

Eta ba-omen dira, itxas gazi barrenean, ur gozoa ematen duten iturri garbiak. [Iraeta, Francisco]

Itsas korronteek barrenetik dakarte ur hotza axalera. [Agirre, Jose Antonio]

3

barren$_4$:

Abiaki ia horizontaletan, edo malda txikikoetan, beheen dagoen espazioa da **barren$_4$.** Ikusten denez, **barren$_4$** ia-ia da **barren$_2$,** abiakiaren beheengo partea baita, abiakia ia horizontala izan arren. Eranskineko [(Lurraren zentrotik hurbilago) (Ez bereiztua)] izenburupeko adibideetakoa da **barren$_4$.**



4

Adibidez:

Harkaitz jentilen mendi barrenera iritsia zen ia. [Arrieta, Jesus Mari;Harkaitz]

Era berean sorobarrenak jasotzen eta erosioaren kontrako neurriak noiz eta nola hartu. [EZEZAGUNA; 87/12]

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Norabide honetan hiru adiera horiek dauzka. Baina beste adiera bi ere badauzkala ahaztu gabe.

Putzu barrena, barren$_1$ zein barren$_2$ zein barren $_3$ izan daiteke. Hortaz kanporaino beteta egon daiteke putzu barrena, ala apurtuta egon daiteke, ala guztiz beteta egonda ere putzuaren bolumenaren herena baino ez da.

Soro barrena, barren$_4$ zein barren$_5$ izan daiteke. Gainera, "lurretan barruan" uler dezake baten batek.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

barren$_2$, -pe$_2$, behe$_3$

Etxe-barrenean, etxabean, etxean behean, gauza bera esateko. Horma-barrenean, horman behean, gauza bera esateko, eta agian hormapean ere bai.

barren$_3$, barne$_3$

Biak barru-barruan edo barruan sakonean esateko.

(Barren$_1$ eta barren$_5$en sinonimia C taldean ikusiko da)

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Praka-barren eta "arbolak dituen etxe-barren" ezin dira LE bat izan.

barren$_2$, azpi$_4$

Antza denez, lapiko barrena eta lapiko azpia xafla bera dira, bata goitiko eta bestea behetiko ikuspegiz.

barren$_4$, ertz$_1$, hegal$_1$, hegi$_1$, bazter$_1$

Soro-ertz, -hegal , -hegi edo -bazter, soro-barren izango da soroaren beheko aldean baldin badago, nahiz eta izatez barren hirudimentsionala izan eta bazter bidimentsionala.

ANTONIMIA

barren$_2$ > < goi$_3$
barren$_3$ > < goi$_3$, gain$_4$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

behe

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **behe**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da, Aribideko 2.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Eranskineko **behe**ren datu-txostenean azken marrazkian agertzen den **be** adiera kenduz, lekugune erlatibo ez baita, **behe**ren lau adiera hauek ditugu:

behe$_1$(orokorra):

Irudimeneko erdialdeko plano horizontal batek erdibitutako espazioa da **behe$_1$**, erdi bietarik Lurraren zentrotik hurbilen dagoena hain zuzen ere. Hortaz, goia ez dena **behe$_1$** da, erdialdea ez bada tartean sartzen.

"Euria beti beherantz", "goitik behera orraztu", "ibarra beti behean", "han behean" esaldietako behe da **behe$_1$.** [behe$_1$ > < goi$_1$] antonimia. Baina behe eta goi ez dira guztiz simetrikoak. Eranskineko [(Lurraren zentrotik hurbilago dagoen espazioa) eta (Behe > < gain) (Behe > < goi)] izenburupeko adibideetakoa da **behe$_1$** (ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).

Adibidez: *Hor beheko etxean sukaldea beterik dago.*[Amuriza, Xabier; Herri eta irri]

1067 garren urtean, "beko" lekaidetxe berria egiten dutelarik, "goikoaren" diztira itzaltzen zaigu. [LATXAGA;Errioxako S.Milan]

Itsasoko barrara iritsi zenean, zurrunbilo batean erori zen behera eta behera. [Lertxundi, Anjel; Bateltxo bat]

Otto bean utzita, Rudi'kin mendian gora abiatu zan. [Muxika, Placido;Mendiko argia]



(1) hemengo irudi alternatiboa goi_1en simetrikoa da hortaz, $behe_1$ eta $behe_5$ alternatiboak dira

$behe_2$:

Zalantzako adiera da hau, erabili bai baina gutxitan erabiltzen dena, eta hemen sartu, **goi_5**en antonimo logikoena delako sartu da. Izatez **-pe** eta **azpi** gehiagotan erabiltzen dira gauza bera adierazteko.

Lehenago **goi_5**ren kasuan bezala, **$behe_2$** behe esleitua da, edutezko genitiboaren bidez esleitzen baitzaio abiakiari, eta baita **behe** zabala abiakiaren hurbilenekora mugatu ere. Beherantz luzatutako **$behe_3$** bezala ere uler daiteke. Eranskineko [Azpia] izenburupeko adibideetakoa da **$behe_1$.**



Adibidez:
... mendi tontor onek... bere azpiyan edo bean dadukan lurruspea. [Pradere Arruti, Blas; 1904]

2

BIBLIOTECA VIRTUAL

Ez dago adibide asko, gauza baten behe (parte)a baino beheragokoaz ez baita sarri hitz egiten, baina *gure goiko Manuel* aurkitu bada **goi**ren corpusean *gure beheko Manuel* ere esan daiteke.

Honelako esaldietan erabiltzen da: "bere behean(edo behe-behetxoan) zegoen arerioa, eta harriari jausten utzi eta buruan jo zuen", "oiloaren behean daude txitak (edo oiloak bere behean dauzka txitak), miruak harrapa ez ditzan", "horiek geure behekoak dira geure beheko pisuan (edo gure behean) bizi dira eta".

behe$_3$:

Abiaki baten erdialdeko irudimeneko plano horizontal batek erdibitutako espazioa da **behe$_3$**, erdi bietarik Lurraren zentrotik hurbilen dagoena hain zuzen ere. Eranskineko [(Lurraren zentrotik, irudimeneko erdialdeko abiakia edo zuina baino hubilagoko espazioa) eta (Edutezko genitibodun behe)] izenburupeko adibideetakoa da **behe$_3$.**



3

Adibidez:

Kontuan hartu beharra dago, behe, erdi, goi hitzek egoera estratigrafiko bat gogoratzen dutela: behe, behean, hau da zaharrena, erdi,erdialdean,... [ASKOREN ARTEAN; EHaren His.]

Gogo itzak...miñ itzak...beren goiak edo beheak, saietsak edo egalpeak adierazteko ba dituzte berrogeina itz-ume edo itz-lotu. [Berrondo; Kard]

Argi larri artan, illobiaren beean, iru emakuma beltzez jantziak... [Anabitarte;Aprika]

Euria goien bean iñarduen, eta gizagaxua lar bustitzen zan. [Orixe;Tormes]

Baitere "etxean beheko gelan", "alkandorak eskapolotean behean", esaldietako behe da **behe$_3$.**

Behe$_3$ hau EELE da sarritan, adibidez pintatu eta erre egiten denean, ez hiztunak espaziotzat daukanean. Eranskineko **behe**ren datu-txosteneko ELHUYARpeko adibideetarik bat hauxe da: *kotxe horrek beheak hondatuta dauzka.* Behe horiek ekaituak daudenez, metalezkoak direnez, pintatu ere egiten dira. Ez da oraindik jaio lekugune erlatibo bat pintatuko duenik, eta "behe" horiek ez dira LE. Zabalkuntza semantikoaren bidez espazio baten izena burdin zati batzuei eman eta horrela lortu izan da esaldi zuzen hori.

behe$_4$:

(**Behe** honek higidura eskatzen du, eta tesilan honetan higidurarik sartuko ez dela esan da, baina salbuespen gisa eta **goi$_4$** ere sartu denez **behe$_4$** ere bai.)

Abiaki ibiltarien behe$_1$ da izatez, abiakiarekiko lekugune erlatiboari eusteko bera ere higitzen dela aldiunero. Abiakia, hiztunak argi izaten du ibiltari hori dena, goi-beheak ibiltari berorrekiko direna. Eranskineko datu-txosteneko [(Abiaki higikorra Lurraren zentrora hurbiltzen doaneko espazio berria)] izenburupeko esaldietakoa da behe$_4$.

-



4

Adibidez:

...salda darizula zaude frakatan behera... [Mendiguren Bereziartu; IzAur]

...eta musika banda kalean gora kalean behera... [Atxaga, B.;Asto bat]

Eta honelako esaldietakoa da behe$_4$: "Meatzariak behera doaz." Behe horretara hel daitezenean, behe hori ez da *inoren behe, ez hiztunaren behe (lehenago ere ez) ez meatzariaren behe.

"Uretan gorago eta arrain gehiago zeukan behean." Beste behe batzuk dira aldian aldian, beste leku batzuk.

"Behera eta behera(go) doa." Behe berria aldian aldian.

behe$_5$ (orokorra):

Irudimeneko plano edo zuin horizontal batetik Lurraren zentrorago dagoen espazioa da **behe$_5$**. **Erdi**rik badago, dagoen erdi horren Lurraren zentrotik hurbileneko mugan jartzen da zuina. Espazio horretan (ilundua irudian) edonon da behe$_5$, baina puntu batzuk beste batzuk baino beherago dira, beherago daude (Ikus baitere Aribideko 2.12.1 azpiatala).



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) bar

5

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera gehi orokorra. Eta nahiko ondo bereizten dira laurak. Higidurako adiera, **behe$_4$**, hementxe ahaztuko da.

Lehenbizi, ez dira [be = zoru, lur] eta [behe = lekugune erlatibo] nahastu behar.

Irudiek ere erakusten dutenez, goi eta behe ez dira guztiz simetrikoak, adiera orokor edo hedadura haundikoetan behinik behin. Ulertzekoa denez, euskaldunari goia urrunago eta behea hurbilago amaitzen zaizkio, beheenera joan ere egin daiteke eta, eta erraz grabitateari esker.

Behe$_1$ orokorra da, goi edo besterik ez dela adierazteko da. Horrez gain, guztien (edo askoren) behea da. "Ibaia beti behean".

Behe$_2$ genitiboaren bidez esleitutako edo hurbildutako behea da. "Gure goikoek goizaldean ere zapatotsa, behekoak isil-isilak diren artean.""Neska hori, geure behean(behekoan) bizi da, ez hauen behean (behekoan)." Adiera hau sarritan **-pe** eta **azpi**ren bidez adierazten da, baina batzutan ez.

Behe$_3$ abiaki baten erdia zuin eta lortzen den behea da. "Goiko etxean ere, goiko leihoa eta beheko leihoa."

Lekugune erlatibo guztietan, baina batez ere **behe**ren kasuan, gatx egiten zaigu LE bera den ala EELE (ekaitua) den bereiztea; behe$_3$ iruzkintzean esan bezala. "Piezaren behea zulatu" esatean, piezaren zati horren izena ez dakigunez, "piezaren behea" esan dugu. Hori hobeto azaltzeko eranskineko [(Genitibodun behe)] izenburupeko adibidea ekarriko da hona:

Beren goiak edo beheak, saietsak edo egalpeak adierazteko ba dituzte berrogeina itz.

Esaldiko beheak (eta goiak, saihetsak eta -peak) LEak zein EELE (ekaituak) izan daitezke; hau da, benetako LE dira, edo zati horiei behe deitu zaie, beste zati batzuei beso edo hanka deitzen zaien bezalaxe.

Kotxea hor behean dago. Behe$_1$(LE)

Kotxearen behean (kotxepean) ez sartu. Behe$_2$ (LE)

Kotxearen behea(k) herdoildu. Behe$_3$ (EELE)

Gurpil-ardatzak kotxearen behean doaz. Behe$_3$ (LE zein EELE)

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

behe$_1$, behere$_1$

Sinonimoak dira, beherek daukan pluraltasun edo zabalagotasun ñabardura kentzen bada.

behe$_3$, -pe$_2$, barren$_2$

Ikus **barren.** Etxearen behean, etxearen pean, etxapean, etxabean, etxean behean, etxe barrenean. Horman behean, horma barrenean. Dena den behe$_3$ erdian hasten da, eta badirudi barren$_2$ erdia baino beherago hasten dela.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

behe$_1$. Ikus **alde$_6$.**

behe$_2$, pe$_1$, azpi$_1$

Oholaren behe-behean edo oholaren behean, oholpean, eta oholaren azpian.

behe$_3$, azpi$_4$

Azpi abiakian bertako espazioren bat bada, adiera horren bidez ere **behe**ren eduki semantikoan sartzen da, azpia geruza mehea eta behea lodiagoa izanik ere.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ANTONIMIA

behe$_1$ > < goi$_1$
behe$_2$ > < goi$_5$, gain$_1$
behe$_3$ > < goi$_3$
behe$_5$ > < [O.] goi$_1$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa, behe$_2$ denean, eta behe$_3$ (EELE) denean.

Bertan-eredukoa.

OHARRA.-Izen Elkartea.- "Etxe-goi" hitz-elkartea hiztunak idazleak baino sarriago erabiltzen duela esan da GOI aztertzean, eta "etxe-behe" ere bai, oraindik gaur egun ere. Eta "etxabe" lexikalizaturik dago.

behere

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Abiakiarekiko non adierazten duenez eta berak berez eiterik ez duenez, **behere** lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, baina bere erabilpena ugaritik urrira doa, zein herrialdetan den hori. Corpus batean hiru adibide, bestean gehiago daude.

EDUKI SEMANTIKOA

Puntu kardinalak, lekugune erlatibo izan arren, lan honetan sartuko ez direla esanda dago. Maparen behealdea dirudien eta hegoaldetzat har daitekeen adiera ere badauka **behere**k. Adiera hori ez da aintzat hartzen.
Eta **behere**ren adiera bakarra beste hau da:

behere$_1$:

Berez lurralde zabala dela dirudi, corpusetako adibideak sarritan horrelakoak baitira, eta **beherealde** gutxitan agertzen delako, aldea, eta alde zabala, **behere** bera bailitzan. Hortaz, gauza txiki batek ez du **behere**rik, gauza askok, denek batera, **behere** bat izan dezakete baina. Dena den, **behere$_1$**-i **behe$_1$**-en definizio eta irudi beraiek atxikiko zaizkio.

Behere$_1$, irudimeneko erdialdeko plano horizontal batek erdibitutako espazioa da, Lurraren zentrotik hurbilen dagoen erdia hain zuzen ere. Erdialdea bereizten bada, Lurraren zentrorago hasten da **behere$_1$.** Eranskineko [Lurraren zentrotik hurbilagoko espazioa] izenburupeko adibideetakoa da **behere$_1$**.

Adibidez:

han, lotsagarri behere hartan, ageri da Irati ibaiaren zillarrezko xingola xumea...[Zubiri, E.; 1930]

...da munduko gauza guziak mesprezatzea, behere hunetako plazer guziak enakitzea...[Pouvreau; Imit.]



ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat baino ez.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

behere$_1$, behe$_1$

Ikus **behe.**

Behere = behe egiten bada, ikus **behe.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Behere = behe egiten bada, ikus **behe.**

ANTONIMIA

behere$_1$ > < goi$_3$

IZEN SINTAGMA

Antza denez, **behere** leku zabalegia da "zeozeren behere" izateko, eta ez du aurreko izen sintagmarik, ezta eredu orokorrik, nahiz eta hiztegi batean *etxearen beherea* ikusi. **Behere**k **behe**ren plurala dela ematen du, bertan **behe** txikiagoak daudela. **Behere** denona edo objektiboa da.

Antza denez, **behere** leku zabalegia da beste leku batean egoteko, eta ondorioz ez du bertan-ereduko izen sintagmarik osotzen.

beheti

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus baitere Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean)

Beheiti = behera, ez da lekugune erlatibo, zenbait hiztegik dakarten horretan. Azkuek, **beheti = zoru** jaso zuen, eta Lhandek, Azkuerengandik hartuz berak dioenez, Azkueren **beheti** = Azkueren behetian = "en bas" egiten du. P. Mujikak, Azkuerengandik hartuta horrenbat, beheti = zoru egiten du.

Corpusetan ez da adiera hori duen behetirik agertu, oso zentzu metaforikodun esaldi bitan izan ezik (ikus eranskinean). Bestelakoetan agertu denean, "behetik edo behera" esanahia izan du argi eta garbi.

Beharbada ondo letorke **beheti** goitiren antonimoa izateko. Bea edo zorua izango litzatekeen kasua ez da interesgarria hemen, orduan ez bailitzateke LE izango. Beharbada corpusek ez dakarte **behe** bera **goi** baino pluralago eta orokorragoa delako, eta behetiren beharrik horrela ez dagoelako.

Dena dela, ez dakarte eta **ez dago behetirik lekugune erlatibo gisa.** Beste kontu bat da EELE gisa (zoru gisa) dagoenentz.

-pe(-be)

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Eratorpen morfema edo zeinu lexikal lokabea izan, postposizioan lotuta edo lokabe egon, **pe**k abiakiarekiko non adierazten duenez eta berak berez eiterik ez duenez, **pe** lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Beheren antz haundia dauka **pe**k, eta ez ebakera eta ortografian bakarrik, baita esanahian ere. **Behe** esleituaren, **behe$_2$** deitu zaionaren antza daukala gehitu behar da, gibel-hitz bezala lokabe doanean genitiboa hartzen baitu, *mihiaren pean* izen-sintagman bezala, eta esanahiz ere **behe**ren espazio zabalak abiakiaren hurbileko espazioetara mugatzen baititu. Bizkaiko **be**ak, lekugune erlatibo izan ez arren, badu **pe**ren antzik. Ebakeraz eta grafiaz antz nabarmena du. Abiakiarekiko (geurekiko) posizioan ere antz nabarmena. Bestelakotasuna, **be**k (edo **be**ak) ekai solidozko izan behar duela.

Denak goian aipatutako hurbiltasun kutsu hori dutela, **pe**ren adierak hauek dira:

pe$_1$:

Abiakiak Lurraren zentrotik hurbilen daukan aurpegia da **pe$_1$**. Izatez gain$_2$ren antonimoa da pe$_1$. Ohol gainean eta oholpean. Bai ohol gainekoek zein oholpekoek superfiziearen zero-espazioa baino haundiagoa betetzen dute, baina grabitatea dela eta, oholpekoen egoera ezegonkorrago izaten da zenbait kasutan, eta bertan dirautela adierazteko behar haundiagoa izaten dugu. Hori lortzeko era bat, pe$_1$-i bolumena, espazio hirudimentsionala ematea da, bertakoa abiakiari

ukitzen dirauela adierazteko. Espazio hirudimentsional hori puntuz marraztuta dago irudian. Behetik gorakoan inoiz "oholperaino" esaten bada, **pe** irudian ilundutako superfiziea dela ulertzen da. Eranskineko [(Hurbilago Lurraren zentrotik)(Bertikalpean)(Inkatuta edo bertan)] izenburupeko adibideetakoa da **pe$_1$.**



1

Adibidez:

etxe ayetako balkoi piak. [BIRIGARRO; El Dia 34/09/02] Kabiak bertan.

bere zaragia itzi eta bestea besapean ebala [Beobide, Jose Luis; EHko ipiak]. Zahagia bertan.

galtzarbe[Elhuyar]Makrosporangioak eta, bertan.

ankape [Barandiaran Balanzategui] Azala bertan.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

pe$_2$:

Abiakian beheko partea, erdiraino heltzen ez dena, da **pe$_2$.** Eranskineko [(Ez hurbilago Lurraren zentrotik)(Beheko partean)(Barruan)] izenburupeko adibideetakoa da **pe$_2$.**



2

Adibidez:

etxe berri aren etxabe [Ugalde, Martin;Iltzaileak]. Bizi bertan. (**Behe$_3$**tzat ere hartzekoa da)

okotzpean joko nuan [Atxukarro, Inaziomari]. Min bertan.

oinpeko haragiek ibiltzean [Aramendi, Mikel;Giza gorputza]. Min bertan, haragia bertan.

burdin meatz asko zegoen ango mendipeetan [Ugalde, Mikel;Langileria]. Meatza bertan.

E*txabek* dirudi hor bereizi xamarra. Hobe adiera honek **-be** hartuko balu beti. Oinpeko hautsa / oinbeko mina.

pe$_3$:

Abiakiari ukitu gabe, abiakia baino hurbilago Lurraren zentrotik, abiakiaren bertikalpean baina hein batean hedatuago dagoen espazioa da **pe$_3$.** Eranskineko [(Hurbilago Lurraren zentrotik)(Bertikalpean)(Bereizia, aldendua) edo (Ez bertikalpean)] izenburupeko adibideak dira **pe$_3$.**



3

Adibidez:

Urkiola'ko pagopietan(pago adarpe) [Kerexeta, Jaime;1954]. Bertan ijituak.

gurdientzako teilape [Igea, Koldo]. Gurdiak bertan.

zerupeko urak bildu [IRATZEDER; 1980]. Ura bertan.

guardasol gorri bakar baten pean bildurik [Legasse, Marc]. Jendea bertan.

etxepe. Osina , soroa bertan.

gelape. Etxez kanpoan.

Antzinako elizpea ere moeta honetako **pe** izan zela uste da, geroago goragotu eta teilapetu egin bada ere.

Corpusetan ez da ia aurkitu izan gure herriko ama arduratsu askok sarritan itauntzen dutena:

" Arkondarapien ezer badaroazu? Hotz eiten deu, gero!" Corpusetako adibide bakarra hau izan daiteke: *...kutxa zaharrean gilltza herdoilaren pean* [Goyhetche;1852] Baina horrek beste adiera bat lekarke, -pe$_4$-rena hain zuzen.

-pe$_4$:

Kanpoko edo gaineko abiakia baino barrurago dagoen geruza-eiteko espazioa da **-pe$_4$.**



Adibidez:
Gonapean. Jakapean. Herdoilpean. Hauspean. Pinturapean.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

4

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera. Nahiko zail zein adierazten den bereiztea.
Okotzpean min ala gorbata, -pe$_2$ ala -pe$_1$ ala -pe$_3$?
Oinpean haragia ala harria, -pe$_2$ ala -pe$_1$?
Etxepean zimenduak ala arbolak ere bai? -pe$_1$ ala -pe$_3$?

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

-pe$_1$, azpi$_1$

Oholpean eta ohol azpian sinonimoak dira biek **1** azpizenbakia badute. Ez dira sinonimoak adibidez, oholpe$_1$ean eta ohol azpi$_2$an erkatzen direnean.

-pe$_2$, barren$_2$, behe$_3$

Ikus **behe.**

pe$_3$, azpi$_2$

Teilapean eta teilazpian. Harripean eta harri azpian.

-pe$_4$, azpi$_3$

Jakapean, jaka azpian alkandora.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Hitz baten adierak eta beste hitzaren okerreko adierak parekatuz sortzen dira arazo gehienak.

-pe$_1$, behe$_2$

Ikus **behe.**

-pe$_2$, azpi$_4$

Azpi eta -pe abiakian bertako espazioak badira, zapatazpiak eta zapatapeak gastatu egiten dira.

Isurkinetan, itsasoen eta, itsaspean, itsasazpian, itsasoan behean, itsasoaren hondoan, uretan, urpean, ur sakonetan(azentua azken silaban), ur azpian, non ote da zein?

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ANTONIMIA

-pe$_1$ > < goi$_5$

-pe$_2$ > < goi$_3$

-pe$_3$ > < gain$_1$, gaindi$_1$

-pe$_4$ > < gain$_3$, iraitz$_1$, kanpo$_1$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa lokabe doanean.

Ala abiakiaren atzizkia da.

azpi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Azpik abiakiarekiko non adierazten duenez eta berak berez eiterik ez duenez, **azpi** lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Hasteko zera esan, azpia lekugune erlatibo gisa egon dagoela, egin ez dela egiten. Hortaz "ganaduari azpiak egin" esapideko **azpi**, "zapaten materialezko azpi"ko, "lapikoaren azpi errea"ko **azpi** EELE da.

Hori esanda, **azpi** LEaren adierak hauek dira:

$azpi_1$:

Abiakiak Lurraren zentrotik hurbilen daukan aurpegia da **$azpi_1$.** Eta **pe_1**-en kasuan bezala, aurpegi horretatik beherako paralelepipedoa erants dakioke, irudian legez (ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).



1

Adibidez:

anka bat bere anka-azpian artu [Estornes Lasa, Bernardo]

belaun azpiraiño [Bergaretxe, Jose].Belauna amaitzen denekoraino.

oin-azpian dagoan lurra [Azkue, R.M.;Yakintza I].

ogeko azpiko mihisia [Ariztia, Mayi;1950]. Norbaiten bizkarpekoa.

arripilla baten azpian [Barandiaran, J.M.;1956].Harri pila hurbil.

LIOTECA VIRTUAL MiGUEL D

azpi$_2$:

Abiakiari ukitu gabe, abiakia baino hurbilago Lurraren zentrotik, abiakiaren bertikalpean baina hein batean hedatuago dagoen espazioa da **azpi$_2$.** Eranskineko [(Hubilago Lurraren zentrotik)(Bertikalpean)(Bereizia, aldendua) edo (Ez bertikalpean)] izenburuko adibideak dira **azpi$_2$.**



2

Adibidez:

erretoretxe azpiko bidexiurra. [LATXAGA]

Etxeberri azpiko Etxezarreta. [ZUBI AUNDI; Argia 31/08]

Araoz Oiñatiko auzo bat da, Arantzazuren azpian.[Amuriza, Xabier;Herri ta irri]

Serante azpiko Lore-buru zuri gorriak.[Onaindia, Santi; Zotz mirarigilea]

azpi$_3$:

Kanpoko edo gaineko abiakia baino barrurago dagoen geruza-espazioa da **azpi$_3$.** Eranskineko (Barruan edo estalia) izenburupean dauden adibideetakoa da **azpi$_3$.**



Adibidez:

soñeko pitxien azpi [Beovide;AsL]. Zilizio latza bertan.

jantziaren azpi [Ibargutxi, Felix;Ivanhoe]. Janaria bertan.

jantzi ubelen azpian bruxola bat zeraman [ASKOREN ARTEAN;Minduan zehar].

urdaiazpiko.

"Azpiko pintura-geruza".

3

azpi$_4$(ekaitua):

Eranskinean (Abiakiaren beheengo geruza) izenburupeko adibideetan agertzen den azpi da **azpi$_4$.** Ekai egindako lekugune erlatibo bezala erabiltzen da. Bere abiakiarekiko kokapena dela eta, azpi lekugune erlatiboan dago, baina hasi eta amaitu bere ekaia amaitzen den mugetan hasi eta amaitzen da, azpi lekugune erlatiboa askoz ere hedatuago izanik. Hor goian eta eranskinean "abiakian bertako beheengo geruza" esan da, baina "abiakiari behetik itsatsitako geruza" bailitzan uler daiteke zenbait kasutan.



4

Adibidez:
abereei azpiak egin [Ibon Sarasola Hiztegia].Iratzezkoak edo.
ontziaren azpia [Etxeita;Jos]. Oinaztarriak zulatua.
kokotz-azpia [Kodea txarto].Mamizkoa.
galtzoakaz azpia bigunduta [Etxeita;Jos]. Gurdi gaineko azpia.
zapata-azpiak [Erkiaga; BatB]. Gomazkoak edo.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera. Nahiko zail zein adierazten den bereiztea.
Makina azpian dago arrakala. Azpi$_1$, azpi$_2$ ala azpi$_4$?
Jantziaren azpian. Azpi$_1$ ala azpi$_3$? Gonazpian zapatak ala izterrak?

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

azpi$_1$, -pe$_1$

Ikus **-pe.**
azpi$_2$, -pe$_3$.

Ikus **-pe.**
azpi$_3$, -pe$_4$.

Ikus **-pe.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

azpi$_1$, behe$_2$

Ikus **behe.**

azpi$_4$, -pe$_2$, barren$_2$, behe$_3$

Ikus **barren** eta **-pe.**

ANTONIMIA

azpi$_1$ > < goi$_5$
azpi$_2$ > < gain$_1$, gaindi$_1$
azpi$_3$ > < gain$_3$, iraitz$_1$, kanpo$_1$
azpi$_4$ > < gain$_4$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa, **azpi** abiakiaren parte denean.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

Honaino **(A) goitik beherako lekugune erlatiboak.**

3.4.2(B) taldean, horizontalean atzetik aurrerakoan:

(b_1) azpitaldea, atzetik aurrerakoan:

atze, gibel, erdi, aitzin, aurre.

Orientazio edo norakotzeaz luzeago hitz egin da Aribideko 2.11 azpiatalean, baina hemen ere, eta gaian sartzeko, zer zergatik zer deitzen den esango da hitzaurre gisa.

Norabide Horizontalak

Bertikalean grabitateak erakusten du zein den norabide bertikal bakarra, baina norabide horizontalak asko baino askoago dira, eta norakotzeko beste era bat behar izaten da. Lehen norakotzea ohituraz egindakoa da: zaldiaren atzea buztanaldea dela idatzita ei dago nonbait, eta denok pozik; ezkerrak horri, bestela zaldiaren aurrea zein den ere ez genuke jakingo eta. Geure aurrea zein den ere horrela dakigu, eta aurrez aurre daukaten gauza azpegigabe biribilaren (zuhaitza edo) aldeari ere aurre deitzen ei diote zenbaitek nonbaiten. Gauzak aterik badauka, ate ederreneko aldeari aurre deitzeko ohitura ere badaukagu.

Horrela, ohituraz ezartzen dugu zein den atze, aurre, edo plano horizontaleko edozein LE enparau, gauzak alde bereizterrazak dituenean eta gauza erabilia denean. Gauza azpegigabea edo erabilera ezezagunekoa denean, pieza asko erabili aurretik diren bezala, lehen LEa ausaz ezartzen zaio. Eta behin bat ezarriz gero, badakigu norantz diren besteak. Hemen aukeratu egin da lehena, eta **atze** norantz den denok dakigulakoan aukeratu ere.

atze

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **atze**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta

abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Atze lekugune erlatiboaren adierak hauek dira:

atze$_1$(orokorra):

Behin abiakiaren aldeetarik, ohituraz edo, atzea zein den aukeratuta, atzetik aurrerako norabideari bertikal zaion irudimeneko planoa abiakiaren erdian jarrita, plano edo zuin hori baino atzerago urruneraino dagoen espazioa da **atze$_1$.** Hortaz **atze$_1$** espazio osoaren erdi bietarik bat da (ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) barne dira.

1

atze$_2$:

Atze$_1$ean eta abiakian bertan dagoen espazioa da **atze$_2$.** Eranskineko [(Abiaki barruan)] izenburupeko adibideetakoa da **atze$_2$.** Hiztunak, espazio bezala begitandu beharrean, ekaiz egindako zeozer bezala begitantzen badu, LE izan beharrean EELE da.



Adibidez:
gurdiaren atzeko dendalian [Estornes Lasa, Bernardo].
atzeko aretoan [Unzueta, Peru; Argia 86/06].
elizan atzean [Agirre, Karlos;Jaunaren Deia 1966].

2

atze$_3$:

Abiakiaz at egon eta abiakiak atzeranzko higiduraz beteko lukeen espazioa da **atze$_3$.** Hurbilean abiakia bera da atze$_3$ren muga, urrunean atze$_3$k ez du mugarik. Eranskineko [(Abiakiaz kanpo)] izenburupeko adibideetakoa da atze$_3$.



Adibidez:
sei legoa atzean utzi [Goikoetxea, Iñaki;Giza soina].
etxe atzeko erreka [Albisu Ayerdi A:; Amezketa'ko Fernando].
betaurrekoen atzean bi begi [Latiegi, Bixente; Saski-naski 10].
etxe atzeko solotik [Bilbao, Felix; Ipuin barreka].

3

atze$_4$:

Aurreko adiera bien zabalkuntza semantikoa izan edo ez izan, atze$_2$k eta atze$_3$k bat dagiteneko superfiziea da **atze$_4$.** Eranskineko (Abiakian bestaldeko superfiziea) izenburupeko adibideetakoa da **atze$_4$.**



Adibidez:

sobrearen atzean idatzita [Zavala, Antonio].

atzian sarrera zabala [Alzaga, Toribio;Buruuntziya].

oinaren atzeak oinaren punta ikutu [Arejita;Historia eta Gizartea].

4

BLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera ditu. Lauretarik edozein uler daiteke.

Etxe(aren) atzean gela ederra egon, barazkiak hartu, pintadak egon: atze$_1$ edo atze$_2$, atze$_3$, atze$_4$, hurrenez hurren. Etxean atzean: atze$_2$, atze$_4$. Etxearen atzealdean: atze$_1$ osoa ere izan daiteke. Etxearen atzeko partea, gela , horma, erdia, herena, baratza... edo horrela zehaztu behar, jakintza estralinguistikoa erabiliz ulertzeko.

"Etxeko atzea" esapideak ez dirudi jator, "atze" hori leku konkretu bat ez bada, "behe = soto" bezalakoa ez bada, EELE ez bada (ikus 2.9 azpiataleko KO ATZIZKIDUN SINTAGMAK). "Etxatzea" lexikaliza daiteke baina beti izango da anbiguo, ondo ulertu, besterik uler ez daitekeen egoera konkretu batean baino ondo ulertuko ez dena.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

atze$_1$, gibel$_1$

Atzean eta gibelean sinonimoak dira orokorrean.

atze$_2$, gibel$_2$

Atzeko aretoan eta gibeleko aretoan. Elizan atzean eta elizan gibelean.

atze$_3$, gibel$_3$

Sinonimoak dira, **gibel**ek **-alde** atzizkia sarriagotan hartu arren. Atearen atzean eta atearen gibelean. Baratzaren atzean eta baratzaren gibelean.

atze$_4$, gibel$_4$

Gutunazalaren atzean eta gutunazalaren gibelean idatzi.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

atze$_1$. Ikus **alde$_6$.**

atze$_3$, oste$_1$

Teoriaz arazorik egon behar ez lukeen arren **oste** ezkutatuta dagoen espazioari deitzeko baino ez erabiliz gero, praktikaz batzuetan txarto erabiltzen da edozein **atze** adierazteko, eta batez ere **atze$_3$** adierazteko. Corpusetan idazle bat baino ez da aurkitu izan oker hori egiten, baina sarriago egiten da.

atze$_4$, alde$_7$

Alde batean eta bestean idatzi. Aldeetarik bat, atze$_4$ da hain zuzen.

ANTONIMIA

atze$_1$ > < [O.] aurre$_1$

atze$_2$ > < aurre$_2$

atze$_3$ > < aurre$_3$, aitzin$_1$

atze$_4$ > < aurre$_4$, aitzin$_2$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa. (atze$_2$, atze$_4$)

gibel

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **gibel**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan esaldi kopuru ertaina dauka. Nekez aurki daiteke teknika edo artisautza arloetako gibel hitza duen esaldiren bat .

EDUKI SEMANTIKOA

Nekeak neke, eta gibel$_3$ adierarako adibideak aurkitzeko nekerik izan den arren, horrelako adierak idazki teknikoagoetan aurkitzen baitira errazen, **gibel** lekugune erlatiboaren adierak hauek dira:

gibel$_1$(orokorra):

Behin abiakiaren aldeetarik, ohituraz edo, atzea zein den aukeratuta, atzetik aurrerako norabideari bertikal zaion irudimeneko planoa abiakiaren erdian jarrita, plano edo zuin hori baino atzerago urruneraino dagoen espazioa da **gibel$_1$.** Hortaz **gibel$_1$** espazio osoaren erdi bietarik bat da (ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) barne dira.

1

gibel$_2$:

Gibel$_1$ean eta abiakian bertan dagoen espazioa da **gibel$_2$.** Hortaz, abiakian bertan dago **gibel$_2$.** Eranskineko (Abiaki barruan) izenburupeko adibideetakoa da **gibel$_2$.**



Adibidez:

gibelekoak kintzea atxiki [Luberriaga, André; 1984]. Frontoi gibelekoak.

otoaren gibel-alkietan ixil dagozi [Etxepare, J.; Ber]

txalupa baten gibel borobila [Lasa; Poem]. Popa biribila.

2

gibel$_3$:

Abiakiaz at egon eta abiakiak gibeleranzko higiduraz beteko lukeen espazioa da **gibel$_3$.** Hurbilean abiakia bera da gibel$_3$ren muga, urrunean gibel$_3$k ez du mugarik. Eranskineko (Abiakiaz kanpo) izenburupeko adibideetakoa da gibel$_3$.



3

Adibidez:

(makhila) iltzetik dilindan athearen gibelean [Dufau, Dominique]

baratzaren gibelean, ibaia. [Arrinda, Anastasio]

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

gibel$_4$:

Aurreko adiera bien zabalkuntza semantikoa izan edo ez izan, **gibel$_4$** abiakiaren gibel deitzen den aldeko superfiziea da. Eranskineko (Abiakian bestaldeko superfiziea) izenburupeko adibideetakoa da **gibel$_4$.**



4

Adibidez:

esku-gibelaz kopeta chukatu [Barbier, Jean].

sartagin gibela pir-pir egon [Orixe; Eus].

ADIERA ANIZTASUNA

Corpusetan adibide gutxi aurkitu da gibel$_1$ eta gibel$_2$ justifikatzeko, beharbada hiztunek kasu horietan **gibelalde** nahiago dutelako esan, **gibel** alde orokor bezala ulertzen dutelako, eta gibelalde parte bezala ulertzen dutelako. Dena den, gibel$_1$ eta gibel$_2$ ere aintzat hartzea erabaki da.

Lau adiera ditu. Lauretarik edozein uler daiteke.

Etxe(aren) gibelean gela ederra egon, barazkiak hartu, pintadak egon: gibel$_1$ edo gibel$_2$, gibel$_3$, gibel$_4$, hurrenez hurren. Etxean gibelean: gibel$_2$, gibel$_4$. Etxearen gibelaldean: gibel$_1$ osoa ere izan daiteke. Etxearen gibeleko partea, gela , horma, erdia, herena, baratza... edo horrela zehaztu behar, jakintza estralinguistikoa erabiliz ulertzeko.

"Etxeko gibela" esapideak ez dirudi jator, "gibel" hori leku konkretu bat ez bada, "behe = soto" bezalakoa ez bada. "Etxegibela" lexikaliza daiteke baina beti izango da anbiguo, ondo ulertu, besterik uler ez daitekeen egoera konkretu batean baino ondo ulertuko ez dena.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

Ikus **atze,** berdina da eta.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

gibel$_1$. Ikus **alde$_6$.**

Atze$_3$k eta **oste$_1$**ek mugakidetzako arazoak izan arren, gaur egun behintzat gatxagoa da **gibel$_3$**k eta **oste**k izatea, euskalki aldenduetan erabiltzen dira eta. Dena dela, **gibel** zuzen ezin daiteke **oste**ren ordez erabili.

gibel$_4$, alde$_7$

ikus **atze.**

ANTONIMIA

gibel$_1$ > < [O.] aurre$_1$
gibel$_2$ > < aurre$_2$
gibel$_3$ > < aurre$_3$, aitzin$_1$
gibel$_4$ > < aurre$_4$, aitzin$_2$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa. ($gibel_2$, $gibel_4$)

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

erdi
bitarte

Ikus **(C) taldean, edonorakoan,** norabide bateko erdik eta bitartek balio bera baitaukate beste norabideetan ere.

aitzin

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Abiakiarekiko non adierazten duenez eta berak berez eiterik ez duenez, **aitzin** lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan eta LE gisa, esaldi kopuru ertaina dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Corpusetan bila aritu arren, ez da aurkitu **aitzin = abiakian aurreko partea ala espazioa** egingo duenik, aurreko fatxada edo horma egin dituenak aurkitu badira ere. [Aitzin > < gibel] (hau da, **aitzin gibel**en antonimo) aurkitu da, baina hori ez da aski. Aitzinalde ere ez da aitzin, hormalde horma ez den legez. Horrela ba, **aitzin**ek kanpoa eta fatxada izan beharko du, hemen corpusetan aurkitutakoa baino ez baita aintzakotzat hartu, baina egotez egon liteke **aurre**$_2$ren antzeko **aitzine**n bat.

Aitzinek dituen adiera biak hauek dira:

aitzin$_1$:

Gibel eta atzeren aurkako norantzan abiakiaz at egon eta abiakiak aurreranzko higiduraz beteko lukeen espazioa da **aitzin$_1$.** Eranskineko (Abiakiaz kanpo) izenburupeko adibideetakoa da **aitzin$_1$.**



Adibidez:

zure aitcinean belhaunico [EZEZAGUNA;Catichima edo Fedea laburzki].

mahain aintzinean dagoen aulkian [Casenave, Jon].

etche aintzinean jende eta hazienda [EZEZAGUNA;Euskalduna 24.09.05].

1

aitzin$_2$:

Abiakiaren aitzin deitzen den aldeko superfiziea edo espazio bidimentsionala da **aitzin$_2$.** Eranskineko (Abiakian superfizie bertikala) izenburupeko adibideetakoa da **aitzin$_2$.**



Adibidez:

etxe txikitxo aitzin txuria [Arrue, Jose Arantzazu].

etxeak zurbesoekin aurre edo aitzinean [Casenave Harigile, Junes; Amizkuze].

etche-aitzinak oihalez aphainduak [Barbier, Jean Piarres].

2

ADIERA ANIZTASUNA

Corpusetan ez da "abiakian bertako aitzinik" aurkitu, "etxearen aitzineko gela" edo antzekorik, hiztunak kasu horretan **aitzinalde** erabiltzen duelako; eta ondorioz, aitzinek ez du aurre$_1$ eta aurre$_2$ren antzekorik den adierarik. Beste era batez esanda, **aitzin** etxearen fatxada gehi fatxadaren aurrealdeko kanpoa da, **aurre** etxearen erdi-erdian hasten den artean.

Adiera bi.
"Etxe(aren) aitzineko lanak": aitzin$_1$ekoak ala aitzin$_2$koak.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

aitzin$_1$, aurre$_3$

Kanpora doa borda aitzinean, borda aurrean ibiltzera.
aitzin$_2$, aurre$_4$

Etxe aitzin, etxe aurre zuria.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

aitzin$_2$, alde$_7$
Orriaren alde batean eta bestean idatzi. Alde bata **aitzin$_2$** da.

ANTONIMIA

aitzin$_1$ > < gibel$_3$, atze$_3$
aitzin$_2$ > < gibel$_4$, atze$_4$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa. (aitzin$_2$)

aurre

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **aurre**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Aurre lekugune erlatiboaren adierak hauek dira:

aurre$_1$(orokorra)

Behin abiakiaren aldeetarik, ohituraz edo, aurrea zein den aukeratuta, atzetik aurrerako norabideari bertikal zaion irudimeneko planoa abiakiaren erdian jarrita, plano edo zuin hori baino aurrerago urruneraino dagoen espazioa da **aurre$_1$.** Hortaz **aurre$_1$** espazio osoaren erdi bietarik bat da (Ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) barne dira.
Zuina edozein norabidetan jar daiteke.

1

aurre$_2$:

Aurre$_1$ean eta abiakian bertan dagoen espazioa da **aurre$_2$.** Eranskineko (Abiaki barruan) izenburupeko adibideetakoa da **aurre$_2$.** Hiztunak, espazio bezala begitandu beharrean, ekaiz egindako zeozer bezala begitantzen badu, LE izan beharrean EELE da.



Adibidez:
leihoak aurreko aldean kortina luzeak dabezala [Etxebarria Aiesta, Ramon;Pausoka 4-5].
animaliaren aurreko herena [Altonaga, Kepa;Anelidoak].
aurreko mastatik brankagara [Alkorta, Kaxildo;Moby Dick].

2

aurre$_3$:

Atzeren aurkako norantzan, aurre deitutako aldean (aurre$_1$ean), abiakiaz at egon eta abiakiak aurreranzko higiduraz beteko lukeen espazioa da **aurre$_3$.** Hurbilean abiakia bera da aurre$_3$ren muga, urrunean aurre$_3$k ez du mugarik. Eranskineko (Abiakiaz kanpo) izenburupeko adibideetakoa da aurre$_3$.



Adibidez:

gauza oiek guztiak azaltzeko gure begien aurrean [Arrinda, Anastasio;EH zaarra].

etxeak zugazti bat zeukan aurrean [Lekuona, Juan; Barand.].

etxe aurreko zelaira joan zen [Atxaga, Bernardo;Nokolasa.].

etxe baten aurrean geldierazi zuten kotxea [Urbistondo, David; Grant kap.].

3

IBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

aurre$_4$:

Atzeren aurkako norantzan, abiakiaren aurre deitutako aldeko superfiziea da **aurre$_4$.** Eranskineko (Abiakian fatxadan) izenburupeko adibideetakoa da **aurre$_4$.**



Adibidez:
etxea zurbesoekin aurre edo aitzinean [Casenave Harigile, Junes;Amikuze].
etx<u>aurre</u> aurrean dagoen auto gelagune [Apalategi Begiristain, Josemartin; Antr.Hirian].
Ramuntxoren etxeko aurrea. Bere erdian ate bat [Alzola, T.;Ram].

4

OTECA VIRTUAL GUEL D CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera. **Atze**z idatzi izan dena ondo doakio **aurre**ri ere, guztiz simetrikoak dira eta.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

aurre$_3$, aitzin$_1$

Ikus **aitzin.**

aurre$_4$, aitzin$_2$

Ikus **aitzin.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

aurre$_1$. Ikus **alde$_6$.**

aurre$_4$, alde$_7$

Orriaren aldeetarik bat aurrea da.

ANTONIMIA

aurre$_1$ > < [O.] atze$_1$, gibel$_1$
aurre$_2$ > < atze$_2$, gibel$_2$
aurre$_3$ > < atze$_3$, gibel$_3$
aurre$_4$ > < atze$_4$, gibel$_4$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa. (aurre$_2$, aurre$_4$)

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

3.4.3 (B) taldean, horizontalean lateralean:

(b_2) azpitaldean, norabide lateralean:

albo, aldamen, alde, saihets, zehar, erdi.

albo

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **albo**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Albo inoiz erabili izan da poligonoaren dimentsio bateko aldea adierazteko; baitere angelu diedroaren dimentsio biko aldea adierazteko, eta gaur egun ere "etxearen lau alboak pintatu" eta horrelakoak entzuten dira.. Horrela ere, adiera bi horiek ez dira aintzat hartuko.

Eranskineko **albo$_5$** adiera ez da hemen aztertuko, **(b_3) azpitaldean, horizontalean edonorakoan** azaltzeko utzi baita.

Alboren beste lau adierak hauek dira:

albo$_1$(orokorra):

Behin abiakiaren aldeetarik, ohituraz edo, atzea eta aurrea zeintzuk diren aukeratuta, atzetik aurrerako norabidean abiakiaren erdian irudimeneko plano bertikala jarrita, plano edo zuin horretatik urruneraino dagoen espazioa da **albo$_1$.** Hortaz **albo$_1$** espazio osoaren erdi bietarik bat da (Ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) barne dira.
Zuina, abiakiaren atzetik aurrerako (simetri-) plano bertikala da.

1

albo$_2$:

Abiakiaz at egon eta abiakiak higidura lateralaren eraginez beteko lukeen espazio hirudimentsionala da **albo$_2$**. Hurbilean abiakia bera da albo$_2$ren muga, urrunean albo$_2$k ez du mugarik. Eranskineko [(Abiakiaz at)("Lateral " dagoen espazio hirudimentsionala)] izenburupeko adieretakoa da **albo$_2$.**



2

Adibidez:

bost saiets oien albo bakoitz beste lau saiets [Garmendia Larrañaga, Juan;E. esku-lan.].

autoak alborantz (espaloirantz) *hartu zuen* [Amuriza, Xabier].

bidetxiur horren alboan zegoen mugarria [Sarriegi, Andoni; Belar.].

edifizio nagusiaren alboko etxe baten aurrean [Gartzia, Xabier; Iban].

albo$_3$:

Albo$_2$k abiakia ukitzen dueneko superfiziea da **albo$_3$.** Hau da, norabide lateraletan abiakia amaitzen den puntuek osotutako superfiziea da **albo$_3$**. Eranskineko [(Abiakian bertan)(Superfizie laterala)] izenburupeko adibideetakoa da **albo$_3$.**



3

Adibidez:

ipini daiteke oina alboz edo puntaz ere [Arejita;Historia eta Gizartea].

patillak arpegi-alboetan [Kirikiño;AB I].

alboz euken igitai agoaren antza [Arrese Beitia;AmaE].

"Oholaren albo bata pintatu; bestea ez."

albo$_4$:

Abiakiaren erditik albo$_3$raino, abiakian bertan dagoen espazio hirudimentsionala da **albo$_4$**. Eranskineko [(Abiakian bertan)(Norabide batean) ("Lateral" dagoen espazio hirudimentsionala)] izenburupeko adibideetakoa da **albo$_4$.**



4

Adibidez:

albo bietako erdikaldean hego antzeko zabalguneak dituzte [Txurruka, Jesus Mari; Biol.].

bere bi alboetan zapaldu [Agirre, J. A.;Lorategiak].

sarreraren bi alboetako pintadak [Apalategi Begiristain, Josemartin; Antr. Hirian].

eta albo bata maillatu-maillatu eginda dauala daukat semia [Otxolua].

ADIERA ANIZTASUNA

Albo$_1$ adiera orokorra dela gogoan hartuta, beste hiru adiera norabide berean.

Etxe(aren) alboan barazkiak hartu, pintadak egon, gela ederra egon: albo$_2$, albo$_3$, albo$_4$, hurrenez hurren. Etxean alboan: albo$_3$, albo$_4$. Etxearen alboaldean: albo$_1$ osoa ere izan daiteke. Etxearen alboko partea, gela , horma, erdia, herena, baratza... edo horrela zehaztu behar, jakintza estralinguistikoa erabiliz ulertzeko.

"Etxeko alboa" esapideak ez dirudi jator, "albo" hori leku konkretu bat ez bada, "behe = soto" bezalakoa ez bada, EELE ez bada (ikus 2.9 azpiataleko KO ATZIZKIDUN SINTAGMAK). "Etxalboa" lexikaliza daiteke baina beti izango da anbiguo, ondo ulertu, besterik uler ez daitekeen egoera konkretu batean baino ondo ulertuko ez dena.

Gainera **norabide horizontal guztietan,** "etxe albo" = etxe ondo.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

albo$_1$, aldamen$_1$, saihets$_1$

Albo(aldamen, saihets) batean eta bestean.

albo$_2$, aldamen$_2$, alde$_1$, saihets$_2$

Zakurrak belarriak buruaren bi alboetan, aldamenetan, aldeetan, saihetsetan.

albo$_3$, alde$_2$

Aurrea eta atzea zuri, baina etxearen alde bata (albo bata) gorri eta bestea orlegi pintatu.

albo$_4$, aldamen$_3$, alde$_3$, saihets$_3$, zehar$_1$

Paparreko mina albo batean, aldamen batean, alde batean, saihets batean, zehar batean baino ez dauka.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

albo$_1$. Ikus **alde$_6$.**

albo$_2$, ertz$_7$, hegal$_4$, hegi$_6$

Ibaiaren albo batean, ertz batean, hegal batean, hegi batean.

albo$_4$, ertz$_1$, hegal$_1$, hegi$_1$

Etxean edo soroan albo batean, ertz batean, hegal batean, hegi batean.

Norabide honetakoa izango ez litzatekeen "etxearen lau albo"etako **albo** ez dira aintzat hartu. Inork aintzat hartzen badu, orduan albo horrek eta alde$_7$k mugakidetzako arazoak dituzte.

Ikus albo$_5$.

ANTONIMIA

albo$_1$ > < [O.] bata bestearena

albo$_2$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa. (albo$_3$, albo$_4$)

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

aldamen

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Lehengoetarako arrazoi beraiek direla eta, **aldamen** ere lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan esaldi kopuru ertaina dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Eranskineko **aldamen$_4$** adiera ez da hemen agertuko, **(b$_3$) azpitaldean, horizontalean edonorakoan** azaltzeko utzi baita.

Aldamenen beste hiru adierak hauek dira, bigarrena gutxitan erabilia eta zalantzazkoa bada ere:

aldamen$_1$(orokorra):

Behin abiakiaren aldeetarik, ohituraz edo, atzea eta aurrea zeintzuk diren aukeratuta, atzetik aurrerako norabidean abiakiaren erdian irudimeneko plano bertikala jarrita, plano edo zuin horretatik urrunerantz dagoen espazioa da **aldamen$_1$.** Hortaz **aldamen$_1$** espazio osoaren erdi bietarik bat da. Horrela bada ere, espazio horretako lerro eta superfizieei deitzeko ez da **aldamen** hitza erabiltzen. Corpusetan behintzat ez da horrelakorik agertu.



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) barne dira.
Zuina, abiakiaren atzetik aurrerako (simetri-) plano bertikala da.

1

aldamen$_2$:

Abiakian atzetik aurrerako simetri planoarekiko norabide elkartzutetan, abiakiaz at dagoen espazio hirudimentsionala da **aldamen$_2$.** Eranskineko [(Abiakiaz at)(Norabide batean)("Lateral " dagoen espazio hirudimentsionala)] izenburupeko adieretakoa da **aldamen$_2$.**



Adibidez:
belarriak buruaren bi aldamenetan ditugu [Goikoetxea, Iñaki;Giza soina].
beiaren aldamenean exeri eta esnea kendu [Erauskin Lujanbio J.R.;Aien garaia].

2

aldamen$_3$:

Abiakian bertan erditik aldamen$_2$raino dagoen espazio hirudimentsionala da **aldamen$_3$.** Eranskineko [(Abiakian bertan) (Norabide batean) ("Lateral dagoen espazio hirudimentsionala)] izenburupeko adibideetakoa da **aldamen$_3$.**



Adibidez:
egal gorria zortzi izpiko amairu izarrez (bost aurrean, lau muturrean eta bi aldamenetan) [Kerexeta, Jaime].

3

ADIERA ANIZTASUNA

Aldamen$_1$ adiera orokorra dela gogoan hartuta, beste adiera bi norabide berean.

Etxe(aren) aldamenean barazkiak hartu, gela ederra egon: aldamen$_2$, aldamen$_3$, hurrenez hurren. Etxearen aldameneko partea, gela , horma, erdia, herena, baratza... edo horrela zehaztu behar, jakintza estralinguistikoa erabiliz ulertzeko.

"Etxeko aldamena" esapideak ez dirudi jator, "aldamen" hori leku konkretu bat ez bada, "behe = soto" bezalakoa ez bada, EELE ez bada (ikus 2.9 azpiataleko KO ATZIZKIDUN SINTAGMAK).

Gainera **norabide horizontal guztietan,** "etxe aldamen" = etxe ondo.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

aldamen$_1$, albo$_1$, saihets$_1$

Ikus **albo.**

aldamen$_2$, albo$_2$, alde$_1$, saihets$_2$

Ikus **albo.**

aldamen$_3$, albo$_4$, alde$_3$, saihets$_3$, zehar$_1$

Ikus **albo.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

aldamen$_1$. Ikus **alde$_6$.**

aldamen$_2$, ertz$_7$, hegal$_4$, hegi$_6$

Ibaiaren aldamen batean, ertz batean, hegal batean, hegi batean.

aldamen$_3$, ertz$_1$, hegal$_1$, hegi$_1$

Etxean edo soroan aldamen batean, ertz batean, hegal batean, hegi batean.

Ikus aldamen$_4$. (horizontalean edonorakoan)

ANTONIMIA

aldamen$_1$ > < [O.] bata bestearena

aldamen$_2$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa. (aldamen$_3$)

alde

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko 2.10 azpiatala)

Alde moeten kopurua haundia da benetan. **alde** moeta asko, "giltzak aldean daramatzat" esapideko aldetik hasi eta "Ameriketako alde ederretan" esaldiko aldeetan amaituz. Lehena LE da, ondo zehaztua ez baina, eta bigarrena ez da LE, parajea, leku zehaztugabea da, ez dago antzematerik Ameriketan non dauden alde eder horiek. "Zatoz nire aldera" eta "Alde hemendik!" Hurbiltasuna eta urruntasuna, biak adierazteko da **alde**.

Gainera, zuin batek alde bi sortzen ditu zuin hori jarri bezain laster. Bota lerro bat zelaira eta zelaiaren alde biez hitz egiten has gintezke, bota plano bat espaziora eta espazioaren alde biez, bota planoa sorbaldatik behatz atzoskolera eta gizakiaren alde biez. Jarri kubo bat espazio zabalean, eta espazio horren sei aldeak nabarmentzen hasten zaizkigu. Eta ikosaedroak ere badaude. Zorionez eta **alde**ren polisemia txikiagotzeko, azken **alde** horiei **aurpegi** deitzen hasi zaie.

Horrela ba, aldeak asko baino askoago dira, baina arazoa zera, zeintzuk diren lekugune erlatibo, eta LE direnen artean zeintzuei eman adiera-kategoria zentzu horretan maiz erabiltzen direla-eta. Eta arazoak izan dira hori erabakitzeko, zeren, nolakoa ikuspegia eta esaldi bakar bateko **alde** LE zein EELE zein gune edo paraje dela erabaki ahal baita, eranskineko **alde** datu-txostena eta aribideko 2.10 saileko taula zailtasun horren lekuko direla. Baina LE delako ikuspegia baldin badago (eta sarritan dago) **alde** LE da kasu hauetan (ikus LEaren definizioa):

a) **Ondo, albo, aldamen** eta **inguru**ren sinonimo diren **aldeak**. **Goi, atze** eta plano batez bereizitako adiera orokorra daukaten LEak **alde** direla ahaztu gabe.

b) Gaur egun, matematikan, poligonoaren perimetroko zuzenkia den **alde**. (Albo ere gauza bera izan da inoiz, baina ez gaur egun).

c) **Alde**ren adiera orokorra.

d) Gauzen gainazalaren kanpo-superfiziea, batzutan **aurpegi** deitua.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Erabilpen haundia dauka LE bezala zein bestela.

EDUKI SEMANTIKOA

Hemen norabide lateraleko **alde**ak eta lekugune erlatibo direnak baino ez dira aipatuko. Norabide guztietako aldeak, eta zuzenkia den aldea b_3 azpitaldean sartu dira.

Lehenago adierazitakoa gogoan hartuz, **alde**ren adierak hauek dira:

alde(orokorra): ikus $alde_6$.

$alde_1$:

Abiakiaren atzetik aurrerakoarekiko (edo ardazki luzeenarekiko) norabide horizontal elkartzutetan, abiakiaz at dagoen espazioa da **$alde_1$.** Eranskineko [(Abiakia bat)(Abiakiak zatitu duelako espazio zatia)(Abiakiaren hurbileko espazioa)(Horizontalean hedatua)] eta [(Abiakia eta zuina) (Zuinak zatitu duelako espazio zatia) (Abiakiaz at) (Horizontalean hedatua)] izenburupeetako adieretakoa da **$alde_1$.**



Adibidez:

etxea, alderik-aldeko zurezko balkoiduna [Garmendia Larrañaga, Juan;Bid. esku-langilleak].

zubia, ibaian alde batetik besteraino [Sarriegi, Arantza;Osaba Tom].

bionboaren alde bakoitzean aulki bat [Urkizu, Boni;Hiz. jokoak].

zaldiaren bi aldeetako saski banatan [ATAÑO;Txori].

1

alde$_2$:

Alde$_1$ zero lodierakoa egin eta superfizie bihurtzen denekoa da **alde$_2$.** Izatez, abiakiaren superfizie laterala da. Eranskineko [(Abiakia bat)(Abiakiak zatitu duelako espazio zatia)(Abiakian bertako espazioa)(Mehetuz superfizie bihurtu den aldetzat har daitekeena)(Laterala)] eta [(Espazioa superfizie bihurtu denekoa)] izenburupeetako adibideetakoa da **alde$_2$.**



Adibidez:

zedula bat, alde batetik katalaneraz eta bestetik españeraz idatzia [Etxeberria, Francisco;El Dia 34/02].

diskoaren bi aldeak [Infor. Fakul.;Informatika Atlasa].

etzan zan ontzia alde aren ganera [Etxeita;Jos].

2

alde$_3$:

Abiakiaren erditik alde$_2$raino, abiakian bertan dagoen espazio hirudimentsionala da **alde$_3$.** Eranskineko [(Abiakia bat) (Abiakiak erdibitu duelako espazio erdia)(Abiakian bertako espazioa)(Horizontalean hedatua)(Lateral)] eta [(Abiakian bertako espazioa) (Horizontalean hedatua)] izenburupeko adibideetakoa da **alde$_3$.**



Adibidez:
etxeko ganbaran, alde bietan ipinitako upel lerroak [Agirre Begiristain, J.A.;Lur ilunak].
burmuinaren bi aldeak [Urkizu, Boni].

LIOTECA VIRTUAL

3

ADIERA ANIZTASUNA

Hiru adiera norabide honetan. **Albo** eta **alde** berdintsuak dira norabide honetan.

Etxe(aren) alde batean barazkiak hartu, pintadak egon, gela ederra egon: alde$_1$, alde$_2$, alde$_3$, hurrenez hurren. Etxean alde batean: alde$_2$, alde$_3$. Etxearen alde batean: albo$_6$ osoa ere izan daiteke. Etxearen alde bateko partea, gela , horma, erdia, herena, baratza... edo horrela zehaztu behar, jakintza estralinguistikoa erabiliz ulertzeko.

"Etxeko aldea" ,"etxeko alde batean" esapideek ez dirudite jator "alde" hori leku konkretu bat ez bada, "zati edo parte" bezalakoa ez bada, EELE ez bada (ikus 2.9 azpiataleko KO ATZIZKIDUN SINTAGMAK). "Etxalde" lexikalizatuta dago, baina hitz hori oraintsu ikasi dugunok badakigu hiztegiko definizioa behar dela zer den jakin dezagun, etxek eta aldek berez ez baitiote esanahia nahikoa argitzen, iluntasun osoan baino argiago utzi arren.

Ikus **alde** (b_3) eta (C) taldeetan ere, beste bost adiera ditu eta. Adiera haiek ere uler daitezke hemengo hiru adieren ordez.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

alde$_1$, albo$_2$, aldamen$_2$, saihets$_2$

Ikus **albo.**

alde$_2$, albo$_3$

Ikus **albo.**

alde$_3$, albo$_4$, aldamen$_3$, saihets$_3$, zehar$_1$

Ikus **albo.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

alde$_1$, ertz$_7$, hegal$_4$, hegi$_6$

Ibaiaren alde batean, ertz batean, hegal batean, hegi batean.

alde$_3$, ertz$_1$, hegal$_1$, hegi$_1$

Etxean edo soroan alde batean, ertz batean, hegal batean, hegi batean.

Ez dago besterik norabide honetan, inork alde$_1$ eta at edo alde$_3$ eta barru nahastuko dituenik ez baita uste.

ANTONIMIA

alde$_1$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa. (alde$_2$, alde$_3$)

saihets

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **saihets**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan esaldi kopuru ertainazpikoa dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Saihetsen hiru adierak hauek dira:

saihets$_1$(orokorra):

Behin abiakiaren aldeetarik, ohituraz edo, atzea eta aurrea zeintzuk diren aukeratuta, atzetik aurrerako norabidean abiakiaren erdian irudimeneko plano bertikala jarrita, plano edo zuin horretatik urrunerantz dagoen espazioa da **saihets$_1$.** Hortaz **saihets$_1$** espazio osoaren erdi bietarik bat da. Horrela bada ere, **aldamen**en kasuan legez, espazio horretako lerro eta superfizieei deitzeko ez da **saihets** hitza erabiltzen.



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) barne dira.
Zuina, abiakiaren atzetik aurrerako (simetri-) plano bertikala da.

1

saihets$_2$:

Abiakiaz at egon eta abiakiak saihets$_1$eranzko higiduraz beteko lukeen espazio hirudimentsionala da **saihets$_2$**. Hurbilean abiakia bera da saihets$_2$ren muga, urrunean saihets$_2$k ez du mugarik. Eranskineko [(Lateral dagoen espazioa)(Abiakiaz at)] izenburupeko adieretakoa da **saihets$_2$.**



2

Adibidez:

sahetsean aldiz, Chirrita zutik zagon [Larzabal, Pierre].

Ganich han zagon choko batetan makhila sahetsean [Dufau, Dominique].

bere beharri zabalak buruaren bi sahetsetan dilindan [Etchepare, Jean;Buruchkak].

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

saihets$_3$:

Abiakiaren erditik saihets$_2$raino, abiakian bertan dagoen espazio hirudimentsionala da **saihets$_3$.** Eranskineko [(Lateral dagoen espazioa)(Abiakian)] izenburupeko adibideetakoa da **saihets$_3$.**



3

Adibidez:

saihets batetan etzanik aurpegia besoaz estalita, gizona zegoen [Mendiguren Bereziartu;Letagin zuri].

miña saietsean eta sorbaldan [Onaindia, Santi;Euskaldunak eta osasuna].

ontziari saihetseko olak zartatu zitzaizkiola zirudien [Pagola, Rosa Miren].

ADIERA ANIZTASUNA

Saihets$_1$ adiera orokorra dela gogoan hartuta, beste adiera bi.

Saihetsen kasua eta aldamenen kasua berdinak dira norabide honetan. Saihetsek ez dauka horizontalean norabide guztietan saihets = aldamen$_4$ egingo lukeen adierarik.

Etxe(aren) saihetsean barazkiak hartu, gela ederra egon: saihets$_2$, saihets$_3$, hurrenez hurren. Etxearen saihetseko partea, gela , horma, erdia, herena, baratza... edo horrela zehaztu behar, jakintza estralinguistikoa erabiliz ulertzeko.

"Etxeko saihetsa" esapideak ez dirudi jator, "saihets" hori leku konkretu bat ez bada, EELE ez bada (ikus 2.9 azpiataleko KO ATZIZKIDUN SINTAGMAK).

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

saihets$_1$, albo$_1$, aldamen$_1$

Ikus **albo.**

saihets$_2$, albo$_2$, aldamen$_2$, alde$_1$

Ikus **albo.**

saihets$_3$, albo$_4$, aldamen$_3$, alde$_3$, zehar$_1$

Ikus **albo.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Saihets$_1$. Ikus **alde$_6$.**

saihets$_2$, ertz$_7$, hegal$_4$, hegi$_6$

Ibaiaren saihets batean, ertz batean, hegal batean, hegi batean.

saihets$_3$, ertz$_1$, hegal$_1$, hegi$_1$

Etxean edo soroan saihets batean, ertz batean, hegal batean, hegi batean.

ANTONIMIA

saihets$_1$ > < [O.] bata bestearena

saihets$_2$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa. (saihets$_3$)

zehar

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Albo bezala, **zehar** ere lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegietan agertzen da, Lhandenean oker badator ere. Horrela ere erabilpen urriko hitza da LE bezala, eta horren lekuko, corpus batean zalantzako esaldi bakarra baino ez aurkitzea.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

EDUKI SEMANTIKOA

Ezer besterako daturik ez eta hau da **zehar**ren adiera bakarra:

zehar$_1$:

Zuina abiakiaren atzetik aurrerako simetri planoa dela, abiakian bertan zuin horren alde batera dagoen espazio hirudimentsionala da **zehar$_1$.**



Adibidez:

Zearreko miña (G-etx) (Azkueren hiztegia)

1

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

zehar$_1$, albo$_4$, aldamen$_3$, alde$_3$, saihets$_3$

Ikus **albo.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

zehar$_1$, ertz$_1$, hegal$_1$, hegi$_1$

Etxean edo soroan zehar batean, ertz batean, hegal batean, hegi batean.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ANTONIMIA

zehar$_1$ > < [O.] bata bestearena

IZEN SINTAGMA

(Adibide kopuru txikia ezer ziur esateko).
Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa.

erdi

Ikus **(C) taldean, edonorakoan,** norabide bateko erdik balio bera baitauka beste norabideetan ere.

3.4.4 (B) taldean, horizontalean edonorakoan:

(b_3) azpitaldean, horizontalean edonorakoan:

albo, aldamen, alde, alderdi, barano, barrunbe, barruti, bazter, bitarte, erdi, inguru, ondo, oste.

albo$_5$

Izatez, horizontaleko norabide guztietako albo hau **albo$_5$** baino ez da, eta horrela jarri da hasiera-hasieran ere.

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, LE da, Aribideko 2.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan dator, definizio gabe eta **ondo** edo **aldamen**en sinonimo gisa baino ez bada ere. Corpusetan ez da arazorik izan **albo** honen adibideak aurkitzeko.

EDUKI SEMANTIKOA

albo$_5$:

Abiakiaren kanpo-superfizietik abiakiaz at dagoen hurbileko superfizie zilindrikorainoko espazioa da **albo$_5$.** Hirudimentsionala denez, bidimentsionala ere bada. Eranskineko [(Abiakiaz at)(Abiakitik hurbileko espazioren bat)] izenburupeko adibibideetakoa da **albo$_5$.** Adiera hau Lekugune Erlatibo Zatikoa (LEZ) da.



5 Albo ez da espazio osoa
Gune bat bakoitzean

Adibidez:

Ania alboko baserrian bizi zen [Monasterio, Xabier; Bmarinel bat].

alboko herrira joan ziren [Urbieta, Imanol;Xirupika 2].

ugazaba inguruetan ete ebillan, aurretik ondo alboetara begiratu-ta [Rekalde, S.T.;Deunor].

Santsonek ateak alboko mendira eroan ebazan [Ibargutxi, Jon Kurutz; Edesti Deuna].

gure herriko eta albo-herrietako atsotitzak [Lekuona, Juan Mari;Ahozko].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat norabide honetan. Ikus **albo (b_2) azpitaldean, norabide lateralean.**

Etxearen alboan, lateralean zein ondoan izan daiteke.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

albo$_5$, aldamen$_4$, alde$_4$, ondo$_1$

Alboan, aldamenean, aldean edo ondoan dagoen udalerria.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

albo$_5$, hurbil (Tesilanean **hurbil** aztertu ez arren)

Alboko udalerria, urreko udalerria ere bada.

albo$_5$, barano$_1$, inguru$_2$

Albo$_5$ zirkuluan espazio txikiagoa da, lekugune erlatibo zatikoa (LEZ) da. [Albo guztiak = inguru, barano] egin daiteke, baina sarritan "alboan" esaten da "inguruan, baranoan" adierazteko, eta alderantziz.

Ez da uste **albo** eta **at** edo **kanpo** inork nahasten dituenik.

ANTONIMIA

albo$_5$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$
albo$_5$ > < urrun

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

(Lateraltasuna adierazteko beste **albo**tik bereizteko, **-en albo** gutxiagotan eta ∅ **albo** gehiagotan erabiltzen da)

aldamen$_4$

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

Izatez, horizontaleko norabide guztietako albo hau **aldamen$_4$** baino ez da, eta horrela jarri da hasiera-hasieran ere.

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **aldamen** beraren eitea, alde batekoa behintzat, begitantzea ere ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da, Aribideko 2.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan dator, definizio gabe eta alboren sinonimo gisa baino ez bada ere. Corpusetan ez da arazorik izan **aldamen** honen adibideak aurkitzeko.

EDUKI SEMANTIKOA

aldamen$_4$:

Abiakiaren kanpo-superfizietik abiakiaz at dagoen hurbileko superfizie zilindrikorainoko espazioa da **aldamen$_4$.** Eranskineko [(Abiakiaz at)(Abiakitik hurbileko espazioren bat)] izenburupeko adibibeetakoa da **aldamen$_4$.**

Irudia, lehenagoko **albo$_5$**ren irudia da **aldamen$_4$**rena ere. Adiera hau Lekugune Erlatibo Zatikoa (LEZ) da.

Adibidez:

landare bakoitzari aldamenean esola bat sartuz [Agirre, Joxe;Baratza 5].

aldameneko errietatik jende asko etortzen baita [Arana, Jose;Saski-naski14].

Ama Birjiñak bere aldameneko guztien amabiotzeko ardura izanik [Egia Rezola, Luis;Mariaren bidez].

erriko enparantzan edo errialdameneko zelai zabalen batean [Agirre, Joxe;Baratza 5].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat norabide honetan. Ikus **aldamen (b$_2$) azpitaldean, norabide lateralean.**

Etxearen aldamenean, lateralean zein ondoan izan daiteke.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

aldamen$_4$, albo$_5$, alde$_4$, ondo$_1$

Ikus **albo$_5$.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

aldamen$_4$, hurbil (Tesilanean **hurbil** aztertu ez arren)

Aldameneko udalerria, urreko udalerria ere bada.

aldamen$_4$, barano$_1$, inguru$_2$

Aldamen espazio txikiagoa da, lekugune erlatibo zatikoa (LEZ) da. [Aldamen guztiak = inguru, barano] egin daiteke, baina sarritan "aldamenean" esaten da "inguruan, baranoan" adierazteko, eta alderantziz.

Ez da uste **aldamen** eta **at** edo **kanpo** inork nahasten dituenik.

ANTONIMIA

aldamen$_4$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$
aldamen$_4$ > < urrun

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

(Lateraltasuna adierazteko beste **aldamen**etik bereizteko, **-en aldamen** gutxiagotan eta ∅ **aldamen** gehiagotan erabiltzen da)

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

alde4-5

Izatez, horizontaleko norabide guztietako alde hau **alde$_4$** eta **alde$_5$** baino ez da, eta horrela jarri da hasiera-hasieran ere.

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakiarik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **alde** beraren eitea begitantzea, osorik ez bada ere, ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da, Aribideko 2.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Alde$_4$ hiztegi guztietan dator, hiztegi elebidunetan ondo zehaztuta ez badator ere. **Alde$_5$** ez dator hiztegi guztietan. Corpusetan ez da arazorik izan **alde** bi hauen adibideak aurkitzeko.

EDUKI SEMANTIKOA

Ezin da **alde** hau **(C) edonorakoan** taldeko LEa dela ahaztu, baina norabide horizontalean denez ia beti, **(b_3) azpitaldean, horizontalean edonorako** honetan sartu da. (C) taldekoa egiteko, beheko definizioetako "zilindriko" hitzaren ordez "esferiko" jarri behar da.

alde$_4$:

Abiakiaren kanpo-superfizietik abiakiaz at dagoen hurbileko superfizie zilindrikorainoko (edo esferikorainoko) espazioa da **alde$_4$.** Eranskineko [(Abiaki bat) (Abiakiak zatitu duelako espazio zatia) (Abiakiaren hurbileko espazioa) (Horizontalean zein bertikalean hedatua) eta (Hurbileko espazioa, ondoa, berariz adierazteko)] izenburupeko adibideetakoa da **alde$_4$.** Adiera hau Lekugune Erlatibo Zatikoa (LEZ) da.



alde ez da espazio osoa gune bat bakoitzean

4

Adibidez:

atso zarr bat aldean belaunikatzera etorri zitzaion [Lhande Heguy, Pierre;Itzaldiak II].

erabaqui zuan emaztearen aldera etorcea [Barandiaran, Jose Miguel;Eusko Jakintza].

argigailu au, txofer guztiak aldean erabilli bear leukee [Baraizarra, Luis;Salbabide].

orduan dirurik aldean eztaukana, beti txiro [Azkue, R.M.;Yakintza I].

eta mirabeak begira daudela, edo aldean dirala [Agirre, J.Bta.; 1808].

ederki apaldurik suaren aldean [Iturriaga;Fab].

alde$_5$:

Abiaki barnean daukan abiakiaren altuerako espazio zilindrikoa da **alde$_5$,** hortaz alde$_4$ gehi abiakia bera da **alde$_5$.** Eranskineko [(Abiaki bat) (Abiakiak zatitu duelako espazio zatia) (Abiakia eta hurbileko espazioa) (Horizontalean hedatua)] izenburupeko adibideetakoa da **alde$_5$.** Hortaz, etxalde, elizalde eta Bilboalde **alde$_5$** dira, etxea, eliza eta Bilbo, hurrenez hurren etxalde, elizalde eta Bilboalderen parteak direla. Bilboaldean bada, beharbada Bilbon bertan da; etxealdean bada, beharbada etxean bertan.



Adibidez:
ondoko soloagaz 69 area ta 11 arearen eunen neurtzen ebazan eta dana etxalde bat zan [Letona, S.;Angosto'ko].
ankak plaza aldera zintzilik zituala [Urrunzuno, Pedro Migel;Ipuinak].
(Horrek ez du kentzen "plaza aldera = plazarantz" egitea)
Durango-alde ta Arratian batez-be [Kirikiño;AB II]

5

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bi norabide honetan. Ikus **alde (b_2) azpitaldean eta (C) taldean.**

Etxearen aldean edonon izan daiteke.

Hemengo adiera biei dagokienez, elizaldean eliza bera ere badagoena argi daukanak izango ditu argi eta bereiz adierok.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

$alde_4$, $albo_5$, $aldamen_4$, $ondo_1$

Ikus **$albo_5$.**

$alde_5$, $alderdi_2$

Gernika aldean edo Gernika alderdian, bietan Gernika barne dela.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

$alde_4$, hurbil (Tesilanean **hurbil** aztertu ez arren)

Aldeko udalerria, urreko udalerria ere ba da.

$alde_4$, $barano_1$, $inguru_2$

Alde, zirkuluan espazio txikiagoa da, lekugune erlatibo zatikoa (LEZ) da. [Alde guztiak = inguru, barano] egin daiteke, baina sarritan "aldean" esaten da "inguruan, baranoan" adierazteko, eta alderantziz.

alde$_4$, at$_1$, kanpo$_1$

Barruan ez, aldean, kanpoan, at. Beharbada mugakidetza berori dago **lekore** hitzaren kasuan ere, baina ez **landa** hitzaren kasuan, beti baita (-tik. -z landa).

ANTONIMIA

alde$_4$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

alde$_4$ > < urrun

IZEN SINTAGMA

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

alde$_4$

Zeren-eredukoa.

alde$_5$

Hitz-elkartea.

alderdi$_2$

Alderdiren gutxi erabilitako adiera hau (C) taldean aztertuko da, alderdi$_1$ adiera eta biak batera.

barano

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **barano** beraren eitea, alde batetik behintzat, begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan dator, hiztegiok erabilpen urrikoa dela adierazten badute ere horrenbat. Corpusetan adibide gutxi xamar dago. Nik neuk entzun eta irakurri egin dut, baina halakoren batean.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

EDUKI SEMANTIKOA

Baranoren adiera bakarra hau da:

barano$_1$:

Abiakiaren kanpo-superfizietik abiakiaz at dagoen hurbileko superfizie zilindrikorainoko espazioa da **barano$_1$.** Hirudimentsionala denez, bidimentsionala ere bada. Eranskineko [(Eraztun zirkular edo zilindrikoa, abiakia zentroan)] izenburupeko adibideetan erakusten da **barano$_1$**en erabilera.



Adibidez:

eta behiak etzan ziren ene baranoan, geldi geldiak neri begira [Mirande, J.;Pr].

dazatzia su horren baranoan [Belapeyre(II)].

baduzu artalde ederrik baranoan(inguruan)[Etxaide, J;JJ].

1

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

barano$_1$, inguru$_2$

Suaren baranoan edo inguruan.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

barano$_1$, albo$_5$, aldamen$_4$, alde$_4$, ondo$_1$
Ikus **albo$_5$.**

ANTONIMIA

barano$_1$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$
barano$_1$ > < urrun

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

barrunbe

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Barrutiren sinonimoa zelakoan, **barrunbe** ere (b_3) azpitaldean sartua izan zen, baina hori baieztuko duen adibide bakar bat aurkitu izan da corpusetan, eta bera zalantzazkoa. Hortaz ez da **barrunbe** LEtzat hartzen, azpitalde honetan behintzat. Ikus (C) taldean.

barruti

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean ere). **Barru**ren konnotazioa duela eta hasi nintzen **barruti** aztertzen. Inoiz "abiakiaren **barru = barrutian**" esan ahal bada, **barruti** lekugune erlatibo da. *Unibertsitate-barruti eta udal-barruti*k horren antzerakoak dira, baina erakundeak dira unibertsitate eta udal, lege-kontuak dira, legea aldatu eta barrutiaren espazioa ere aldatuta ondorioz; eta ni ez nabil lege-kontutan hemen. Lehenago, etxalde eta elizaldeko **alde** lekugune erlatibo egin ditut, zalantzak izan ditudala halere. Etxalde eta elizalde, unibertsitate barruti eta udal barruti, eta eliz barruti baino fisikoagoak dira ordea. Hortaz, **barruti** hori ez da LE.

Barruti enparauak, hesidun direlako, eskualde direlako, etxedun baten jabetza direlako, ez dira LE.

Horrela ba, **barruti** ez da lekugune erlatibo.

bazter

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **bazter** beraren eitea, alde batetik behintzat begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da.

Beste lekugune erlatibo askok bezala, **bazter**rek ere baditu LE ez diren adierak. Hitz egitean, “hau bazter batean” bazterreko toki batez hitz egiten dela dirudi, hau da, "bazterreko bazter batez". Lehen bazterra da lekugune erlatibo.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka.

Bestelako adibiderik ez da aurkitu eta **bazter** superfizie horizontal xamarra dela egiten da, bertan gauzak egoteko altuera izan arren, eta norabide horizontalean jarri da horregatik. Hortaz, adibidez, "hormaren goiko bazterra" ezinezkoa da, eta "horma-bazterra" zoruak eta hormak bat egiten duten gainazal horizontala da, sarritan ostendua eta ikusteko nekeza.

EDUKI SEMANTIKOA

Ezer baino lehen, **bazter** ia-LEO dela esan, 2.7.4 azpiatalean azaldu den bezala: plurala erraztxoago hartzen du.

Bazter, gehienetan behealdeko superfizieren bat izaten da. Hiru dimentsioko gauzaren bat bazter horretan egotea, superfizie horren gainean egotea da. Corpusetan bila ibili arren ez da zentzuzko 3Dko bazterrik aurkitu. Hortaz, ohol bazterrean iltzea josi ahal da, ohol gainean josten den bezala, baina ohol bazterra ezin da oholetik ebaki.

(Ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).

Bazterren adierak hauek dira:

bazter$_1$:

Abiakiaren mugetan luze, abiakian bertako superfizie estu luzanga da **bazter$_1$.** Eranskineko [(Dimentsio biko zerrenda) (Abiakian, muga ondokoa, mugan luze)] izenburupeko adibideetakoa da **bazter$_1$.**



Adibidez:

pilotan kintzea egin bazterrak bilatuz [Luberriaga, André;Euskera XXIX].

latz eta zikin soluetako erdi ta bazterrak, beti labore kaxkarrak [Anduaga, G;Auzta].

begi bazterraz behatu [Etchepare, J.B.;1960].

ipiskixa da labeko brasak bazterrera ekartzeko [Anduaga, G;Auzta].

1

bazter$_2$:

Abiakiaren mugetan luze, abiakiaz at dagoen superfizie estu luzanga da **bazter$_2$.** Eranskineko [(Dimentsio biko zerrenda) (Ez abiakian, muga ondokoa, mugan luze)] izenburupekoa da **bazter$_2$.**



Adibidez:
badoatzi Jordan ibai ttikiagoren bazterretik [Berho, B.;Otoizlari 111].
ibaiaren bi bazterron arteko lotura... zubia [Ariznabarreta, Abel;Biz. bizikletaz].
itsas bazterreko lurraldeari kosta edo itsasertza deritxo [Artaraz, J.;Kuxkux 3B].
zai geratu giñan orma bazter batean gordeta [Ugalde;Iltz].
arrokaren bazterra barrena erreka bat dijoa [Goñi, Fco.;1908].

2

bazter$_3$:

Abiakiaren mugetan luze, abiakian bertan dagoen superfizie estu luzanga da **bazter$_3$.** Eranskineko [(Zerbaiten erditik at dagoen lekuren bat)] izenburupeko adibideetakoa da bazter$_3$.



Adibidez:
othoitz liburua eskuan, gela baztarretik baztarrera dabilelarik [Oskillaso; Kurl].
denda batetik irtetzerakoan nagusiak bazter batera eramanda: Tori zure komisioa esan zion [Bozas-Urrutia, Rodolfo;Errenteria].
bazterretako euskalkietan [Alvarez Enparantza, J.L.].

3

ADIERA ANIZTASUNA

Hiru adiera.

Erdian ez dagoena bazterrean dago, baina ez dakigu abiakian dagoenentz. Ibai bazterrean arrainak ala belarra? Arrainak badaude, jakintza estralinguistikoz dakigu kasu horretan bazterra abiakian dagoena. Soro bazterrean (nahita) ereiten al da? Kamino bazterra, kamino da ala ez da? Asfaltatzen al da? Gela bazterra gelan ei dago.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

Bazterrek ez du sinonimorik LE dela, ertz, hegi eta hegal izatez hirudimentsionalak baitira **bazter** bidimentsionala den artean; baina sarritan $ertz_2$, $hegi_2$ eta $hegal_2$ bidimentsionalak bezala ulertzen dira, eta horiek ba dira **bazter**ren adierakide.

$bazter_1$, $ertz_2$, $hegi_2$, $hegal_2$

Kamino bazterrean, ertzean, hegian, hegalean. Bazterra eta, kaminoan bertan daudela ulertzen da.

$bazter_2$, $ertz_7$, $hegal_4$, $hegi_6$

Kamino bazterrean, ertzean, hegian, hegalean. Bazterra eta, kaminoaren parte ez direla ulertzen da.

$bazter_3$, $ertz_2$, $hegi_2$, $hegal_2$

Gelan bazter batean, ertz batean, hegi batean, hegal batean.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

$bazter_1$, $barren_4$

Soro-bazterra behealdekoa bada, soro-barrena ere ba da, bazterra bidimentsionala eta barrena hirudimentsionala dela gogoan ez izanez gero.

Bazter, beste LE askoren eduki semantikoetan sartzen da, bere adierei leku ezkutuaren edo iritsiera zailekoaren konnotazioa gehitzen ez bazaie, askok gehitzen dien bezala. Bestela, ondo, aldamen, alde, albo, kanpo eta abarren eduki semantikoetan sartzen da. Adibidez, kamino-bazter, kamino-ondo, kamino-aldamen, kamino-albo, kamino-hegal eta abarrek esanahi berbera daukate gaur egun.

ANTONIMIA

bazter$_1$ > < erdi$_{4,5,6}$
bazter$_3$ > < erdi$_{4,5,6}$

IZEN SINTAGMA

bazter$_1$:

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa.

bazter$_2$:

Zeren-eredukoa.

bazter$_3$:

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

bitarte
erdi

Ikus **(C) taldean, edonorakoan,** norabide bateko erdik eta bitartek balio bera baitaukate beste norabideetan ere.

inguru$_2$

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du.

EDUKI SEMANTIKOA

Ingururen adiera orokorra **(C) taldean, norabide guztietan** atalekoa izan arren, adiera garrantzitsu enparaua **b$_3$** azpitalde honetakoak denez, atal honetan aztertzen da. Izan ere, abiakia halakoa eta **inguru** norabide horizontalean baino ez da ulertzen: esaterako, "etxe-inguru".

inguru$_2$:

Abiakiaren kanpo-superfizietik abiakiaz at dagoen hurbileko superfizie zilindrikorainoko espazioa da **inguru$_2$.** Hirudimentsionala denez, bidemintsionala edo **inguru$_2$**, ere ba da. Eranskineko [(Eraztun zirkular edo zilindrikoa, abiakia zentroan)] izenburupeko adibideetan erakusten da **inguru$_2$**ren erabilera. Batzutan hiztunak ez du eraztun osoa adierazi nahi, eraztunaren zati bat baizik.



2

Adibidez:

Eibar eta Elgoibar-tik bereala sartu ditezke Bizkai-ko Markina ingurura [Egia Rezola, Luis;Euskalerria I].

Zumardiko aldamen batean, bi umetxo ta neska-mutilak jolasean iturri baten inguruan [Oñatibia, Yon;Neke ta poz].



Dimentsio bikoa

2'

Lurrak eguzkiaren inguruan egiten duen bideari orbita esaten zaio [Ormaetxea, Mª Purificacion; Natur Zientziak].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat norabide honetan.

Inguru bira osoa zein biraren zati bat, esfera zein zilindro zein eraztun zirkular zein zirkunferentzia izan daitekeela eta, **inguru** hitzak ez du esanahi zehatzik. Horrek ez du LEZ dela esan nahi, era askotan erabiltzen dela baizik.

"Ingurutik begiratu" puntu bakar batetik ere izan daiteke.

"Zuhaitzaren inguruan ibili".

"Opilari ingurutik, inguru guztitik, inguru guztietatik eman beroa".

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

inguru$_2$, barano$_1$

Ikus **barano.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

inguru$_2$, albo$_5$, aldamen$_4$, alde$_4$, ondo$_1$

Ikus **albo$_5$.**

Inguru esan beharrean **at eta kanpo** ere esaten dira.

ANTONIMIA

inguru$_2$ > < urrun

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa

ondo

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **ondo** beraren eitea nolabait begitantzea ere ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela, adiera bateko hitza izateko. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka.

EDUKI SEMANTIKOA

Esapide pare batean eta aditzak higidura adierazten duenean, "ondo = gibel" egin daitekeela dirudi, *ondoz ondo dabiltza, izarraren ondotik joan ziren,* baina "ondoan dago" ez da "gibelean dago". Adiera horrek lekugune erlatiboa baino denbora adierazten du hobe, eta ez da hemen aintzat hartuko.

Ondok badauka beste esanahi bat "bazter, paraje, inguru" edo antzerakoren bat dena, *Bordeleko ondoan* eta horrelako izen-sintagmetan agertu dena corpusetan zortzi-hamar aldiz. Lhandek *parage, côté* dela dioena, baina beste hiztegietan agertzen ez dena. Adiera hori ere ez da aintzat hartuko.

Hortaz **ondo**ren adiera bakarra hau da:

ondo$_1$:

Abiakiaren kanpo-superfizietik abiakiaz at dagoen hurbileko superfizie zilindrikorainoko espazioa da **ondo$_1$.** Hirudimentsionala denez, bidimentsionala ere bada. Eranskineko [Abiakitik hurreko espazioa] izenburupeko adibibideetakoa da **ondo$_1$.** Adiera hau Lekugune Erlatibo Zatikoa (LEZ) da.



Ondo ez da espazio osoa.
Gune bat bakoitzean.

1

Adibidez:

bere ondoan lana egin [Azpeitia, Julene; EganXXIX].

morroi bat etorri zitzaion ondora, eskuan eskutitz bat zekarrela [Ibargutxi, Felix;Ivanhoe].

berebil apurtuaren ondoan poxpororik ez erabili [Baraiazarra, Luis;Salbabide]

meta-ondo batean etzan [Lardizabal;1855].

lenengoz automobil bat igaro yakonian ondo- ondotik adarroska, autsa eta atsa dariola [Kirikiño;AB I].

Uarkan, Gernika-ondoan, Arratzuko bidean [?Gandiaga;Elorri].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

ondo$_1$, albo$_5$, aldamen$_4$, alde$_4$

Ikus **albo$_5$.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

ondo$_1$, inguru$_2$, barano$_1$

Ondo, zirkuluan espazio txikiagoa da, lekugune erlatibo zatikoa (LEZ) da, baina sarritan "ondoan" esaten da "inguruan, baranoan" adierazteko, eta alderantziz.

Ostean ere ondoan izaten da sarritan, baina ezin dira biak nahastu.

ANTONIMIA

ondo$_1$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$
ondo$_1$ > < urrun

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

oste

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **oste** beraren eitea begitantzea, alde batekoa behintzat, ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Lhanderen hiztegian ez dator, euskalki kontuak direla eta. Corpusetan esaldi kopuru ertain-haundia du.

EDUKI SEMANTIKOA

Guztiz bat Azkuerekin "**oste**ri alde ezkutuaren ideia erantsi behar zaiola" esaten duenean. **Oste** eta **atze** ez dira sinonimoak. **Oste** erabiltzen den herrietan, behorraren atzea behorraren buztanaldea da; eta moxalaren burua behorraren ostean egongo bada, behorraren gorputzeko edozein aldek ezkutatu behar digu, bestela ez dago ostean. Baten batek "moxala nire ostean dator" badio, "moxala, entzuleari hiztunak ezkutatzen dion lekuan datorrela" dio. Halere, badago

"etxoste" eta besteren bat "ia etxe-atze" bihurtu direnak, ulerterraza denez, etxea higiezina izan eta etxekoen bizitza ia osoa etxe-aurrean egiten da eta.

Egia da, **oste (b_3) azpitalde** honetan, **horizontalean edonorakoan** sartu behar dela, corpusetan ez baita beste norabideetako osterik aurkitu. Horrela "harri-ostean" beti ulertzen da "harria baino horizontalean harantzagoko espazioan", bestela "harri-azpian" edo beste zeozer izango litzateke eta. Dena den, "hegazkina hodei-ostean sartu" zilegitzat hartu behar da, behetik begiratuta hori ia bertikalean bada ere.

Horrela ba, **oste**ren adiera bakarra hau da:

$oste_1$:

Ikusmena duenari abiakiak edozein norabide (horizontal)etan ezkutatzen dion abiakiaz kanpoko espazioa da **$oste_1$.** Eranskineko [(Abiaki kanpoan) (Ezkutatuta hiztunarengandik)] izenburupeko adibideetakoa da **$oste_1$.**



Adibidez:

gizon txiki bat sartzen da ta kortina ostean gelditu [Etxebarria Aiesta, Ramon;Pausoka 4-5].

bere edertasunak begixakitxutzen zetsazela aren ostiango izakera badaezbadakua ez ikusteko [Etxebarria, Toribio;Ibiltarixanak].

Allandek meta oste batean ezkutatzeko astia izan zun [Ibon Sarasolaren hiztegian].

orma-ostean ezkutatu zen [Zaitegi;Plat].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

Ez du sinonimorik.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

oste$_1$, atze$_3$

Etxe ostea eta etxe atzea sarritan izaten dira leku bera, batez ere bizitza etxe aurrean egiten duten bertakoentzat.

ANTONIMIA

Ez dauka antonimorik.

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

3.4.5(C) taldean, edonorakoan:

alde, alderdi, arte, at, barne, barren, barru, barrunbe, bitarte, erdi, ertz, gain, gaindi, handi, haraindi, hegal, hegi, hemendi, honaindi, hondo, horraindi, horti, inguru, iraitz, kanpo, landa, lekore, mangune, sakon, urruti.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

alde$_{6-7-8}$

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Hemen aztertuko diren **alde**ren hiru adierak nontasunik gabeak eta definitu gabeak dira abiakirik ez badago, baina behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio diren adierazten dute, eta **alde**ren eitea nolabait begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da, Aribideko 1.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da alde$_6$. Oraindik oraingo hiztegietan (matematika-hiztegian ere) agertzen da alde$_8$. Zalantzazkoago da alde$_7$, erabiltzen den gehienetan "alde guzti(etan)" esapidean ezkutatzen baita.

EDUKI SEMANTIKOA

Lekugune erlatibo legez eta norabide guztietan, hauexek dira **alde**ren hiru adierak:

alde$_6$(orokorra):

Irudimeneko plano edo zuin batek espazioa zatibitzen duenean, zati bietarik bat da **alde$_6$.** Hortaz, espazioak mugarik ez badauka, **alde$_6$** espazioaren erdi birik bat da. Espazioa 2Dkoa bada, **alde$_6$** superfiziea da. Espazioa lerroa bada, **alde$_6$** lerroa da.

Adibidez, "ezkerraldea" zuin batean hasi eta kilometro askotako espazioa da ezkerrerantz, **alde$_6$** bada; eta beti ezkerrean, kilometro askotakoa da gorantz, beherantz, atzerantz eta aurrerantz. "Goialdea", llargirainokoa da **alde$_6$** bada, eta beti goian, urrunerainokoa albo bietarantz, atze eta aurrerantz. Atze eta aurre eta beste zenbait izendun **alde**, izatez **alde$_6$** dira LE direnean.

Eranskineko [(Zuinaz at)] izenburupeko adibideetakoa da **alde$_6$**. Eta zuin bateko alde bata eta bestea adierazten denekoa, hala nola: "etxearen, bidearen, marraren alde bata eta bestea".



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) barne dira.
Zuina edozein norabidetan jar daiteke

Adibidez:

...bultzada indartsuz ormagainetik andiko aldera bota zun ollo-luma bezelaxe [Agirre, Tomas; Uztaro]

Haritz asko daude nire sudurraren bi aldeetan, baina inoiz ez dut pentsatu ni basoaren zentroa izan nintekeenik...[Solbes, Miripi; Haize]

...sartu ziren artasoroan beste aldeko ertzetik... [Sarriegi, Andoni;Belarzelaiko]

6

alde$_7$:

Abiakiaren kanpo-superfizie edo aurpegi bakoitza da **alde$_7$.** Matematikan poliedroen superfizie hauei (guztiz lauak dira matematikan) aurpegi deitzen zaie. Corpusetan horizontalari perpendikular zaizkion aldeak agertzen dira, baina ez alde horizontalak, ezta lapranak ere horrelako corpusetan espero zitekeenez. Angelu diedroa eratzen duten erdiplanoei ere **alde** deitu beharko zaie, eta

horrelako aldea bata bertikala denean, bestea horizontala edo laprana da. Hortaz, "anbulantziari goiko alde$_7$an ere pinta dakioke gurutze gorria", "eraikinaren oketsa bakoitza alde$_7$ bat da", "dadoak alde$_7$ seietan du ikurren bat". Eranskineko datu-txosteneko [(Abiakian bertako espazioa) (Inguru osoan)] izenburupeko esaldietakoa da alde$_7$.



sei alde

7

Adibidez:

Baina Askaoko komentu hura arrakalatzen eta pitzatzen ari zen alde guztietatik eta pitzatu haiek... [ZABALA;Jaunaren Deia 98-99].

Alde guztietatik gorritzen danean saparranagaz gaiñetik autseztu,... [MAITE;Karmel 122].

Ospitaleko oto handi bat sartu zen, kurutze gorriak lau aldetan [Etchepare, Jean;Mendekoste].

alde$_8$:

Poligonoa ixten duten zuzenki bakoitza da **alde$_8$.** Eranskineko datu-txosteneko [(Erdaraz horrela dela eta, lerro bihurtu den aldea, matematikan batez ere) (Superfiziea mehetuz lerro bihurtu dena)] izenburupeko esaldietakoa da alde$_7$.



poligonoen aldea

8

Adibidez:

Errektangelu baliokidearen alde txikia,...[Antiguedad, Iñaki;Arratia].

- *Karratuaren aldeak 50 cm ditu* [Elhuyar;Fisika].

Laukiaren konerra ta alde bat eztira neurkide [Zaitegi;Plat].

...egongela bat aldeko 12 zentimetro dituzten baldosaz estali nahi da,...[Zabaleta, Mikel;Matematika]

Aldeko 80 zm. dituen metalezko kubo bat...[Zabaleta, Mikel;Matematika]

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Hiru adiera (C)norabide guztietan.

Etxearen alde guztietara (hedatzea), alde$_1$, alde$_2$, alde$_3$, alde$_6$, alde$_7$, edo agian alde$_8$etara (hedatzea) izan daiteke.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

alde$_7$, kanpo$_2$, gain$_3$, iraitz$_1$

Gizona kanpo eder, sagarra gain gorri, alde guztiak gorri. Eta gainera iraitz, superfizie, kanpoaldea bada.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

alde$_6$, albo$_1$, alderdi$_1$, atze$_1$ eta espazio osoa zati bitan zatitzen duten adiera guztiak.

Albo, aurre, goi eta abar aldeak dira izatez. Alde honetan, hau da, behean. Alde horretan, hau da, goian.

alde$_7$,gain$_2$, atze$_4$, gibel$_4$, aitzin$_2$, aurre$_4$, albo$_3$

Poliedroaren aldeei, badago aurpegi deitzeko joera gaur egun, baina aldeak dira, nahiz eta zenbaitek beste izen bat ere eduki. Etxe aitzin zuria, alde hori zuri daukana da.

ANTONIMIA

alde$_6$ > < [O.] bata bestearena

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

alderdi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Hemen aztertuko diren **alderdi**ren adiera bi nontasunik gabeak eta definitu gabeak dira abiakirik ez badago, baina behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zeintzuk espazio diren adierazten dute, eta **alderdi**ren eitea, alde batekoa behintzat, begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da, Aribideko 1.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan esaldi kopuru ertain-haundia du. Aztertuko diren adiera biek erabilpen urriagoa dute.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

EDUKI SEMANTIKOA

Lekugune erlatibo gisa, **alderdi**ren adiera biak hauek dira:

alderdi$_1$:

Zuinak espazioa edo abiaki mugatua zatibitzen duenean, zati bi horietarik bat(erdia beharbada) da alderdi$_1$. Zatitutako espazioa edo abiakia 3Dkoa denean, zuina planoa da, dimentsio bikoa denean lerroa, eta dimentsio batekoa denean, puntua. Eranskineko [(Ahaleko espazioaren erdia) (Hiru edo bi dimentsiokoa)(Dimentsio batekoa)] izenburupeko adibideetakoa da **alderdi$_1$.**



Dimentsio bat eta biko espazioak (lerro eta planoak) barne dira. Zuina edozein norabidetan jar daiteke.

1

Adibidez:

Sarrera arkuz zabaltzen dana bi alderdietara ta errenkan irudiditu [LATXAGA;Naparroa].

Mendiz bi alderdietako buruzagiak mintzatu dira [ERREFERA;Herria 1004].

ez bakarrik aintzina, bainan gibela, ez bakarrik alderdia bainan infrentzua [Salaberry, Etienne;Gure Herria XLVI].

Ezkerreko leihoa apala zen erdian harri bat emana bi alderdien behexteko [Salaberry, Etienne;Gure Herria XLVI].

alderdi$_2$:

Barnean hartzen duen abiakiaren altuerako espazio zilindrikoa da **alderdi$_2$.** Eranskineko [(Espazio edo lurralde zehaztua eta bere ingurua)izenburupeko adibideak dira alderdi$_2$. Adiera hau gutxitan erabiltzen da. Abiakia barruan daukan herrialde edo eskualdea da.



Adibidez:

Bilbo aldekoak, Bermeo ingurukoak, Gernika eta Durango alderdietakoak [Garmendia, Demetrio;Arantzazu].

2

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bi.

"Gernika alderdia" espazio osoaren erdia izan daiteke, Gernika ere bertan dagoena, ala Gernika gehi beraren ingurua.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

alderdi$_2$, alde$_5$

Ikus **alde$_5$.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

alderdi$_1$. Ikus **alde$_6$.**

ANTONIMIA

alderdi$_1$ > < [O.] bata bestearena

IZEN SINTAGMA

alderdi$_1$:

Zeren-eredukoa.

-z alderdi. (*Mendiz bi alderdietan* onartzen bada)

alderdi$_2$:

Hitz-elkartea.

arte

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Arte nontasunik gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakiak emanez gero, abiakiekiko zein espazio den adierazten du, eta **arte**ren eitea ere nolabait begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, **arte** LE da, Aribideko 1.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztiek dakarte LE bezala. Corpusetan aipamen kopuru haundia dago. Hemen, "bien arte" eta "bitarte" sinonimotzat hartu dira.

EDUKI SEMANTIKOA

Hauek dira **arte**ren bost adierak:

arte$_1$(orokorra):

Abiakiek beraiek mugatutako espazio hirudimentsionalean abiaki bat baino gehiago elkar-hurbil daudela, espazio horretan abiakiok betetzen ez duten espazio hirudimentsionala da **arte$_1$.** Eranskineko [(Abiakietarik abiakietarainoko espazioa) (Abiaki bi baino gehiago) (Hiru dimentsioko espazioan)] izenburupeko adibideetakoa da **arte$_1$.**



Adibidez:

Ez bildur izan arkaitz-arteko basapiztien erpea [Mitxelena, S.;Aranz].

Ai ene Migel Permin! Sasi artean zer aurkitu ebala uste dozue, irakurleok? [Bilbao;IpuiB]

...arropa gabe, eta elur artean oñ uts gorrietan [Zabala, A.M.;Gabon].

1

arte$_2$:

Abiakiek beraiek mugatutako espazio bidimentsionalean abiaki bat baino gehiago elkar-hurbil daudela, espazio horretan abiakiok betetzen ez duten espazio bidimentsionala da **arte$_2$.** Eranskineko [(Abiakietarik abiakietarainoko espazioa) (Abiaki bi baino gehiago) (Dimentsio biko espazioan)] izenburupeko adibideetakoa da **arte$_2$.**



2

Adibidez:

Aize-oial puztuaren indarrak ugin-artean ontzia labainka zeramakin [Agirre, Tomas;Uztaro].

Karitatea da otsoari oiu egitea ardien artean sartu denean [Pouvreau;Phil].

"Zuria beltzune artean"

arte$_3$:

Abiaki batetik bigarren bateraino dagoen espazio hirudimentsionala da **arte$_3$.** Eranskineko [(Abiaki bi) (Hiru dimentsioko espazioan)] izenburupeko adibideetakoa da **arte$_3$.**



3

Adibidez:

Orkoro bietako atzazal-artean puskatuten da ardia memento batean [Azkue, E.M^a;PB].

Burua bere bi ahurren artean zagolarik,...[Barbier;Sup]

Gu emen atx-arteetan bizi gara ondo [Arrese Beitia;AmaE].

arte$_4$:

Abiaki bik mugatutako espazio bidimentsionalean abiakiok betetzen ez duten espazioa da **arte$_4$.** Eranskineko [(Abiaki bi) (Dimentsio biko espazioan)] izenburupeko adibideetakoa da **arte$_4$.**



4

Adibidez:

Aitz-arteetan oroldio igar biguña bildu [Zabala, A,M,;Gabon].

Solo arteko mota igaroten dagozela,...[Zubiaga, Felix;Pinto]

Lekeitiotik Ondarroara etorran bide nagusiaren egalean asi eta portura doan errekatxoari jarraituz, Barrenetxeako gaztañadiak arte, eta goragotik, Kapitelegi izendun tokitik Oruetatik Beleukira doan bidearen inguruko mugarrirarte, eta andik Aulikizko mendia jo artekoaren barruan gelditzen zana [Zubikarai, Agustin;Boga ta Zixe].

arte$_5$:

Puntu biren arteko dimentsio bateko espazioa da **arte$_5$.** Eranskineko [(Abiaki bi) (Dimentsio bateko espazioan)] izenburupeko adibideetakoa da **arte$_5$.**



5

Adibidez:

Onera arteko besolaguntzat bidera irtena zaitugu [Mitxelena, S.;Arantz].

Erri ontara arte goi xamarretik etortzen zan [Alkain, Iñaki;Gerrateko].

"Debatik Bergara arte dago bidea txarto"

"Deba arte heldu gara"

ADIERA ANIZTASUNA

Bost adiera. Sarritan ez dago arte bat, bi ala hiru Dkoa den jakiterik; "etxe artea" metro bateko, lau metro karratuko ala hamasei metro kubikokoa den. Ezta ez dago jakiterik "etxe artea" etxe biren artekoa den, hau da, arte$_3$, arte$_4$, edo arte$_5$ den ala hiri osoko kalexkak-eta den, hau da, arte$_1$ edo arte$_2$ den. Nahaste horretan guztiz sar ez daitezen, zenbait idazlek "etxe arteetan" idazten dute arte$_1$ dela argi uzteko.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

arte$_3$, bitarte$_1$, erdi$_8$

Etxe(en) artean, etxe(en) bitartean, etxe (bi)en erdian. Etxe arteetan, etxe bitarteetan.

arte$_4$, bitarte$_2$, erdi$_7$

Soro ((bi)ez) artean, soro bitartean, soro (bi)ez erdian. Soro arteetan, soro bitarteetan.

arte$_5$, bitarte$_3$, erdi$_3$

Hemendik hara artean, hemendik hara bitartean.

Pilare ((bi)en) artean, bitartean, erdian habea jarri.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Ez dago beste LEak direla-eta muga arazorik, goiko sinonimia aski arazo da eta.

ANTONIMIA

arte > < handi, horti, hemendi, haraindi, horraindi, honaindi.

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa. Gainera, bizidunek ere izen-elkarte zuzena, -en atzizkirik gabekoa onartzen dute. Adibidez: gizon artean, txakur artean.

at

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Izen-kategoria eman behar zaio **at** edo **ate** honi ere, **at** edo **ate** deitzen den espazio honi ere. Adizlagun edo adberbio ere bada, lekugune erlatiboen

izenei, lekugune erlatiboa adierazteko daudelako, norbaitek adizlagun edo adberbio deitzen badie.

At nontasunik gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **at**en eitea ere nolabait begitantzea ahalezkoa egiten da, alde batean behintzat. Hortaz, **at** LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztiek dakarte, Lhanderenak izan ezik. **Ate** aldakia antzinako erabilera dela diote hiztegi modernoek. Sarraila duen **ate**rekiko polisemiak eragozten dio maiztasun haundiagoko erabilpena.

EDUKI SEMANTIKOA

Hau da **at**en adiera bakarra:

at_1:

Abiakia izan ezik, espazio osoa da **at_1.** Norabide guztietan, abiakitik irteten deneko puntuan hasten da **at** edo **ate.** Eranskineko [(Kanpoan eta bereizia)] izenburupeko adibideetakoa da **at_1.**



1

Adibidez:

uritik at daukaten San Antonio etxean [Onaindia, Santi;Euskal literatura IV].

ikasgelatik at inolako euskara-girorik ez dagoenez [ASKOREN ARTEAN;Jakin 19-20].

lerro zuzen batetik at dagoen puntu batetik [UZEI;Filosofia].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

at$_1$, kanpo$_1$, landa$_1$, lekore$_1$

Lerro zuzenetik at, kanpo, landa, lekore.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

at$_1$, inguru$_1$, ondo$_1$, alde$_4$ eta kanpoko alde bat baino gehiagoko LEak.

Etxetik at, etxearen inguruan, etxondoan. Gauza bera uler daiteke.

ANTONIMIA

at$_1$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

-tik at. (? -z at)

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

barne

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Barne nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, baina behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **barne** beraren eitea begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan esaldi kopuru ertain-haundia du.

EDUKI SEMANTIKOA

Hauek dira **barne**ren lau adierak:

barne$_1$(orokorra):

Abiakiak inguratzen duen espazioa da **barne$_1$.** Abiakian bertan egon daiteke **barne,** ala **barne** beste ekai batez beteta badago, **barne** espazio bereizitzat har daiteke. Hemengoa definizio hertsia da, baina botila zabalik egon arren, "botila barnea" esaten da, eta nitxoak definizioz alde bat zabalik eduki arren, "nitxo barnea" esaten da. Eranskineko [(Abiakiaz inguratua)] izenburupeko adibideetakoa da **barne$_1$.**



1

Adibidez:

Ezur luze batzuen barnean una edo muina dago [Goikoetxea, Iñaki;Giza soiña].

Barneko motxaren gaiñetik elastiko urdin-iluna [Bergaretxe, Jose;Izakera eta Jazkera I].

Bentrikulo barneko lorretan edo konduzioan [Arrue, R.].

Termo barnean datorren kafesneari ekin diogu [Etxezarreta, Mirentxu;Trenean].

barne$_2$:

Alde guztietatik lerroek mugatzen duten espazio bidimentsionala da **barne$_2$. Barne$_1$**eko abiaki bidimentsionala deneko kasu berezia dirudi **barne$_2$**ek. Eranskineko [(Bi dimentsioko barnea)] izenburupeko adibideetakoa da **barne$_2$.**



Adibidez:

Nahi duzun kolorez, marra gorrien barneak koloratu [Etxeberria, Feli;Matematika].

Egin marra bat zirkuluaren barnean [Etxebarria Legina, Edurne; Baietz 3].

Marokko zen Afrika barneak mediterraneoaldeari eskaini ohi zion merkatalgoaren interleku [UZEI;Gizadiaren Historia].

2

barne$_3$:

Barne$_1$erik **barne$_1$**ena da **barne$_3$.** Kanpotik begiratuta, barruen(edo urrunen) dagoen espazioa da **barne$_3$.**Hortaz, **barneen** edo **barneago**ren esanahikidea da **barne$_3$. Barren$_3$**ren eta **barruen**en esanahikidea ere bai. Eranskineko [(Barrurago edo barruen)] izenburupeko adibide bakarrekoa da **barne$_3$.**



Adibidez:

Han, ezkaratz-barneko athe hartan [Etxepare, J.;Ber].

Senpere eta Sarakotik. Badu Lapurdi barnekotik. Orobat Baxenafarrekotik. [Zerbitzari;Azk.]

Irla barneko eskila-dorre xumea. [Dassança,M.;INav]

3

barne$_4$:

Dimentsio bateko irudimeneko espazioa

da **barne$_4$.** Zabalkuntza semantikoz, bigarren dimentsio estua dauka **barne$_4$**k. Izatez **barne$_4$ barne$_2$**ren, eta hortaz **barne$_1$**en, adiera berezia da. Eranskineko [(Dimentsio bateko barnea)] izenburupeko adibide bakarrekoa da **barne$_4$.**

④

Adibidez:

puntu guztiak zuzen baten barnean daudela suposatzeak [Martinez Lizarduikoa, Alfonso;Estatistika].

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera.

"Etxe barneko atea". Etxe barruan dagoen edozein ate, ala etxean barruengo gelako atea? Barne$_1$, ala barne$_3$, hurrenez hurren.

"Taula barnekoa". Barruko zura edo lekeda, ala gaineko irudia? Barne$_1$, ala barne $_2$.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

Etxe barnea, barrena, barrua, barrunbea = etxearen kanpoko ormek mugatzen duten espazio osoa.

barne$_2$, barren$_5$, barru$_3$, barrunbe$_2$

Soroaren lau motak (murkok, ezpondak) mugatzen duten barnea, barrena, barrua, barrunbea.

(barne$_4$)

Corpusetan aurkitu ez arren, marra barnean = marra barruan.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

barne$_3$, barren$_{1, 3}$, sakon$_2$, hondo$_3$

Gelan barnean, barrenean, sakonean, hondoan. Eta beharbada gelan barruan, edo barru-barruan. **Barren** norabide guztietan zein goitik beheranzkoan baino ez, besteak norabide guztietan, eta nahastea dago.

ANTONIMIA

barne$_1$ > < albo$_5$, alde$_4$, kanpo, landa, lekore, at, inguru, iraitz.

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa.

barren

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(A) taldea, goitik beherakoa aztertzean, **barren$_2$** aztertu zen eta **barren$_6$** kentzea erabaki zen. Horrela ba, **barren**en adiera enparauak aztertzea geratzen da, eta **barren$_2$** bezala, adiera enparauok ere nontasunik gabeak eta definitu gabeak dira abiakirik ez badute, baina behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zeintzuk espazio diren adierazten dute, eta **barren** beraren eitea ere begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE dira.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, adiera guztiak hiztegi guztietan agertu ez arren. Corpusetan **barren$_1$** agertzen da ugarien. Orohar, **barren**ek adibide zerrenda luzeak ditu corpusetan.

EDUKI SEMANTIKOA

Hauek dira tesilan honetan falta diren **barren**en adierak:

barren$_1$:

Abiakiak inguratzen duen espazioa da **barren$_1$.** Abiakian bertan egon daiteke **barren,** ala **barren** beste ekai batez beteta badago, **barren** espazio berezitzat har daiteke. Eranskineko [(Abiakiaren mugen arteko espazioa)(Hiru dimentsiokoa)] izenburupeko adibideetakoa da **barren$_1$.**



Adibidez:

eta emazteak atea idiki, eta kanpora irten zan orduko, sartu zan barrena. "Orain zu kanpoan eta ni barrenen."[Zavala, Antonio]

Elektroiek materiale eroalearen barrendik higitzeko ahalmena dute [Bandres, Luis Mari;Elektromagnetika].

Barrengo pozoyak sendagayez korputzetik botatzen dituzu [V.M.A.I.;Kontu alai].

1

barren$_5$:

Alde guztietatik lerroek mugatzen duten espazio bidimentsionala da **barren$_5$. Barren$_1$**eko abiakia bidimentsionala deneko kasu berezia dirudi **barren$_5$**ek. Eranskineko [(Abiakiaren mugen arteko espazioa) (Dimentsio bikoa)] izenburupeko adibideetakoa da **barren$_5$.**



Adibidez:

Esolesi barrenera dirua lan ortarako botatzen asi ziran [Goñi, Fco.].

Eta ala igesegin esi aren berrenetik [Orixe;Scruz].

Ugarteak edo lur barrengo erresumak ematen ez badituzte beientzat....[Berrondo;Kijote]

5

lau marren barrenekoa

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bi norabide honetan.

"Taula barrenekoa". Barruko zura ala gaineko irudia. Ala lapran badago, ertz batekoa. Barren$_1$, barren$_5$ ala barren$_4$.

Ikus **barren** (A) taldean.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

barren$_1$, barne$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

Ikus **barne.**

barren$_5$, barne$_2$, barru$_3$, barrunbe$_2$

Ikus **barne.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Adiera bi hauek sinonimoak badira izan, baina beste adieren edukietan erdizka sartu, ez dira sartzen.

ANTONIMIA

barren$_1$ > < albo$_5$, alde$_4$, kanpo, landa, lekore, at, inguru, iraitz.
barren$_2$ > < goi$_3$
barren$_3$ > < goi$_3$, gain$_4$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa.

barru

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Barru nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, baina behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **barru** beraren eitea ere begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan esaldi kopuru haundia du.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

EDUKI SEMANTIKOA

Hauek dira **barru**ren lau adierak:

barru$_1$(orokorra):

Abiakiak inguratzen duen espazioa da **barru$_1$.** Abiakian bertan egon daiteke **barru** (harri barru)**,** ala **barru** beste ekai batez beteta badago (eliza barru), **barru** espazio bereizitzat har daiteke. Hemengoa definizio hertsia da, baina botila zabalik egon arren, "botila barrua" esaten da, eta nitxoak definizioz alde bat zabalik eduki arren, "nitxo barrua" esaten da. Eranskineko [(Abiakiaz inguratua)] izenburupeko adibideetakoa da **barru$_1$** (Ikus baitere Aribideko 1.12 azpiatala).



Adibidez:
buruaren barrua utsa geratzen da eta gero usteldu [Agirre, Joxe;Baratza 6].
Tolosa'ko udaletxeak bere barruan eskeñi dio omena [Garmendia, Txomin;Bertsolari-kurpilla].
Itxasoak biurtu zituen bere barruan zeuzkan illak [EUSK. LITUR. BATZORDEA; Elizkizun liburua].

1

barru$_2$:

Abiaki kofadunetan, abiakiaren barrualdeko superfiziea da **barru$_2$.** Bestela esanda, **barru$_1$** hirudimentsionala **barru$_2$** bidimentsional bihurtzen dugu sarritan, "hesibarru" bi ala hirudimentsional den ez dakigula. "Lapiko barrua ere garbitu", "kendu lapiko barruko arrukea", "esku barrua lohituta" esaldietakoa da **barru$_2$.** Eranskineko [(Alde ahurreko azala)] izenburupeko adiera bakarra da **barru$_2$.**



Adibidez:
hodi barrua leuna bada, zimurtsua izanda baino erraztasun gehiago izango du igarotzeko [Angulo, J.M.; Funtsezko Elektonika].

2

barru$_3$:

Alde guztietatik lerroek mugatzen duten espazio bidimentsionala da **barru$_3$. Barru$_1$**eko abiakia bidimentsionala deneko kasu berezia dirudi **barru$_3$**ek. Eranskineko [(Bi dimentsioko barrua) izenburupeko adibideetakoa da **barru$_3$.**



lau marraren barrukoa

③

Adibidez:

Muga-barru orreitan dagoan lurralde guztie [Akesolo;Ipin].

Lurbarru bat dauko ixentaurik eta lur-barru orretan bixi direanak...[Akesolo;Ipin].

Artzak bein aurkitu ebeen mendian barruan arditxu galdu bat deslai ebilena...[Zavala;Fab]

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

barru$_4$:

Abiakia, aipatzen den luzerako esfera da, edo zilindroa, edo zirkulua, eta **barru$_4$** esfera edo zilindro edo zirkulu horrek betetzen duen espazioa da. Eranskineko [(Range, gehien jotako distantzia)] izenburupeko adibideetakoa da **barru$_4$.**



honenbeste metro barrukoa

④

Adibidez:

zintzoak izanik, sei legoa barruan gurasoakanik [Azkue, E.Mª;PB].

zirrikitu horretatik, zazpi metroren barruan nago eta hortik hiru jauzitan gainean naukate [Amuriza, Xabier;Oromenderrieta].

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera. Esaten dela jakin arren, "lerroaren barruko puntua" esapideko **barru,** dimentsio batekoa, ez da gehitu, dimentsio bateko **barne** gehitu arren, ez baita horrelako **barru**rik agertu corpusetan edo hiztegietan.

"Hodi barrua". Barru$_1$ ala barru$_2$. Eta barru$_3$ hodiek poligono itxia osotzen badute.

"Esku barru". Eskuz heltzeko eran, esku ahurrean, eskuko mamian. Barru$_4$, barru$_2$, barru$_1$, hurrenez hurren.

"Harri barru". Barru$_1$ eta barru$_4$.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

barru$_1$, barne$_1$, barren$_1$, barrunbe$_1$

Ikus **barne.**

barru$_3$, barne$_2$, barren$_5$, barrunbe$_2$

Ikus **barne.**

(barru$_4$)

Corpusetan aurkitu ez arren, marra barnean = marra barruan.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

barru-barru , barne$_3$, barren$_{1,3}$, sakon$_2$, hondo$_3$

Ikus **barne.**

ANTONIMIA

barru$_1$ > < albo$_5$, alde$_4$, kanpo, landa, lekore, at, inguru, iraitz.

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa. (barru$_4$ izan ezik)

barrunbe

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Barrunbe nontasunik gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **barrunbe**ren eitea ere nolabait begitantzea ahalezkoa da. Hortaz, **barrunbe** LE da.

ERABILPEN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, Lhandenean izan ezik. Corpusetan adibide kopuru ertain-txikia du. Hemen beheko bigarren adierak erabilpen urria du.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

EDUKI SEMANTIKOA

Lekugune erlatibo legez, adiera bi hauek ditu:

barrunbe$_1$:

Abiakiak inguratzen duen espazioa da **barrunbe$_1$.** Abiakia eta barrunbe, bata ekai moeta batez eta bestea beste ekai moeta batez beteak izaten dira gehienetan. Espazio kontuez at, "erraiak" konnotatzen du. Eranskineko [(Abiakiaz inguratua)(Barruko espazio hutsa, airez edo likidoz betea)] izenburupeko adibideetakoa da **barrunbe$_1$.**



1

Adibidez:

pertz aundi bat da biurgailua bera; burni-xaflazkoa: ta berrunbea arrillo zartakaitzez jantzia du [Dorronsoro, Likas;Industriaketa].

Barrunbeko apainkera lilluragarria benetan: askotako atxurdin margotsuz...[Egaña, Gotzon;Saski-naski 9]

Oin bestigialaren alde bietatik, husgune bat dago, barrunbe palealtzat jo daitekeena izan ere [Altonaga, Kepa:moluskuak].

barrunbe$_2$:

Alde guztietatik lerroek mugatzen duten espazio bidimentsionala da **barrunbe$_2$. Barrunbe$_1$**eko abiakia bidimentsionala deneko kasu berezia dirudi **barrunbe$_2$**ek. Eranskineko [(Dimentsio biko barrunbea)] izenburupeko adibideetakoa da **barrunbe$_2$.**



Adibidez:
Españi barrunbean jendea erruz bereaganatu du [Labayen, A.M.;Argia].
Barrunbea. Sin.; esparrua, espazio itxia eta muga jakinen barnean hartutakoa [UZEI;Eraikuntza hiztegia].

lau marraren barrunbekoa

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bi.
"Hodi barrunbekoa". Baita barrunbe$_2$ ere, hodiok poligono itxia osotzen badute.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

barrunbe$_1$, barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$

Ikus **barne.**

barrunbe$_2$, barne$_2$, barren$_5$, barru$_3$

Ikus **barne.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Adiera bi hauek sinonimoak dira izan, baina beste adieren eremuetan erdizka sartu ez dira sartzen.

ANTONIMIA

barrunbe$_1$ > < albo$_5$, alde$_4$, kanpo, landa, lekore, at, inguru, iraitz.

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa.

bitarte

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **bitarte**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiek definitzen dute, abiakiekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiek eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztiek dakarte. Corpusetan aipamen kopuru ertaina dago, bai **bitarte** bezala edo bai gauza **biren arte** bezala.

EDUKI SEMANTIKOA

Irudiak hurrengo 2. orrialdean ikusteko, hauek dira **bitarte**ren lau adierak:

bitarte$_1$(orokorra):

Gauza bi hurbil egonik, bigarren gauzatik lehen gauzak hurbilen daukan superfizieak eta lehen gauzatik bigarren gauzak hurbilen daukan superfizieak , superfizie biek, mugatzen duten espazioa da **bitarte$_1$.** Beste dimentsio bietan

bitarte$_1$ek ez du gauza bi horietarik txikienak baino izari haundiagorik. Eranskineko [(Hiru dimentsiokoa)] izenburupeko adibideetakoa da **bitarte$_1$.**

Adibidez: *...eta Araunza eta Gainza tontor bitarteetatik jetxirik,...*[Arana, J.I.;Sign]

Emen zegoala aiz-bitarte bat iñor bizi ezin leikiana [Anduaga, G;Auzta].

Ortze ta itsaso bitarte beste sendi zital bat bixi da [Enabeita, K.].

bitarte$_2$:

Bitarte$_1$eko gauza biak dimentsio bikoak direneko superfiziea da **bitarte$_2$.** Eranskineko [(Dimentsio bikoa)] izenburupeko adibideetakoa da **bitarte$_2$.**

Adibidez: *Aiangiz eta Mendata'ren bitartean dagoan Marmiz auzo-unean be,...[Aurre-Apraiz, Balendin;Saski-naski 36]*

Ta pillare-bitarte guzietan sare ederrak zabalduta [Lardizabal].

M-street eta O-streeten bitartean [Azkue, R.M.;Ardi].

Jesako aintzira, Xabier eta Leire bitartean [Añon, I.;Saioka 6].

bitarte$_3$:

Bitarte$_1$eko gauza biak puntuak direneko zuzenkia da **bitarte$_3$.** Eranskineko [(Dimentsio batekoa)] izenburupeko adibideetakoa da **bitarte$_3$.**

Adibidez: *Debatik asi eta etxera bitarte, diruz desafiyoka asi zait fuerte* [Xenpelar].

...edo hartako espazioa, bitartea eta denbora iragan arteño...[Axular]

Olloaren kabira bitartean etziran egongo iru oinkada [Agirre, Tomas;Uztaro].

bitarte$_4$:

Bitarte$_1$eko gauza biak zentrokideak edo ardatzkideak direneko geruza esferikoa edo zilindrikoa da **bitarte$_4$.** Eranskineko [(Geruza eta geruzaren erdiko geruza)] izenburupeko adibideetakoa da **bitarte$_4$.**

Adibidez: *...eta berorren eta estalkiaren bitartean utsune bat egon oi da* [Barandiaran;ELG].

Edo "alkondara eta juboi bitartean, gonen bitartean, etabar."



BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera, adiera batera ekar badaitez+ke ere.

Tutu bitartean, bitarte$_{1\ eta\ 4}$ izan daitezke, bata bestearen ondoan ala ardazkide.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

bitarte$_1$, erdi$_8$, arte$_3$

Ikus **erdi** eta **arte.**

bitarte$_2$, erdi$_7$,arte$_4$

Ikus **erdi** eta **arte.**

bitarte$_3$, erdi$_3$, arte$_5$

Ikus **erdi** eta **arte.**

bitarte$_4$, erdi$_4$.

Ikus **erdi.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Ez dago beste LEak direla-eta muga arazorik, goiko sinonimia aski arazo da eta. Horrela bada ere, "harri-bitarteetan(plurala) = harri-artean" egiten da. Beste gauza bat da "bitarte = zirrikitu" egiten denean, hor LE ez baita.

ANTONIMIA

bitarte > < handi, horti, hemendi, haraindi, horraindi, honaindi.

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

erdi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **erdi**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak edo abiakiek definitzen dute, abiakiarekiko, edo abiakiekiko, zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiek eitea ere defini liezaiokete alderen batetik behintzat. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, deskripzio luzeak eta aipamen asko merezi dituela. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du. Neure esperientziaren arabera ere maiztasun haundiko erabilpena dauka, adiera batzuek erabilpen urriagoa baina.

EDUKI SEMANTIKOA

Adiera askok osotzen dute **erdi**ren eduki semantikoa. Adierak definitzeko corpusetako esaldiei atxikiz, hutsune nabarmen bat aurkitu da, erdia puntua deneko hutsunea, corpusetan ez baita agertzen. Beste hutsune arinagorik ere badago adierak hainbeste direnez. Iritzi onez delakoan, hutsune nabarmen hori bete egin da.

Lehenbizi **erdi**ren definizio orokorra: nolabaiteko simetria dagonean, edozein norabidetan, zentrotik alde bakoitzeko hurrengo LE bien arteraino dagoen espazioa da **erdi**. Espazio horretan, puntua, erdiko lerroak, azalerak eta lekuak daude. Erdi oso hitz erabilia da, baina hizkuntza arrunteko esaldietan bere adiera guztiak bereiztea ezinezkoa denez, adierei dagozkien adibideak ez dira erakutsiko. Eranskinean bina edo hiruna sailkatuta daude adierak (Ikus baitere Aribideko 1.9 azpiatala).

Beste adierek irudi bana dute hurrengo orrialdean eta hauek dira banan-banan definituak:

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

Dimentsio bateko abiakietan

erdi$_1$:

A eta B puntuak zuzenkiaren (edo lerrokiaren) hasiera eta amaiera puntuak badira, zuzenki horretan A zein Btik distantzia berberera dagoen **puntua** da **erdi$_1$.** Puntuak eta lerro zuzenak geometrian eta irudimenean baino ez daude, baina definizio hori berebizikoa denez, gauza luzanga asko lerro begitantzen dira, eta gunetxoak puntu, definizio horri egokitzeko. Beste hitz batzuez esateko, erdi$_1$ benetako munduan puntu potoloagoa izaten da noizik noiz, eta sarritan izaten da gaileta itxura eta tamainakoa.

erdi$_2$:

A eta B puntuak zuzenkiaren hasiera eta amaiera puntuak badira, zuzenki horretan A zein Btik distantzia berberera dagoen **zuzenki laburragoa** da **erdi$_2$.** Gauza bera lerroki kurbatua bada ere. Benetako munduan definizio horretako zuzenkia apur bat okertuta ager daiteke, eta ederto lodituta.

ERDI

Puntu bat



1

Luze bat

2

Tarte osoa

3



4



5

6

7



9



8



10



11

erdi$_3$:

A eta B puntuak zuzenkiaren hasiera eta amaiera puntuak badira, zuzenki oso hori da **erdi$_3$.** Definizio hori erdi$_1$etik erdi$_2$rakoari jarraituz egindako estrapolazioa baino ez da, eta erdi$_2$ari egindako iruzkina erdi$_3$ari ere egoki doakio.

Dimentsio biko abiakietan

erdi$_4$:

Poligono erregularretan, bina simetriko diren puntuetatik tarte berera dagoen puntua da **erdi$_4$.** Zehaztasun haundiko neurtze-tresneria eskuhar ez dagoenean, ia beti alegia, aipatutako puntua gune bihurtu ohi da , horrela ere **erdi$_4$** izateari eutsiaz.

Poligono irregularretan eta barruti enparauetan, goiko definizioari hurren ematen ahaleginduz lortzen den leku bidimentsionala da **erdi$_4$.**

Inoren intereseko bada, erdi$_4$ hau da **albertsio.**

erdi$_5$, erdi$_6$...:

Poligono erregularretan, edozein simetri ardatz edo edozein ardatz zabalagotu da **erdi$_5$, erdi$_6$...** Bi aski dira adibide gisa, eta bi baino ez dira irudikatu, laukizuzenarenak hain zuzen ere, baina hexagonoak horrelako sei erdi ditu, eta zirkuluak asko baino askoago.

Poligono irregularretan eta, **erdi$_5$ eta** hala-hola lortzeko, goiko definizioa betetzen ahaleginik onena egitea da nahikoa sarritan.

erdi$_7$:

Poligono bi edo lerro bi plano berean daudenean, poligonoon edo lerroon arteko espazio bidimentsionala da **erdi$_7$.**

Hiru dimentsioko abiakietan

erdi$_8$:

Hiru dimentsioko gauza biren arteko 3Dko espazioa da **erdi$_8$,** hala nola etxe edo adreilu biren arteko espazioa, etxe horiek eta adreilu horiek izari desberdineko izan arren. Espazio horren lodiera zero bihurtzen denean **erdi$_8$** plano, superfizie ala ukipen puntu bihurtzen da.

erdi$_9$:

Geruza kurbatu, tubular nahiz esferiko biren arteko geruza tubular ala esferikoa da **erdi$_9$.** Zero lodierako **erdi$_9$** arku-superfizie edo superfizie tubularra da.

erdi$_{10}$:

Gauza batek bina aurrez aurre dituen aurpegi guztietatik binaka distantzia berera dagoen puntua ala espazioa da **erdi$_{10}$**. Hiru simetri-ardatz dituen poliedroan, ardatz horien ebatune ala puntua da **erdi$_{10}$.** Aurpegia aurrez aurreko puntu bihurtzen da superfizie(gain) esferikoetan. Pilotaren zentroa eta potroa daude **erdi$_{10}$**ean.

erdi$_{11}$:

Gauza luzangetan, ardatza dena horrenbat eta ardatz horren inguru hurbileko espazioa da **erdi$_{11}$.** Enborren gunea eta hezurren huna daude **erdi$_{11}$**n.

ADIERA ANIZTASUNA

Erdiren adierak asko direla gogoan hartuz, eta lekugune erlatibo ez diren adierak ere asko dituela gogora ekarriz, **erdi** lekugune erlatiboaren adierak gehiegi dira . Eta hori konpontze gatxeko arazoa da.

Orrialdearen erdia esan eta erdi$_4$, erdi$_5$ eta erdi$_6$ ulertzen dira.

Bide erdia esan eta erdi$_1$, erdi$_4$ eta erdi$_6$ ulertzen dira.

Egiten dira arazo hori ebazteko saioak. Erdipuntu, erdigune, erdizerrenda eta horrelakoak esaten dira, adiera bakoitza adiera enparauetatik horrela bereizteko, eta bereizten dira hein batean, baina [erdi = semi]ren edukian sartzen da horrela, eta batzutan, ez beti, nahastea lekuz aldatu baino ez da egiten. Eta erdiko puntu, gune, zerrenda... bat baino gehiago izan daitezke erdian.

Badago beste saio bat ere arazo hori konpontzeko, orrialdeerdi(ahoskera berezi eta guzti) = "moitié, mitad, half" adierazteko eta "orrialdearen erdia" lekugune erlatiboa adierazteko, baina eragina duenean baino ez du eragina, gutxitan behinke.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

erdi$_3$, bitarte$_3$, arte$_5$

Txinatarrek ur-balde bi sorbaldan batera eraman ditzaten, balde (bi)en erdian, balde ((bi)en) artean, balde bitartean zurezko haga bat ipintzen dute.

erdi$_4$, bitarte$_4$

Geruza bien erdian, geruzen bitartean. "Brazo de gitano"ri bizkotxoaren erdian, bizkotxo bitartean marmelada ipini. Ardatza eta abatsaren erdian, bitartean galanda sartu.

erdi$_7$, bitarte$_2$, arte$_4$

Soro (bi)ez erdian, soro bitartean, soro ((bi)en) artean.

erdi$_8$, bitarte$_1$, arte$_3$

Harri (bi)en erdian, harri bitartean, harri ((bi)en) artean.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Erdi kontzeptua ondo definituta dago, geometriaren laguntzaz agian, erdi eta zentro gauza bera izan ez arren, ezta berdinak ere, baina non zentroa eta hurbil erdia. Horregatik edo, ez dago beste lekugune erlatiboak direla-eta muga-arazorik, hizkuntza maila batean behintzat, maila horretatik beherago, inoiz **erdi** eta **barru** (eta bere sinonimoak) nahastu diren arren. Horrela ere, **erdi** beraren adierak asko izanik, aldi bakoitzean zein **erdi** den asmatzea da arazoa, lehenago ere esan baitugu hitz baten adierek beraiek direla onenak mugakidetzako arazook sortzen.

ANTONIMIA

erdi > < handi, horti, hemendi, haraindi, horraindi, honaindi.
erdi$_4$ > < bazter$_1$, ertz$_2$, hegal$_2$, hegi$_2$

IZEN SINTAGMA

erdi$_{1, 2, 3, 7, 8, 9}$:

Zeren-eredukoa.

erdi$_{4, 5, 6, 10, 11}$:

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa.

ertz

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Ertz nontasunik gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **ertz**en eitea ere nolabait begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, **ertz** LE da, Aribideko 1.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu. Aurkitu da adibiderik **ertz** *punta* edo *mutur* denekoa, baina osterantzean **ertz**ek zerrenda-eitea izan behar du beti berez. Horrela bada ere, zerrenda zirkularra, zerrenda zuzena edo beste edozein moetakoa izan daiteke, eta definizioko eiterik eza betetzen duela erabaki da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztiek dakarte, Lhanderenak izan ezik. Corpusetan aipamen kopuru ertaina dago.

EDUKI SEMANTIKOA

Ezer baino lehen, **ertz** ia-LEO dela esan, 1.7.4 azpiatalean azaldu den bezala: plurala erraztxoago hartzen du.

Irudiak hurrengo orrialdean ikusteko, hauek dira **ertz**en sei adierak:

ertz$_1$(orokorra):

Lodiera txikiko abiakietan, abiakian bertan, abiakiaren mugetan luzeko zerrenda hirudimentsionala da **ertz$_1$**. Adiera hau da adiera orokorra ertz$_1$etik ertz$_6$raino. Eranskineko [(Muga ondokoa)(Mugan luze)] izenburupeko adibideetakoa da **ertz$_1$** (Ikus baitere Aribideko 1.9 azpiatala).

Adibidez: *Erazekitzen diozu soroaren ertz batean lasto bati; onek besteari, besteak besteari, ta...*[Agirre, J.Bta.]

Soñean zeraman errege-jantziaren ertza ebaki zion [Lardizabal].

Txukatzeko, esku-oial ordez yantzi-ertza erabili dabela [Orixe;Tormes].

ERTZ



1



2



3



4



5



6



7

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ertz$_2$:

Abiakiaren aurpegi zabal-luzeren batean, abiakiaren mugan(edo mugetan) luzeko zerrenda bidimentsionala. Eranskineko [(Dimentsio biko zerrenda) (Arista ondokoa)(Aristan luze)] izenburupeko adibideetakoa da **ertz$_2$.**

Adibidez: *Kartulinaren ertzak garbi utzi, gero esango ditugunak idazteko* [Garitaonaindia, Jesus].

Etxola lorategi aski gutxi zaindu baten ertzean zegoan [Latiegi, Bixente;Saski-naski 10].

ertz$_3$:

Abiakiaren aurpegi estuena da **ertz$_3$.** Eranskineko [(Hiru dimentsiokoetan, ebatune edo alde meharrena)] izenburupeko adibideetakoa da **ertz$_3$.**

Adibidez: *Eskuan eukazan txanpon-ertzakaz ots-egin eban mostrador-ganean* [Erkiaga;BatB].

Errosarioa eta libur zuria urrezko ertzakaz zeramazkin eskuetan [Oskillaso;Kurl].

Ogi-ertzari mamia kenduz egin dio zorrotena [Orixe;Eus].

ertz$_4$:

Abiakian bertako angelu diedroa da **ertz$_4$.** Eranskineko [(Angelu diedroa, ekaizko zerbaitez egina)(Alde zabalekoa)] izenburupeko adibideetakoa da **ertz$_4$.**

Adibidez: *Gero, Iparrea, ertz arrizkoz eta ormaesiz eta eguzki-sabaiz osatua, ta aurrerago Ezkerrenea* [Garmendia Larrañaga, Juan;Bidasoaldeko eskulangilleak].

Ba-zen an igaro-bide bat txit egokia, ertze batetik malkor aundi bat zuena eta bestetik amilpe bat erreka zuloraino [Etxaide, Jon;Gorrotoa Lege].

ertz$_5$:

Abiakian bertako arista da **ertz$_5$**. Eranskineko [(Angelu diedroa, ekaizko zerbaitez egina)(Arista antzekoa)] izenburupeko adibideetakoa da **ertz$_5$**.

Adibidez: *Zauri lezaketen ertz bizirik ez duelako* [Iriarte, Jose Luis;Gure herri joko].

Bete nuan nere kopa ertzeraiño eta edan nuan [Latiegi, Bixente;Saski-naski 28].

...piramidea... zenbat ertz? 6: hiru beherean eta hiru saitsetako aldeetan [Alvarez Enparantza, Jose Luis;Matematika].

ertz$_6$:

Abiaki luzanga baten muturra edo erpina da **ertz$_6$.** Eranskineko [(Gauza luzanga baten muturra edo punta)] izenburupeko adibideetakoa da **ertz$_6$.**

Adibidez: *Astamakillaren ertzean belakia ezarri ta edaten agora emon eutson* [Zenarruzabeitia, Fermin;Gurutzaren oñetan].

Mediterraneotik Kantauriraino luzatzen den mendi-besanga honek... bi ertzetan askotxo jaisten da, eta ez du ostopo nabarmenik batetik bestera herriak pasa ditezen [Garmendia, Salbador;EHaren Historia] .

ertz$_7$:

Abiakiaren muga ukitzen, abiakiaz at dagoen espazio luzanga da **ertz$_7$.** Eranskineko [(Abiakia luzangaren ondokoa, abiakian luze)] izenburupeko adibideak dira **ertz$_7$.**

Adibidez: *Ibai zabalaren ertz gizenetan doa trena, gero ta aguruago* [Erkiaga;BatN].

Eta zubi ondoan, errekearen ertz-ertzean, pago zar bi, alkarren ondoan biak [Alzola, N. ,Atalak].

Eta ibai horren ertzetan dauden hiriburuak [Igea, Koldo;EHa aurkitzen].

ADIERA ANIZTASUNA

Zazpi adiera, hiru adieratara ekar daitekeen arren.

Hiru adierotarik bat ertz$_{1,2,3 \text{ eta } 6}$k osotzen dute. Hiru dimentsiokoa, bi dimentsiokoa zabaletara ala bi dimentsiokoa loditara izan daitekeela da kontua. Badirudi, **ertz** izatez 3Dkoa dela baina sarritan dimentsio bikotzat, ertz$_2$ edo ertz$_3$tzat hartzen da. Horrela "taularen ertza" ohol zati luzanga da (ertz$_1$), ala taula amaitzen deneko superfizie luzanga da (ertz$_2$), ala taula horizontal dagoenean superfizie luzanga bertikala da (ertz$_3$).

Hiru adierotarik bigarrena ertz$_{4 \text{ eta } 5}$ek osotzen dute. Angelu diedroa bere alde luzangak eta guzti, eta angelu diedroaren arista, biak izan daitekeela da kontua. "Taularen ertzak" metalezkoak egin behar badira, ez genuke jakingo zelan ipini metala, ezta metal asko ala gutxiago behar dugun.

Hiru adierotarik hirugarrena ertz$_7$ da. Hitz bera baina kontzeptu guztiz desberdina da. "Zurezko taularen ertz hau" hormigoiz ere egin daiteke.

Ertz$_6$ ere izan daiteke, taula luzanga bada.

Hortaz "taularen ertza" hobe aipatu ere ez egin, horrenbeste gauza izan daitekeela deus ere ez baita. Baita ertz$_6$ ere, taula luzanga bada.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

ertz$_1$, hegal$_1$, hegi$_1$

Teilatuaren ertz batean, hegal batean, hegi batean teilak loka.

ertz$_2$, hegal$_2$, hegi$_2$, bazter$_1$

Ohearen ertz batean, hegal batean, hegi batean , bazter batean etzan.

ertz$_3$, hegal$_3$, hegi$_3$

Txanpon- etzaz, -hegalaz, -hegiaz hots egin mostradore gainean.

ertz$_4$, hegi$_4$

Etxeak harrizko ertza, hegia.

ertz$_5$, hegi$_5$

Mahaiaren ertz edo hegi biziak.

ertz$_7$, hegal$_4$, hegi$_6$, bazter$_2$

Milioi bat pertsona bildu ibaiaren ertzean, hegalean, hegian, bazterrean.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

ertz$_1$, bazter$_1$, bazter$_3$, barren$_4$

Teilatuan ertzean(3D) esan teilatuan bazterrean(2D) esan ordez, edo teilatuan bazterrean(erditik urrun) esan ordez, edo teilatuan barrenean esan ordez.

ertz$_1$, albo$_4$, aldamen$_3$, alde$_3$, saihets$_3$, zehar$_1$

Ikus **albo$_4$.**

ertz$_7$, albo$_2$, aldamen$_2$, alde$_1$, saihets$_2$

Ikus **albo$_2$, aldamen$_2$, alde$_1$, saihets$_2$.**

ANTONIMIA

ertz > < erdi

ertz$_2$ > < erdi$_4$

IZEN SINTAGMA

ertz$_{1-6}$

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa.

ertz$_7$

Zeren-eredukoa.

gain$_3$

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Gain$_3$ ere LE da **alde$_7$** bezala.

ERABILPEN ZIURTASUNA

Azkuek, P. Mujikak eta Lhandek dakarte; ez ordea hiztegi modernoek. Corpusetan eta adiera bat izateko, adibide kopuru ertain-haundia dago.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

EDUKI SEMANTIKOA

Abiaki biribil antzekoa denean sarriago erabiltzen dela gogoratuz, hau da **gain$_3$:**

Abiakia amaitzen deneko puntuen leku (geometriko)a da gain$_3$, abiakia alde guztietatik batzen duen superfiziea hain zuzen ere. Eranskineko [(Inguru edo mangune, albo)(Ukitzen)] eta [(Gain > < barru)] izenburupeko adibideetakoa da **gain$_3$.**



Adibidez:

Gizon bezala, eztv uken aitarik Lurraren gaiñian [CatLan,1780].

Ez zuen jantzi urri aren gaiñean ezer jartzeko asmorik [Latiegi, Bixente;Saski-naski 34].

Eta garrek haren itzal lerdena dantza erazten zuten ormaren gainean [Mirande, Jon;Haur besoetakoa].

3

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat, (C) taldean, edonorakoan.
Ikus **gain (A) taldean.**

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

gain$_3$, alde$_7$, kanpo$_2$, iraitz$_1$

Gizona kanpo eder, sagarra gain gorri, alde guztiak gorri. Eta gainera iraitz, superfizie, kanpoaldea bada.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Esan da hitzaren beraren adierek sortzen dituztela sarritan mugakidetzako arazorik larrienak, eta **gain$_2$** eta **gain$_3$**ren arteko adiera bitasuna erraz izan daiteke **gain** esatean. Inurria sagar gainean dabil, baina hankaz gora. Harri gaina (ez barrua) bustita dago, azpitik ere.

ANTONIMIA

gain$_3$ > < azpi$_3$, -pe$_4$, barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa.

gaindi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 1.8 azpiatalean) Balizko lekugune erlatiboa norabide honetan, ez da erabiltzen eta. Teoriaz, **gain** hedatuagoa izan behar luke **gaindi**k. Bere ordez, **gaineti(k)** erabiltzen da mendebaldean norabide honetan ere.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

handi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 1.8 azpiatalean) **Handi** nontasunik gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **handi**ren eitea ere nolabait begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, **handi** LE da, Aribideko 1.5 Terminoak azpiataleko definizioa bete baitu.

ERABILPEN ZIURTASUNA

Hiztegietan, Placido Mujikak bai, eta Azkuek erdizka dakarte. Beste hiztegiek aipatu ere ez dute egiten. Corpus batean corpusginari ustekabean sartu zaion adibideren bat agertzen da. Beste corpusean adibide kopuru ertain-txikia dator.

EDUKI SEMANTIKOA

Gaur egun, partitiboaren eraginagatik izan edo ez, "handik" erabiltzen du sarriago hiztunak: "handik dabil" eta horrelakoak esateko. Horrela ere, esan da eta esaten da **handi** soil-soilik ere, eta hemen **handi** agertzen deneko adibideak erabili dira **handi$_2$**ren esanahia argitzeko, eta 1.8 atalean esan dena **handi$_1$** adiera gehitzeko.

Hori esanda, hauek dira **handi**ren adiera biak:

handi$_1$:

Hiztunaren eta entzulearen (idazle eta irakurlearen) egoera batean, bientzako "han" den gune baten inguruko espazioa da **handi$_1$.** Bai hiztunak eta bai entzuleak onartutako zuina baino urrunago dago **handi$_1$.** Bata Bartzelonan eta bestea Bilbon badaude, New York **han** lekutzen da, zuina bientzat Santander aldean dagoela. New York ingurua da **handi$_1$,** eta batak zein besteak honelako esaldi hauek esan ditzake: "Txomin herenegun joan zen New Yorkera, eta orain New Yorken edo handi ibiliko da" "New York bertan ez, baina handi bizi da"



1

* hiztuna eta entzulea elkarrekin daudenean, ez dago hortirik

handi$_2$:

Hiztunaren eta entzulearen (idazle eta irakurlearen) egoera batean, bientzako "han" diren gune guztien baturako espazioa da **handi$_2$.** Bai hiztunak eta bai entzuleak onartutako zuina baino urrunago dago **handi$_2$.** Bata Bartzelonan eta bestea Bilbon badaude, New York **han** lekutzen da, zuina bientzat Santander aldean dagoela. New York eta New Yorken ingurua da **handi$_2$,** eta batak zein besteak honelako esaldi hauek esan ditzake: "Txomin herenegun joan zen New Yorkera, eta orain handi ibiliko da" "New Yorken edo handi bizi da". Eranskineko [(Zuina baino urrunagoko espazioa)] izenburupeko adibideetakoak ere **handi$_2$** dira.



2

* hiztuna eta entzulea elkarrekin daudenean, ez dago hortirik

Adibidez:

onelan gero andiko alboan izateko, alan egiten dabenen sari...[Añibarro;EL]

Borda-handiko aldapa gora muthiko hori ikusizuenakigaten...[Elissanburu;Pad]

alkarrizketan ari zirala, andiko aldean olasean zebiltzan mutikoetako bat...[Agirre, Tomas;Uztaro]

edo kontetan, guzur ta abar, itxasuaz-andiko gauzak [Kirikiño;AB I].

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bi.

"Frontoira joan da eta handi ibiliko da". Handi$_1$ = frontoiaren ingurua, badakigu frontoian bertan minutu honetan ez dabilela eta. Handi$_2$ = frontoia eta ingurua, ez baitakigu frontoian bertan den ala zeozer egitera ondoko kalera irten den.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

Ez du sinonimorik bat ere. **Han nonbait, han inguruan, handik hurbil** edo horrelakoren bat hurbil dakioke esanahiz.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

handi$_1$ eta **handi$_2$, (handik)**

Handik-ek hartzen du **handi**ren eduki semantikoaren zati bat. Handi dabil, handik dabil. **Handik** askok esaten dute, **handiko** gutxiagok.

handi$_2$, haraindi$_1$

Etxearen(-z) handiko aldean, etxearen(-z, -tik) haraindiko aldean.

ANTONIMIA

handi > < [O.] horti + hemendi.

IZEN SINTAGMA

Handi bera ez da deklinatzen. Hortaz ez dago *handian, ez *handitik, ezta deklinabide atzizkia duen bat ere. **Handi**k, deklinabideko atzizkia ez ei[70] den **-ko** baino ez du hartzen: handiko.

-n handi. Etxean handi(inesiboa da) = etxearen handiko aldean(etxe-barruan).

-z handi. Etxeaz handi(inesiboa da) = etxearen handiko aldean (kanpoan).

Ez dago **-(ar)en handi**rik. Etxearen handiko aldea, etxearen aldea da batez ere.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

haraindi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean) **Haraindi** nontasunik gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **haraindi**ren eitea ere nolabait begitantzen da. Hortaz, **haraindi** LE da.

[70] Ikus [Trask, R.L. (1985)]

ERABILPEN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan dator. Corpusetan adibide kopuru ertain-txikia du, edo ertaina adiera bakarreko hitza dela kontuan hartuz gero.

EDUKI SEMANTIKOA

Hau da **haraindi**ren adiera bakarra:

haraindi$_1$:

Hor baino urrunago dagoen zuina baino urrunagoko espazioa da **haraindi$_1$.** Hiztunarentzat, **haraindi**ko gune guztiak **han** dira. Eranskineko [(Abiakia baino urrunagoko eremua)] izenburupeko adibideak dira **haraindi.**



Adibidez:

Atz-herrian ala mendiz haraindian bizi diren eskualdun anaieri [Lafitte, Pierre, Gure herria IX].

Itsas-hainditik entzun dugu Argentinan, Chilen dauden anaien boza [Xarrinton, Piarres;Aintzina III].

Yudeako bazterretara, Yordan-araindira etorri zan [Iraizoz, P.;YKBiz].

1

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA(ADIERAKIDETZA)

Ez du sinonimorik bat ere. **...baino harantzago** edo horrelakoren bat hurbil dakioke esanahiz.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

haraindi$_1$, handi$_2$

Ikus **handi.**

ANTONIMIA

haraindi > < [O.] honaindi.

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
-z haraindi.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

hegal

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Ertz bezala **hegal** ere LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztiek dakarte. Corpusetan aipamen kopuru ertaina dago.

EDUKI SEMANTIKOA

Ezer baino lehen, **hegal** ia-LEO dela esan, 2.7.4 azpiatalean azaldu den bezala: plurala erraztxoago hartzen du.

Irudiak hurrengo orrialdean datozela, hauek dira **hegal**en lau adierak:

$hegal_1$(orokorra):

Lodiera txikiko abiakietan, abiakian bertan, abiakiaren mugetan luzeko zerrenda hirudimentsionala da **$hegal_1$**. Adiera hau da adiera orokorra $hegal_1$etik

hegal$_3$raino. Eranskineko [(Hiru dimentsiotako zerrenda)] izenburupeko adibideetakoa da **hegal$_1$.** Erdararen eraginez edo, zenbaitek **hegal**ek irtena izan behar duela diote eta **hegal$_1$'** adiera marraztu ere egin da. Eranskineko [(Hiru dimentsiotako zerrenda) eta (Aidean)] izenburupeko adibideetakoa da **hegal$_1$'** (Ikus baitere Aribideko 2.9 eta 2.12 azpiatalak).

Adibidez: *Irudia... itsasten dugu, erditik egaletara indar eta igortziak eginez* [Zubikarai, Agustin;Marrazki eta Esk.].

Baserritarraren mihiak paper hegala busti zuen ta bere esku trebeak tolestu, tabakoa hertsiaz [ASKOREN ARTEAN; Saioka 6].

Herrialde batzutan, euri asko egiten du. Teilatuen hegalak handiak izaten dira [ASKOREN ARTEAN; Saioka 1].

hegal$_2$:

Abiakiaren aurpegiren batean, abiakiaren mugan(edo mugetan) luzeko zerrenda bidimentsionala. Eranskineko [(Dimentsio bitako zerrendatzat ere har daitekeena)] izenburupeko adibideetakoa da **hegal$_2$.**

Adibidez: *Orio'ko baserri au, itxas ertzeko arkaitzen gañean dago, Kukuarri mendiaren ipar-aldeko egalean, izugarrizko bakardadean* [Zavala, Antonio].

Lekeitiotik Ondarroara etorran bide nagusiaren egalean asi eta portura...[Zubikarai, Agustin;Boga ta Zixe]

Jaun-goikoak ala naita iges egiten dio auntz batek egaletik bera [G.B.A.;Arantzazu XII].

Berezi sarratu baten egal batean,...[Erkiaga;BatB]

Pantxogaz solo-egal baten topo egin ebanean [Bilbao;IpuiB].

hegal$_3$:

Abiakiaren aurpegi estuena da **hegal$_3$.** Eranskineko [(Hiru dimentsiokoetan, ebatune edo alde meharrena)] izenburupeko adibideetakoa da **hegal$_3$.**

Adibidez: *...laiño matasa lodiak... bakoitzaren egaletan margo gorrixtaz uztai meea baiño etzen nabari* [Ugarte, M.;On egiñaren obaria].

Bere gain ingurua marraztu, moldearen barruko egaletatik zear arkatza erabiliz [Zubikarai, Agustin;Marrazki eta Esk.]

hegal$_4$:

Abiakiaren muga ukitzen, abiakiaz at dagoen espazio luzanga da **hegal$_4$.** Eranskineko [(Ez abiakian, muga ondokoa, mugan luze)] izenburupeko adibideak dira **hegal$_4$.**

Adibidez: *Eta hibai hegalean pizti arraro talde handi bat zegoen* [Garmendia, Jose Antonio;Kirkil].

Ia hauzo guztiak hibai hegaletan eraikirik zeuden [Galtzada, Julen;Herriak eta gizonak].

Lekeitiotik Ondarroara etorran bide nagusiaren egalean asi eta portura...[Zubikarai, Agustin;Boga eta Zixe]

HEGAL



4



1'

268



BIBLIOTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera, bi adieratara ekar daitekeen arren.

Adiera biotarik bata $hegal_{1,\ 2\ eta\ 3k}$ osotzen dute. Hiru dimentsiokoa, bi dimentsiokoa zabaletara ala bi dimentsiokoa loditara izan daitekeela da kontua. Badirudi, **hegal** izatez hiru dimentsiokoa da baina sarritan dimentsio bikotzat, $hegal_2$ edo $hegal_3$ hartzen da. Horrela "taularen hegala" ohol zati luzanga da ($hegal_1$), ala taula amaitzen deneko superfizie luzanga da ($hegal_2$), ala taula horizontal dagoenean superfizie luzanga bertikala da ($hegal_3$).

Adiera biotarik bestea $hegal_4$ da. Hitz bera baina kontzeptu guztiz desberdina da. "Zurezko taularen hegal hau" hormigoiz ere egin daiteke.

Hortaz "taularen hegala" hobe aipatu ere ez egin hizkuntza teknikoz, horrenbeste gauza izan daitekeela deus ere ez baita. Baita bada $hegal_1$' ere, taula erdi-airean-erdi-zeozeren-gainean badago.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

$hegal_1$, $ertz_1$, $hegi_1$

Teilatuaren hegal batean, ertz batean, hegi batean teilak loka.

$hegal_2$, $ertz_2$, $hegi_2$, $bazter_1$

Ohearen hegal batean, ertz batean, hegi batean etzan.

$hegal_3$, $ertz_3$, $hegi_3$

Txanpon- hegalaz, -ertzaz, -hegiaz hots egin mostradore gainean.

$hegal_4$, $ertz_7$, $hegi_6$, $bazter_2$

Milioi bat pertsona bildu ibaiaren hegalean, ertzean, hegian, bazterrean.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

$hegal_1$, $bazter_1$, $bazter_3$, $barren_4$

Teilatuan hegalean(3D) esatea teilatuan bazterrean(2D) esan ordez, edo teilatuan bazterrean(erditik urrun) esan ordez, edo teilatuan barrenean esan ordez.

$hegal_1$, $albo_4$, $aldamen_3$, $alde_3$, $saihets_3$, $zehar_1$

Ikus **$albo_4$.**

$hegal_4$, $albo_2$, $aldamen_2$, $alde_1$, $saihets_2$

Ikus **$albo_2$, $aldamen_2$, $alde_1$, $saihets_2$**.

ANTONIMIA

hegal > < erdi
hegal$_2$ > < erdi$_4$

IZEN SINTAGMA

hegal$_{1-3}$:

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa.

hegal$_4$:

Zeren-eredukoa.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

hegi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Ertz bezala **hegi** ere LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztiek dakarte. Corpusetan aipamen kopuru ertaina dago.

EDUKI SEMANTIKOA

Ezer baino lehen, **hegi** ia-LEO dela esan, 2.7.4 azpiatalean azaldu den bezala: plurala erraztxoago hartzen du.

Irudiak hurrengo 2. orrialdean erakutsita, hauek dira **hegi**ren sei adierak:

hegi$_1$(orokorra):

Lodiera txikiko abiakietan, abiakian bertan, abiakiaren mugetan luzeko zerrenda hirudimentsionala da **hegi$_1$**. Adiera hau da adiera orokorra hegal$_1$etik

hegal$_5$raino. Eranskineko [(Bi edo hiru dimentsiotako zerrenda)(Abiakian, mugan luze) eta (Angelu diedroa)] izenburupeko adibideetakoa da **hegi$_1$** (Ikus baitere Aribideko 2.9 eta 2.12 azpiatalak).

Adibidez: *Errotik atheratu behar liteke beraz landa hegiko sasian agertzen ikusi deneko* [Elissalde, Jean;Gure Herria XI].

...arropa gorri handi baten hegiak marta xurizkoak zituen gizon eder bati ohartu zen. [MAC ORLAN, Pierre; Maiatz 15]

Ganibeta mahain-hegian pausa, eskuak dabantalean xuka...[Lafitte;Murtuts]

hegi$_2$:

Abiakiaren aurpegiren batean, abiakiaren mugan(edo mugetan) luzeko zerrenda bidimentsionala **hegi$_2$**. Eranskineko [(Bi edo hiru dimentsiotako zerrenda) (Abiakian, mugan luze)] izenburupeko adibideetakoa da **hegi$_2$.**

Adibidez: *Itsasotik beiratzen duen lur-hegiak badu arteka bat, Legartzaraino heltzen dena,* [Etxepare, J.; Ber]

Ganibeta mahain-hegian pausa, eskuak dabantalean xuka...[Lafitte;Murtuts]

hegi$_3$:

Abiakiaren aurpegi estuena da **hegi$_3$.** Eranskineko [(Hiru dimentsiokoetan, ebatune edo alde meharrena) eta (Mendi gailurra?)] izenburupeko adibideetakoa da **hegi$_3$.** (Lhandek bere hiztegian, eta [Izagirre, Candido; (1970)]k indartu dute adiera hau. Ikus Eranskina.

Adibidez: *Soailuan, zilar-plaka lodi bakotxa hegiz-hegi zilarrezko lore nimiño batzuek bere lagunetarik berexten* [Etxepare, J.;Ber].

Mazelaren gaineko hegiz-hegi huna nun goazi orai [Etxepare, J.;Ber].

Zohiak zutik hegika ezarri. [Ibon Sarasolaren hiztegia]

hegi$_4$:

Abiakian bertako angelu diedroa da **hegi$_4$.** Eranskineko [(Angelu diedroa, ekaizko zerbaitez egina)(Alde zabalekoa)] izenburupeko adibideetakoa da **hegi$_4$.**

Adibidez: *Illhuntze batez zagola putzu baten hegian, illhargi bethea ikhusten du barneko ur garbian* [Goyhetche].

Eta han, harroka baten hegian yarri eta, pipa zirikatu, bethe eta phiztu zuenean [Elissanburu;Pad].

HEGI



1



2



3



4



5



6

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

hegi$_5$:

Abiakian bertako arista da **hegi$_5$**. Eranskineko [(Angelu diedroa, ekaizko zerbaitez egina) (Arista antzekoa)] izenburupeko adibideetakoa da **hegi$_5$.**

Adibidez: *Marbrezko mahain bat, sahetsak nola hegiak antze handirekin lantuak* [Etxepare, J.;Ber]

hegi$_6$:

Abiakiaren muga ukitzen, abiakiaz at dagoen espazio luzanga da **hegi$_6$.** Eranskineko [(Ez abiakian, muga ondokoa, mugan luze)] izenburupeko adibideak dira **hegi$_6$.**

Adibidez: *Duela urthe guti, Baiona hegian, Hiriburun egotu izan da Hueges deitzen dan jaun bat* [Duvoisin;Lab].

...ibaiak, eta ukondo hartan da jarria, ur-hegian, zurezko atherbe bitxia [Etxepare, J.;Ber].

Bi pelegrin zoazila kosta hegian gaindi [Goyhetche].

ADIERA ANIZTASUNA

Sei adiera, hiru adieratara ekar daitekeen arren.

Hegi eta **ertz** berdintsu dira beren adierei dagokienez. Ikus **ertz.**

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

hegi$_1$, ertz$_1$, hegal$_1$

Teilatuaren hegi batean, hegal batean, ertz batean teilak loka.

hegi$_2$, ertz$_2$, hegal$_2$, bazter$_1$

Ohearen hegi batean, hegal batean, ertz batean , bazter batean etzan.

hegi$_3$, ertz$_3$, hegal$_3$

Txanpon- hegiaz, -hegalaz, -ertzaz hots egin mostradore gainean.

hegi$_4$, ertz$_4$

Etxeak harrizko ertza, hegia.

hegi$_5$, ertz$_5$

Mahaiaren ertz edo hegi biziak.

hegi$_6$, ertz$_7$, hegal$_4$, bazter$_2$

Milioi bat pertsona bildu ibaiaren hegian, hegalean, ertzean, bazterrean.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

hegi$_1$, bazter$_1$, bazter$_3$, barren$_4$

Teilatuan hegian(3D) esatea teilatuan bazterrean(2D) esan ordez, edo teilatuan bazterrean(erditik urrun) esan ordez, edo teilatuan barrenean esan ordez.

hegi$_1$, albo$_4$, aldamen$_3$, alde$_3$, saihets$_3$, zehar$_1$

Ikus **albo$_4$.**

hegi$_6$, albo$_2$, aldamen$_2$, alde$_1$, saihets$_2$

Ikus **albo$_2$, aldamen$_2$, alde$_1$, saihets$_2$.**

ANTONIMIA

hegi > < erdi
hegi$_2$ > < erdi$_4$

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

IZEN SINTAGMA

hegi$_{1-5}$:

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa.

hegi$_6$:

Zeren-eredukoa.

hemendi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean) **Handi** bezala **hemendi** ere lekugune erlatibo da.

ERABILPEN ZIURTASUNA

Hiztegietan Placido Mujikak baino ez dakar. Corpus batean adibide kopuru ertain-txikia dator. Hiztun askok normaltasun osoz erabiltzen dute.

EDUKI SEMANTIKOA

Gaur egun, partitiboaren eraginagatik izan edo ez, "hemendik" erabiltzen du sarriago hiztunak: "hemendik dabil" eta horrelakoak esateko. Horrela ere, esan da eta esaten da **hemendi** soil-soilik ere, eta hemen **hemendi** agertzen deneko adibideak erabili izan dira bere esanahia argitzeko, nahiz eta adibide gutxiegi egon esanahi biak bereizteko.

Hori esanda, hauek dira **hemendi**ren adiera biak:

hemendi$_1$:

Hiztunak "hemen" deitzen dion gune baten inguruko espazioa da **hemendi$_1$.**"Hemen ez dago, baina laster aurkituko dugu hemendi dago eta" esaldian agertzen da **hemen** eta **hemendi**ren arteko berezitasuna. Esaldiko "hemen" esaldiko **hemendi**ren barruan ez dagoenean, eranskineko [(Zuina baino hurbilagoko espazioa)] izenburupeko adibideetakoa da **hemendi$_1$.**



1

* hiztuna eta entzulea elkarrekin daudenean, ez dago hortirik

Adibidez: *emendi, iñori ezarri ete deutsan birao txarrik* [Mogel;CO].
Zu bere emendi? [Mogel;Pab]
Bidasoa'z andiko ta emendiko euskotar guztiok [Lizardi;IL].
Bizkaian nik entzunda emendiko gauzak, zoro zororik egin nituan ametsak [Arrese Beitia;AmaE].

hemendi$_2$:

Hiztunak "hemen" deitzen dion gunea eta gune horren inguruko espazioa da **hemendi$_2$.** Adiera honetako "hemen" berak ere leku zabala izan behar du, bestela entzulea lelotzat edo itsutzat hartzen baita. "Hemendi, Bilboti ez dago Frantzian bezalako dentista merkerik." Esaldiko "hemen" ere esaldiko **hemendi**ren barruan dagoenean, eranskineko [(Zuina baino hurbilagoko espazioa)] izenburupeko adibideetakoa da **hemendi$_2$.**



2

*hiztuna eta entzulea elkarrekin daudenean, ez dago hortirik

Adibidez: *emendi, iñori ezarri ete deutsan birao txarrik* [Mogel;CO].
Zu bere emendi? [Mogel;Pab]
Bizkaian nik entzunda emendiko gauzak, zoro zororik egin nituan ametsak [Arrese Beitia;AmaE].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bi.

"Hemen" leku zabala dela-eta "hemen" guztia ageri ez denean, adiera biak nahas daitezke.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

Ez du sinonimorik bat ere. **Hemen nonbait, hemen inguruan** edo horrelakoren bat hurbil dakioke esanahiz, eta **hemendik** behinke.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

hemendi$_1$ eta **hemendi$_2$, (hemendik)**

Hemendik-ek hartzen du **hemendi**ren eduki semantikoaren zati bat. Hemendi dabil, hemendik dabil. **Hemendik** askok esaten dute, **hemendiko** gutxiagok.

hemendi$_2$, honaindi$_1$

Etxearen(-z, -tik) hemendiko aldean, etxearen(-z, -tik) honaindian.

ANTONIMIA

hemendi > < [O.] horti+handi.

IZEN SINTAGMA

Hemendi bera ez da deklinatzen. Hortaz ez dago *hemendian, ez *hemenditik, ezta besteren bat ere. **Hemendi**k, deklinabideko atzizkia ez ei den **-ko** baino ez du hartzen: hemendiko.

-an hemendi. Etxean hemendi(inesiboa da) = etxearen hemendiko partean.(Etxe-barruan)

-z, -tik hemendi. Etxeaz(-tik) hemendi(inesiboa da) = etxeaz hemendiko aldean. (Etxeaz at).

Ez dago **-(ar)en hemendi**rik. Etxearen hemendiko aldea, etxearen aldea da batez ere.

honaindi

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean) **Haraindi** bezala **honaindi** ere LE da.

ERABILPEN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan dator. Corpusetan adibide kopuru ertain-txikia dator.

EDUKI SEMANTIKOA

Hau da **honaindi**ren adiera bakarra:

honaindi$_1$:

Han baino hurbilago dagoen zuina baino hurbilagoko espazioa da **honaindi$_1$.**

Horraindiren erabilpen urriak nahasten du **honaindi**ren esanahia. Horraindi badago, **hor** baino hurbilago dagoen zuina baino hurbilagoko espazioa da **honaindi$_1$.** Eranskineko [(Abiakiaz alde hurbilagoa)] izenburupeko adibideak dira **honaindi$_1$.**



1

Adibidez: *Garbiago zauku, leunago ere mendiez hunandian derabilaguna, nahiz den gutien bat aberatsago hangoa [Etchepare, Jean;Bere idazlanak].*

Mugaz hunaindira iges egin behar izan dutenak [IRAUN;Zabal 3].

Zolan legar xehe bat ezarririk, hunaindiko buruan badauzka lerroan bortz latsa-harri gaitzak [Etxepare, J.;Bur].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

Ez du sinonimorik bat ere. **...baino honantzago** edo horrelakoren bat hurbil dakioke esanahiz.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

honaindi$_1$, hemendi$_1$

Ikus **hemendi.**

ANTONIMIA

honaindi > < [O.] haraindi

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
-z honaindi.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

hondo

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Hondo nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakiarik ez badago, baina behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta **hondo** beraren eitea ere begitantzea ahalezkoa egiten da. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan esaldi kopuru haundia du.

EDUKI SEMANTIKOA

Hondo, definizio orokorrez, irekidura edo aho bat duten abiaki zarratuetan, irekidura edo aho horren aurrez aurreko eta barru-barruko espazioa da. Zuloak ahoa baino gorago du hondoa, zuloa gorantz egin bada.

Hondok, definizio orokor hori azalduko duten lau adiera hauek ditu:

Topografian:

hondo$_1$:

A moetako ekaizko abiaki ahurrean, B moetako ekaiz beteriko ahurduraren sakoneko (alde irekitik urrunen dagoen) espazioa da **hondo$_1$.** Eranskineko [(Abiaki ahur edota kofatuetan) (Behealdea, bolumena)] izenburupeko adibideetakoa da **hondo$_1$.**



Adibidez:

Musean ibili ara ta ona, ta arnasa beteterakoan barriro ondora sartzeko arnasa luzea artzeko...[Zubikarai, Agustin;Esan eta esango]

Elikagai eta nutrientetan aberatsa den hondoetako ura azaleratzeak [ELHUYAR;Fisika].

Likido batean aurkitzen diren zati solidoak hondoan pilatzea [Agirre, Jabier;Osasunbideak].

hondo$_2$:

A moetako ekaiz egindako abiakiaren muga ahurrean, eta abiakian bertan, muga ahur horretango sakoneko (alde irekitik urrunen dagoen) espazioa da **hondo$_2$.** Nahi bada, **hondo$_2$ hondo$_1$**en zabalkuntza semantikotzat har daiteke. Eta ez da Bizkaiko **be** hura, **be** lauan eta ganbilean ere egoten baita. Eranskineko [(Abiaki ahur edota kofatuetan) (Solidoz betea, zerbaitez egina)] izenburupeko adibideetakoa da **hondo$_2$.**



2

Adibidez:

Hirurehun metroko lokarria luzatu eta, haitzurrak ez du hondorik ukitzen [Azkune, Iñaki;Lurraren bihotzeraino].

Bidasoa ibaiak badia zabal bat sortzen du, harezko hondokoa[EZEZAGUNA;Gipuzkoako geografia].

Pertikaz hibai ondoa joaz bultzatzen dio baltsari [ASKOREN ARTEAN;Amazonetako indioak].

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

Gizakiak egindakoetan eta:

hondo$_3$:

A moetako ekaizko abiaki ahurrean, B moetako ekaiz beteriko ahurduraren sakoneko (alde irekitik urrunen dagoen) espazioa da **hondo$_3$.** Eranskineko [(Abiaki ahur edota kofatuetan) (Behealdea, bolumena)] izenburupeko adibideetakoa da **hondo$_3$.**



Adibidez:

Aldez aurretik flasko hondoan eter azetikoz umeldutako kotoin hidrofilo bat ipiniko dugu [ELHUYAR;Gipuzkoako Tximeletak].

Likido batean aurkitzen diren zati solidoak hondoan pilatzea [Agirre, Jabier;Osasunbideak].

Bota harea kutxa hondoan, gainean lur hezea [Suarez Barrutia, Jon;Gizarte Natura].

3



3

Bi bisonte Sasisiliaga-ko haitzulotxoaren hondoko sabaian [Amundarain, Dionisio;Euskal Artea].

Astronomoei planetek hondoko izarrekiko zuten higidura kalkulatzeko bidea eman zien [Abrisketa, J.I.;Unibertsoa].

hondo$_4$:

A moetako ekaiz egindako abiakiaren muga ahurrean, eta abiakian bertan muga ahur horretango behealde sakoneko (alde irekitik urrunen dagoen behealdeko) espazioa da **hondo$_4$.** Nahi bada, **hondo$_4$ hondo$_3$**en zabalkuntza semantikotzat har daiteke. Eranskineko [(Abiaki ahur edota kofatuetan) (Solidoz betea, zerbaitez egina)] izenburupeko adibideetakoa da **hondo$_4$.**



4

Adibidez:

Ondorik ezagunenak ordea iru zimitz daramazki alde batera eta bestera [Garmendia Larrañaga, Juan; Bidasoaldeko Eskulagilleak].

Bere ondoa zolaren gaiñean eiotuaz moldatzen du, zumitz-melarrez, gutxi asko, saski aundienean ikusi degunez [Garmendia Larrañaga, Juan; Bidasoaldeko Eskulagilleak].

belar-toki ondo edo azpian, ur eta zumuak iges egiteko daukan zuloa itxi eztedin [Oñatibia, Manuel;Baserria diru-bidean].



Adibidez:

Hondoan, arkupearen eskuinetara, arku ojibalen pean eta estilo erromaniko berberan Kristo linbotik arimak ateratzen ari deneko eszenak ikusten dira [SEIE TALDEA;Euskal Herria].

ADIERA ANIZTASUNA

Lau adiera, bi adieratara ekar daitekeen arren.

Edozein norabidetan beti, adiera biotarik bata $\text{hondo}_{1\ \text{eta}\ 3k}$ osotzen dute. Gasez edo likidoz betetako espazioa da hau. Beste adierako espazioa ekai gogorrez beteta dago, ala ekai gogor horren superfiziea da.

Dena dela, "kobaren hondoan" aire hotza egon daiteke, ala pinturak, ala kareharri sendoa, koba-hondoa hiru espazio horiek baitira, eta zulo-hondoa ere bai.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

hondo_1 , behe_3 , sakon_1

Haranean edo itsasoan hondoan, behean, sakonean.

hondo_2 , azpi_4

Itsasoaren hondoan, itsasoaren azpian.

hondo_3 , sakon_2

Zuloaren hondoan, sakonean. Katiluan hondoan, sakonean. Ura hondotik edo sakonetik atera.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

hondo_1 , barren_2

Itsasoaren hondoan edo barrenean.

hondo_2 , -pe_3 , azpi_2

Itsas hondoan, itsaspean, itsas azpian.

hondo_3 , barru-barru

Zuloan hondoan, zuloan barru-barruan.

ANTONIMIA

hondo$_1$ > < gain$_4$ (batzuetan)

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
Bertan-eredukoa.

horraindi

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean) **Honaindi** bezala **horraindi** ere LE da.

ERABILPEN ZIURTASUNA

Hiztegi modernoetan ez dator. Azkuek, P. Mujikak eta Lhandek aipatzen dute. Corpusetan ez dator. Erabilpen txiki-txikikoa dirudi **horraindi**k; haraindi eta honaindi badaudela eta baten batek asmatua dirudi. Eta ondo asmatua.

EDUKI SEMANTIKOA

Aipatutako hiztegien arabera, eta honaindi eta haraindiren moetakotasuna kontuan hartuta, hau da **horraindiren** adiera bakarra:

horraindi$_1$:

Entzulea hiztunarekiko **hor** derrigorrez egon behar duenean, hemen eta hor bereizten dituen zuina baino urrunago eta hor eta han bereizten dituztenen zuinak baino hurbilago dagoen espazioa da **horraindi$_1$.**



1

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

Ez du sinonimorik bat ere. **...baino horrantzago** edo horrelakoren bat hurbil dakioke esanahiz.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

horraindi$_1$, horti$_1$

Ikus **horti.**

ANTONIMIA

horraindi > < honaindi

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.
-z horraindi.

horti

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean) **Handi** bezala **horti** ere lekugune erlatibo da.

ERABILPEN ZIURTASUNA

Hiztegietan ez dator. Corpus batean adibide kopuru txikia dator. Hiztun askok normaltasun osoz erabiltzen dute.

EDUKI SEMANTIKOA

Gaur egun, partitiboaren eraginagatik izan edo ez, "hortik" erabiltzen du sarriago hiztunak: "hortik dabil" eta horrelakoak esateko. Horrela ere, esan da eta esaten da **horti** soil-soilik ere, eta hemen **horti** agertzen deneko adibideak erabili dira bere esanahia argitzeko, nahiz eta adibide gutxiegi egon esanahi biak bereizteko.

Hori esanda, hauek dira **horti**ren adiera biak:

horti$_1$:

Hiztunak "hor" deitzen dion gune baten inguruko espazioa da **horti$_1$.** Hiztunarentzat, hemen baino horrantz urrunago eta han baino hurbilago dago **horti.**

"Hor ez badago ere, laster aurkituko duzu horti dago eta" esaldian agertzen da **hor** eta **horti$_1$**en arteko bereiztasuna. Esaldiko "hor" esaldiko **horti**ren barruan ez

dagoenean, eranskineko [(Zuinaren entzulearen aldeko espazioa)] izenburupeko adibideetakoa da **horti$_1$.**



Adibidez: *Errekaren ortiko aldean yaukoguzak geure arerio ogigaztaiek* [Bilbao;IpuiB].

Aitaren ondoan ibili zan goiz guztian handikorik hortikora ta hortikotik handikora [Oskillaso;Kurl].

horti$_2$:

Hiztunak "hor" deitzen dion gunea eta gune horren inguruko espazioa da **horti$_2$.** Adiera honetako "hor" berak ere leku zabala izan behar du, bestela entzulea lelotzat edo itsutzat hartzen baita. "Zuk ikusi ez arren, horti bizi da" esaldian agertzen da horti$_2$, "hor" Bilbo edo Ameriketa izanik. Esaldiko "hor" ere esaldiko **horti**ren barruan dagoenean, eranskineko [(Zuinaren entzulearen aldeko espazioa)] izenburupeko adibideetakoa da **horti.**



Adibidez:

Errekaren ortiko aldean yaukoguzak geure arerio ogigaztaiek [Bilbao;IpuiB].

Aitaren ondoan ibili zan goiz guztian handikorik hortikora ta hortikotik handikora [Oskillaso;Kurl].

2

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bi.

"Hor" leku zabala dela eta "hor" guztia ageri ez denean, adiera biak nahas daitezke.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

Ez du sinonimorik bat ere. **Hor nonbait, hor inguruan** edo horrelakoren bat hurbil dakioke esanahiz, eta **hortik** behinke.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

horti$_1$ eta **horti$_2$, (hortik)**

Hortik-ek hartzen du **horti**ren eduki semantikoaren zati bat. Horti dabil, hortik dabil. **Hortik** askok esaten dute, **hortiko** gutxiagok.

horti$_2$, horraindi$_1$

Etxearen(-z, -tik) hortiko aldean, etxearen(-z, -tik) horraindiko aldean.

ANTONIMIA

horti > < [O.] hemendi + handi.

IZEN SINTAGMA

Horti bera ez da deklinatzen. Hortaz ez dago *hortian, ez *hortitik, ezta beste bat ere. **Horti**k, deklinabideko atzizkia ez ei den **-ko** baino ez du hartzen: hortiko.

-an horti. Etxean horti(inesiboa da) = etxearen hortiko partean.(Etxe-barruan)

-z, -tik horti. Etxeaz(-tik) horti(inesiboa da) = etxeaz hortiko aldean. (Etxeaz at).

Ez dago **-(ar)en horti**rik. Etxearen hortiko aldea, etxearen aldea da batez ere.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

inguru$_1$

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Nontasunik gabea eta definitu gabea da abiakirik ez badago, eta behin abiakia emanez gero, abiakiarekiko zein espazio den adierazten du, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, LE da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan ageri da. Corpusetan ere orrialde askotako esalditza du.

EDUKI SEMANTIKOA

Inguru$_2$, (b$_3$) azpitaldean, horizontalean edozein norabidetan atalean erakutsi izan da. Orain adiera enparau bakar hau:

inguru$_1$:

Norabide guztietan abiakiaren mugetan hasi eta abiakitik hein bateko distantzia laburreraino hedatzen den espazioa da **inguru$_1$.** Hortaz, **inguru$_1$** esfera antzekoa da, erdian abiakiak betetzen duen lekua kendu behar zaiona. Hiru dimentsiokoa denez, dimentsio bikoa edo **inguru$_1$'** ere ba da. Eranskineko [(Abiakiak betetzen ez duen espazioa) (Abiakia zentroan eta esfera zentrokide haundiago baten superfieraino)] izenburupeko adibideetakoa da **inguru$_1$.**



1

Adibidez: *Automobil bat balaztatu eta gelditzen denean, bere energia mekaniko osoa desagertzen da eta balaztetan, gurpiletan, lurrean eta inguruko airean azaltzen den beroan bihurtzen da* [ELHUYAR; Fisika eta Kimika].

Imanek bezala, edozein korronte elektrikok bere inguruan eremu magnetikoa sortzen du [ELHUYAR;FisKim ariketak].

Guk ondo ezaguturiko indarra, Lurrak bere gainazalerantz erakarriz inguru hurbilean dauden gorputz guztien gainean eginiko erakarpena da [Ensunza, Martxel;Fisika Atlasa].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat, (C) taldean, edonorakoan.
Ikus **inguru** (b_3) azpitaldean, horizontalean edonorakoan.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

Inguru$_1$ek ez du sinonimorik bat ere.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

inguru$_1$, at$_1$, kanpo$_1$, landa$_1$, lekore$_1$

“Inguruan, at, kanpo(an), landa, lekore(an) dago” besterik gabe esanez gero, gauza bera uler daiteke.

ANTONIMIA

inguru$_1$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

iraitz

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Erdi galduta, erdi ahaztuta dagoen hitza da **iraitz.** Inoiz behar izango ere, jaso egin da hemen. Lekugune erlatibo da hemen hartuko duen definizioa daukanean.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Azkueren hiztegiak dakar, eta P. Mugikarenak. Beste hiztegiek **iraizean** dakarte, Lhanderenak izan ezik. Corpusetan zalantzako adibide bi baino ez datoz, LE izan daitekeen kasurako.

EDUKI SEMANTIKOA

Hau da **iraitz**en adiera bakarra:

iraitz$_1$:
Abiakian bertan, abiakia mugatzen duen superfiziea da **iraitz$_1$.**



1

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

iraitz$_1$, **gain$_3$, alde$_7$, kanpo$_2$**
Ikus **gain$_3$**.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Irauko urteotan **gainazal** hitza erabili dute bai **superfizie** adierazteko, bai **gain mintz** adierazteko, bai **Lurraren gainazal** adierazteko, hau da, lodiera gabeko kontzeptutik kilometro batzuetako lodiera daukan geruza adierazteko. Herriak **gainazal** hori= **gain$_3$** egiten ere badaki hemen lehenago ikusi denez, eta **iraitz** eta **gain$_3$** sinonimoak dira.

ANTONIMIA

iraitz > < azpi$_3$, -pe$_4$, barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

Ez dago adibiderik izen sintagma adibideen bidez ezartzeko, baina LE honen ezaugarriak direnak izanda, honelako I.S. eskatzen du:

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

kanpo

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **kanpo**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan esaldi kopuru ertain-haundia du.

EDUKI SEMANTIKOA

Hauek dira **kanpo**ren adiera biak:

kanpo$_1$:

Norabide guztietan abiakiaren mugetan hasi eta abiakitik hein bateko distantzia haundiraino hedatzen den espazioa da **kanpo$_1$.** Hortaz, **kanpo$_1$** esfera antzekoa da, erdian abiakiak betetzen duen lekua kendu behar zaiona. Hiru

dimentsiokoa denez, dimentsio bikoa edo **kanpo$_1$**' ere ba da. Eranskineko [(Ez abiakian)] izenburupeko adibideetakoa da **kanpo$_1$** (Ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).



1

Adibidez: *Burruka luzea eta negargarria izan zan euren artekoa euskalerri osoan eta andik kanpo ere bai* [Arrinda, Anes;Saskinaski 33].

Seme-alabak kanpora ezkondu zaizkio [Zavala, Antonio]. Leihotik kanpora ez bururik atera [E.J. HEZKUNTZA SAILA].

kanpo$_2$:

Abiakia amaitzen deneko puntuen leku (geometriko)a da **kanpo$_2$**, abiakia alde guztietatik batzen duen superfiziea hain zuzen ere. Eranskineko [(Abiakian edo ukitzen)] izenburupekoa da **kanpo$_2$.**



Adibidez:

Habia sasi artean egin ohi dute, lurretik hurbil, belar lehor eta goroldioz kanpotik, eta artilez barrutik [Añon, I.;Saioka 4].

Apunta itzazu txitxarroaren kanpoko ezaugarriak (kolorea, ezkatak, hegatsak. zakatzak etab.) [Aurrekoetxea, Manuel;Natur. 6]

Hauen kanpo estalgia kisuharri pikorrez egina da [GEXAN LANTZIRI;Itsasoko gauza harrigarriak].

2

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bi.

"Eskapolota kanpotik pintatu". Kanpo$_1$ bada, pintatzailea kanpoan. Kanpo$_2$ bada, eskapolotaren kanpo-superfizieak pintatzen ei dira erdarakada horren bidez.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

kanpo$_1$, at$_1$, landa$_1$, lekore$_1$

Lerro zuzenetik kanpo, at, landa, lekore.

kanpo$_2$, iraitz$_1$, **gain$_3$, alde$_7$**

Ikus **gain$_3$.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

kanpo$_1$, inguru$_1$, alde$_4$, albo$_5$, aldamen$_4$, ondo$_1$

Etxean bertan ez, kanpoan, inguruan, aldean, alboan, aldamenean, ondoan dago.

ANTONIMIA

kanpo$_1$ > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

-tik kanpo.

Beste izen sintagmak, hemen behean aipatuko direnak, zalantzazkoak dira edo ez daude finkatuak:

-z kanpo. *Lekuz kanpo, jokoz kanpo* eta horrelakoei esanahi metaforikoa esleitzen diegu. "Etxez kanpo", "herriz kanpo" eta horrelakoetan ere badirudi espazio-kontuetan ez garela ari. Abiakia txikiagoa denean edo beste esanahi izpiritualagorik hartu ezin duenean, hala nola "ontziz kanpo" edo "leihoz kanpo(koa)" kasuetan badirudi espazioa adierazten dugula, baina espazioa bere zentzu nasaienean. Hortaz, gaur egun -z kanpo esapidean esanahi metaforikoak du lehentasuna.

Zeren-eredukoa. *Zure barrena ta kanpoa, marra beltzen kanpoa margotu* eta horrelakoek, kanpo zabala txikiagotu eta esleitu eta hurbildu egiten diote abiakiari. Nik sarritan entzuten ditut "etxearen kanpoan dago" eta antzekoak "kanpoan baina etxetik hurbil dago" eta antzerakoak adierazteko. Eta noski, "etxearen kanpoa pintatu, kanpotik dotore ager dadin".

Bertan-eredukoa. Esatekorik adimentsuena izan ez arren, behin "barruan" esanez gero, "kanpoan" ere esaten da. "Etxean barruan eta kanpoan". *Astronomiaren alorrean barruan eta kanpoan.*

Hortaz, kanpok IS aldrebesa dauka. Badirudi, erdal hitza izanik, erdal IS eta guzti mailebatu dela. Horrela "kanpotik pintatu" (pintar por fuera) gauza baten gainazala pintatzea ei da.

landa

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **landa**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da, Azkuerenean izan ezik. Corpusetan esaldi kopuru ertain-txikia du.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

EDUKI SEMANTIKOA

Hau da **landa**ren adiera bakarra:

landa$_1$:

Norabide guztietan abiakiaren mugetan hasi eta abiakitik hein bateko distantzia haundiraino hedatzen den espazioa da **landa$_1$.** Hortaz, **landa$_1$** esfera antzekoa da, erdian abiakiak betetzen duen lekua kendu behar zaiona. Eranskineko [(Ez abiakian)] izenburupeko adibideetakoa da **landa$_1$.**



1

Adibidez: *Barnetik landa, o zoin ilhun den kanpoan!* [Etxepare, J.;Ber]
Baiña biblia ere ez zuten eliza-baitan irakurtzen; bakoitzak bere erara baizik; elizatik landa [Latiegi, Bixente;San Ignazio].
Etxetik landa, naiz urrutian gertatzen dana jakitea [Labayen, A.M.;G. Yakintza I].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

landa$_1$, at$_1$, kanpo$_1$, lekore$_1$

Lerro zuzenetik landa, at, kanpo, lekore.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

landa$_1$, inguru$_1$, alde$_4$, albo$_5$, aldamen$_4$, ondo$_1$

Etxean bertan ez, landa, inguruan, aldean, alboan, aldamenean, ondoan dago. Gogoan izan "albo dago" esaten dakitenak ere badaudela.

ANTONIMIA

landa > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

-z, -tik landa.

lekore

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Espazioa, lekua da **lekore**; nontasunik gabea eta definitugabea berez, abiakiak definitzen du, abiakiarekiko zein espazio adierazten baitu berak, eta abiakiak eitea ere defini liezaioke alderen batetik behintzat. Hortaz, lekugune erlatibo da.

ERABILPENAREN ZIURTASUNA

Hiztegi guztietan agertzen da. Corpusetan esaldi kopuru ertain-txikia du.

EDUKI SEMANTIKOA

Hau da **lekore**ren adiera bakarra:

lekore$_1$:

Norabide guztietan abiakiaren mugetan hasi eta abiakitik hein bateko distantzia haundiraino hedatzen den espazioa da **lekore$_1$.** Hortaz, **lekore$_1$** esfera antzekoa da, erdian abiakiak betetzen duen lekua kendu behar zaiona. Eranskineko [(Ez abiakian)] izenburupeko adibideetakoa da **lekore$_1$.**



1

Adibidez: *Batzar-uritik lekorean bizi diranei geitzen zayen eralgibearra oarrturik* [EZEZAGUNA;Euskaltzaindiaren sortarauak].

Senarraren besagainean lagunduta irten zen Benita lekorera [Irigoien, Joan Mari;Poliedroaren hostoak].

Izurritearen sua mugaz lekore iraulka egotzi zenutenez gero...[Zaitegi;Sof]

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

lekore$_1$, at$_1$, landa$_1$, kanpo$_1$

Lerro zuzenetik lekore, at, landa, kanpo.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

lekore$_1$, inguru$_1$, alde$_4$, albo$_5$, aldamen$_4$, ondo$_1$

Etxean bertan ez, lekore(an), inguruan, aldean, alboan, aldamenean, ondoan dago. Gogoan izan "albo dago" esaten dakitenak ere badaudela.

ANTONIMIA

lekore > < barne$_1$, barren$_1$, barru$_1$, barrunbe$_1$

IZEN SINTAGMA

-z, -tik lekore.

mangune

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Corpusetan eta hiztegi elebakarretan agertzen ez denez, hitz honen esanahia hiztegi elebidunen araberakoa eta Eusebio Erkiagak bere "Txurio Txoria" eleberrian *"Begiak, manguneka, urdin ilunezko pinturakiz apainduak zituan"* idatzi duenekoa izan dadin saiatu izan da hemen. Atera den erabakiaren arabera **mangune = bihurgune** da, eta hortaz mangune ez da lekugune erlatibo, **kurba** edo **gubi** ez den bezalaxe.

sakon

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

Hondo bezala **sakon** ere LE da.

ERABILPEN ZIURTASUNA

P. Mujikaren hiztegian baino ez dator LE bezala. Horrela ere, corpusetan adibideak nahiko ugari dira. Neure esperientziaz ere sarritan erabiltzen dela diot. "Zer dago putzuan sakonean?" "zuloan sakoneraino sartu" eta horrelako esaldiak entzuten dira. "Arbola sakonetik atera" , eta ez "sustraitik(errotik) atera", erdararen eragin txikiagoa duenen ahotik entzun dut.

EDUKI SEMANTIKOA

Sakon, definizio orokorrez, irekidura edo aho bat duten abiaki zarratuetan, irekidura edo aho horren aurrez aurreko eta barru-barruko espazioa da. Zuloak ahoa baino gorago du bere sakona, zuloa gorantz egin bada.

Sakonek, definizio orokor hori azalduko duten adiera bi hauek ditu:

Topografian:
sakon$_1$:

A moetako ekaizko abiaki ahurraren barruan eta B moetako ekaiz beteriko ahurduran, alde irekitik urrunen dagoen espazioa da **sakon$_1$.** Eranskineko [(Abiaki ahur edota kofatuetan) (Behealdea, bolumena)] izenburupeko adibideetakoa da **sakon$_1$.** (Ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).



1

Adibidez: *Inguru aietako tontor ta arro, gain ta sakon, mediska ta zelai* [Azkue, R.M.;Ardi].

Karaitz-lurrik ez dijoakio ongi; sakon eta ibarretan oso irabazkorra da [Munita].

Sakoneko lañoz gora tontorrak elurrez [Lizardi;BB]

Gizakiak egindakoetan eta:

sakon$_2$:

A moetako ekaizko abiaki ahurrean eta B moetako ekaiz beteriko ahurduran, alde irekitik urrunen dagoen espazioa da **sakon$_2$.** Eranskineko [(Abiaki ahur edota kofatuetan) (Behealdea, bolumena)] izenburupeko adibideetakoa da **sakon$_2$.** (Ikus baitere Aribideko 2.12 azpiatala).



2



2

Adibidez: *Goldeaz eragiten diote gero sakonetik lurrari [Agirre, Tomas;Uztaro].*
Laster joan bearko dau inpernuko sakonera nire konjuruen indarrez [Bilbao;IpuiB].
Sakonak berdintzeko, okerguneak zuzentzeko eta zorua konpontzeko 33.000.000 pezetako presupostua du [EZEZAGUNA; Deia 83.03.17].

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bi.

"Koban sakonean" beherantz, gorantz ala edozein norabidetan izan daiteke.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

sakon$_1$, hondo$_1$, behe$_3$

Ikus **hondo.**

sakon$_2$, hondo$_3$

Ikus **hondo.**

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

sakon$_1$, barren$_2$

Itsasoan sakonean edo barrenean.

sakon$_{1-2}$, barru-barru

Zuloan sakonean edo barru-barruan.

ANTONIMIA

sakon$_1$ > < gain$_4$ (batzuetan)

IZEN SINTAGMA

Zeren-eredukoa.

Bertan-eredukoa.

urruti

LEKUGUNE ERLATIBO DENENTZ

(Ikus Aribideko LE hedatuak 2.8 azpiatalean) **Handi** bezala **urruti** ere lekugune erlatibo da.

ERABILPEN ZIURTASUNA

Hiztegi guztiek dakarte. Corpusetan adibide kopuru ertain-haundia dator.

EDUKI SEMANTIKOA

Ez da hemen aztertuko **urruti = urrun** egiten duen adiera, **urrun** bera ere aztertu gabe utzi baita esanahi argia duelako. Beharbada horixe da adierarik ezagunena gaur egun, baina adiera hori baino ez bada onartzen, orduan esan dezagun beti **urrun** eta ahaz dezagun **urruti**, nahasbiderako baino ez baita izango. Horrela ordea, corpusetako esapide batzuk, *urruti haietan* eta antzerakoak ezin izango ditugu esan, "urrun haietan" esaten ez den legez. **Urrun** puntua edo gune txikia bada, ez dugu "urruneko leku zabalagoa" adierazteko hitzik edukiko baina. Horrela , Urrutia deitura esanahi gabe uzten dugu, **urrun**, puntu antzeko leku txikia izanik, ez baita inoiz aukeratu, ezin daiteke aukeratu, deitura izateko. **Han** deiturarik ez dago, baina bai **Handia** deitura.

Horregatik ba, **urruti**ren beste adiera hori aztertuko da hemen.

urruti$_1$:

Hiztunak urrun jarritako zuina baino urrunagoko espazioa da **urruti$_1$.** Espazio horretako gune bakoitzari **urrun** deritzo hiztunak, eta **urruti$_1$, urrun** guzti horien batura da. Eranskineko [(Urruneko lekua)] izenburupeko adibideetakoa da **urruti$_1$.**



1

Adibidez: *Harri bitxien bila joaten ziren urruti haietara* [Elorza, J.;Teknika eta unibertsoa].

Aiñ urrutietakoak izanik, atzerritarrak izanik...[BASARRI;La Voz de España; 71.11.11]

Itsaso orren gañetik urrutietarako bidea arkitu zuten [Echegaray Corta, Carmelo; Itzaldiak II].

---

urruti$_2$(zailtasun gabea denez, tesilan honetan aztertu ez dena):

Urrun, asago.



2

ADIERA ANIZTASUNA

Adiera bat.
Beste adiera ez da tesilan honetan sartzen.

SINONIMIA (ADIERAKIDETZA)

Hemen definitu den bezala, **urruti**k ez du sinonimorik.

MUGAKIDETZAKO ARAZOAK

Ez du bat ere.

ANTONIMIA

Ez du antonimorik.

IZEN SINTAGMA

Baten batzuek **urruti = urrun** egiten dutela eta, beste baten batzuek **urruti = urruneko leku** egiten dutela eta, pleonasmoz-edo **urrutian** ere esaten dela eta, edozelako izen sintagmak irakurri dira. Baina **urruti** LEak ez du ISrik osotzen corpusetan; hau da, ∅ **urruti** da corpusetan. LIDak erabiltzean bezala, abiakia ez da aipatzen. **-ko urruti** agertu denean, **urruti** hori EELE izan da (ikus 2.9.1 azpiatala).

3.5 Emaitzak

3.5.1 LEen kopuruari eta sailkapenari dagokienez.

Lekugune Erlatiboen Banako Azterketa egiten, 3.taulako 52 lekuguneak hartu eta hasi bazen ere, azterketa egitean, LE ez direla eta, edo LE gisa gutxitan erabili eta esanahi zehatzik ez dutela eta, hauek baztertu dira:

barruti, beheti, garaiti, mangune

Horrela 52 lekugunedun 3.taula, 48 lekugune erlatibodun 4. taula hau bihurtu zaigu:

4. taula

aitzin(B)(b_1)	albo(B)(b_2)(b_3)	aldamen(B)(b_2)(b_3)	alde(B)(b_2)(b_3)(C)
alderdi(C)	arte(C)	at(C)	atze(B)(b_1)
aurre(B)(b_1)	azpi(A)	barano(B)(b_3)	barne(C)
barren(A)(C)	barru(C)	barrunbe(C)	bazter(B)(b_3)
behe(A)	behere(A)	bitarte(C)	erdi(A)(B)
ertz(C)	gain(A)(C)	gaindi(A)(C)	garai(A)
gibel(B)(b_1)	goi(A)	goiti(A)	handi(C)
haraindi(C)	hegal(C)	hegi(C)	hemendi(C)
honaindi(C)	hondo(C)	horraindi(C)	horti(C)
inguru(B)(b_3)(C)	iraitz(C)	kanpo(C)	landa(C)
lekore(C)	ondo(B)(b_3)	oste(B)(b_3)	-pe(-be)(A)
saihets(B)(b_2)	sakon (C)	urruti(C)	zehar(B)(b_2)

Horra ba, 48 LE norabidearen arabera sailkatuak, baina eremu lexikala osotzen aritzean esan zen bezala, horiek ez dira euskarak dituen LE guztiak. Zenbaitzuk, nahita, azterketatik landa utzi ziren, arrazoi desberdinak direla eta, hala nola **hur** eta **urrun, ezker** eta **eskuin,** beraiek aztertzea merezi ez duelakoan. Orduan nahita kanpoan utzitakoak eta han aipatutakoak hamazortziren bat dira, **paraje = hur** ez zen aipatu baina. Besteren batzuk ahaztu ere egingo zitzaizkidan, adibidez **kontra**, "horma-kontretan" eta "zu beti nire kontran" esapideetan erabiltzen dena, eta besteren batzuk nire jakintzaz at daudelako kezka daukat. Guztira euskararen LEak 75en bat izango dira horrenbat.

Azterketa hasi eta aztertzeari ekiteko nahikoa izan da 3.2.1 azpiatalean egindako sailkapena, hau da, A taldea, B(b_1, b_2, b_3) eta C taldea. Orain LE bakoitzaren esanahia ziurrago jakinda, talde horietakoak birsailkatu egin ahal dira talde beraietako azpitaldetan. Horren beharrizana dagoenentz da kontua. Ez da uste A eta B taldeetan beharrizana dagoenik, baina C taldea haundia da, haundiegia agian, eta datorren azterketa hobeto ulertzeko, azpitalde hauetan zatitzea erabaki da:

Abiakian bertakotasuna adieraztekoak: **barne, barren, barru, barrunbe, erdi.**

Abiakian azalekotasuna adieraztekoak: **alde, gain, iraitz, kanpo.**

Abiakitik apartetasuna adieraztekoak: **at, inguru. kanpo, landa, lekore.**

Abiakiaren perimetroaldea adieraztekoak: **alde, ertz, hegal, hegi, bazter.**

Abiakian espaziorik sartuena adieraztekoak (abiaki ahur eta kofadunetan batez ere): **barne, barru, barren, hondo, sakon.**

Abiaki bat baino gehiagorekiko espazioak adieraztekoak: **arte, bitarte, erdi.**

Abiakia eta zuin batekiko espazioak adieraztekoak: **handi, haraindi, hemendi, honaindi, horraindi, horti, urruti.**

Horrela, azpitalde bakoitzekoek azpitalde bakoitzari doakion sema bakoitz hori ere amankomun dutenez, hobeto erkatu eta alderatu ahal izango dira beraien azpitaldean batera aztertuz.

3.5.2 LEen ulerkera anitzari dagokionez

Bigarren atal honetan LErik LE ibili eta bidaia luzea egin izan da, ikuspegi orokorra gal dadin bezainbestekoa, sinonimoek eta hitz polisemikoek sare estuegia osotzen baitute. Horrez gain, gauzak sarritan hobeto sartzen dira

gogoan begietan zehar irudien bidez, batez ere teknikarien artean. Eta orain arte ere irudia izan denez nagusi, orain ere irudiez saiatu beharko da bigarren ataleko azterkuntzaren emaitzak azaltzean beste ikuspegi grafikoago edo espazialago bat ematen, laburbildura ere izan beharko duen arren, irudi gutxiz behinik behin idatzitako zehaztasun eta zertzelada guztiak azaldu ezin baitira.

Irudietan kasu bat aukeratu da: inesiboa.

Aurrera jo baino lehen gauza batzuei deitzeko era azaldu behar da:

-n LEan: bertan-ereduko izen-sintagma deitua. Adibidez, etxean goian.

-en LEan: zeren-ereduko izen-sintagma deitua. Adibidez, etxe(ar)en goi(et)an eta etxe goi(et)an, hor EELEak ere badaudela eta singularrekoek LE izateko aukera haundiagoa dutela gogoan hartuz. Horrela ere, hau LEei buruzko tesia denez, EELEak ez dira ez aztertuko ez marraztuko atal honetan. Adibidez badakigu [-en aurrealdea]k, LE ala EELE den, irudi desberdin bi dituena, eta badakigu pluralean [-en aurrealdeak] oso irudi desberdindun EELE edo ZONA direna, baina hemen LEari dagokion irudia baino ez da erakutsiko.

Horiek horrela eta, espazioko zenbait puntutarako zenbait adierazpen baliokide emango dira lehen, eta gero adierazpen bakoitzaren hedapen edo eremu espaziala marraztuko da. Euskarak, LEei dagokienez, espazioa zelan zatitzen duen, eta zati bakoitza adierazteko zer nolako adierazpenak erabiltzen dituen erakutsiko da. Adierazpen baliokide (edo sinonimo) ugari direla ikusiko da, eta hori ez da txarra berez. Ez da txarra adierazpen asko eta asko izanez gero, eta orduan bik edo gehiagok baliokide izan behar. Zehaztasunerako txarra da adierazpenek hedapen bertsua eta haundi xamarra izanik badira baliokide edo sinonimo. Denetarik (edo askotarik) apur bat adierazten duten adierazpenak izango lirateke sinonimoak horrela. Moeta askotako kaxak, baina denak zapata-kaxak eraztun txikia bertan postaz bidaltzeko.

Hori guztiori adieren irudiak (eskemak) erkatzetik eta alderatzetik etorriko da, eta nahiko ez denean —hala ere zalantzak daudelako— 3.4 azpiataleko Banako Azterketara jo eta bertako datuak erabiltzetik.

Horrela ba, LEak espazioko puntuak edo guneak adierazteko zelan erabilita ikusi diren dator hurrengo.

3.5.2.1 zenbait punturen lekutze erlatiboen adierazpenak goitik beherako norabidean



1P : (denona, absolutua, objektiboa) garaian, goian; garaialdean, goialdean.

2P : -en goian, goialdean, gainean, gainaldean.

3P : -en gainean; -n gainean.

4P : -en goialdean, gainean, gainaldean; -n goian, goialdean, goitian, gainean, gainaldean.

5P: -en goialdean; -n goian, goialdean, goitian.

6P : -en erdialdean; -n erdialdean.

7P : -en erdian; -n erdian.

8P : -en behealdean; -n behean, behealdean, (-n behetian?); etxabean.

9P : -en behealdean, barrenean; -n behean, behealdean, barrenean (-n behetian?)(-n azpian?); etxabean.

10P : -en behean, azpian, -pean (etxepean).

11P : -en behean, behealdean, azpian, azpialdean, -pean (etxepean).

12P : -en azpian, azpialdean, -pean (etxepean), behealdean.

OHARRA: Hau laburbildura denez, honetatik kanpo utzi dira zenbait paradigma, hala nola [2P: -z gaindi, goiti] [4P: -n gaindi(zalantzazkoa), goiti] [5P: -n goiti] [8P: -n beheti] [11P: -z beheti] eta besteren bat, hala nola [-en gaineti(k)]. Horren konponbidea LEen banako azterketara jotzean dago. Adibidez "tximistorratza etxeaz gaindi dago" esan ahal dena **gaindi$_1$** izenburupean 3.4.1 azpiatalean dator. Aurrerantzean ere kenduko dira zenbait paradigma, erabilpen txikikoak zein zalantzazkoak direnak; bestela aukera eta irudi zurrunbiloan galduko ginateke. Dena den, nolabaiteko kamusada izan da [etxeaz gaindi = 2P] moetako sintagma bakarren bat baino ez aurkitzea corpusetan. Bestalde, mendebaldeko [etxearen gaineti(k) = 2P] gehiagotan agertu da corpusetan, baina ez da bereiz aztertu, 2.8 azpiataleko [LE + ti] edo **gain** hedatua bezala baizik, eta azpiatal horretan baino ez da aipatu.

3.5.2.2 goitik beherako lekugune erlatiboen hedadura semantikoak

Sail honetako 2. irudian adibidez, (etxe(ar)**-en gainean** esanda adierazten den espazioa erakutsiko da.

goian, goialdean, garaian, garaialdean -en gainean

(izaki guztiena, objetiboa)



1. ir.



2. ir.

-en gainaldean



3. ir.

-n gainean



4. ir.

-en goian



5. ir.

-en goialdean



6. ir.

-n goian, goialdean



7. ir.

-en, -n erdian



8. ir.

-en, -n erdialdean



9. ir.

-en behealdean



10. ir.

Barrenalde LEa gutxitan erabilia

-n behean, behealdean
ø etxabean



11. ir.

-en, -n barrenean



12. ir.

-n azpian



-en azpian, azpialdean



-pean, -en pean



-en behean



Sail honetako irudietarik lehenak izan dezake azalpen beharra bertan abiakia(-n)(-en) eta abiakiarekiko ezer adierazten ez dela-eta. Izatez abiaki guztiekiko da; bertako **goi** etxearekiko eta beste edozerekiko da, goi objektiboa da.

Ariketa gisa, zailtasun txikiren bat duen kasua hartuko da: 2Pren kasua. Esan da "2P puntuan" [(etxean)-en goian, goialdean, gainean edo gainaldean]ren bidez adierazten dela. Irudietan [-en gainaldea]k 2P hartu egiten duela ageri da, baina baita teilatupeko etxe zati ederrerainokoa ere. Antzera [-en gaina]k ere, teilatupe estuagoa hartzen duela. Eta [-en goialdea]k berriz, beherantz etxearen erdirainokoa hartzen du eta gorantz lehen aipatutako goi objektiboa ere bai, 1P

ere bai alegia. Bosgarren irudiak, [-en goian]en irudiak hain zuzen ere, 2P puntua hartu eta beste garrantzizko hedadura semantikorik hartzen ez duela erakusten du. Bosgarren irudi hori adieraziko lukete bai [-z gaindi]k eta bai [-en gaineti(k)]k ere.

Esandakoa alderantziz ere esan ahal da: baten batek **etxearen goialdea** esanez gero, entzuleak [-en goialdean]rako marraztutako 6. irudian edonongo gunea uler dezake. Hortaz kontuz hiztuna, edo kontuz entzulea, ala kontuz biak. Gainera, esan nahi dena 7. irudikoak ere betetzen badu, hobe **etxean goialdean** edo **goian** esan, entzuleari okerreko ulerkera gutxiago uzteko.

16. irudiko **-en behe,** oso mugatuta, eta **behe$_2$** adiera aurkeztu denean adierazitako eran, erabili behar da. Izatez "etxearen behea" zer den nekez asma daiteke, eta are nekezago "kotxearen beheak" zer diren (erdararen laguntzarik gabe), baina "hegazkinaren behean" eta "neure behean" esatea berezkoagoa da.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

3.5.2.3 Zenbait punturen lekutze erlatiboen adierazpenak atzetik aurrerako norabidean



1P : -en aurrealdean, aurrean, aitzinaldean, aitzinean.

2P : -en aurrealdean, aurrean, aitzinaldean, aitzinean; -n aurrealdean, aurrean, aitzinaldean, aitzinean.

3P: -en aurrealdean, aurrean, aitzinaldean; -n aurrealdean, aurrean, aitzinaldean.

4P : -en erdialdean; -n erdialdean.

5P : -en erdian; -n erdian.

6P : -en atzealdean, atzean, gibelaldean, gibelean; -n atzealdean, atzean, gibelaldean, gibelean.

7P : -en atzealdean, atzean, gibelaldean, gibelean; -n atzealdean, atzean, gibelaldean, gibelean.

8P : -en atzealdean, atzean, gibelaldean, gibelean.

3.5.2.4 atzetik aurrerako lekugune erlatiboen hedadura semantikoak

Sail honetako 1. irudian adibidez, (etxe(ar)**-en aurrean** esanda adierazten den espazioa erakutsiko da.

-en aurrean, aurrealdean, aitzinaldean



-en aitzinean



-n aurrean,aurrealdean, aitzinaldean



erdia

-n aitzinean



baitere -en aurrean, aurrealdean,
-n aurrean, aurrealdean, aitzinaldean

-en erdialdean, -n erdialdean



erdia

-en erdian, -n erdian



BIBLIOTECA VIRTUAL

-en atzean, atzealdean, gibelean, gibelaldean



-n atzean, atzealdean, gibelean, gibelaldean



-n eta -en atzean, atzealdean, gibelean, gibelaldean



Ostean, ondoan eta **aldean** ere badira "atzetik aurrerakoan" baina "horizontalean edonorakoan" aztertzea dagokie hobeto.

Sail honetako 2. irudia corpusetan etxean bertako espazioari **aitzin** inoiz ez deitzetik dator. Etxean bertan ere baldin bada, [-en aitzinean]ri ere 1. irudia dagokio. Orduan, 2. irudiko espazioa ezin da adierazi 1. irudiko espazio guztia adierazi gabe.

3.5.2.5 Zenbait punturen lekutze erlatiboen adierazpenak norabide lateralean



1P : -en alboan, aldamenean, aldean, saihetsean.

2P : -en alboan, aldean; -n alboan, aldean.

3P : -en alboan, aldamenean, aldean; -n alboan, aldamenean, aldean, saihetsean, zeharrean.

4P : -en erdialdean; -n erdialdean.

5P : -en erdian: -n erdian.

3.5.2.6 albotik alborako lekugune erlatiboen hedadura semantikoak

-en alboan, aldamenean, aldean, saihetsean



-en alboan, aldean.
-n alboan, aldean.



-n alboan, aldamenean,
aldean, saihetsean, zeharrean.



-en eta -n erdialdean



-en eta -n erdian



TECA VIRTUAL

3.5.2.7 Horizontalean edonorakoan (B_3 azpitaldeko) lekugune erlatiboen hedadura semantikoa

Moeta honetako LEetan puntu bakar bat ez da lekugunearen adierazgarri orain arteko norabideetan bezala, eta horregatik hedadura semantikoak marraztuko dira zuzen-zuzenean. Puntu bat alboan, aldamenean edo aldean dagoela esanez ez da adierazten zein moetatako **albo, aldamen** eta **alde** diren horiek. Hobeto ulertzeko, **2.5 Terminoak** azpiataleko **Lekugune Erlatibo Osoko (LEO)** eta **Lekugune Erlatibo Zatiko (LEZ)** kontzeptuak gogoratu beharko dira.

Lekugune Erlatibo Zatikoak

-en alboan, aldamenean, aldean, ondoan, ostean



-en ostean = abiakiak ostendutako espazioa

Lekugune Erlatibo Osokoak

-en aldean, baranoan, inguruan. -aldean, -alderdian.
(abiakia barne)





Bilbo aldean, etxaldean.
Gernika alderdian.

-en bazterrean.



-n bazterrean



3Dkoa ez da abiakirik onena bazter erakusteko. Daigun zorua baino ez dugula ikusten, eta zoruaren bazterra irudikatu dela.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

-n, -en erdian



3.5.2.8 Edonorakoan (c taldean)

a)Espazioa bitan zatituz gero, espazioaren zati bata direnak:

alde, alderdi.

Ez da irudirik behar hauek begitantzeko. Dimentsio bateko espazioan, lerroko puntu batek zatitzen du lerro oso hori alde bitan; dimentsio biko espazioan, planoko lerro batek zatitzen du plano oso hori alde bitan; hiru dimentsioko espazioan, espazio horretan zeharreko plano batek zatitzen du espazio oso hori alde bitan. Eta gauza bera **alderdi**ren kasuan. Hemen erabili den terminologiaren arabera, zuinak dira puntu, lerro eta plano zatibitzaile horiek.

Zuin jakineko alde bereziak direlako-edo, **goi, behe, atze, albo** eta abarrei izena eman zaie, baina aldeak dira horiek ere, horrela zatibitutako espazio osoaren zati bietarik bat dira eta.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

b)Abiakian bertakotasuna adieraztekoak:

barne, barren, barru, barrunbe, erdi.
-en, -n barnean, barrenean,
barruan, barrunbean.



-en barnean, barruan

-en, -n barnean, barrenean,
barruan, barrunbean.



lau marraren barruan
soloaren barruan
soloan barruan

-en barruan



honenbeste metro barrukoa
harrikaden barruan

-en, -n erdian



Ikus baitere G saila

Abiaki kofadunetan:

-en barrua



c)Abiakian azalekotasuna adieraztekoak:

alde, gain, iraitz, kanpo.

-en, -n aldean, gainean,iraitzean
Ø kanpoan



Hemen **alde** zatikoa da

-en aldean.

poligonoen aldea

Hemen **alde** zatikoa da

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

d)Abiakitik apartetasuna adieraztekoak:

at, inguru. kanpo, landa, lekore.
-en inguruan.
-tik, -z at, kanpo, landa, lekore.



Bira-ardatza 3Dko espazioa adierazteko

Inguru erreferentziatik besteak baino hurbilago amaitzen da.

BIBLIOTECA VIRTUAL

e)Abiakiaren perimetroaldea adieraztekoak:

ertz, hegal, hegi, bazter. (Alde$_8$ hemen ere iruzkindu zitekeen)

MIGUEL DE CERVANTES

-en ertzean, hegian, hegalean



-n ertzean, hegian, hegalean



-en bazterrean



-n bazterrean



f)Abiakian espaziorik sartuena adieraztekoak (abiaki ahur eta kofadunetan batez ere):

barne, barru, barren, hondo, sakon.

-en, -n barnean, barru-barruan.



-en, -n barrenean.



BIBLIOTE MiGU DE CERVANTES

-en, -n hondoan.



-en, -n hondoan, sakonean.



Oharra : **Hondo eta sakon** hauek **barru**ren kasuak dira.

-en, -n hondoan.



BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

-en, -n hondoan, sakonean, barrenean.



-en, -n hondoan.



BIBLIOTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

g)Abiaki bat baino gehiagorekiko espazioak adieraztekoak:

arte, bitarte, erdi.

-en artean.



-en artean, bitartean, erdian.





Hortaz, **gauza jakin bien artean = gauza jakin bien erdian = gauza horien bitartean.**

Dena den, eta idazleen akatsak akats, **bitarte**k egoera ordenatua eskatzen du, eta **arte**k ez. "Sugandilak harribitartean /harribitarteetan daude" harriak harlanduak horman bezala badaude, eta "sugandilak harri artean /arteetan daude" harriak ausaz badaude.

-en erdian.

Puntu bat



Luze bat

Laukizuzen bat

eta beste zenbait irudi geometr
abiakien eiteen araberako

Hortaz **kanpo-erdi** bi daude: bata, abiakirik abiakiraino derrigorrez hedatu behar dena, **arte** eta **bitarte** bezala, eta bestea distantziakidetasuna adieraztekoa.

h) Abiakia eta zuin batekiko espazioak adieraztekoak:

handi, haraindi, hemendi, honaindi, horraindi, horti, urruti.

Leku-izenorde deiktikoak (LIDak) dituzte erro-morfema gisa, **urruti**k izan ezik. Hortaz **urruti** azken eta bereiz iruzkinduko da.

Beste sei LEak sistema bitakoak dira, sistema bakoitzez antzerako kontzeptuak adierazten dituztenak. **Hemendi, horti** eta **handi**k A-sistema, eta **honaindi, ?horraindi** eta **haraindi**k B-sistema osotu dute. A-sisteman 2. zuin baten beharra argi ikusten da, **horti** ere argi dagoelako. B-sisteman 2. zuina ez dago inola ere argi, **horraindi**k azken orduko asmakuntza dirudielako. Horrez gainera, A-sistema zuinik aipatu gabe ere badabil, zuin aipatugabeak LIDen zuin (deitiko)ak (**hemen, hor** eta **han**en mugak) direla. B-sistema ostera, LIDen zuina ez den zuin bat aipatu gabe ez dabil. B-sistemakoak izatez, euren LIDtasuna galduta dute, inoiz izan badute, eta **haraindi = bestalde** da gaur egun, eta **honaindi** adierazitako zuin batekiko **haraindi**ren espazio simetrikoa da, **haraindi**ren antonimoa (edo osagarria) alegia.

Hortaz, madariak eta arbiak alderatzen alferrik ez ibiltzeko, kasu erkidean alderatuko dira; hau da, B-sistema eta zuin aipatua (LIDak bereizten ez dituena) behar duen A-sistema. Geroago iruzkinduko da A-sistema (eta **urruti**) zuin deitikoak darabiltzanean.

LEen aurrean jarriko den hizkia zuinarekiko lotura da. Espazioak inesiboan adieraziko dira.

Ohar bat oker ulertzea ekiditeko: **-en handi** (eta horti, eta hemendi) ez da izen-sintagma osoa. Beti eskatzen du honelako jarraipen bat: **-ko zeozer**. Adibidez:

*"etxearen handi dago" (txarto)
"etxearen handiko gelan, edo zuhaitzean, dago" (ondo)

Baina lekugune erlatiboa, izatez, (-en) **handi** da, eta horrela idatzita erakutsiko da.

Bestalde, **-z handi** (edo -tik handi) sintagma osoa ere bada, **-ko zeozer** eransten ez zaionean ere.

"etxeaz handi dabil"
"etxeaz handiko aldean dabil"

Zuin aipatuarekiko.

-en handi[71]





OTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

-z handi

-en, -z haraindi(an)





[71] Zuinean bertan **haraindi** ez dagoela egin da, horrelakorik ez baita corpusetan ikusi. Hortaz, "etxearen haraindi" leihoez at hasten da.

-n handi





BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

-n horti



-en horti



TECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

-z horti
-en, -z ?horraindian



-n hemendi



OTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

-en hemendi



-z hemendi
-en, -z honaindi(an)



Zuin deitiko ez-aipatuekiko

Kasu honetan lotura-hizkiak lar daude, zuina aipatu ere egiten ez delako. Aribidean LID hedatuak deitutakoak dira, eta **non** galderari erantzuten diote. Orduan, inesibotzat har daitezke.

handi



Handi ez da han, inguruan baizik.

handi.



Handi han ere bada.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

horti.



Horti ez da hor, inguruan baizik.

horti.



Horti hor ere bada.

hemendi.



Hemendi ez da hemen, inguruan baizik.

hemendi.



Hemendi hemen ere bada.

urruti



Urrutik ez dauka abiakia eta LEa lotzeko erarik; bien artean ez dute ISrik eratzen. "Eguzki Sistematik urrun dauden urruti haietara" ezin da esan "Eguzki Sistemaz urruti haietara" esanez, batik bat hori orain arte inork esan ez duelako; hau da, Coserieuk dioenez, hizkuntzaren *sistema*n egon arren (oraindik) *norma*n ez dagoelako. Ezta "etxeaz urrutian" ere, "urruti = eremu zabala" gogoan eta.

3.5.3 Emaitzetatiko ondorioak

- Euskarak ez du abiakiarekiko espaziorik uzten adierazi ezinik. Hori, esan gabe joan behar lukeena bada ere, hobe esatea. Asmatzen saiatu arren ez da behinik behin euskara bertara heltzen ez den espaziorik asmatu ahal izan.
- Emaitzon bidez, puntu bakar baten eta edozein punturen abiakiarekiko lekugunea euskaraz zelan adierazten den erakutsi da. Puntu bakoitzeko adierazpide bana ez dago, jakina, orduan infinitu adierazpide ikasi beharko genuke eta. Adierazpide edo izen-sintagma bakoitzak ezaugarri erkideren bat duten puntuen multzoa adierazten du.
- Ezaugarri bereziago bat beste ezaugarri orokorrago baten barruan ere egoten da, edo ezaugarriak ezartzerakoan ez da irizpide bakar bat izan euskararen erabileran, eta ondorioz abiakiarekiko puntu baten lekugunea adierazpide bat baino gehiagoren bidez adierazten da sarritan emaitzetan.
- 3.5.2 azpiatal horretako irudietan euskarak dituen adierazpide-aukerak (puntu-multzo aukerak) erakutsi dira. Adierazpide guztiak dira aukeragai, baina kasuan-kasuan aukera bat besteak baino hobea da; hori, berezitasuna (zehaztasuna sarritan) ala orokortasuna (anbiguotasuna sarritan) nahi den. Baina jakina, ez dago berezitasuna orokortasunaren bidez lortzerik, edo alderantzizkorik. Emaitzak deitutako azpiatal honetan, izen-sintagma bakoitzak adierazten dituen puntuak multzoka erakutsi dira, eta puntu banakakok zeintzuk izen-sintagma onartzen dituen erakutsi da. Orain, idatzi behar duenak, badaki aukeratzeko daukana, eta behin aukera egin duenean, badaki adieraziko duena: ez gehiago, ez gutxiago. Eta halaber, irakurleak badaki adierazi diotena.

BIBLIOTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

4. Atala

Eremu Lexikala Ingeniaritzako Proiektuetan Erabiltzeko Balorazioak, Iradokizunak eta Konklusioak.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

4.0 Sarrera

Emaitzetako irudietan (3.5.2 azpiatalean) erakutsi da euskarak, LEei dagokienez, espazioa zelan sailkatzen eta zatitzen duen. Zati bakoitza adierazteko erabiltzen diren izen-sintagmak ere erakutsi dira, erabilera urrikoak edo zalantzazkoak sartu gabe utzi badira ere. Inoiz erabilera urrikoren bat norbaitek egokitzat hartu eta bere erabilera bultzatu nahi badu, adibidez [-z gaindi]ren erabilera, zilegi da hori egitea. Erabilkera guztiak erakutsi dira banako azterketan, 2.4 azpiatalean, hala nola [-z, -n gaindi]rena.

Emaitza horiek dira tesi honetan garrantzitsuena. Orain arte irudien bidez azaldu dira, eta hitzez ere zenbait azalpen ematea komeni da. Dena dela, 1.5 azpiatalean agindu bezala, ingeniaritzako proiektuak idatzi behar dituenak emaitzok begiratuta egindako balorazioa erakusteko ireki da atal hau. Ideiak argiago ipintzeko ere balioko du, eranskineko lehen datu-txostenetik honainoko bidea bihurgunetsua izan baita; laburbildura eta ondorio gisa ere balioko du, egilearen ustez gauzarik behinenak direnak aipatuko baitira.

Balorazio honetan, batez ere arazo hauek izango dira gogoan:

a) LE bat norabide batean baino gehiagotan erabiltzen dela. Eta horrek anbiguotasuna ezinbestean sortzen du.

b) LE bik edo gehiagok eduki semantiko bera edo bertsua dutela. Hori jakitea komeni da, hiru hitz esanez hiru gauza —eta une hartan adierazi nahi izan ditugunak hain zuzen ere— denotatu ditugula iruditzen baitzaigu sarritan. Hori, entzulearen jakintza estralinguistikoaren pentzuan egoteaz gain, jakintza estralinguistiko horretaz lar fidatzea da.

c) Izen-sintagma desberdinen bidez esanahiak desberdintzen direnentz. Zenbait LEk izen sintagma moeta bi (edo izen sintagma eta aposizioa) onartzen ditu, eta sintagma bakoitzak bere espazio desberdina adierazten du.

d) Izen-sintagma desberdinok erabilita ere, norabide batean edo bestean, edo guztietan, eremu lexikalak espazio haundiegiak (zehaztasun txikikoak) adierazten dituenentz. Hori irizpideen araberakoa izango da, baina iritzi bat, teknikariarena ustez, emango da. Hemen "zehaztasun txikia" esaten denean, idazleak zehaztasun hori hobetu dezan esaten da, sarritan hobetu ahal baita, informazio haundiagoa emanda hain zuzen ere. Adibidez, "alboan" zehaztasun txikikoa edo anbiguoa bada, idatz bedi "albo batean hurbil" edo "barruan ezker-alboan".

e) Hoberanzko bidean sartzeko, aldatu beharko litzatekeena iradokiko da. Iradokitzeak && ikurraren ondoren egingo dira argi gera dadin behin behineko ebazpidea dela eta ebazpide hobea ere agian egongo dela. Hauxe da onomasiologiako, edo kontzepturik hitzera doan bideko, saio bakarra tesi honetan. Gainerako lana, semasiologiakoa edo hitzetik kontzepturako lana izan da; hau da, hizkuntza dagoen-dagoenekoan deskribatu da.

Balorazio hauek egiterakoan, jakintza estralinguistikodun mundu egonkorrean eremu lexikalak hobeto funtzionatzen duen arren, egokera anitzeko gauza txikiagoen mundua izango da gogoan. Lehen munduan, "Bilboren inguruko herria" ondo ulertuko dugu: Barakaldo edo. Bigarren munduan, "solenoidearen inguruko harila" ez horren ondo: baten batek solenoidearen beraren harila ulertuko du; beste batek, eta soilenoideak solenoide izateko harila behar duenez, diametro haundiagoko beste haril bat ulertuko du, inguruan hori ere; hirugarren batek, inguruko gune batean dagoen haril txikiagoa ulertuko du, transformadoreren batena agian. Eta hirurek daukate ulertuko dutena ulertzeko eskubide berdina. Gainera sarritan, solenoidea zer den guztiz jakin gabe ulertu behar izaten da, edo behinik behin antza eman behar izaten zaio. Egokera anitzeko gauza txikiek dituzten aldagai asko aldaezin dituzte gauza haundiago eta egonkorragoek, eta horrek ulerkerak urritu egiten ditu. Euskaraz, egokera / ulerkera urriko mundutik egokera / ulerkera gehiagoko mundura igaro beharra dago. Tesilanean ikusitakoaren arabera, arazoa ez da larria, euskarak ere baititu bere baliabideak, baina arazoa da.

4.1 Balorazio puntualak LEak banaka hartuta

4.1.1 Norabide guztietan

(1.) **Erdi**k adiera anitz eta polisemia dauzka. Adiera aniztasuna, norabide guztietan baita, eta dimentsio bateko, biko eta hiruko erdiak baitaude. Horri, gauza biren **erdian = bitartean** diren lau adiera gehitu behar zaizkio. Gainera ez da ahaztu behar **erdi**ren polisemia —homonimia ere dei dakioke kasu honetan— [*half, mitad, moitié*] ere adierazten baitu. && Ondo ulertuko bada, sarritan "erdiko puntu, gune, zerrenda, eta abar" erabili beharko da. Horrez gain, eta polisemia hausteko, hobe inoiz saiatu diren **alderdi**k, **zatierdi**k[72] edo besteren batek arrakasta izan eta [*half, mitad, moitié*]ren eduki semantikoa hartuko balu. Dimentsio biko **albertsio** (gutxitan erabilia **zentro** adierazteko) ere badago **erdi**ren adiera aniztasunari aurre egiteko (ikus 36., 41., 59. balorazioak).

Erdi beste norabide batzuetan ere azalduko da.

(2.) **Bitarte** norabide guztietan gertatzen da. Geroago ere azalduko da(ikus 57.a).

Oharra: Edonorakoan (C)taldea, 4.1.6 azpiatalean dator.

4.1.2 Goitik beherakoan

(3.5.2.1 eta 3.5.2.2ko irudiak)

(3.) **Gain** nahasgarri egiten dute bere lau adierek: abiakiaren inguru guztiko superfiziea edo azala edo gainazala, baita abiakiaren superfizie gorena, eta baitere abiakiaren superfizie goren hori baino gorago zein beherago dagoen espazioa. && Zirt edo zart egin eta adieraren bat kendu behar izango zaio, gehienetan behintzat ulertzekoa izan dadin. Dagoen dagoenean **gain**ek eta **goi**k solape haundiegia dute: gauza berdina adierazten dute sarritan. Erdaretako [*sur, on*] adiera oso egokia da, eta [gain = inguru guztiko superfizie] adiera da euskaraz haren baliokidea. Adiera horri eutsi behar izango litzaioke adiera orokor

[72] Hitz txarto eratua agian, baina [half, mitad, moitié] adierazteko erabilia herri-hizkeran.

bezala. "Liburua mahaiaren gainean" (Lurraren zentrotik urrunen) esatea zilegi izango litzateke, liburuak mahaiaren alboan itsatsita nekez egoten baitira. Gainazaletik aldenduago bada (edozein norabidetan, baita bertikalean ere) **gainaldean** esan daiteke; eta horrela [*dessus, above*] **-en gainaldean** edota **-en goian** izango da (ikus 44., 67.).

(4.) **Gaindi**ren kasuan, bertan-ereduko IS[73] eratu eta **-n gaindi** ere esaten da. Horrek kontraesana dirudi, **gaindi**k ulerkera arruntaz, abiakiaz at egon behar bailuke. Baina beharbada ez da kontraesana **LEan gaindi** esaten baita ia beti: *han* edo *hor* edo *etxe-gibelean gaindi*, eta analogiaz agian *mendian gaindi*. **Etxean gaindi** esan ahal bada, logikak honela eskatuta, 3.5.2.1eko 4P puntuan, etxean bertan izan beharko du.

-z gaindi (eta **-n gaindi** erabiltzen den eran) eta **-en gaineti(k)** norabide bertikalean sinonimoak direna ez da ahaztu behar, mendebaldekoa den [**-en gaineti(k**)]k norabide guztietako erabileraren bat duen arren. ∅ **gaineti(k)** ostera, zeren gainetik esan gabe, sarritan erabiltzen da norabide guztietako bailitzan.

(5.) **Garai**k erabilpen urria du, eta are urriagoa LE dela.

(6.) **Garaiti**k are erabilpen urriagoa du, eta ez da aintzat hartu.

(7.) **Goi** objektiboa eta subjektiboa daude. **Goi esleitu edo hurbildu** delako kontzeptua azaldu da. Bereizten jakinez gero, egoneko lau adierak bereizkorrak dira.

(8.) **Goiti** eta **goi** bereizten dituena kontzeptua da batez ere. **Goiti** goi zabalagoa da. Horregatik, **goiti**k ez du **goi**ren guneko edo hedadura txikiko adierarik (goi esleitua edo hurbildua bezalakorik).

(9.) **Barren** ez da abiakiaren barrutik irteten. Arau hori beteko ez lukeen **barrenalde** nekez aurkitu da corpusetan. Idazle batek “etxearen barrenaldeko soroa”.

(10.) **Barren**ek norabide biko adierak ditu: "goitik beherako" taldekoak eta "norabide guztietako" taldekoak. Horrek anbiguoa egiten du **barren** hitza daukan ISa. && Talde horietarik bateko **barren** ahaztu beharra dago. Goitik beherako **barren**ek esanahi berezia ($barren_4$) eta erabiltzea merezi duena dauka, eta norabide guztietako **barren**ek sinonimo bi ditu: **barru** eta **barne**. Hori dela-eta, norabide guztietako **barren** hori ahaztu beharko litzateke (ikus 38., 54., 103.a).

(11.) **Behe**, adiera bat gutxiago duela, **goi** baino bakunagoa da. **Behe**a **goi**a baino hurbilago amaitzen zaio gizakiari. **Behe**(EELE) eta **behe**(LE)ren arteko nahastea sor daiteke. **Behe**(EELE) = **zoru** dela gogoratzen da.

(12.) **Behere** nekez erabiltzen da hedadura txikiak adierazteko, corpusetan behintzat. Hortaz, nekez dago gauza txiki baten **behere**rik.

---

[73] Izen-sintagma denotatzeko erabiliko da aurrerantzean.

(13.) Ez da LE den **beheti** edo **beheiti**rik aurkitu. Zenbait hiztegik [beheiti = zoru, be, lur] egiten duenez, baliteke EELE den **beheiti**ren bat egotea.
(14.) **-pe**k **behe** esleitu edo hurbilduaren sema du sarritan eta abiakian bertan ere bada batzuetan; bestalde ez du **-n pean** sintagma onartzen. Horrela, badakigu abiakitik hurbil dela baina jakintza estralinguistikorik gabe zail da abiakian bertan ala abiakiaz at den jakitea. && **Etxabe**n bezala, hobe abiakian bertakoak **-be** atzizkia hartuko balu, eta **-pe** atzizkia abiakitik kanpokoak.
(15.) **Azpi** eta **-pe** berdinak dira adieraz adiera, baina **azpi**k **-n azpian** sintagma onartzen du, eta horrela abiakian bertakoa eta abiakiaz kanpokoa berezi ahal dira **azpi** erabiliz. && $Azpi_3$ eta $azpi_4$ dauden-daudenean utzi, eta $azpi_1$ eta $azpi_2$ren ordez adiera bakar bat definitu beharko litzateke, "beti abiakiaren bertikalean, abiakia baino beherago eta edozein sakoneratan" adieraziko lukeena.
(16.) **Azpialde** ez da gorantz (abiaki barrura) hedatzen.

BIBLIOTECA VIRTUAL

4.1.3 Norabide horizontalean atzetik aurrerakoan

(3.5.2.3 eta 3.5.2.4ko irudiak)

(17.) **Atze** eta **gibel** guztiz sinonimoak dira. Biak berez, jakintza estralinguistikorik gabe, zehaztasun txikikoak dira, gauzen erditik infiniturainokoa adierazten baitute. Izen-sintagma desberdinen bidez adiera bat bereiz daiteke: badakigu behintzat "etxean atzean" etxetik kanpo ez dena.
(18.) Corpusetan ez da abiaki barruko **aitzin**ik aurkitu (idazleek **aitzinalde** idazten dute eta), horrek sinesgaitza badirudi ere. Hortaz **aitzin** ez da **gibel** eta **atze**ren simetrikoa, ezta **aurre**ren guztizko sinonimoa. [**-n aitzinean]** "aurreko aurpegian edo fatxadan" adierazteko erabili izan da. Beste hiru fatxadetarako ez dago horrelako trikimailurik.
(19.) **Aurre** berez, jakintza estralinguistikorik gabe, zehaztasun txikikoa da, gauzen erditik infiniturainokoa adierazten baitu. Izen-sintagma desberdinen bidez adiera bat bereiz daiteke.
(20.) **Aurrealde**k (edo atzealdek) ez du arazoa konpontzen; larriagotu bai beharbada, parte edota zonaren konnotazioa gehitzen dio eta (ikus 2.10.1 azpiatala).

4.1.4 Norabide lateralean

(3.5.2.5 eta 3.5.2.6ko irudiak)

(21.) **Albo** berez, jakintza estralinguistikorik gabe, zehaztasun txikikoa da, gauzen erditik infiniturainokoa adierazten baitu. Izen-sintagma desberdinen bidez adiera bat bereiz daiteke: badakigu behintzat "etxean alboan" etxeaz kanpo ez dena. Gainera horizontalean edonorako **albo$_5$**k lateraltasunaren bila jar dezake entzulea lateraltasunik ez dagoenean ere. Hortik dator lateraltasuna adierazteko "alboko aldea" esan beharra hiztun askok esaten duen bezala. && Arrazoi horregatik ere (ikus 78.a) albo$_5$ kendu egin beharko litzateke.

(22.) **Aldamen** berez, jakintza estralinguistikorik gabe, zehaztasun txikikoa da, gauzen erditik infiniturainokoa adierazten baitu. Izen-sintagma desberdinen bidez adiera bat bereiz daiteke. Gainera norabide guztietako **aldamen$_4$**k lateraltasunaren bila jar dezake irakurlea lateraltasunik ez dagoenean ere.

(23.) Corpusetan ez da abiakiaren superfizie laterala adieraziko lukeen **aldamen**en adiera aurkitu. Hortaz, **albo** eta **aldamen** ez dira guztiz sinonimoak.

(24.) **Alde** norabide lateralean, berez jakintza estralinguistikorik gabe, zehaztasun txikikoa da, gauzen erditik infiniturainokoa adierazten baitu. Izen-sintagma desberdinen bidez adiera bat bereiz daiteke. Gainera beste norabideetako 5 adierek (gogoan LEak baino ez hartuz) larri zailtzen dute ulertzea, esanahi ugariaren ugariaz aldek "non edo han" baino lekutze zehatzagorako ez baitu balio. **Alde, horizontalean edonorakoan** ere badago, abiakia hartzen duena zein hartzen ez duena.

(25.) **Saihets** ere berez, jakintza estralinguistikorik gabe, zehaztasun txikikoa da, gauzen erditik infiniturainokoa adierazten baitu. Izen-sintagma desberdinen bidez adiera biak bereiz daitezke. Lateraltasuna baino ez adieraztea da **saihets**en gauza ona.

Corpusetan ez da abiakiaren superfizie laterala adieraziko lukeen **saihets**en adiera aurkitu.

(26.) Tesilan honetako **zehar** (LE dena) corpusetan ez da agertzen hiztegiek aipatu arren. Bere erabilpena oso urria da eta adiera bat baino ez zaio esleitu.

4.1.5 Horizontalean edonorakoan

(3.5.2.7ko irudiak)

(27.) **Albo, alde, aldamen** eta **ondo** sinonimo dira norabide honetan lekugune erlatibo zatikoak (LEZ) direnean, eta **oste**k ere irudi berbera dauka. **Alde** izan ezik, beste lau horiek beti dira LEZ norabide honetan (ikus 21.a).

(28.) **Bazter** dimentsio biko LE da.

(29.) **Bazter** horizontal hedatzen da. Adibidez, "horman goiko bazterrean" ez da esaten. **Bazter**rek leku ezkutua edo nekez ikustekoa konnotatzen du.
(30.) **Barano**, eta talde honetako **alde** (LEO denean) eta **alderdi** horizontalean hedatzen dira eta abiakiaren altuera dute corpusetan bestelakorik aurkitu ez delako, corpusetako abiakiak haundiak eta astunak baitira. Abiakiaren ardatz nagusiari elkartzut (eta abiakiaren luzeran = altueran) hedatzen direla onartzekoa da. Horman horizontal jositako iltzeak ere disko eiteko **barano (inguru)** bertikala izango luke orduan.
(31.) Izen konposizioan doazen **alde**k eta **alderdi**k abiakia hartzen dute barnean. Horietako zenbait **X-alde** lexikalizatuta daude, hala nola etxalde eta elizalde.
(32.) **Oste**, ikusleari abiakiak edozein norabide horizontaletan ezkutatzen dion abiakiaz kanpoko espazioa da. Hortaz, **oste**k eta **atze**k esanahi desberdinak dituzte. Gehienetan bada ere, **oste**k ez du derrigorrean norabide horizontalean izan beharrik.
(33.) **Inguru** LEO izan arren, badago LEZ bezala erabiltzeko joeraren bat, "opilari ingurutik beroa eman" esan ordez "opilari inguru guztietatik beroa eman" esatera tentatzen gaituena.
(34.) **Bazter**ren kasuan ere, **bazter** LEO izan arren, **bazterreko gune bat = bazter** egiten dugu gehienetan.

4.1.6 Edonorakoan (C taldea)

(3.5.2.8ko irudiak)

A) Espazioa bitan zatituz gero, espazioaren zati bata direnak

(35.) **Alde** eta **alderdi**ren adiera orokorrak edo nagusiak sail honetakoak dira. Elkar sinonimoak dira sail honetan. Edonorakoan diren arren, **alde**ren polisemia dela eta, zuin bertikal batekiko alde biak ulertzen dira lehen, gero **goialde** eta **behealde** egon arren; eta nekez ulertuko dira zuin lapran batekiko alde biak. Hori horrela da eta ez dago txarto, ortze zabaleko kontuak aintzat hartzen ez badira, edo egokera anitzeko piezez ez bada egiten berba. Egokera anitzean, beste pieza finkoago batekiko norakotzea aurkitu behar izaten da, lehen piezaren zein alde edo partez, zein erpinez edo aurpegiz hitz egiten dugun jakiteko. Hori, Aribideko 2.11.2 azpiatalean iruzkindu den erreferentzia finkoaren beharra da. Han ere esan da erreferentzia finko hori adierazteko euskaraz zailtasunak

daudena. Kalkoz, eta luze xamar, [-ra(ntz) begiratzen duen (aldeko) horma, -ra(ntz) ematen duen (aldeko) horma] erabiltzen da. Baina zererantz begiratu eta zeren horma adierazi behar direnean, esaldia ulertezin bihurtzen da: [errekarantz begiratzen duen etxearen horma] eta ez dakigu zeinek begiratzen duen errekarantz, etzeak ala hormak, begirik batek ere ez du baina. Errazago da norantza geografikoetan, “etxearen iparraldeko edo ekialdeko horma”, baina bestelako kasuetan, horrela esanda ez du funtzionatzen: “etxearen errekaldeko horma” edo “etxearen dorre aldeko erpina”, horma errekaldean dagoela eta erpina dorre ondoan dagoela ematen baitu, edo beste gauza baten erpina dagoela etxearen dorrearen ondoan. && Oraingoz behintzat, [erreka dagoen aldeko horma] idatzi beharko da, zeren edo nongo horma den aparte idatzirik, eta [dorrea dagoen aldeko erpina].

(36.) Sail honetako **alde** beti da [*half, mitad, moitié*]; adibidez, unibertsoarena etxearen erdian hasita. [Etxean alde] etxearen mugen barruko espazioa da, eta etxearen bolumen osoaren [*half, mitad, moitié*] da; [etxeko alde] etxearen EELE edo partea (ikus 2.10.1), etxearen [*half, mitad, moitié*] hain zuzen ere. && **Alderdi** sail honetan guztiz sinonimoa denez, etxearen [*half, mitad, moitié*] da; batzuetan horixe bera adierazteko erabili izan da —derrigorrean osoak simetri ardatza edo planoa duenean— eta erdiren polisemia eta anbiguotasuna ekiditeko, hobe horixe eta besterik ez adierazteko erabil liteke. Horrela, “sagarraren alderdi bat” [*half, mitad, moitié*] izango da, eta “oholaren alderdia” ere bai (ikus 1. balorazioa).

B) Abiakian bertakotasuna adieraztekoak

(37.) **Barne**ren adierak laurak ulertzeko, zenbat dimentsioko **barne** den jakin behar da beti. **Barne**$_{1\ eta\ 3}$ ez dira jakintza estralinguistiko haundia izan gabe bereiziko.

(38.) (C) taldeko **barren**$_{1\ eta\ 5}$ bereizteko zailtasunez gain, (A) taldeko **barren**en hiru adiera hurbilak daude zer adierazi nahi den ezin asmatu izateko. && Norabide guztietako **barren** hau ahaztu egin beharko litzateke (ikus 10., 54., 103.a).

(39.) **Barru**ren adierak laurak ulertzeko, zenbat dimentsioko **barru** den jakin behar da beti.

(40.) **Barrunbe**ren adierak biak ulertzeko, zenbat dimentsioko **barrunbe** den jakin behar da beti.

(41.) **Erdi**k bost adiera ditu bertakotasuna adierazteko, eta zenbat dimentsioko erdi den jakin behar da adierok bereizteko.

C) Abiakian azalekotasuna adieraztekoak

(42.) **Aurpegi** LEa (hemen aztertu ez dena) ere erabiltzen da gaur egun, azaleko superfizie lauak adierazteko. Ez ordea, lauak ez direnak adierazteko.

(43.) **Alde**k ezin du inguru osokoa izan. Inguru osoa betetzeko "hiru, lau, bost... alde(e)tan" edo "alde guztietan" esan behar da. **Alde**ren polisemia haundia dela eta, kontuz idatzi behar da nahi dena ulertuko bada. Adibidez "etxearen alde guztietan" **alde**$_{\mathbf{1,2,3,6,7\ edo\ 8}}$ _izan daiteke, eta LE ez den beste **alde** moetaren bat ere bai.

(44.) **Gain**ek inguru osokoa izan ahal du, batez ere gauza biribiletan. Norabide bertikaleko **gain**ak direla eta, **gain** hau gaizki uler daiteke (ikus 3.a).

(45.) **Iraitz**en ahuleziarik haundiena gutxitan erabili izan dela da, inoiz erabili izan bada espazio-esanahia duela. Izatekoan inguru osokoa da. && **Gainazal** batez ere azala bada eta **superfizie** erabili nahi ez bada, **superfizie**ren kontzeptua **iraitz**en bidez adieraz daiteke.

(46.) **Kanpo**k izen-sintagma finkatu gabea eta era guztietakoa du. Inguru osokoa izan ahal du. Adiera hau eta norabide bereko beste adiera (kanpo$_1$) erraz nahas daitezke. Azalekotasuna adierazteko ∅ **kanpo** (sintagma gabe) erabiltzen da, eta inoiz baitere **-en kanpo**.

(47.) **Gaindi**, bertikalean eta superfizie gorenaren hurbilekoa adierazteko baino ez da erabiltzen. Talde honetan (edonorakoan edo norabide guztietan) bere antzekoa den **gaineti(k)** erabiltzen da.

D) Abiakitik apartetasuna adieraztekoak

(48.) **Inguru**k zeren-ereduko IS hartzen du (-en inguruan), eta abiakitik besteak (**kanpo** izan ezik) baino hurbilago amaitzen da. **Inguru** perimetroraino estutu ahal da, baina perimetroa ezin da izan. “Etxearen beraren inguruko hormak” anbiguo gertatzen da, eta “etxean inguruko hormak” ezinezkoa da.

(49.) **-tik** eta **-z kanpo** ez dira abiakian, bai ostera ∅ **kanpo** eta **-en kanpo** abiakiaren azalean edo hurbil. Lehen sintagma biak dira sail honetakoak. "Etxea kanpotik begiratzea" eta "etxea sorotik begiratzea" berdintsuak dira, ez kanpo ez soro ez baitira LE hor. Beste gauza bat da "etxea etxearen kanpotik begiratzea", **kanpo** hori etxearen ingurua baita.

(50.) **-tik** eta **-z at, landa** eta **lekore** ez dira inoiz ere abiakian.

E)Abiakiaren perimetroaldea adieraztekoak

(51.) **Bazter, hegi, ertz** eta **hegal** abiakian zein abiakiaren inguruan izan daitezke. **Bazter** (horizontal izateaz gain) beti da 2Dkoa, eta beste hirurak ere bai abiakiaren ingurukoak direnean: hau da, ezin da oholaren oholaz kanpoko ertza ebaki, baina ahal da oholaren oholaz kanpoko ertzean zerbait ipini. Bertan-ereduko ISa erabili eta abiakian dela adierazten da.
(52.) Lau LEok lerro izatera mehartu direnekoa dirudi **alde$_8$k.**

F)Abiakian espaziorik sartuena adieraztekoak (abiaki ahur eta kofadunetan batez ere)

(53.) "Abiakiaren barruan barruen" adierazteko **barru-barruan** edo **barnean** soilik erabili izan da corpusetan.
(54.) Bertikalean beheranzkoan "abiaki barruan barruen" adierazteko **barrenean** erabili izan da, zulo bertikaletan beheranzkoan ere zulo(-aren, -an) **barru-barruan** erabili ahal den arren.
(55.) **Sakon** 3Dko espazioa adierazteko erabili izan da. **Sakon** beti da ahurdurako bolumena. **Hondo** aldiz, baitere 2Dko espazioa adierazteko erabili izan da. Hortaz "patinaren sakona harrizkoa da" ezin da esan, eta bai ordea "patinaren hondoa harrizkoa da".

G)Abiaki bat baino gehiagorekiko espazioak adieraztekoak

(56.) **Arte**, abiakiak bi edo bi baino gehiago direnean erabiltzen da. Bat, zein bi, zein hiru dimentsioko espazioak adierazteko.
(57.) **Bitarte**, abiakiak bi direnean erabiltzen da. Abiakiak bina ordenatuak bi baino gehiago direnean pluralean (bitarteetan) erabiltzen da. Bat, zein bi, zein hiru dimentsioko espazioak adierazteko balio du.
(58.) **Erdi,** adiera hauetan, abiakiak bi direnean erabiltzen da. Bat, zein bi, zein hiru dimentsioko espazioak adierazteko.
(59.) Sail honetako **erdi** abiaki biren arteko espazioa adierazteko erabiltzen da. Gutxitan erabiltzen da baina erabiltzen denean, **erdi**ren polisemia haundia dela eta, izen-sintagmaren pentsuan dago esanahia. Esate baterako, "etxe bien erdian" (kanpoan) eta "etxe bien erdietan" edo "etxe bietan erdian" (barruan). &&Bereizgarri makalegia da, eta **erdi**ren polisemia gogoan izanik, **erdi**ren ordez **bitarte** edo **arte** erabili beharko litzateke sail honetakoa adierazteko (ikus 107. 3.a).

H) Abiakia eta zuin batekiko espazioak adieraztekoak

(60.) Zuin deitiko ez-aipatuekiko direnean, eta kontestuaren arabera, **hemendi**k, **horti**k eta **handi**k adiera bina dute: lehen adieran **hemen, ho**r eta **han** deitutako espazio txikiagoak adieratik kenduta daude, eta bigarren adieran espazio txikiago horiek ere adierazten dira. Ez dago metodo morfo-sintaktikorik adiera bata eta bestea bereizteko.
(61.) Zuin ez-deitiko aipatuarekiko direnean eta hiru izen-sintagmaren arabera, hiruna espazio bereiz adierazteko erabiltzen dira **hemendi, horti** eta **handi.**
(62.) **Honaindi, ?horraindi** eta **haraindi** zuin ez-deitiko aipatuarekiko dira beti, eta izen-sintagma biren arabera, espazio bereiz bina adierazteko erabiltzen dira.
(63.) Zuin deitiko ez-aipatuekiko da **urruti** ere. Zuin horrek urrun eta hur bereizten ditu. Eta **urruti**k ez du zuin ez deitikorik hartzen: ezin da oraingoz behintzat "etxeaz urruti" esan, **urruti** hori tesilaneko LE hau denean, **urrun** baino leku hedatuagoa denean alegia.
(64.) **Gaindi** ez da sail honetan sartu, zuinak beti horizontala izan behar duelako; baina bestela sar zitekeen, kontzeptua eta ISa zuin ez-deitiko aipatuareko LEenak dira eta.

4.2 Balorazio puntualak taldeka

4.2.1 Norabide bertikalean (Goitik beherakoan)

(3.5.2.2ko irudiak)
(65.) LE sistema ez da guztiz simetrikoa erdiarekiko: gorantz urrunago hedatu eta beherantz hurbilago amaitzen da. (Ez da uste, pieza txikiez edo egokera anitzekoez hitz egitean ere, horrek eragozpen haundirik sortuko duenik).
(66.) IS bien bidez, kasu gehienetan, espazio desberdinak adierazten dira.
(67.) **Goi** eta **gain** ez daude elkarrekiko nahikotasunez bereziak (**gain** berak ere adiera lar kontrajarriak ditu). Adibidez, [etxearen gain]k etxearen goiko geruza ere hartzea eta bestela [etxearen goi] izatea; hau da, [etxearen gain] = [etxearen goi] + [ñabardura bat]. Bietariko bat, **gain** ziurrenik, etekin haundirik gabe erabiltzen da norabide honetan. Nahasgarria ere izan daiteke ñabardura hori kontuan hartzen ez baitute hiztunak eta entzuleak, biek. && **Gain** kendu egin beharko

litzateke norabide honetatik, hemen esan denarengatik eta (3.)an esan denarengatik. Kenduta ere, "mahaiaren gainean liburua" eta horrelako esaldiak lehen bezain zilegi izango lirateke.

(68.) **Alde**k gibel-hitz bezala daukan eragin hedatzailea delako, eta **alde** batzuetan **parte** eta beste batzuetan **zona** delako, **goialde**k, **gainalde**k eta **behealde**k hedadura semantiko lar zabalak eta nahasiak dauzkate jakintza estralinguistikorik gabe ezer zehatzik uler dadin. && Parte, zatal edo beste hitzen bat erabili beharko litzateke **alde**ren ordez abiakiaren beraren zatia denean. Euskaldunak horren beharra ikusi du, eta "goiparte" eta "beheparte" behintzat sarritan erabiltzen dira.

(69.) **Azpi** eta **-pe** ia sinonimoak dira adiera guztietan. && Berezi egin beharko lirateke (ikus 14. eta 15.a).

(70.) Norabide honetako **barren**ek eta *norabide guztietako* **barren**ek dituzten adierak lar akats eragileak dira hizkuntza teknikoaz biak batera erabiltzeko. && Norabide bertikaleko adierari eutsi eta bestea baztertu egin beharko litzateke (Ikus 10.,38., 54., 103.).

(71.) && Abiaki barruko **goi** eta **behe** berariaz adierazteko LEak behar dira, edo hobe baleude. Izatez EELE dira: gaztelaniaz *encimera, bajera;* ingelesez *top, botom.* Euskaraz, **parte** hitzak ez du pieza edo zati osoa derrigorrez adierazten, **goi-partea** eta **behe-partea** (horrela singularrean) emendioa egiteko erabili ahal badira ere.

(72.) Esandakoa esanda, bestela norabide honetan nahiko espazio desberdin eta nahiko zehatz adierazi ahal da IS biak arretaz erabiliz gero. Horrela ere, **goialde, gainalde** eta **behealde**ren erreferenteen haundia izan behar da gogoan. Ondo, horrenbesteko espazio erraldoia eta horrenbeste gauza batera adierazi nahi badira; txarto bestela.

4.2.2 Norabide horizontalean atzetik aurrerakoan

(3.5.2.4ko irudiak)

(73.) LEek hedadura semantiko zabalak (lar zabalak) dituzte, zehaztasunaren kalterako, batez ere abiakian bertakoa eta abiakiaz kanpokoa bereizten ez direlako. Zehaztasun pixkat irabaz daiteke izen-sintagma moeta biak erabiliz gero.

(74.) **Gibel** eta **atze** guztiz adierakide dira. Ez ostera **aitzin** eta **aurre**, ez dira guztiz adierakide corpusetan aurkitutakoaren arabera. && Abiaki barruko **atze** eta **aurre** berariaz adierazteko LEak behar dira, edo hobe baleude. Gaztelaniaz

delantera, trasera, ingelesez *rear, front part.* Euskaraz, **parte** hitzak ez du pieza edo zati osoa derrigorrez adierazten, **aurre(aitzin)-partea** eta **atze(gibel)-partea** (horrela singularrean) emendioa egiteko erabili ahal badira ere.

(75.) Esandakoa esanda, bestela norabide honetan nahiko espazio desberdin eta nahiko zehatz adierazi ahal da IS biak arretaz erabiliz gero. Horrela ere, **aurre, aurrealde, atze** eta **atzealde**ren erreferenteen haundia izan behar da gogoan. Ondo, horrenbesteko espazio erraldoia eta horrenbeste gauza batera adierazi nahi badira; txarto bestela.

4.2.3 Norabide lateralean

(76.) Izen-sintagma desberdinen bidez adiera bat bereizten zaie sail honetako LEei. **Zehar**rek ez du bereizpen beharrik adiera bat baino ez dauka eta.

(77.) LEek hedadura semantiko zabalak (lar zabalak) dituzte, zehaztasunaren kalterako. Zehaztasun pixkat irabaz daiteke izen-sintagma moeta biak erabiliz gero.

(78.) **Albo**k, **aldamen**ek eta **alde**k horizontalean norabide guztietako adierak ere badituzte, eta horrela ulerkera bakarra zailagoa egiten da. && Lateraltasun hau indartzeko, **albo**k lateraltasuneko adierak baino ez lituzke izan behar. Saihetsek ere lateraltasuneko adierak baino ez ditu, baina gutxiagok erabiltzen dute, eta hezur haren izena ere izateak puntuak kendu dizkio. Hortaz, horizontalean edonorako albo$_5$ kendu beharko litzateke (ikus 21.a).

4.2.4 Horizontalean edonorakoan

(79.) Izen-sintagma desberdinez bidez **bazter**ren adierak bereizi ahal dira, eta LE enparauenak ez, 3Dkoak dira eta.

(80.) Lekugune Erlatibo Zatiko (LEZ) asko daude: **Albo, alde** (hiru adieratik bat)**, aldamen** eta **ondo** sinonimo dira norabide honetan, eta **oste**k ere irudi berbera dauka. && Horregatik ere ken daiteke norabide honetako albo$_5$ (ikus 78.).

(81.) Izen konposizioan doazen **alde**k eta **alderdi**k abiakia hartzen dute barnean. && **Alderdi** hori, **alderdi$_2$** hain zuzen ere, kentzea komeni da. "Gernika alderdia" gaur egun ez du inork esaten.

(82.) Talde honetan **albo, aldamen, alde**(hiru adierarik batean)**, ondo** eta **oste** Lekugune Erlatibo Zatikoak dira. Badago **inguru** ere LEZ bezala erabiltzeko joeraren bat, **inguru** LEO izan arren (ikus 33.a).
(83.) Ez da LEok daukatena baino zehaztasun haundiagorik behar. Lau LEZen arteko sinonimia da arazo txikia, bosgarrenak, **oste**k esanahi berezia dauka eta.

4.2.5 Edonorakoan (norabide guztietan)

A) Espazioa bitan zatituz gero, espazioaren zati bata direnak

(84.) Norabide honetako **alderdi** eta **alde$_6$(orokorra)** berdinak dira: espazio osoaren erdia adierazten dute biek.
(85.) **Alde** beste norabide askotan eta **alderdi** beste norabide batean erabiltzen dira (ikus 35.a).
(86.) Sail honetako adierak adiera orokorrak direnez (unibertsoaren erdiak direnak), izen-sintagma desberdinek ez dute erabilpenik hemen.

B) Abiakian bertakotasuna adieraztekoak

(87.) Sail honetan IS moeta biek ez dute ezer bereizteko balio.
(88.) Adiera asko berdinak izan eta ia sinonimo diren lau LE erabiltzen dira norabide honetan: **barne, barren, barru** eta **barrunbe**. LE bakoitzaren hedadura semantikoan, ez da erraza adiera desberdinen arteko bereizpena egitea. Adibidez, "xaflaren barruan" non den jakiteko, xafla hori 2Dkotzat ala 3Dkotzat hartu den jakin behar da aldez aurretik.
(89.) **Barren** erraz, eta ondorio txarrez, uler daiteke norabide honetan zein norabide bertikalean. && **Barren** norabide honetatik kendu egin beharko litzateke(ikus 10.a).
(90.) **Erdi**k bost adiera ditu bertakotasuna adierazteko, eta jakintza estralinguistikoa behar da aldi bakoitzean zein den ulertzeko.

C) Abiakian azalekotasuna adieraztekoak

(91.) Izen-sintagma desberdinek ez dute espaziorik bereizten talde honetan.
(92.) Azalekotasun kontzeptu hau beste norabideetan ere erabiltzen diren **alde** eta **gain** erabiliz adierazten bada , sortzen den anbiguotasuna ezin da ekidin. &&

Gain, norabide guztietako azalekotasun hau, eta ez beste ezer, adierazteko erabili beharko litzateke (ikus 3., 44. eta 67.ak).

(93.) **Kanpo**k IS sintagma traketsa du mailebua denez erdal ISa ere mailebatu duelako, eta gainera, zaila da azalekoa ala urrunagokoa adierazten duen bereiztea.

(94.) **Iraitz** termino aproposa izan daiteke, baina oso gutxitan izan da erabilia.

(95.) **Kanpoalde** talde honetako **alde**$_7$ da batez ere, eta LEZ da horregatik. Hortaz, abiakiaren kanpoko superfizie osoa adierazteko "kanpoalde guztietan" esan beharko litzateke, "kanpoaldea" txikia bada, eta "kanpoalde guztian" haundia bada, esaten dela jakin arren.

(96.) Ez dago azalekotasun hau argi eta garbi adierazteko LErik, **alde** lar polisemikoa delako eta **kanpo** abiakitik aldendutako **kanpo** ere badelako. Horregatik lehenago aipatutako **gain**en bidezko konponbidea, edo **iraitz**en bidezko konponbidea.

D) Abiakitik apartetasuna adieraztekoak

(97.) Izen-sintagma desberdinek ez dute espaziorik bereizten talde honen barruan. ∅ **kanpo** izateak goiko C) taldekoa izatea dakar, edo LE ez izatea (ikus 49.a).

(98.) **Inguru**, abiakitik besteak baino hurbilago amaitzen da; hau da, **at, kanpo, landa** eta **lekore** baino hurbilago. Edutezko genitiboak ematen dio hurbiltasun hori. Bestela laurak dira sinonimo, **kanpo** azalekotasuna adierazteko ere erabiltzen dela gogoan hartu behar den arren.

(99.) Hemengo LEak 3Dkoak dira izan, baina denak ulertu ahal dira 2Dko bezalako ere. Eta **kanpo** abiakiaren superfizie bihurtu ahal den bezala, **inguru** perimetro edo **alde**$_8$ez egindako itxitura bihurtu ahal da.

E) Abiakiaren perimetroaldea adieraztekoak

(100.) Izen-sintagma desberdinek adiera bat bereizten die talde honetako LEei.

(101.) **Ertz, hegal** eta **hegi** guztiz dira sinonimoak **hegal**i argi ez dagoen "irtengune" konnotazioa atxikitzen ez bazaio. Bat izanez gero, beste biak lar daude. && Hiru LEotarik bat aukeratu beharko litzateke parelelepipedoen (oholen eta) aurpegi meharrena adierazteko. **Hegi** da egokiena, enparauak beste adiera batzuetarako erabiliagoak direlako. **Ertz** "arista" adierazteko ere sarritan da erabilia. Euskal sinonimokeria dela eta, "marjin" mailebua sartu da, bestela **hegal**ek beteko lukeen leku semantikoa betetzeko.

F) Abiakian espaziorik sartuena adieraztekoak (abiaki ahur eta kofadunetan batez ere)

(102.) Izen-sintagma desberdinen bidez ez da ezer bereizten sail honetan.
(103.) Bertikalean espaziorik beheena **barren, hondo** eta **sakon**en bidez adierazten da, eta **hondo** 2Dkoa ere izan ahal da. Beste norabideetan lekurik barrukoena **hondo** eta **sakon**en bidez adierazten da, "zuloan barru-barruan" eta beste zenbait esapidez gain.
(104.) && Euskaraz eta edukiontziez hitz egitean **sakon**en antonimoa **azal** da. Eduki-geruzez hitz egitean **sakon**ek ez du antonimorik, adibidez **ur-azalean** ez baita **sakonera txikiko uretan.** Hortaz, "sakonera txikiko" perifrasia erabili beti ala beste zerbait asmatu beharko da beste hizkuntzetan asmatu duten bezala.

G) Abiaki bat baino gehiagorekiko espazioak adieraztekoak

(105.) Zeren-ereduko izen-sintagma baino ez da erabiltzen sail honetan.
(106.) Jakintza estralinguistikoa izan ezik ez dago beste erarik **erdi, arte** eta **bitarte,** bat, bi ala hiru dimentsioko espazioak diren jakiteko.
(107.) Abiakitik abiakirainoko guztia batera adierazten dute **arte**k eta **bitarte**k, eta **erdi**k zenbait adieren bidez. Beste adiera batzuen bidez **erdi**k abiakitik abiakirakoan distantziakide dagoen puntua, luzea, laukizuzena, prisma, zilindroa eta abar adierazten du (ikus irudiak). && **Arte** eta **bitarte** erabili beharko lirateke lehen kasuan, eta lehen kasuko **erdi** ahaztu egin beharko litzateke. Bigarren kasuan, "zelako erdi" edo "erdiko zer" zehaztu beharko litzateke: erdiko puntua, erdiko zeharretarako lerroa, erdiko luzetarako lerroa, erdiko zerrenda, barra, horma, eta abar (ikus 59.a).

H) Abiaki eta zuin batekiko espazioak adieraztekoak

(108.) Sistema bi daude: A-sistema **hemendi**k**, horti**k eta **handi**k osotua; B-sistema **honaindi**k**, ?horraindi**k eta **haraindi**k osotua. **Horraindi**, hiztegigileren batek badagoela esan arren, idazleek ez dute erabili. A-sistemakoei etekin txikia atera diete idazleek, forma batzuk nekez edo ia inoiz ere ez baitituzte erabili.
(109.) A-sistemakoek ez dute, oraingoz behintzat, deklinabide-atzizkirik hartzen, **-ko** bai baina. Atzizkirik gabe, beti daude inesiboan (handi dago /dabil). Atzizkiak

hartzeko **-ko zerbait** erantsi behar zaie (etxeaz hortiko iturriraino; mendian handiko aldetik, mendiaren hemendiko ingurura).

(110.) B-sistemakoek inoiz deklinatu ere egiten dira. Idazleengan baino gehiagotan hiztegigile modernoen adibideetan.

(111.) A-sistemakoek zuineko bertako espazioak ere adierazten dituzte bertan-ereduko sintagmaren bidez (etxean handi dabil; etxean handiko gelan dago). B-sistemakoei ez zaie ahalmen hori ikusi; zuina puntu, lerro edo plano bailitzan hartzen dela dirudi ("etxean haraindi" bezalakorik ez da ikusi, eta etxearen haraindia etxearen mugez kanpo hasiko da horregatik).

(112.) Honen goian esandakoak, A-sisteman espazioak zeren- eta bertan-ereduko sintagmek berezi egiten dituztela dakar; ez ordea B-sisteman, bertan-eredukorik ez baitago.

(113.) B-sistema errazagoa da; A-sistema korapilotsuagoa eta zehatzagoa. && Teknikariak (edo hiztun arruntak) erabakiko du zein komeni zaion. Biak jakitea da onena, noski.

BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES

4.3 Balorazio puntualak guztikoan

(114.) Euskaraz, behar diren norabide guztietako LEak daude; eta orain arteko beharrizanak norabide horietan guztietan bete izan dira. Inoiz, beste norabide batzuk behar badira, norabide horietako LEak asmatu egin beharko dira. Esate baterako, norabide geografikoetan badakigu **iparmendebalde** esaten eta adierazten, eta inoiz **goiaurrealde** adierazteko beharrizana baldin badaukagu, ikasiko dugu zelan adierazi. Gaur egun "gora eta aurrera begiratu" esaten da 45 gradu horien bila.

(115.) Lehengo balorazioetan aipatu diren "orain arteko beharrizanak" gehitu eta haundiagotu egin dira, Euskara Teknikoaz egokera aniztun piezen lekutzea eta nondik-norakotzea ere zehaztu behar baitira. Kasu horietan jakintza estralinguistikoa txikiagoa izaten denez, adierazpideek beraiek izan behar dute zehatzagoak, adierabakan, eta adierabakar ahal izanez gero, eta aldian-aldian espazio txikiagoak edota bereiziagoak adierazten dituztenak. Hori lortzeko, hizkuntzaren ahalmena garrantzizkoa da, baina baita idazlearen / hiztunaren jarrera ere. "Txori-habia teilatuan" eta "katua teilatuan" arreta berdinaz idazten badu, oker egiten du. Bigarren kasuan irakurlea konforme geratuko da. Lehenean ordea, "teilatuan non" galdera etorriko zaio gogora: derrigorrean gainean zikoinena bailitzan, teilatuaren barruan edo teilapean txolarreena bailitzan, egarbean enarena bailitzan. Idazleak, irakurlearen galdera aurrikusi eta

erantzunda utzi behar du. Hori egiteko, lekugune erlatiboez (gain, barru, -pe) baliatuko da, edota beste zehaztasun batzuk emango ditu; edo txori-moeta adieraziko du, irakurleak bere jakintza estralinguistikoa (zoologia kasu honetan) erabil dezan esaldia ulertzeko.

(116.) Hizkuntzaren ahalmenari dagokionez, euskarak ez dauka erdaretako "preposizio topologiko" delakoen baliokiderik, ez dauka "abiakian bertan zein propietatetako partean" adierazteko adierazgailurik alegia. Preposizio horietarik biren, hau da [*at /à*] eta [*in / dans*]en semantika ordezteko kasu inesiboak eta [barru /barne]k egin ahal dute emendioa. Hirugarren preposizioaren, hau da [*on /sur*]en semantika ordezteko **gain** erabili izan da sarritan (ikus 92. eta 96.).

(117.) Adiera orokor bezala unibertsoaren erdia (*half, moitié, mitad*) daukaten lekugune erlatiboetan, [-en LEan] sintagmak abiakian bertakoa zein abiakiaz atekoa adierazten du. Abiakian bertakoa adierazteko [-n LEan] sintagma erabili behar da, jakintza estralinguistiko ahaltsuren bat ez badago. Euskaraz, *localisation interne* eta *externe*, horren pentsuan dago LE horietan.

(118.) **Alde** hitza erreta dago, semantikan hurbilekoak diren [EELE / parte] zein [gune / zona] zein [LE] adierazten (edo adierazi nahi) dituelako, eta horrez gain, LE baino ez denean ere, hiru norabidetan zortzi adiera dituelako. Tesilan honetako arloaz kanpo dituen dozenaka adierek ere inoiz okerragotu egingo dute arazoa, baina zuzentzen lagundu inoiz ere ez. && Lateraltasun-adierak ken dakizkioke, horretarako **albo, aldamen** eta **saihets** baitaude. Eta, **parte** hitza erabil daiteke euskaldun askok erabiltzen duten bezala.

(119.) Beste zenbait kasutan ere, lexiko zaharra Euskara Teknikoaz erabili nahi badugu, eta mailebuak erreskadan hartu nahi ez baditugu, ukitu txiki batzuen bidez birdefinitu beharko da lexiko zahar hori. Orain arte zehaztasun haundirik behar izan ez, eta *borde / orilla* bezalako kontzeptu "indefinitua" adierazteko lau hitz baditugu —hiru alferrik Euskara Teknikoaren ikuspuntuz— Euskara Teknikorako birdefinitu egin daitezke; bestela *margen, arista, canto* eta *borde exterior* (kanpoko ertza), laurak mailebatu beharko dira, eta gure lau hitz zaharrak bertsolaritzako zehaztasunez bertsolaritzan errima-aukera gehiago izan dezaten utzi. && Berdefinitu nahi direnentz da lehen hartu behar den erabakia. Berdefinitu nahi badira, lehengo balorazioetan iradoki dira aldakuntza gutxi batzuk.

(120.) Orohar, euskararen eremu lexikal honek, erantzukizun txikiko esaldietan erabili dela erakusten du. Erantzukizuna haundiagoa izan balitz, zehaztasuna ere haundiagoa izango zatekeen, halabeharrez. Gauza egonkor haundiez hitz egitean ez da hori ondo nabaritzen, baina egokera aniztun gauza txikiagoez hitz egitean hobeto ageri da hori, LEak hur emateko edo beste alde batean ez dela adierazteko baino ez baitira erabili, artisauek egiten duten bezala, gero zehaztu

beharrekoa atzamarrez-edo zehazteko. Zehaztasuna eta ziurtasuna hobetu, neurri haundi batean, eremu lexikala hobeto ezagutuz eta 115. balorazioan aipatu den arreta haundiagoz idatziz lortuko da, besterik gabe.

(121.) Euskara Teknikoa arlo desberdinetan garatuko den heinean, eta bere erabilera ohikoago egingo denean, beste zenbait ukitu edo aldakuntza txiki egin beharko zaio eremu lexikal honi beharrizanek hori eskaturik. Hemen 35. balorazioan, euskarak abiaki bat beste abiaki finko batekiko orientatzeko daukan zailtasuna aipatu da, perpausa oso bat perifrasi gisa erabiltzen ez bada (A abiakira ematen duen / begiratzen duen B abikiaren aldea), eta ebazpide bat iradoki da. Euskarak ez dauka behealde eta goialde kanonikoen izenik (*top / encimera; bottom / bajera*). Horiek parteak dira (ez LEak) baina lagundu egiten dute gauzak lekutzen, arbolak etzanda ere lehengo lekuan baitauzka *top* eta *botton*, eta mahaiak, eta abarrek.

(122.) Gauza ona da lexiko berria sortzea, beharrizanek aginduta baldin badator. Lexiko berri hori daukagun lexikoa ondo ezagutzetik (paradoxa badirudi ere), daukagun lexikoa egokitzetik, eta mailebatzetik etorriko zaigu.

(123.) Lekugune erlatiboek izen-kategoria daukate, denek. **Sakon** LE da, baina hiztegiek ez diote izen-kategoria hori aitortu. Erabilpen urria dela eta, hemen aztertu ez den **zabal**i hiztegi batek aitortu dio izen-kategoria.

4.4 Egindako urrats nagusiak eta konklusio orokorrak

- Euskararen espazio-adierazgailuek orain artekoa baino ezagutza hobea merezi dutela-eta, topografia, marrazkigintza eta teknika enparauak praktikatzean ere lortzen den eta Leonard Talmyk azaldu zuen espazioaren irudikapen eskematikoa erabiliz, lekugune erlatiboen adierak marraztu egin dira. Marrazki edo eskema horietarako informazioa corpus bitatik atera eta 2.7.5 azpiatalean deskribatu den bezala erabili izan da.
- Eskemak marraztea merezi izan du, espazioko kontzeptuak irudiz eta begien bidez hobeto ulertzen-ikusten baitira. Gero lexikografoek, edo norberak, jarriko dizkie kontzeptuoi definizioak, definizioak behar baldin badira eskemak izanik. Tesilan honetan ere jarri zaio hitzezko definizioa adiera bakoitzari, ikuspegi teknikotik abiatuz lexikografikotik baino areago.
- Gai hau azaltzeko behar den terminologia gutxienekoa definitu da Aribidea deitutako atalean. **Abiaki, lekugune erlatibo, zuin** eta abar definitu dira bertan.

- Aribidean baitere, azterkuntzaren joanean aurkitu diren zailtasunak edo korapiloak askatu dira aldez aurretik, gero oztopo izan ez daitezen eremu lexikalaren trataeran. Horrela, eta besteak beste, -ti atzizkiaren eragin hedatzailea eta [abiakiko LE] izen-sintagmaren ezinezkoa izan dira aldez aurreko emaitzak.
- Eremu lexikalean LEak norabidetan sailkatu dira. LEen polisemia, sinonimia eta izen-sintagmaren osakera landu dira batez ere, propietate horiek baitira espazio bertsuak ala desberdinak adieraztean eragina daukatenak.
- Eremu lexikalaren analisiaren emaitzak, zertxobait laburbilduak, iruditan erakutsi dira. Irudiotan, zein espazio zein izen-sintagmaren bidez adierazten den ikusten da. Horrela badakigu, LEen arlo honetan, euskarak espaziotan eskaintzen dituen aukerak, eta espazio horiek adierazteko eskaintzen dituen izen-sintagmak zeintzuk diren. Hori, garrantzizko ekarpena da; horrela, izen-sintagma bakoitzak adierazten duen espazioa zein den baitaki proiektugileak: bai berak adierazi beharreko espazioa hitzez adierazteko, eta bai beste batek idatzitako izen-sintagmari dagokion espazioa esleitzeko.
- Azterkuntza luzearen ondoren, eta zenbait zertzeladaren jabe delakoan, gaia landu duenak konklusio izaerako zenbait balorazio gehigarri hitzez ematea merezi duela erabaki du; batik bat, semantikako arlo hau teknika-munduan hoberanzko bidean ipintzea izan zelako hasierako xedea eta xede eragilea. Balorazio horiek, 123 guztira, gehitu egin dira, lehen begiradan ageri ez diren ñabardura batzuk aipatzeko, eremu lexikalean ustez ahuleziak direnak gogora ekartzeko, eta ahulezia horietarik batzuk konponbidean jar daitezen zerbait iradokitzeko.
- Lekugune erlatiboen eremu lexikala aztertzea eta ezagutzea izan du tesilan honek xedea, 2.1 azpiatalean ezarri izan den bezala. Azterkuntza honen ondoren ere, gauza bat baino gehiago ezkutuan eta jakiteke geratuko da, baina xede horretarantz nahikoa bide luzea egin da hemen, gai honetaz ezagutza hobea izan dadin.

——§§§——

BIBLIOGRAFIA

INGENIARITZAKO PROIEKTUEI ETA KOMUNIKAZIOARI DAGOKIENA:

Asimow, Morris. (1968). *Introducción al Proyecto*. Herrero Hnos. Sucs., S.A., México D.F.

Benito, Ángel. (1982). *Fundamentos de la Teoría General de la Comunicación*. Ediciones Pirámide S.A. Madrid.

Caamaño Eraso, Javier. (1994*). Informes Técnicos, Fases y Documentos del Proyecto*. Sección de Publicaciones de la Escuela Técnica Superior de Ingenieros Industriales y de Telecomunicación de Bilbao.

Gomez-Senent Martinez, Eliseo. (1989). *Introducción al Proyecto*. Servicio de Publicaciones de la Universidad Politécnica de Valencia. Valencia.

Project Management Institute Standards Committee. (1996). *A guide to the Project Management Body of Knowledge.* Project Management Institute, 130 South State Road, Upper Darby, PA 19082 USA.

Rosenstein, Allen B.; Rathbone, Robert R.; Schneerer, William F. (1970). *Las Comunicaciones en la Ingeniería*. Herrero Hermanos, Sucesores,S.A. México.

Schramm, Wilbur; Roberts, Donald F. (1954). *The Process and Effects of Mass Communication*. University of Illinois Press. Urbana, Illinois. (1971)

Shannon, Claude E.; Weaver, Warren. (1949). *Teoría Matemática de la Comunicación.* Forja. Madrid. (1981)

Simon, Harold A. (1975). *A Student's Introduction to Engineering Design*. Pergamon Press Inc. New York.

Woodson, Thomas T. (1966). *Introduction to Engineering Design*. Mc Graw-Hill Book Company. San Francisco.

LEXIKOLOGIARI DAGOKIONA:

Ahumada Lara, Ignacio. (1989). *Aspectos de Lexicografía Teórica*. Universidad de Granada.

Allen, James. (1994). *Natural Language Understanding.*The Benjamin/Cummings Publishing Company.

Alston, W. (1971). "How does one tell whether a word has one, several or many senses?. In : D.D. Steinberg and L.A. Jakobovits (eds.), *Semantics.* London/New York: Cambridge University Press.

Ascombre, Jean-Claude. "*Sur/sous*: De la localisation spatiale à la localisation temporelle." *Lexique*. 1993; 11,111-45

Aurnague, Michel. (1989)."Catégorisation des objets dans le langage: les noms de localisation interne." *Cahiers de Grammaire* 14.a, UTM, Toulouse.

Aurnague, Michel. (1994). "L'expression de l'espace en basque: à propos du génitif et de l'inessif." agerkizun Linguisticae Investigatione 18.ean.

Aurnague, Michel; Vieu, Laure. (1994). "Toward a formal representation of space in language: A common reasonning approach". Revised version of the paper presented at the IJCAI'93 Workshop on Spatial and Temporal Reasonning.

Aurnague, Michel. (1991). *Contribution à l'étude de la sémantique formelle de l'espace et du raisonnement spatial: la localisation interne en français, sémantique et structures inférentielles.* (Doktorego tesia) Université Paul Sabatier. Toulouse.

Avila, R. (1972). "El campo semántico Aparatos Eléctricos para Iluminación", *NRFH* 21, 2 (1972), 273-300 or.

Baldinger, Kurt. 1964. "Sémasiologie et onomasiologie en diacronie." 1964. *Revue de linguistique romaine* 28, 249-272.

Baldinger, Kurt. 1970. *Teoría Semántica. Hacia una semántica moderna.* Ediciones Alcalá, Madrid.

Baldinger, Kurt. (1984). *Vers une sémantique moderne*. Ëditions Klincksiek. Paris.

Bae-Lev, Zev. (1976). "Spatial Relations". *Folia Linguistica*, X-3/4, 263-274 or.

Beard, R. (1990). "The Nature and Origins of Derivational Polysemy" *Lingua* 81, 101-140 or.

Beauchesne, Gabriel (Ed.). (1926). Paris.

Bennett, David C. (1975). *Spatial and Temporal Uses of English Prepositions. An Essay in Stratificational Semantics.* London: Longman.

Berlin, Isaiah. (1976). *Teoria del Significado.* Fondo de Cultura Económica (G.H.R. Parkinson)

Berthoeau, Anne-Marie. (1993). "*Avant/après*: De l'espace au temps." *Lexique.* (1993); 11, 41-109

Bierwisch, Manfred. (1988). "On the grammar of local prepositions." In *Syntax, Semantik und Lexikon, Rudolf Ruzicka zum 65. Geburtstang,* M. Bierwisch, W. Motsch, and I. Zimmermann (eds.). 1-65. Berlin: Akademie-Verlag.

Bierwisch, M., Motsch, W. and Zimmermann (Eds.). (1988).*Syntax, Semantik und Lexikon, Rudolf Ruzicka zum 65. Geburtstang.* Berlin: Akademie-Verlag.

Borel, Marie-Jeanne. (1986). "Schématisations de l'espace." *Cahiers du Département des Langues et des Sciences du Langage* 3.a, 53-67 or., Université de Lausanne.

Borillo, Andrée. (1992). "Quelques marqueurs de la deixis spatiale." 245-56 in Morel, Mary-Annick, ed.; Danon-Boileau, Laurent, ed. *La Deixis*. Paris: PU de France; (1992). 664 or.

Borillo, Andrée. (1990). "A propos de la Localisation Spatiale" *Langue Française* 86.a, 75-85 or. Larouse, Paris.

Borillo, Andrée. (1988). "Le lexique de l'espace: les noms et les adjectifs de localisation." *Cahiers de Grammaire* 13.a, 2-23 or. UTM, Toulouse.

Bühler, Karl. (1982). "The deictic field of language and deictic words." 9-30 in *Speech, place, and action: Studies in deixis and related topics*. Ed. by RobertJ. Jarvella and Wolfgang Klein.- John Wiley & Sons Ltd.,New York.

Cahill, Aldan. (1989). "Word-frecuency dictionaries of Russian*."* *Lexicographers and their work*, 14. Exeter Linguistic Studies .

Casad, Eugene H. (1982). *Cora Locationals and Structured Imagery* (Doktorego tesia). University Microfilms International Dissertation Services.

Casares, Julio. (1950). *Introducción a la Lexicografía Moderna.* Instituto Miguel de Cervantes.

Clark, Herbert H. (1973). "Space, time, semantics, and the child." In T.E. Moore (Ed.), *Cognitve development and the adquisition of language.* New York: Academic Press; 27-62 or.

Clark, Herbert H. & Clark, Eve V. (1977). *Psychology and Language. An introduction to psycholinguitics. (Spatial Terms* atala). Harcourt Barace Jovanovich, Publishers. New York.

Cervoni, Jean. (1991). *La préposition. Étude sémantique et pragmatique*. Éditions Duculot, Paris-Louvain-la-Neuve.

Ci, Jiwei. (1987). "Synonymy and Polysemy." *Lingua*. (1987) Aug; 72(4): 315-331

Cienki, Alan J. (1989). *Spatial Cognition and the Semantics of Prepositions in English, Polish and Russian.* Munich: Sagner; 165 or. (Slavistishe Beiträge)

Coserieu, Eugenio. (1981). *Principios de Semantica Estructural* Editorial Gredos. Madrid.

Coventry, K.; Carmichael, R.; Garrod, S. (1994). "Spatial Prepositions, Object-Specific Function, and Task Requirements". *Journal of Semantics* 11: 289-309

Cowie, A.P. (1989). "The language of examples in English learners' dictionaries". *Lexicographers and their work*, 14. Exeter Linguistic Studies .

Crow, Judith Sachs Merrian. (1989) *Toward a Semantics for English Spatial Expressions.* (Doktorego tesia). University Microfilms International Disertation Services.

Cuyckens, Hubert. (1983). "Spatial prepositions: towards a treatment of word meaning in formal semantics" in *Een spyeghel voor G. Jo Steenbergen; huldealbum aangeboden bij zijn emeritaat.* Fr. Dems & L. Goossens (eds.).- Leuven: Acco, (1983), 442 p., portr. 69-82. fig.

Cuyckens, Hubert. (1988). "Spatial Preposition in Cognitive Semantics." 316-328 in Hüllen, Werner, ed. ; Schulze, Rainer, ed. *Understanding the Lexicon: Meaning, Sense and World Knowledge in Lexical Semantics.* Tübingen: Niemeyer; (1988). vii, 445 or.

Davis, Steven. (1991). *Pragmatics.* Oxford University Press

Dems, Fr. and Goosens, L. (Eds.). (1983). *Een spyeghel voor G. Jo Steenbergen; huldealbum aangeboden bij zijn emeritaat.* Leuven: Acco

Dodd, W, Steven. (1989). "Lexicomputing and the dictionary of the future." *Lexicographers and their work,* 14. Exeter Linguistic Studies .

Ehrich, Veronika. (1985). "The linguistics and psycholinguistics of secondary spatial deixise." 225-235 in Hoppembrowers, P.A.M., Seuren, P.A.M., and Weijters, A.J.M.M. (eds.) *Meaning and the Lexicon*. Foris Publications. Dordrecht-Holland.

Ernst, Thomas. (1987)."Adverbs, Polysemy, and Compositional Semantics." WPL. (1987) May; 35: 74-83

Espejo Muriel, Mª del Mar. (1990). L*os Nombres de los Colores en Español. Estudio de Lexicología Estructural* (Doktorego tesia).Universidad de Granada.

Fernandez de Larrinoa, K. (1991).*Hitzak, denbora eta espazioa: zabalera geografikoaren eta sozialaren pertzepzioa baserrian eguneroko hizkuntzaren bitartez* (Doktorego tesia). Elkar, Donostia.

Fillmore, Charles J. (1982). "Towards a Descriptive Framework for Spatial Deixis". 31-60 in *Speech, place, and action: Studies in deixis and related topics*. Robert J. Jarvella and Wolfgang Klein (eds.).- John Wiley & Sons Ltd.,New York.

Forster, Kenneth I. (1989). "Basic Issues in Lexical Processing". In *Lexixal Representation and Process*, ed. William Marslen-Wilson, The MIT Press.

Garnham, Alan. (1989). "A Unified Theory of the Meaning of Some Spatial Relational Terms." Cognition. (1989) Feb.; 31(1): 45-60

Geckeler, Horst. (1976). *Semántica Estructural y Teoria del Campo Léxico.*Gredos, Madrid

Geeraerts, Dirk. (1989). "The lexicographical treatment of prototypical polysemy" in Savas Tsohatzidis ,ed. *Meanings and Prototypes*. Routledge.

Giuliani, Maria Victoria, eta Puglielli, Annarita. (1985). "Le lexicon of "living" space", 335-340 in *Meaning and Lexicon*, Hoppenbrouwers, G.A.J., Seuren, P.A.M. and Weijters, A.J.M.M. (eds). Fons Publications. Dordrecht-Holland.

Greenberg, Joseph H. (Ed.). (1986). *Universals of Human Language*. Stanford: Stanford University Press.

Greimas, A.J. (1966). Semántica Estructural. Investigación metodológica. 1971. Editorial Gredos. Madrid.

Gold, David L. (1983). "Lexicology vs lexicography." *LPLP* 7/3, (1983), 361-362

Gorog, Ralph de. (1981). "The application of onomasiology to synonymy, word formation, and etymology." *Word* 32, (1981)((1982)), 99-108

Grimaud, Michel. (1988). "Toponyms, Prepositions, and Cognitive Maps in English and French." *Geolinguistics*. (1988); 14: 54-76

Guilbert, Louis. (1975). *La Créativité Lexicale.* Librairie Larousse, Paris.

Gutierrez Ordoñez, S. (1989). *Introducción a la semántica funcional.* Editorial Síntesis. Madrid.

Haensch, G. - Wolf, L. - Etinger, S. - Werner, R. (1982).*La Lexicografía, de la lingüistica teórica a la lexicografía práctica.* Editorial Gredos. Madrid.

Herskovits, Annette. (1982). *Space and the preposition in English: regularities and irregularities in a complex domain.* (Doktorego tesia). University Microfilms International Dissertation Services.

Herskovits, Annette.(1988). "Spatial Expressions and the Plasticity of Meaning." 271-97 in *Topics in Cognitive Linguistics,* Rudzka-Ostyn, Brygida, ed. Amsterdam: Benjamins; (1988). viii. 704 or.

HABE Andia. (1986). *Lanerako Euskara (Zientzia eta Teknika saila).* ZURE Argitaletxea. Donostia.

Hjelmslev, Louis. (1978). *La Categoría de los Casos.* Editorial Gredos. Madrid.

Hlebec, Boris. (1986) "Sources of Shared Polysemy in English Spatial Adjectives." *SAP.* (1986); 18: 2O5-222

Hoppenbrouwers, G.A.J., Seuren, P.A.M. and Weijters, A.J.M.M. (Eds.). (1985). *Meaning and Lexicon.* Fons Publications. Dordrecht- Holland.

Hüllen, Werner and Schulze, Rainer (Eds.) (1988). *Understanding the Lexicon: Meaning, Sense and World Knowledge in Lexical Semantics.* Tübingen: Niemeyer; (1988). vii, 445 or.

Hurford, James & Heasley, Brendan. (1989). *Semantics:a coursebook.*Cambridge University Press.

Instituto Torroja

Léxico de la Construcción.

1956, decimoctava edición.

Izaguirre, Candido. (1970)."El Vocabulario Vasco de Aranzazu-Oñate." *Anuario Filología Vasca "Julio de Urquijo*", 4. liburukia.

Jackendoff, Ray. (1983).*Semantics and Cognition.* The MIT Press, Massachusetts.

Jackendoff, Ray. (1993). "X-Bar Semantics". 15-26 in *Semantics and the Lexicon,* James Pustejovsky (ed.). Kluwer Academic Publishers. Dordrecht / Boston / London.

Jarvella, Robert J. and Wolfgang Klein (Eds.). (1982). *Speech, place, and action: Studies in deixis and related topics.* John Wiley & Sons Ltd.,New York.

Jaworska, Ewa. (1986). "Prepositional Phrases as Subjects and Objects*." Journal of Linguistics*, 355-374 or.

Johnson-Laird, P.N. (1983). *Mental Models.* Cambridge University Press.

Kay, C. & Samuels, M.L. (1975). "Componential analysis in semantics: its validity and applications." *TPhS (*1975)((1977)), 49-81.

Kimball, J. (Ed.) (1975). *Syntax and Semantics.* New York: Academic Press.

Kittay, Eva; Lehrer, Adrianne. (1981). "Semantic fields and the structure of metaphor." *Studies in Language (SLang)* 5, (1981), 31-63

Kleiber, Georges. (1995). "Polysémie, transferts de sens et métonymie intégrée." *Folia Linguistica* 29(1-2):105-132 or.

Komlev, N.G. (1976). *Components of the content structure of the word.* JanL. Seies minor 138; The Hague: Mouton. 227 or.

Lafon, René. (1965). "Les deux génitifs en basque." *Bulletin de la Société Linguistique* 65, 131-159 or.

Lafon, René. (1948)."Sur les suffixes casuels -ti et -tik." *Eusko-Jakintza (REV*), 2. liburukia, 141-150 or.

Lakoff, George. (1987). *Women, Fire, and Dangerous Things. What Categories Reveal about the Mind.* The University of Chicago Press.

Lakoff, George. (1993). "The Syntax of Metaphorical Semantic Roles". 27-36 in *Semantics and the Lexicon,* James Pustejovsky ed. Kluwer Academic Publishers. Dordrecht / Boston / London.

Langacker, Ronald W.(1972). *Fundamentals of Linguistic Analysis.* Harcourt.

Langacker, Roland W. (1983). *Foundations of Cognitive Grammar.* Indiana University Linguistics Club.

Lappin, Shalom. (1981). *Sorts, Ontology, and Metaphor. The Semantics of Sortal Structure.* Walter de Gruyter & Co. Berlin.

Laur, Dany. (1989). "Semantique du déplacement à travers une étude des verbes et de prépositions de français." *Chaiers de Grammaire* 14.a, UTM, Toulouse.

Leech, G.N. (1969). *Towards a semantic description of English.* Logman Linguistic Library, London.

Leech, Geoffrey. (1981). *Semantics: the study of meaning.* Penguin Books.

Levelt, Willem J.M. (1982). 251-268 in *Speech, place, and action: Studies in deixis and related topics*. Ed. by Robert J. Jarvella and Wolfgang Klein.- John Wiley & Sons Ltd.,New York.

Levelt, Willem J.M. (1984). "Some perceptual limitations on talking about space". In A.J. van Doorn, W.A. van der Grind & J.J. Koenderink eds., *Limits in perception*. Utrecht: VNU Science Press.

Lyons, John. (1980). *Semántica.* Editorial Teide, S. A. Barcelona.

Lyons, John. (1982). "Deixis and Subjectivity: Loquor, ergo sum?" 101-124 in *Speech, place, and action: Studies in deixis and related topics*. Ed. by Robert J. Jarvella and Wolfgang Klein.- John Wiley & Sons Ltd.,New York.

Malkiel, Yakov. (1992). Problems in the Diachronic Differentiation of Ner-Homophones Diachronic Studies in Lexicology, Affixation, Phonology. John Benjamins Publishing Company, Amsterdanm/Philadelphia.

Marslen-Wilson, William (Ed.). (1989). In *Lexixal Representation and Process*. The MIT Press.

Miller, G. & Johnson-Laird, P. (1976). *Language and Perception.* Cambridge University Press.

Miller, George A. (1982). "Some Problems in the Theory of Demonstractive Reference". 61-72 in *Speech, place, and action: Studies in deixis and related topics*. Ed. by Robert J. Jarvella and Wolfgang Klein.- John Wiley & Sons Ltd.,New York.

Michelena, Luis. (1985). *Fonética Histórica Vasca* Seminario Julio de Urquijo, San Sebastian.

Morel, Mary-Annick and Danon-Boileau, Laurent (Eds.). (1992). *La Deixis.* Paris: PU de France; (1992). 664 or.

Moore, T.E. (Ed.). (1973). *Cognitve development and the adquisition of language.* New York: Academic Press.

Natanson, E. (1982). "Approche terminologique de la polysémie." 270-279 in [Nebodity, Wolfgang, ed.]; Felber, Helmut, pref. *Terminologies for the Eighties.* Munich: Saur; (1982). 412 or. (Infoterm Ser. 7)

Nebodity, Wolfgang (Ed.).(1982). *Terminologies for the Eighties.* Munich: Saur; (1982). 412 or. (Infoterm Ser. 7)

Odriozola, Juan Carlos; Cantero, Alberto. (1992). "Euskal Izenondoaren Kokapenaren Buruzko Zenbait Ohar." *EUSKERA*- XXXVII

Pick, Herbert L. and Acredolo, Linda P. (Eds.) *Spatial Orientation: theory, research and aplication.* Plenum Press, New York.

Pottier Navarro, Huguette. (1991). *La polisemia léxica en español. Teoría y resolución.* Editorial Gredos. Madrid.

Pustejovsky, James (Ed.). (1993). *Semantics and the Lexicon.* Kluwer Academic Publishers. Dordrecht / Boston / London.

Rudzka-Ostyn, Brygida (Ed.). (1988). *Topics in Cognitive Linguistics.* Amsterdam: Benjamins.

Ruhl, Charles. (1989). *On Monosemy. A study in linguistic semantics*. State University of New York.

Sang, Ivan A. and Szabolcsi, Anna (Ed.). *Lexical Matters*. Center for the Study of Language en Information Leland Stanford Junior University, USA

Schober, Michael F. (1993). "Spatial Perspective-Talking in Conversation." *Cognition*. (1993) Apr; 47(1): 1-24

Spelke, Elizabeth. (1990). "Principles of Object Perception." *Cognitive Science* 14.a, 29-56 or.

Steinberg, D.D. and Jakobovits, L.A. (Eds.). (1971). *Semantics.* London/New York: Cambridge University Press.

Seuren, P.A.M. and Weijters, A.J.M.M. (Eds.). (1985). *Meaning and the Lexicon*. Foris Publications. Dordrecht-Holland.

Svorou, Soteria. (1993). *The Grammar of Space.* John Benjamins.

Talmy, Leonard. (1975). "Semantics and Syntax of Motion". In J. Kimball ed., *Syntax and Semantics*, Vol. 4, 181-238 or. New York: Academic Press.

Talmy, Leonard. (1983). "How language structures space" in *Spatial Orientation: theory, research and aplication*. Herbert L. Pick and Linda P. Acredolo ed., Plenum Press, New York.

Trask, R.L. (1985). "-Ko Atzizkia Euskaraz." EUSKERA XXX, 1985-1, 165-173 or.

Traugott, Elizabeth Closs. (1986). "On the Expression of Spatio-Tenporal Relations in Language." In Joseph H. Greenberg, ed., *Universals of Human Language, Vol.* 3: 369-400. Stanford: Stanford University Press.

Trujillo, R. (1970). *El campo semántico de la valoración intelectual en español.* (Doktorego tesia). Universidad de La Laguna.

Tsohatzidis, Savas (Ed.). (1989). *Meanings and Prototypes*. Routledge.

Ullmann, Stephen. (1980). *Semantica. Introducción a la ciencia del significado.* Aguilar. Madrid.

Ullmer-Ehrich, Veronika. (1982). "The Structure of Living Space Descriptions". 219-249 in *Speech, place, and action: Studies in deixis and related topics*. Ed. by Robert J. Jarvella and Wolfgang Klein.- John Wiley & Sons Ltd.,New York.

Valdeloise, Claude. (1986). *L'espace en français.* Édition du Seuil, Travaux Linguistiques.

Vandeloise, Claude. (1988). "Les Usages Spatiaux Statiques de la Preposition **à**" *Cahiers de Lexicologie* 53.a, 119-145 or.

Vandeloise, Claude. (1989). "Representation, prototypes, and centrality." In Savas Tsohatzidis ,ed. Meanings and Prototypes. Routledge.

Vanparys, Johan. (1984). "Source Metaphors in English." *JPrag*. (1984) June; 8(3): 395-410

Villasante, Luis. (1978). Estudios de sintaxis vasca. Editorial Franciscana Aranzazu. Oñate.

Villasante, Luis. (1981). Palabras vascas compuestas y derivadas. Editorial Franciscana Aranzazu. Oñate.

Wargner, C. 1982. "A propos de l'analyse sémique". *Cahiers de Lexicographie (CLex)* 40, (1982)/1, 11-26 or.

Winston, M.E. & Chaffin, R. & Herrmann, D. (1987)."A Taxonmy of Part-Whole Relations." *Cognitive Science* 11.a, 417-444 or.

Wotjak, Gerd. (1979). *Investigaciones sobre la Estructura del Significado.* Editorial Gredos. Madrid.

Wunderlich, Dieter. (1991) "How Do Prepositional Phrases Fit into Compositional Syntax and Semantics?" *Linguistics. (*1991); 29(4[314]): 591-621

Wunderlich, Dieter and Reinelt, Rudolph. (1982). 183-201 in Speech, place, and action: Studies in deixis and related topics. Ed. by Robert J. Jarvella and Wolfgang Klein.- John Wiley & Sons Ltd.,New York.

HIZTEGIAK:

Azkue, R.M. de. (1969). *Diccionario Vasco-Español-Frances.* Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

Elhuyar Kultur Elkartea. (1993). *Hiztegi Entziklopedikoa* Usurbil.

Klaudio Harluxet Fundazioa.(1995).*Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* (ENTZerainokoa). Donostia.

EUSKALTZAINDIA, (1995) *Orotariko Euskal Hiztegia* (GUBeraino)(8 liburuki).
Editorial Desclée De Brouwer, S.A. eta Ediciones Mensajero, S.A. Bilbao.
Lhande, Pierre. (1926). *Dictionnaire Basque-Français.*
Gabriel Beauchesne (ed), Paris.
Lur Argitaletxea s. a. *Lur Hiztegi Entziklopedikoa.*
Mujika, Placido. (1984). *Diccionario Vasco-Castellano.*
Editorial Mensajero, Bilbao.
Sarasola, Ibon. (1984-1995). *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia.*
Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. 9. liburua. Donostia.

BIBLIOTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

ZEHAR



1

OTECA VIRTUAL
CUEL D
VANTES

OHARRA: Datu gutxi daude LE honetaz. Horrek ekar zezakeen adiera gehiago aurkitu ez izana.

BIBLIOTECA VIRTUAL
MIGUEL DE CERVANTES

ERANSKINA

AURKIBIDEA

CORPUSETAKO IDAZLEEN ETA LIBURUEN KODEAK 5

UZEIREN CORPUSA 5

OROTARIKOAREN CORPUSA 20

LEKUGUNE ERLATIBOEN ADIERAK 25

Aitzin 27

Albo 31

Aldamen 38

Alde 43

Alderdi 65

Arte, tarte 71

At, ate 77

Atari, atadi 80

Atze 83

Aur 89

Aurre 91

Azpi 96

Barano 106

Barne 108

Barren 113

Barrendi 120

Barru 121

Barrunbe 127

Barruti (ez da LE) 131

Bazter 134

Behe 145

Behere 155

Beheti, beheiti 158

Bitarte 161

Erdi 166

Ertz 171

Gain 179

Gaindi 189

Garai 194
Garaiera (ez da LE)....198
Garaiti, garaite....200
Gibel 201
Goi 205
Goiera (ez da LE) 213
Goiti 215
Gorapen (ez da LE)....219
Handi 221
Haraindi, haindi....225
Harendi 229
Hegal....230
Hegi 236
Hemendi....242
Honaindi, hunaindi 245
Hondo....247
Horraindi....253
Horti....255
Inguru....257
Iraitz....265
Kanpo....268
Landa 273
Lekore 276
Mangune, manguna (ez da LE)....279
Ondo 280
Oste....285
-pe, -be 289
Saihets....295
Sakon 299
Urruti 303
Zabaldi, zabale (ez da LE) 308
Zehar....310

CORPUSETAKO IDAZLEEN ETA LIBURUEN KODEAK

UZEIREN CORPUSA

Hemen zenbakizko kode honen lehen bederatzi digituak baino ez dira erakusten, gainerakoak esaldia liburuaren barruan aurkitzekoak dira eta. Bederatzi digitu horietarik lehen laurak testuak sailkatzeko dira, eta honela sailkatu ere:

EPEA		EUSKALKIA		TESTU-MOETA	
1	1990-1939	1	Bizkaiera	01	Egunkarietako idazkiak
2	1940-1968	2	Gipuzkera	02	Hamabostekarietako idazkiak
3	1969-1987	3	Zuberera	03	Saio-aldizkarietakoak
		4	Lapurtera/nafar.	04	Administrazio.idazkiak
		5	Euskara batua	05	Ikasliburuak
		6	Bestelakoak	06	Saiakera
		7	Nahasiak	07	Literatur prosa
				08	Poesia
				09	Antzerkia
				10	Bertsoak
				11	Ikerketa-idazkiak
				12	Haur eta gazte literatura
				13	Ahozkoak(transkribapenak)
				14	Liturgi idazkiak

Gero, bost digitu enparauak autoreari eta obrari dagozkionak dira.

Tesi honetan autore eta obra hauek* erabili dira UZEIren Corpusetik hartuta:

* Idazlan bat eta autore bi daudenean kodea errepikatu egiten da.

Kodea	Idazlea	Idazlana**	Urtea***
110310151	ZABALA ARANA GOIRIENA Jose Maria	Euzkerea VII	1935
110310245	URKIAGA Esteban LAUAXETA	Euzkerea I	1930
110320207	ALBIZURI Serapin	Euskadi V	1908
110320227	EGUZKITZA MEABE Juan Bautista de	RIEV XV	1924
110520271	EZEZAGUNA* Euskeraz irakurrteko irakaspidea ta lenengo irakurrkizunak		
110710102	LARRAKOETXEA AGIRREZABALA Ipolito E.	Esnalea XVIII	1928
110720234	EZEZAGUNA* Urteko Domeca gustijetaraco verbaldi... Orain gueitu jacoz...		
110730036	GONZALEZ DE ECHAVARRI Luis	Ipuin aberrkoyak	
110730044	AITA MARTIN KARMELDARRA KarmengoAndra Marijari bederatziurrena		
110740001	BENGOA Eusebio AKORDAGOITIA	E. Esnalea IV	1914
110740007	ETXEITA Jose Manuel	Jayoterri Maittia	
110740008	GARITAONANDIA Balbino	Orrilleco lorac Jaungoicoaren	
110740015	ZAMARRIPA URAGA Pablo	Zaparradak eta...	
110740017	AZKUE Resurrección María	Bein da betiko Batxi Guzur	
110740019	IBARGUTXI Jon Kurutz	Edesti deuna	
110750003	IBARGUTXI Jon Kurutz	Kristiñau-Ikasbide-Atzalbena,	
110750007	ETXEITA Jose Manuel	Josetxo	
110750008	AZKUE Resurrección María	Latsibi	
120310102	JOANNATEGUY Basile	RIEV II	1908
120320409	INTZAGARAI Ramon de	Euskera VII	1926
120320422	LABAYEN Antonio Maria	Gwalarn Yakintza I	1933
120320432	PRADERE ARRUTI Blas	Euskal Erria LI	1904
120330009	AZKUE Resurrección María	Euskera VIII	1927
120330014	ECHEGARAY CORTA Carmelo	Itzaldiak II	1923
120330017	LHANDE HEGUY Pierre Agirre [Domingo]	Itzaldiak II	1923
120330024	URKIA Fernando	E. Esnalea XX	1930
120420449	EZEZAGUNA* Euskaltzaindiaren sortarauak		
120630048	EZEZAGUNA* Yosukristo gure Yaunaren Nekaustea euskerazko neurrtitzez.		
120640003	V.M.A.I." Kontu alai ta egi mardulak. Egi-sortachua. Lenbiziko sorta		
120640004	ITURRIA Jose	Eiza-iztia edo abere ta piztiak	
120710107	ARRUE Jose Arantzazu.	Aránzazu IV	1924
120710225	G.B.A.	Aránzazu XII	1932
120720001	AGIRRE Jose Maria de LIZARDI	Gure Herria X	1930
120720082	URRUZUNO Pedro Migel	E. Esnalea II	1912
120730021	FURUNDARENA LABAT Estanislao	Deitzak	
120730052	URRUZUNO Pedro Migel	Euskalerritik zerura eta beste ipuin batzuk	
120740002	AGIRRE Jose Maria de LIZARDI	Itz lauz	
120740007	BIGURIA OZTA Pascual Bernardino	Lore Usaindun-Mamitsuak.	
120740012	ORMAETXEA Nikolas ORIXE	Mireio	
120740015	AZKUE Jose Maria	Asis`tarr Prantzisko Donearen bizitza	
120740019	ZINKUNEGI Joseba Indalezio	Balmes`en El Criterio euskeraz	
120740034	IRAIZOZ Polikarpo	Lapurren menpean.	
120750001	AGIRRE BADIOLA Domingo de	Garoa	
120750005	OLABIDE Erraimun	Itun Berria	
120750009	AZKUE Resurrección María	Ipuiñak	
120920047	AZKUE Resurrección María	Ortzuri. RIEV V	1911
120920062	LABAYEN Antonio Maria	Gizon Bizarpeituti eta Emazte Bizartsuti	

** Aldizkarikoa bada, artikuluaren izenburuaren ordez aldizkariaren izena ematen da.

*** Aldizkaria denean, urtea edo aldizkariaren zenbakia ematen da. Liburua denean, goian azaldutako epe-kodea baino ez dago.

Kodea	Idazlea	Idazlana	Urtea
120920067	MUJIKA Errobustene	Gabon Antzerti	
120920073	ALZAGA Toribio	Aterako gera!	
120930090	GARITAONAINDIA Bitor Iziartxo.	Bi egintza`dun antzerkia	
121240029	LERTXUNDI BAZTARRIKA Juan Manuel	Gauzen ikaskizunak umientzako	
121430076	JIMENO EGURVIDE Manuel	Excelsisco Miguel Santubaren Eliza	
121430084	ARBELAITZ	Erriarentzako liturgia. Bezperak. Meza Donearen azalpena.	
121440032	ZALOÑA Pedro Luis	Arantzazuko Ama Birginaren Kondaira ta bederatzi	
130920366	HILLAU A.	Gure Herria XVI	1936
140320119	ELISSALDE Jean ZERBITZARI	Gure Herria V	1925
140320158	LARZABAL Pierre	Gure Herria XIV	1934
140330004	LAFITTE Pierre	Gure Herria IX...	1929
140330005	LARZABAL Pierre	Gure Herria XVI	1936
140340008	AZKUE Resurrección María	Euskera VIII	1927
140340009	DASSANCE Louis	Gure Herria III...	1923
140340009	ELISSALDE Jean ZERBITZARI	Gure Herria III...	1923
140350011	ETCHEPARE Jean	Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) idazlanak.	
140630014	MINVIELLE	Haurren arthatzeaz.	
140640015	ELISSALDE Jean ZERBITZARI	Gure Herria XI...	1931
140640018	ETCHEPARE Jean	Buruchkak.	
140710029	BARBIER Jean	Gure Herria III	1923
140720128	BARBIER Jean	Gure Herria V	1925
140730006	DUHOUR Pierre	Gure Herria X	1930
140730008	ETCHEPARE Jean	Gure Herria IX	1929
140740017	BARBIER Jean Piarres	[Lehen-zathia]	
140740020	EZEZAGUNA*	Catichima edo Fedea laburzki	
140740022	ELISSALDE Jean ZERBITZARI	Bahnar deithu Salbaiak	
140750029	LEON Leon	Jesu-Kristoren Imitazionea	
140920379	LARZABAL Pierre	Gure Herria XVII	1937
171500601	GISASOLA Kepatxu	Euzkadi	1918.07.22
171501802	"ASUKO"	Euzkadi	1930.07.25
171501808	"ERLO MENDI"	Euzkadi	30.07.25
171501904	BELAUSTEGI Francisco	Euzkadi	31.07.02
171502201	"ATARRIZBARRNA"	Euzkadi	34.02.04
171502405	EZEZAGUNA*	Euzkadi	36.07.11
171503008	GARMENDIA Juan	El Día	32.09.23
171503302	ETXEBERRIA Francisco	El Día	34.02.21
171503402	"BIRIGARRO"	El Día	34.09.02
171503407	"EUSKO LANGILE BAT"	El Día	34.07.13
171605406	"ZUBI AUNDI"	Argia	31.08
171605407	"ITXAS-AURRE"	Argia	31.08
171607504	"TXUBILLO"	Argia	36.08.18
171607506	LABAYEN Antonio Maria	Argia	36.08.18
171607507	EZEZAGUNA*	Argia	36.08.18
171608805	EZEZAGUNA*	Eskualduna	01.12.13
171609202	EZEZAGUNA*	Eskualduna	02.12.12
171609203	EZEZAGUNA*	Eskualduna	02.12.12
171609205	EZEZAGUNA*	Eskualduna	02.10.03
171610001	"L.H.E.C."	Eskualduna	04.11.11
171610002	EZEZAGUNA*	Eskualduna	04.10.28
171610301	EZEZAGUNA*	Eskualduna	05.09.08
171611302	EZEZAGUNA*	Eskualduna	08.02.12
171611806	EZEZAGUNA*	Eskualduna	09.05.21
171617901	EZEZAGUNA*	Eskualduna	24.09.05
171617906	EZEZAGUNA*	Eskualduna	24.09.05
171619401	GOÑI Julian	Zeruko Argia	29.12
171621603	A. Z`tar D`ri, idaztiyak	Gipuzkoarra	10.12.03

Kodea	Idazlea	Idazlana	Urtea
171621604	EZEZAGUNA*	Gipuzkoarra	11.04.15
171622801	LARREGI Joxe Mari?	La Cruz	32.07.03
210320171	KEREXETA Jaime	Euzko Gogoa V	1954
210340004	KEREXETA Jaime	Euzko Gogoa	1956...
210640014	ONAINDIA Santi	Larrea eta Karmeldarrak	
210650003	ZENARRUZABEITIA Fermin	Gurutzaren oñetan. Eleiz-liburua	
210650004	ONAINDIA Santi	Gure bertsolariak	
210710029	ALZOLA GEREDIAGA Nicolas BITAÑO	Egan XXIV	1965
210720060	BASTERRETXEA Jose OSKILLASO	Egan XXII	1963
210720065	ONAINDIA Santi	Olerti I-II	1968
210740008	GOIRIA Jose Antonio	Fatima`ko Ama Birjiña	
210740012	BILBAO Felix	Ipuin barreka	
210740018	SAN MARTIN Juan	Zirikadak	
210750002	GOIRIA Jose Antonio	Goi-bidez. Gogo jardunak	
210750004	ETXEBARRIA Toribio	Ibiltarixanak [prosa, 391-490]	
210810194	KEREXETA Jaime	Euzko Gogoa V	1954
211440021	KEREXETA Jaime	Salmutegia. Bizkaieraz	
220310125	ETXANIZ Nemesio	Euzko Gogoa II	1951
220310137	TORREALDAI Joan Mari	Jakin 24	1967
220310263	AGIRRE Karlos	Jaunaren Deia 15	1966
220310431	MITXELENA Salbatore	Euzko Gogoa II	1951
220310721	ZUMALABE	Aránzazu XLIV	1965
220320007	ALTUBE Seber	Euskera V	1960
220320037	ARISTIZABAL T.	Munibe XII	1960
220320056	BARANDIARAN Jose Miguel	Egan 5-6	1956
220320151	GARRIGA Gabino	BIAEV VI...	1955
220320172	IBINAGABEITIA Andima Zaitegi,	Euzko Gogoa V...	1954
220320334	ZAITEGI Iokin	Euzko Gogoa I	1950
220320344	ZAITEGI Iokin	Euzko Gogoa VI	1955
220320346	ZAITEGI Iokin	Euzko Gogoa VI	1955
220320384	EIZMENDI Iñaki BASARRI	Aránzazu XLIII	1963
220330005	BARANDIARAN Jose Miguel	Euzko Gogoa V	1954
220330009	GARMENDIA Jon ZELETA	Euzko Gogoa VII	1957
220330012	ITURRIA Karmelo	Euzko Gogoa VII	1956
220330016	MIRANDE Jon	Euzko Gogoa II	1951
220330032	LABAYEN Antonio Maria	Egan XXV	1966
220620571	AZURMENDI Juan	PPC Liburuxkak, 10	
220630060	EZEZAGUNA* Euskeraren berri onak (sarrera)		
220630064	"BENEDITAR GAZTEK" Goazen Lourdes`a		
220630067	IRAETA Francisco	Jaungoiko-zale izateko Bidea. I. laurdena	
220630069	LARRAUL Bernabe	Kortona`ko Margarita Deunaren Bizitza	
220630071	BERGARA J.M.	Loyola`ko etxe-santua	
220630074	ETXANIZ Nemesio	Nola idatzi euskeraz?	
220640081	OÑATIBIA Manuel	Baserria diru-bidean	
220640091	EZEZAGUNA*	Izar baten dirdira. Jesus`en Kandida Amaren bizitza	
220650002	MITXELENA Salbatore	Ama-semeak Arantzazuko kondairan	
220720208	SORARRAIN Andoni	Euzko Gogoa V	1954
220730004	IBINAGABEITIA Andima	Euzko Gogoa V	1954
220730025	UGALDE Martin	Iltzaileak	
220740005	ARESTI Gabriel	Egan XXIV	1965
220740007	AZPEITIA Julene	Amandriaren altzoan	
220740015	"DONOSTI`KO APAIZ"	Gure mixioak	
220740031	ELIZEGI M.	Pello Errotaren Bizitza. Bere alabak kontatua	
220740031	ZAVALA Antonio	Pello Errotaren Bizitza. Bere alabak kontatua	
220750001	BARANDIARAN BALANZATEGUI Salvador	Iliada euzkeraz	
220750002	ORMAETXEA Nikolas ORIXE	Agustin Gurenaren aitorkizunak	
220750004	IRAOLA B.	Elurra eta sua	

Kodea	Idazlea	Idazlana	Urtea
220750005	ETXAIDE Jon	Gorrotoa Lege	
220750091	MANZISIDOR I.	Santu bizitzak. III. Egunean egunekoa	
220810398	ETXANIZ Nemesio	Egan, 1-4	1953
220920008	LABAYEN Antonio Maria	Egan XXIII	1967
220920009	LABAYEN Antonio Maria	Egan XXVI	1967
220920013	ETXANIZ Nemesio	Lur berri-billa [antzerkia]	
220920015	LABAYEN Antonio Maria	Olerti I-II	1963
220930002	ZAITEGI Iokin	Egan XXII	1963
220930023	ARESTI	Egan XX	1962
220940038	LABAYEN Antonio Maria	Euzko Gogoa VI	1955
220940042	ALZAGA Toribio	Burruntziya [ber.]	
221430047	"BENEDITARRAK"	Aste Santua	
221450011	ORMAETXEA Nikolas ORIXE	Urte guziko Meza-Bezperak	
240310062	DIHARCE Jean Marie IRATZEDER	Euzko Gogoa I	1950
240310130	SALABERRY Etienne	Euzko Gogoa VII	1956
240310203	EZEZAGUNA*	Othoizlari 19	1959
240310251	IRIGARAI Angel	Leen Peredikia, in: IZETA, M.: Dirua galgarri, 9-13	
240320260	DASSANCE Louis	Gure Herria XXIV	1952
240320292	LARZABAL Pierre	Gure Herria XXX	1958
240320311	DIHARCE Jean Marie IRATZEDER	Euskera VII	1962
240330001	XARRITTON Piarres	Aintzina III	1942
240330003	MIRANDE Jon	Euzko Gogoa V	1954
240620352	SATRUSTEGI Jose Mari	Luzaide`ko kantiak [sarrera]	
240630010	SALABERRY Etienne	Henri Bergson	
240640019	SOUBELET Dominique	Petain Marechala	
240710029	DUFAU Dominique	Gernika 12	1950
240710030	DUFAU Dominique	Gernika 13	1950
240710039	ERDOZAINCY ETCHART Arnaud	Gure Herria XXXI	1959
240710057	MOULIER Jules	Gure Herria XXIV	1952
240710064	AROTZARENA Sauveur ZEPHURU	Gure Herria XXV	1953
240710068	ARIZTIA Mayi	Gure Herria XXXIII	1961
240730001	ARIZTIA Mayi	Gure Herria XXII...	1950,
240740012	ORMAETXEA Nikolas ORIXE	Benito Santua. Bizitza eta erregela	
240740018	ETCHEPARE Jean	Mendekoste gereziak eta beste	
240810350	ZARRANZ BERMEJO Agustin	Euzko Gogoa V	1954
240920010	LAFITTE Pierre	Gure Herria XXV	1955
241220467	"DENA DEN"	Gure Herria XXX	1958
270320009	EUSKALTZAINDIA	Euskera XIII	1968
271310043	BARANDIARAN Jose Miguel	Eusko Jakintza IV	1950
271340044	AZKUE Resurrección María	Euskalerriaren Yakintza. I.	
310310060	ZUBIKARAI Agustin	Saski-naski 16	1981
310310066	ONAINDIA Santi	Saski-naski 10	1980
310310132	"MAITE"	Karmel 122	1970
310310254	ONAINDIA Santi	Karmel 134	1975
310310320	ONAINDIA Santi	Karmel 155	1979
310320480	AURRE-APRAIZ Balendin	Saski-naski 36	1987
310320489	EZEZAGUNA*	Karmel 125	1971
310320490	BARRENETXEA Nikolas ITARKA	Karmel 125	1971
310320525	"ITURRIKO" ITURRIKO	Karmel 154	1979
310320537	ETXEBARRIA Jose Mari	Karmel 163	1981
310320694	AKESOLO Lino	Karmel 187	1988
310520006	IRAOLAGOITIA Joan Mari	Natura arakatzen. 3. 2. Nerbio-sistema.	
310530018	GARITAONAINDIA Jesus	Bizi... au bai poza!, 5. Erlijio eziketa arloa.	
310530019	LEGARRETA BILBAO Josu	Marrazki eta eskulanak. O.E.O.ko 1. mailla.	
310530019	LEGARRETA MARCAIDA Rosa Maria	Marrazki eta eskulanak. O.E.O.ko 1.	
310530028	ETXEBARRIA AIESTA Ramon	Pausoka. 4-5. Irakurgaiak	

Kodea	Idazlea	Idazlana	Urtea
310540032	ZUBIAGA Felix	Pinto. 2-3. mailletarako irakurgaia	
310540040	ARTARAZ J.	Kuxkux 3B	
310620565	ONAINDIA Santi	Olerti 160-166	1980
310630008	EZEZAGUNA*	Oñati. Corpus eguna	1986
310630009	PUJANA	Autortu... Zer dela-ta?	
310630012	ONAINDIA Santi	Sarrera-oharrak", in: Enbeita, K.: Gure urretxindorra	
310630013	BARAIAZARRA Luis	Salbabide ta laguntza. Leenengo laguntasunak ezbear	
310640015	LETONA S.	Angosto`ko Ama Birjiña / La Virgen de Angosto	
310640019	ONAINDIA Santi	Euskaldunak eta osasuna	
310640022	ONAINDIA Santi	Gernika	
310640025	ELORRIETA Teresio	Mendatako profeta	
310640026	"ELIZBARRUTIETAKO"	Jesusen jarraitzaile alkarte barruan.	
310640043	TRADUCCIONES ALGORTA	Bizkaiko herri iturriak	
310640045	ZUBIKARAI Agustin	Itxas-aize	
310710021	ZUBIRI Iñaki	Saski-naski 28	1985
310740002	ZUBIKARAI Agustin	Bale denborak	
310740003	ZUBIKARAI Agustin	Bizitzako urratsak. Gure giroetako eleberria	
310740004	ZUBIKARAI Agustin	Boga ta Zixe. Ondarrutarkeriak	
310740005	REKALDE S.T.	Deunor, euskal artzaiak Ipar Ameriketan	
310740006	ZUBIKARAI Agustin	Esan eta esango	
310740007	ZUBIAGA Felix	Espedientea	
310740008	BEOBIDE Jose Luis	Euskalerriko ipuiñak	
310740009	ZUBIRI Iñaki	Galdu.Txakur baten gora-beerak	
310740010	KEREXETA Jaime	Gernika`ko beste arbola	
310740012	ZARATE Mikel	Ipuin antzeko alegi mingotsak	
310740016	GOIRIA Jose Antonio	Kristoren Eliza	
310740017	ONAINDIA Santi	Lamiñak	
310740025	ALZOLA GEREDIAGA Nicolas BITAÑO	Bigarren atalak	
310740030	BASTERRETXEA Jose OSKILLASO	Gabeko atorra	
310740033	ZUBIRI Iñaki	Morroia	
310750001	GERENABARRENA Andoni	Azkatasunaren yarrai	
310750004	ONAINDIA Santi	Odisea	
310750005	OTAZUA ASUA Benito	Andersen`en ipuiñak	
310750006	ZUBIRI Iñaki Izadiko	Pitxiak	
310930003	ZUBIKARAI Agustin	Egan XXX	1970
310940007	ONAINDIA Santi	25 antzerki labur	
310950012	LARRAKOETXEA B.	W. Shakespeareren antzerki guzti-guztiak	
311220252	ERKIAGA Eusebio	Arpeko Mari	
311240022	BASTERRETXEA Jose OSKILLASO	David Copperfield	
311340024	ARRIZABALAGA Juan Joxe	Markiña zarra kontu kontari	
320310165	ARZALLUS Joxe Mari	Saski-naski 16	1981
320310170	GOROSPE Mikel	Saski-naski 15	1981
320310179	ARANA Jose	Saski-naski 14	1981
320310384	ZUBIZARRETA	Karmel 123	1970
320310390	GARMENDIA Karmel	Karmel 125	1971
320310600	AKESOLO Lino	Karmel 159	1980
320320019	AKESOLO Lino	Euskera XVII	1972
320320033	BERRONDO Pedro	Kardaberaz Bazkuna I	1972
320320096	ZAVALA Antonio	"Itzaurrea", in: Nork bere bidea	
320320162	ZAVALA Antonio	"Oharrak", in: Afrika`ko gerra.	
320320200	BERGARETXE J.J.	Saski-naski 19	1981
320320245	ARRINDA Anes	Saski-naski 33	1987
320320261	EZEZAGUNA*	Jaunaren Deia, 27-28	1969
320320288	ONAINDIA Santi	Karmel 59-65	1976
320320293	AKESOLO Lino	Karmel 155	1979

Kodea	Idazlea	Idazlana	Urtea
320320384	ETXABURU J.M. KAMIÑAZPI	Euskera XXV	1981
320330009	LEKUONA Manuel Aita	Egan XXXIV	1974
320330029	ZAVALA Antonio	"Sarrera eta Oharrak", in: Pastor Izuela (1780-1837).	
320510002	LEGARRETA BILBAO Josu	Marrazki eta Eskulanak. OEOko 2. maila	
320510002	LEGARRETA MARCAIDA R. M.	Marrazki eta Eskulanak. OEOko 2. maila	
320520005	HAURREN IDAZKARITZA	Jesusen jarraitzaile. Haurraren kuadernoa. 6	
320520006	HAURREN IDAZKARITZA	Jesusen jarraitzaile. Haurraren koadernoa. 5	
320520009	ZUBIKARAI Agustin	Marrazki eta Eskulanak. OEOko 5. mailla	
320530018	GOIKOETXEA Iñaki	Giza soiña	
320530024	DORRONSORO Joakin	Zenbaki-arloa. 2. OEOko 2. maila	
320540025	ONAINDIA Santi	Erlijio eziketa arloa. Lanerako liburua. OEOko 4. maila	
320540025	REMENTERIA Jose Mari	Erlijio eziketa arloa. Lanerako liburua. OEOko 4.	
320540026	DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO IDAZK	Kristau-ikasbidea. 4	
320540027	ALBISU A.	Kosmos. 3	
320540031	ZUBIAGA Felix	Pinto. 1-2. mailletarako irakurgaia	
320620335	ZAVALA Antonio	"Sarrera", in: Errikotxia, Itxaspe eta beste zenbait bertsolari	
320620348	ZAVALA Antonio	"Hitzaurrea", in: Franzisko Iturzaeta bertsolaria	
320620350	EGIA REZOLA Luis	Mariaren bidez Jesusengana	
320620366	AGIRRE Joxe	Baratza. 5. Fruitua jaten zaien barazkiak	
320620367	AGIRRE Joxe	Baratza. 6. Erroa eta burua jaten zaien barazkiak	
320630040	GARMENDIA Demetrio	Arantzazu	
320630046	SAN SEBASTIAN Jose Mari LATXAGA	Errioxa`ko San Millan	
320630051	GARMENDIA LARRAÑAGA Juan	Euskal esku-langintza	
320630053	EGIA REZOLA Luis	Euskalerria. I	
320630056	ELUSTONDO A.	Gaztedi berria!	
320630060	BERGARETXE Jose	Izakera ta jazkera. I.	
320630060	ESTORNES LASA Bernardo	Izakera ta jazkera. I.	
320630070	ARRINDA Anastasio	Semeno de Lazkano. Anai-arteko gorroto	
320640008	ARAMBARRI ETXANIZ Simón	Eraikintza-Zinzelkaritza-Margolaritza	
320640014	GARMENDIA LARRAÑAGA Juan	Bidasoaldeko eskulangilleak.	
320640016	BOZAS-URRUTIA Rodolfo	Errenteria kondairan eta Ipuin-zaharretan	
320640018	ARRINDA Anastasio	Euskalerri zaarra	
320640023	IRIARTE Jose Luis	Gure erri-joku nagusiak	
320640025	SAN SEBASTIAN Jose Mari LATXAGA	Jaka`ra oñez Naparroa`n zear	
320640029	GAZTAÑAGA Jesus	Mendiak.	
320640036	SAN SEBASTIAN Jose Mari LATXAGA	Naparroa, euskal arrobia	
320650002	LEKUONA Juan	Barandiaran-dar Jose Migel.	
320650007	ONAINDIA Santi	Euskal literatura. I	
320650008	ONAINDIA Santi	Euskal literatura. II. XIX mendea	
320650009	ONAINDIA Santi	Euskal literatura. IV. 1910-1935	
320650011	URRESTARAZU Andoni	Euzkal-betekizunak	
320650012	ARRINDA Anastasio	Euskalerria eta eriotza	
320650015	LATIEGI Bixente	San Iñazioren denborako eliza	
320650018	IAKAKORTEXARENA Txomin	Erlezaintza. I. Idazti-alea	
320720119	EGAÑA Gotzon	Saski-naski 9	1980
320730003	AZPEITIA Julene	Egan XXIX	1969
320730009	LATIEGI Bixente	Saski-naski 10	1980
320730012	EIZMENDI Iñaki BASARRI	Andoain`go erriak Lekuona`tar...	1977
320730012	GOÑI Joseba	Andoain`go erriak Lekuona`tar...	1977
320730012	SETIEN Jose Maria	Andoain`go erriak Lekuona`tar...	1977
320730013	BEGIRIZTAIN Iñaki	Saski-naski 6	1980
320730014	BEGIRIZTAIN Iñaki	Saski-naski 1	1980
320730015	ALBISU AYERDI A.	Amezketa`ko Fernando	
320730016	ZAPIRAIN Salbador ATAÑO	Eltzaorra	